TXOSTENA

26

# EUSKADIKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN EGOERARI BURUZKO ZIFRAK

2010

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

# EUSKADIKO
# EMAKUMEEN ETA
# GIZONEN
# EGOERARI
# BURUZKO ZIFRAK
# 2010

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Gasteiz 2011

| | |
|---|---|
| **IZENBURUA (lan osoa):** | "Berdintasunerako politiken ebaluazioa eta emakumeei eta gizonei buruzko zifrak EAEn" |
| **IZENBURUA (4. tomoa):** | "Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak 2010" |
| **EDITOREA ETA EGILEA:** | EMAKUNDE - Emakumearen Euskal Erakundea. Manuel Iradier, 36. 01005 Gasteiz |
| **TALDE TEKNIKOA:** | Ainhoa Novo Arbona, Eva Martínez Hernández, Jaione Almirante, Dorleta Peña: Genero-azterketarako taldea. EHUko Politika eta Administrazio Zientzia Saila |
| **MAKETAZIOA ETA JARRAIPENA:** | ARRIN. Komunikazioa eta Diseinua |
| **DISEINU GRAFIKOA:** | Ana Badiola, Isabel Madinabeitia eta Ana Rincón |
| **DATA:** | 2011eko azaroa |
| **DESKRIBATZAILEAK (lan osoa):** | Berdintasunerako politikak, herri administrazioa, autonomia erkidegoetako araudia, ekintza planen ebaluazioa, aukera berdintasuna, emakumearen gizarte-egoera, datu estatistikoak, jarduera txostenak |
| **DESKRIBATZAILEAK (4. tomoa):** | Emakumearen gizarte-egoera, demografía, hezkuntza, laneko parte hartzea, osasuna, aisia, parte hartze politikoa, pobrezia, emakumearen aurkako indarkeria, datu estatistikoak |
| **ALE-KOPURUA:** | 500 |
| **INPRIMAKETA:** | SACAL |
| **ISBN (lan osoa):** | 84-89630-33-X 978-84-89630-33-8 |
| **ISBN (4. tomoa):** | 84-89630-34-8 978-84-89630-34-5 |
| **L.G.:** | VI 737-2011 |

# AURKIBIDEA


AURKEZPENA ........ 7

SARRERA ........ 11

1. PANORAMIKA DEMOGRAFIKOA ........ 15

- 1.1. Biztanleriari buruzko datu orokorrak ........ 17
- 1.2. Ezkontzak ........ 25
- 1.3. Jaiotzak ........ 32
- 1.4. Heriotzak ........ 36

2. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ETA BALIO-ALDAKETA: BALIABIDE EKONOMIKOAK ESKURATZEA ETA KONTROLATZEA ........ 39

- 2.1. Lan produktiboa ........ 41
  - 2.1.1. Datu orokorrak ........ 41
  - 2.1.2. Biztanleria aktiboa ........ 49
  - 2.1.3. Biztanleria langabea ........ 67
- 2.2. Autonomia ekonomikoa ........ 71
- 2.3. Pobrezia eta gizarte-bazterketa ........ 80

3. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ETA BALIO-ALDAKETA: GIZARTE-BALIABIDEEN ESKURAGARRITASUNA ETA KONTROLA ........ 87

- 3.1. Hezkuntza ........ 89
- 3.2. Osasuna ........ 106
  - 3.2.1. Osasun-egoera: norberari buruzko pertzepzioa ........ 107
  - 3.2.2. Osasun-baliabideen erabilera ........ 108
  - 3.2.3. Ospitalizazioari buruzko adierazleak ........ 111
  - 3.2.4. Osasuneko arriskuak ........ 116
  - 3.2.5. Bereziki emakumezkoei eragiten dieten gaixotasunen prebentzioa ........ 119
  - 3.2.6. Ugalkortasun-osasuna eta erabakiak hartzea ........ 121
- 3.3. Gizarte-zerbitzuak ........ 131

4. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ETA BALIO-ALDAKETA: PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA ETA ERAGINA ........ 135

- 4.1. Parte-hartzea erakundeetan ........ 137
- 4.2. Parte-hartzea beste erabaki-organo batzuetan ........ 141

5. GUZTION ERANTZUKIZUNEAN OINARRITUTAKO GIZARTE-ANTOLAMENDUA ........ 143

- 5.1. Guztion erantzukizuna eta denboraren erabilera aldatzea ........ 145
- 5.2. Guztion erantzukizuna oinarri hartuta bateratzea ........ 160

6. **EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA** ........ 165

**6.1.** Tratu txarren biktima diren emakumeak ........ 167
**6.2.** Emakumeen aurkako indarkeriaren ondorioak ........ 170
**6.3.** Sexu-askatasunaren aurkako delituak ........ 174

# A

# AURKEZPENA



Argitalpen honek lau liburuki ditu: berdintasunerako politika publikoen hiru ebaluazio-txosten eta Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko txosten bat. Gure ustez, politika publikoak ebaluatzea funtsezkoa da, aurrera egingo badugu haiek garatzen eta, batez ere, haiek gizartean duten eragina hobetzen, eta kasu zehatz honetan, gizarte berdinzaleago bat sortzeko eragina areagotzen.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen lehen xedapen gehigarrian ezartzen denaren arabera, Emakunderi atxikiriko Erakundearteko Batzordeak Legearen betetze, garapen eta aplikazioari buruzko jarraipena egin behar du, bost urtean behin.

Argitalpen honetan, 2010. urtean egindako ebaluazioa aurkezten da, eta horrekin ematen zaio amaiera 2005ean hasitako ziklo bati (urte horretan hasierako ebaluazioa egin zen, eta 2008an, tartekoa). Ebaluazio horren helburua da, hain zuzen ere, Legean ezarritako neurriak ezartzeko prozesuan zehar nahikoa elementu izatea, erkaketak egin ahal izateko.

Legearen ebaluazioarekin batera, botere publikoek Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana gauzatzeari buruzko memoria aurkezten dugu. IV. Plana -legea aldarrikatu ondorengo lehena- dokumentu bat da, non lehentasunak ezartzen diren eta helburuak eta estrategiak zehazten, araua ezartzen aurrera egin ahal izateko. Planaren ebaluazioa, beraz, Legearen beraren ebaluazioaren osagarria da.

Aurretik egindako neurketak osatzeko, azterketa kualitatibo bat ere egin da, eta horren bitartez baloratu da zein faktorek sustatzen eta/edo oztopatzen duen toki administrazioetan berdintasun-politiken garapena, eta nolako balioa ematen zaien tresna jakin batzuei -Legeari, berdintasun-planei eta prestakuntzari, besteak beste-, makumeen eta gizonen berdintasunerako politiken kapital soziala (esan nahi baita jakintza, jarrera proaktiboa, harremanak, sareak, etab.) sortzerakoan.

Azkenik, emakume eta gizonen egoerari buruz Emakundek urtero egiten duten txostenean, garrantziaren arabera hautaturiko datu batzuk jasotzen dira, gure gizartean emakumeen eta gizonean artean dauden desberdintasunen eta desberdintasunak zuzentzean egindako aurrerabideen eta aurkitutako oztopoen erakusgarri.

Argitalpen honetan elkarrekin aurkezten ditugun lau azterlanei esker, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiken inguruan Euskal Administrazio Publikoak izan dituen azken joeren argazki global bat egin dezakegu.

Emakunderen nahia da argitalpen hauek hausnarketarako tresna izatea, eta bide-erakusle, bihar-etziko berdintasun-politikak planifikatzerakoan.

Eskerrik asko



María Silvestre Cabrera

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria

S

SARRERA

*Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak 2010* txostenean, zenbait adierazle biltzen dira, euskal gizartean emakumeak eta gizonak zer egoeratan dauden azaltzeko. Txosten hau urtero egiten da, otsailaren 5eko 2/1988 Legearen 4. artikuluan, Emakumearen Euskal Erakundea sortarazteari buruzkoa, ezarritakoari jarraiki; bai eta otsailaren 18ko 4/2005 Legean, Emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa, jasotakoa betez. Izan ere, adierazle horien bidez jakin dezakegu zer alde dauden roletan, egoeretan, baldintzetan eta beharretan emakumeen eta gizonen artean, eta hainbat eremutan. Horrela, bada, txosten honen xede nagusia da garrantziaren arabera hautatutako datu-multzoak administrazio publikoen esku jartzea, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunei buruzko panoramika eskaintzeko, eta hartara, programa publikoak diseinatzea eta planifikatzea errazteko.

Txosten honek bi berritasun dauzka: erreferentzia-urtea eta aztertzeko eremuen ordena. Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko lehen txostenetik gaur egunera arte, izenburuko urteak diagnostikoaren beraren denbora-tarteari egin dio erreferentzia. Nolanahi ere, nahiz eta izan bai urtero argitaratzen den adierazle-multzo bat, azterketa estatistiko asko hiru edo bost urtetik behinekoak dira, eta landa-lana urtebetera argitaratzen da, kasurik onenetan. Era horretara, nahiz eta txostenaren zati handiena urte jakin batekoa izan, kontuan hartzeko moduko adierazle-multzo batek aurreko urteei egiten zion erreferentzia. Txosten honen urteak ez dio erreferentzia egiten diagnostikatutako urteari, bildutako datuak lantzen emandako urteari baizik. Beraz, denbora-tarte horretarako, 2010erako, argitaratutako azken datuak biltzen ditu.

Azterketa honen bigarren berritasuna aztertzeko eremuen ordena da. Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko txostenak arlo hauetan ordenatu dira: biztanleria, hezkuntza, lana, osasuna, gizarteratzea, parte-hartzea, indarkeria… Dena den, aurtengo txostenean uztartu egin dira ohiko adierazle-sistemaren ordena, alde batetik, eta bestetik, berriz, IX. Legealdirako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planean, 2010eko ekainean onartua, bildutako neurrien arloz arloko antolaketa. Era horretara, arlo nagusi hauek biltzen dira: panoramika demografikoa, emakumeak ahalduntzea eta balio-aldaketa hiru alderditan, baliabide ekonomikoak eskuratzea eta kontrolatzea, gizarte-baliabideak eskuratzea eta kontrolatzea, eta parte-hartze soziopolitikoa eta eragina, gizarte-antolaketa erantzukidea eta emakumeen aurkako indarkeria.

Bigarren mailako erakunde-iturriak, hala nola autonomia-erkidegokoak, Estatukoak eta Europakoak, dira txosten honen oinarriak; estatistikak egiten espezializatuta dauden erakundeak, bereziki. Txostena egiteko erabili dugun metodologia aurreko urteetako adierazle nagusiak eguneratzean oinarritzen da, bilakaera nolakoa izan den erakusteko; baina, aldi berean, arlo bakoitzeko adierazle garrantzitsu berriak erantsi ditugu.

# 1
# PANORAMIKA DEMOGRAFIKOA

## BIZTANLERIARI BURUZKO DATU OROKORRAK 1.1

2009ko datuei jarraiki, 2.172.175 biztanle daude guztira Euskal Autonomia Erkidegoan. Horietatik, 1.109.763 emakumeak dira, biztanleriaren % 51,1; eta gizonak, berriz, % 48,9. Joera hori hiru lurralde historikoetan ageri da. Horietan guztietan, biztanleria orekatuta dago sexuari dagokionez.

### 1.1. TAULA. EAEko biztanleria, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera. 2009

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| Araba | 313.819 | 157.401 | 50,2 | 156.418 | 49,8 |
| Gipuzkoa | 705.698 | 358.878 | 50,9 | 346.820 | 49,1 |
| Bizkaia | 1.152.658 | 593.484 | 51,5 | 559.174 | 48,5 |
| EAE | 2.172.175 | 1.109.763 | 51,1 | 1.062.412 | 48,9 |

*Iturria*: EIN. Udal-errolda.

EAEko biztanleriak azken hamahiru urteotan izandako bilakaera gorakorrak erakusten du emakumeen pisu demografikoa eta gizonena berdintsua izan dela beti, % 51 inguru emakumeak eta % 49 inguru gizonak.

### 1.2. TAULA. EAEko biztanleriaren bilakaera, sexuaren arabera. 1996-2009

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| 2009 | 2.172.175 | 1.109.763 | 51,1 | 1.062.412 | 48,9 |
| 2007 | 2.141.860 | 1.095.065 | 51,1 | 1.046.795 | 48,9 |
| 2005 | 2.124.846 | 1.084.321 | 51,0 | 1.040.525 | 49,0 |
| 2003 | 2.112.204 | 1.077.878 | 51,0 | 1.034.326 | 49,0 |
| 2001 | 2.101.478 | 1.073.086 | 51,1 | 1.028.392 | 48,9 |
| 1999 | 2.100.441 | 1.072.295 | 51,1 | 1.028.146 | 48,9 |
| 1996 | 2.098.055 | 1.070.941 | 51,0 | 1.027.114 | 49,0 |

*Iturria*: EIN. Udal-errolda.

Adin-taldeen arabera, EAEko emakumeen proportzioa gizonena baino txikiagoa da 45 urtera bitartean, eta adin horretatik aurrera, joera kontrakoa da: zenbat eta urte gehiago, orduan eta emakume-proportzio handiagoa. Distantzia hazi egiten da 65 urtetik aurrera. Adin horretan, emakumeak dira biztanleriaren % 58,3, eta gizonak, berriz, % 41,7.

## 1.3. TAULA. EAEko biztanleria, adin-taldearen eta sexuaren arabera. 2009

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| GUZTIRA | 2.172.175 | 1.109.763 | 51,1 | 1.062.412 | 48,9 |
| 0-15 urte | 298.513 | 145.192 | 48,6 | 153.321 | 51,4 |
| 16-44 urte | 866.936 | 422.063 | 48,7 | 444.873 | 51,3 |
| 45-64 urte | 597.189 | 303.739 | 50,9 | 293.450 | 49,1 |
| 65 urte eta + | 409.537 | 238.769 | 58,3 | 170.768 | 41,7 |

*Iturria*: EIN. Erroldaren ustiaketa estatistikoa.

Lurralde historikoaren arabera, 313.819 pertsona bizi dira Araban; 705.698, Gipuzkoan; eta 1.152.658, Bizkaian. Eta adin-taldeen araberako sexuen proportzioari dagokionez, EAEko biztanleriaren joerari jarraitzen diote.

## 1.4. TAULA. Biztanleria, adin-taldeen, sexuaren eta lurralde historikoaren arabera. 2009

| | ARABA | | | GIPUZKOA | | | BIZKAIA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | % E | % G | GUZTIRA | % E | % G | GUZTIRA | % E | % G |
| GUZTIRA | 313.819 | 50,2 | 49,8 | 705.698 | 50,9 | 49,1 | 1.152.658 | 51,5 | 48,5 |
| 0-15 | 43.792 | 49,0 | 51,0 | 103.022 | 48,5 | 51,5 | 151.699 | 48,6 | 51,4 |
| 16-44 | 131.383 | 48,1 | 51,9 | 277.650 | 48,4 | 51,6 | 457.903 | 49,0 | 51,0 |
| 45-64 | 85.344 | 50,3 | 49,7 | 193.415 | 50,4 | 49,6 | 318.430 | 51,3 | 48,7 |
| 65 eta + | 53.300 | 55,9 | 44,1 | 131.611 | 58,5 | 41,5 | 224.626 | 58,8 | 41,2 |

*Iturria*: EIN. Erroldaren ustiaketa estatistikoa.

Estatuko autonomia-erkidegoetako biztanleak adin-taldeka aztertuz gero, EAErentzat aipatutako joera orokorrari eusten zaio. Beraz, emakumeen proportzioa gizonena baino txikiagoa da 45 urtera arte; 45 urtetik 64 urtera artean, oreka handiagoa da ia kasu guztietan; eta 65 urtetik aurrera, joera kontrakoa da, emakumeen proportzioa gizonena baino handiagoa da autonomia-erkidego guztietan.

**1.5. TAULA.** Biztanleria, autonomia-erkidegoaren, adin-taldearen eta sexuaren arabera. 2009

| | GUZTIRA | % E | % G | | GUZTIRA | % E | % G |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ANDALUZIA | | | | ARAGOI | | | |
| GUZTIRA | 8.302.923 | 50,5 | 49,5 | GUZTIRA | 1.345.473 | 49,9 | 50,1 |
| 0-15 | 1.443.837 | 48,5 | 51,5 | 0-15 | 191.042 | 48,5 | 51,5 |
| 16-44 | 3.690.925 | 48,9 | 51,1 | 16-44 | 554.146 | 47,4 | 52,6 |
| 45-64 | 1.943.366 | 50,5 | 49,5 | 45-64 | 336.275 | 49,5 | 50,5 |
| 65 eta + | 1.224.795 | 57,3 | 42,7 | 65 eta + | 264.010 | 56,8 | 43,2 |
| ASTURIAS | | | | BALEARRAK | | | |
| GUZTIRA | 1.085.289 | 52,0 | 48,0 | GUZTIRA | 1.095.426 | 49,7 | 50,3 |
| 0-15 | 119.118 | 48,7 | 51,3 | 0-15 | 175.300 | 48,4 | 51,6 |
| 16-44 | 416.738 | 49,3 | 50,7 | 16-44 | 505.624 | 48,2 | 51,8 |
| 45-64 | 312.373 | 51,4 | 48,6 | 45-64 | 264.325 | 49,6 | 50,4 |
| 65 eta + | 237.060 | 59,2 | 40,8 | 65 eta + | 150.177 | 56,3 | 43,7 |
| KANARIAK | | | | KANTABRIA | | | |
| GUZTIRA | 2.103.992 | 50,0 | 50,0 | GUZTIRA | 589.235 | 51,0 | 49,0 |
| 0-15 | 333.303 | 48,7 | 51,3 | 0-15 | 80.180 | 48,4 | 51,6 |
| 16-44 | 986.766 | 49,0 | 51,0 | 16-44 | 242.772 | 48,9 | 51,1 |
| 45-64 | 511.010 | 49,7 | 50,3 | 45-64 | 158.114 | 50,4 | 49,6 |
| 65 eta + | 272.913 | 55,4 | 44,6 | 65 eta + | 108.169 | 58,5 | 41,5 |
| GAZTELA ETA LEON | | | | GAZTELA-MANTXA | | | |
| GUZTIRA | 2.563.521 | 50,4 | 49,6 | GUZTIRA | 2.081.313 | 49,5 | 50,5 |
| 0-15 | 323.074 | 48,6 | 51,4 | 0-15 | 339.162 | 48,5 | 51,5 |
| 16-44 | 996.138 | 48,3 | 51,7 | 16-44 | 909.724 | 47,5 | 52,5 |
| 45-64 | 669.990 | 48,7 | 51,3 | 45-64 | 466.811 | 48,8 | 51,2 |
| 65 eta + | 574.319 | 56,9 | 43,1 | 65 eta + | 365.616 | 56,1 | 43,9 |
| KATALUNIA | | | | VALENTZIAKO ERKIDEGOA | | | |
| GUZTIRA | 7.475.420 | 50,3 | 49,7 | GUZTIRA | 5.094.675 | 50,2 | 49,8 |
| 0-15 | 1.186.345 | 48,5 | 51,5 | 0-15 | 800.200 | 48,5 | 51,5 |
| 16-44 | 3.258.203 | 48,0 | 52,0 | 16-44 | 2.211.361 | 48,2 | 51,8 |
| 45-64 | 1.813.353 | 50,6 | 49,4 | 45-64 | 1.247.688 | 50,7 | 49,3 |
| 65 eta + | 1.217.519 | 57,9 | 42,1 | 65 eta + | 835.426 | 56,4 | 43,6 |
| EXTREMADURA | | | | GALIZIA | | | |
| GUZTIRA | 1.102.410 | 50,3 | 49,7 | GUZTIRA | 2.796.089 | 51,7 | 48,3 |
| 0-15 | 172.462 | 48,7 | 51,3 | 0-15 | 341.673 | 48,5 | 51,5 |
| 16-44 | 453.985 | 48,7 | 51,3 | 16-44 | 1.108.730 | 49,6 | 50,4 |
| 45-64 | 266.537 | 48,7 | 51,3 | 45-64 | 733.865 | 50,9 | 49,1 |
| 65 eta + | 209.426 | 57,3 | 42,7 | 65 eta + | 611.821 | 58,5 | 41,5 |
| MADRIL | | | | MURTZIA | | | |
| GUZTIRA | 6.386.932 | 51,5 | 48,5 | GUZTIRA | 1.446.520 | 49,4 | 50,6 |
| 0-15 | 1.011.680 | 48,7 | 51,3 | 0-15 | 267.108 | 48,5 | 51,5 |
| 16-44 | 2.918.203 | 49,5 | 50,5 | 16-44 | 667.188 | 47,4 | 52,6 |
| 45-64 | 1.535.702 | 52,5 | 47,5 | 45-64 | 314.768 | 50,1 | 49,9 |
| 65 eta + | 921.347 | 59,4 | 40,6 | 65 eta + | 197.456 | 56,5 | 43,5 |
| NAFARROA | | | | ERRIOXA | | | |
| GUZTIRA | 630.578 | 50,0 | 50,0 | GUZTIRA | 321.702 | 49,6 | 50,4 |
| 0-15 | 100.283 | 48,8 | 51,2 | 0-15 | 48.133 | 49,1 | 50,9 |
| 16-44 | 264.413 | 47,9 | 52,1 | 16-44 | 135.917 | 47,3 | 52,7 |
| 45-64 | 157.049 | 49,2 | 50,8 | 45-64 | 79.665 | 48,7 | 51,3 |
| 65 eta + | 108.833 | 57,1 | 42,9 | 65 eta + | 57.987 | 56,6 | 43,4 |
| CEUTA | | | | MELILLA | | | |
| GUZTIRA | 78.674 | 49,0 | 51,0 | GUZTIRA | 73.460 | 49,3 | 50,7 |
| 0-15 | 17.194 | 49,4 | 50,6 | 0-15 | 17.341 | 48,5 | 51,5 |
| 16-44 | 35.076 | 47,6 | 52,4 | 16-44 | 32.616 | 48,6 | 51,4 |
| 45-64 | 17.620 | 47,7 | 52,3 | 45-64 | 15.794 | 47,0 | 53,0 |
| 65 eta + | 8.784 | 56,6 | 43,4 | 65 eta + | 7.709 | 58,7 | 41,3 |

*Iturria*: EIN. Erroldaren ustiaketa estatistikoa.

Biztanleriaren aldakuntza-tasak hazkunde begetatiboa nolakoa izan den adierazten du; hau da, epealdi jakin batean, jaiotza-kopuruaren eta heriotza-kopuruaren arteko aldea. EAEren kasuan, 2009 urteari buruzko datuek erakusten dute biztanleria 1.614 pertsona hazi zela. Biztanleria Gipuzkoan handitu zen gehien, 991 pertsona, eta Araban jarraian, 810 pertsona. Bizkaian, hazkunde begetatiboa negatiboa izan zen 2009an.

## 1.6. TAULA. EAEko biztanleria, aldakuntza-tasaren arabera. 2009

| | JAIOTZAK | | | HERIOTZAK | | | HAZKUNDE BEGETATIBOA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | % NESKAK | % MUTILAK | GUZTIRA | % E | % G | |
| Araba | 3.187 | 47,4 | 52,6 | 2.377 | 47,2 | 52,8 | 810 |
| Gipuzkoa | 7.238 | 47,4 | 52,6 | 6.247 | 48,8 | 51,2 | 991 |
| Bizkaia | 10.730 | 48,2 | 51,8 | 10.917 | 47,8 | 52,2 | -187 |
| EAE | 21.155 | 47,8 | 52,2 | 19.541 | 48,0 | 52,0 | 1.614 |

*Iturria*: EIN. Biztanleriaren mugimendu naturala.

Saldo begetatiboak 1.000 biztanleko jaiotzen eta heriotzen arteko aldea adierazten du, eta adierazle horrek EAEn izandako bilakaerak gorabehera handiak jartzen ditu agerian. 1979an, 8,37koa zen saldo positiboa, eta ikusten denez, adierazle horrek behera egin zuen pixkanaka 1999ra bitartean. Laurogeita hamarreko hamarkadan, saldo begetatiboa negatiboa izan zen, baina milurteko berria hastearekin batera, adierazleak gora egin zuen apur bat. Zehazki, balio positiboak izan zituen 2009an (0,76).

## 1.7. TAULA. EAEko saldo begetatiboaren bilakaera 1.000 biztanleko. 1979-2009

| | SALDOA |
|---|---|
| 1979 | 8,37 |
| 1984 | 3,53 |
| 1989 | 0,73 |
| 1994 | -0,72 |
| 1999 | -0,78 |
| 2004 | 0,43 |
| 2009 | 0,76 |

*Iturria*: EIN. Oinarrizko adierazle demografikoak.

Estatuko saldo begetatiboa 2,38koa da. Autonomia-erkidego gehienek saldo positiboa daukate, eta haien artean, nabarmentzekoak dira Ceuta eta Melilla autonomia-hiriak; 13,64ko eta 15,44ko saldoekin, hurrenez hurren. Saldo positiboa daukaten autonomia-erkidegoen artean, Euskadi da zerrendan azkena (0,76). Bestalde, sei autonomia-erkidegok daukate saldo negatiboa. Asturiasen kasua da muturrekoena, -4,23ko saldoa baitauka.

## 1.8. TAULA. Autonomia-erkidegoetako saldo begetatiboa 1.000 biztanleko. 2009

| | 2009 |
|---|---|
| GUZTIRA | 2,38 |
| Melilla | 15,44 |
| Ceuta | 13,64 |
| Murtzia | 5,59 |
| Madril | 5,45 |
| Balearrak | 3,70 |
| Andaluzia | 3,64 |
| Katalunia | 3,41 |
| Kanariak | 2,86 |
| Nafarroa | 2,64 |
| Valentziako Erkidegoa | 2,32 |
| Gaztela-Mantxa | 1,76 |
| Errioxa | 1,75 |
| **Euskadi** | **0,76** |
| Extremadura | -0,02 |
| Aragoi | -0,12 |
| Kantabria | -0,17 |
| Gaztela eta Leon | -2,51 |
| Galizia | -2,77 |
| Asturias | -4,23 |

*Iturria*: EIN. Oinarrizko adierazle demografikoak.

Bizi-itxaropena adierazle baliagarria da gizarte bateko pertsonen bizi-baldintzei buruz jakiteko. Gizarte garatuek bizi-baldintza onak dauzkate, eta beraz, jaiotzako bizi-itxaropena herrialde horietan da altuena. Horrek, ordea, berekin dakar biztanleria apurka-apurka zahartzea. Espainian, bizi-itxaropena 81,1 urtekoa da batez beste biztanleria osoarentzat. Madrilen dago zifra altuena (82,7). Emakumeek 85,5 urteko bizi-itxaropena daukate bertan, eta gizonek, berriz, 79,5ekoa. Euskadi ere Estatuko batez bestekoaren gainetik dago. Hemen, 85 urte dira emakumeen bizi-itxaropena, eta 78,4 urte, berriz, gizonena (6,7 urteko aldea). Emakumeen bizi-itxaropen txikiena daukan autonomia-erkidegoa Ceuta da, 82,1 urte (77 urte gizonentzat).

**1.9. TAULA.** Bizi-itxaropena jaiotzean, sexuaren eta autonomia-erkidegoaren arabera. 2008

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | GIZONAK |
|---|---|---|---|
| GUZTIRA | 81,1 | 84,3 | 78,0 |
| Madril | 82,7 | 85,5 | 79,5 |
| Nafarroa | 82,3 | 85,5 | 79,3 |
| Gaztela eta Leon | 82,1 | 85,2 | 79,1 |
| Euskadi | 81,7 | 85,0 | 78,4 |
| Kantabria | 81,5 | 84,9 | 78,1 |
| Errioxa | 81,8 | 84,8 | 78,9 |
| Galizia | 81,2 | 84,7 | 77,7 |
| Gaztela-Mantxa | 81,7 | 84,6 | 78,9 |
| Aragoi | 81,8 | 84,6 | 79,0 |
| Katalunia | 81,6 | 84,5 | 78,7 |
| Asturias | 80,5 | 84,2 | 76,8 |
| Balearrak | 81,3 | 84,1 | 78,4 |
| Melilla | 79,6 | 84,1 | 75,4 |
| Extremadura | 80,9 | 84,1 | 77,9 |
| Valentziako Erkidegoa | 80,8 | 83,7 | 77,9 |
| Kanariak | 80,2 | 83,3 | 77,1 |
| Murtzia | 80,4 | 83,1 | 77,8 |
| Andaluzia | 79,9 | 83,0 | 76,9 |
| Ceuta | 79,6 | 82,1 | 77,0 |

*Iturria*: EIN. Oinarrizko adierazle demografikoak.

Immigrazioari dagokionez, fenomeno bereizgarria gaur egun industrializatutako gizarteetan, 2009an atzerriko 132.865 pertsona zeuden erroldatuta EAEn. Haietatik % 48,1 emakumeak ziren, eta % 51,9, berriz, gizonak. EAEko atzerriko biztanle gehienak 16 eta 44 urte artekoak dira. 45 urtetik aurrera gutxitzen da atzerriko pertsonen kopurua. Oro har, atzerriko gizon-emakumeen presentzia orekatua da sexuaren arabera, adin-tarte batean izan ezik: 65 urte eta gehiago. Tarte horretan, nolabaiteko desoreka dago. Adin horretako biztanleen % 58,6 emakumeak dira.

**1.10. TAULA.** EAEko biztanle atzerritarrak, adin-taldearen eta sexuaren arabera. 2009

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| GUZTIRA | 132.865 | 63.974 | 48,1 | 68.891 | 51,9 |
| 0-15 urte | 19.653 | 9.674 | 49,2 | 9.979 | 50,8 |
| 16-44 urte | 92.969 | 43.751 | 47,1 | 49.218 | 52,9 |
| 45-64 urte | 17.897 | 9.175 | 51,3 | 8.722 | 48,7 |
| 65 urte eta + | 2.346 | 1.374 | 58,6 | 972 | 41,4 |

*Iturria*: EIN. Erroldaren ustiaketa estatistikoa.

Euskadin erroldatutako pertsona atzerritarren jatorriari buruzko datuak aztertuz gero, ikusiko dugu atzerriko biztanle gehienak Amerikatik datozela. Eta amerikar emakumeen proportzioa (% 59,4) gizonena baino handiagoa da. Dena den, horixe da emakume-kopurua gizonena baino handiagoa duen talde bakarra. Izan ere, gainerako kontinenteetatik etorritako biztanleen artean, gizonen proportzioa emakumeena baino dezente handiagoa da.

Nabarmentzekoa da Afrikatik etorritako atzerritar biztanleria: % 31,7 dira emakumeak, eta % 68,3, berriz, gizonak.

**1.11. TAULA.** EAEko biztanle atzerritarrak, jatorriko kontinentearen eta sexuaren arabera. 2009

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| Atzerritarrak GUZTIRA | 132.865 | 63.974 | 48,1 | 68.891 | 51,9 |
| Amerika | 61.597 | 36.564 | 59,4 | 25.033 | 40,6 |
| Europa | 38.952 | 16.604 | 42,6 | 22.348 | 57,4 |
| Asia | 6.898 | 2.753 | 39,9 | 4.145 | 60,1 |
| Ozeania | 108 | 43 | 39,8 | 65 | 60,2 |
| Afrika | 25.295 | 8.008 | 31,7 | 17.287 | 68,3 |
| Herrigabeak | 15 | 2 | 13,3 | 13 | 86,7 |

*Iturria*: EIN. Erroldaren ustiaketa estatistikoa.

Autonomia-erkidego guztietan erroldatutako biztanle atzerritarrak aintzat hartuta, ikusiko dugu emakumeen eta gizonen proportzioak nahiko orekatuta daudela: emakumeak % 47, eta gizonak, % 53. Aragoi, Gaztela-Mantxa, Errioxa eta Murtzia dira atzerritar emakumeen ehuneko txikiena daukatenak (% 44 baino gutxiago), eta Asturiasek bakarrik dauka emakume gehiago (% 50,4) gizon baino (% 49,6) atzerritar biztanleen artean. Euskadin, atzerritar emakumeen proportzioa Estatuko batez bestekoa baino apur bat handiagoa da, % 48,1.

**1.12. TAULA.** Biztanle atzerritarrak, autonomia-erkidegoaren eta sexuaren arabera. 2009

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| GUZTIRA | 5.648.671 | 2.656.035 | 47,0 | 2.992.636 | 53,0 |
| Asturias | 47.119 | 23.746 | 50,4 | 23.373 | 49,6 |
| Melilla | 7.597 | 3.786 | 49,8 | 3.811 | 50,2 |
| Galizia | 106.637 | 52.916 | 49,6 | 53.721 | 50,4 |
| Ceuta | 3.550 | 1.756 | 49,5 | 1.794 | 50,5 |
| Madril | 1.063.803 | 524.935 | 49,3 | 538.868 | 50,7 |
| Kanariak | 301.204 | 147.393 | 48,9 | 153.811 | 51,1 |
| Kantabria | 38.096 | 18.454 | 48,4 | 19.642 | 51,6 |
| **Euskadi** | **132.865** | **63.974** | **48,1** | **68.891** | **51,9** |
| Balearrak | 237.562 | 113.904 | 47,9 | 123.658 | 52,1 |
| Andaluzia | 675.180 | 319.707 | 47,4 | 355.473 | 52,6 |
| Valentziako Erkidegoa | 889.340 | 417.583 | 47,0 | 471.757 | 53,0 |
| Extremadura | 37.223 | 17.365 | 46,7 | 19.858 | 53,3 |
| Gaztela eta Leon | 167.641 | 77.945 | 46,5 | 89.696 | 53,5 |
| Nafarroa | 70.627 | 32.221 | 45,6 | 38.406 | 54,4 |
| Katalunia | 1.189.279 | 541.754 | 45,6 | 647.525 | 54,4 |
| Aragoi | 172.138 | 76.147 | 44,2 | 95.991 | 55,8 |
| Gaztela-Mantxa | 225.888 | 99.661 | 44,1 | 126.227 | 55,9 |
| Errioxa | 46.931 | 20.615 | 43,9 | 26.316 | 56,1 |
| Murtzia | 235.991 | 102.173 | 43,3 | 133.818 | 56,7 |

*Iturria*: EIN. Erroldaren ustiaketa estatistikoa.

Biztanleriaren datu orokorrei buruzko atal hau bukatzeko, familiaren batez besteko tamainaz argitaratutako azken datua jaso dugu. 2008an, 842.188 familia zeuden EAEn. Eta urte hartako biztanleriaren guztizkoa kontuan izanik (2.120.925 pertsona), familia bakoitza 2,5 pertsonak osatzen zuten.

## 1.13. TAULA. EAEko familien batez besteko tamaina. 2008

| | EAE |
|---|---|
| Familiak | 842.188 |
| Pertsonak | 2.120.925 |
| Familien batez besteko tamaina | 2,5 |

*Iturria*: EIN. Familiako aurrekontuen inkesta.

Autonomia-erkidegoei dagokienez, eta urte hartan bertan, 2,7 pertsonak osatzen zuten familia batez beste Estatuan. Bederatzi autonomia-erkidego daude batez besteko horren azpitik, eta Euskadi da zerrendan azkena 2,5 pertsonarekin, Asturiasen atzetik.

## 1.14. TAULA. Familien batez besteko tamaina, autonomia-erkidegoaren arabera. 2008

| | FAMILIAK | PERTSONAK | FAMILIEN BATEZ BESTEKO TAMAINA |
|---|---|---|---|
| GUZTIRA | 16.741.379 | 45.328.745 | 2,7 |
| Ceuta eta Melilla | 43.647 | 140.254 | 3,2 |
| Murtzia | 487.901 | 1.424.420 | 2,9 |
| Andaluzia | 2.826.659 | 8.071.313 | 2,9 |
| Kanariak | 730.142 | 2.053.043 | 2,8 |
| Gaztela-Mantxa | 711.231 | 1.988.098 | 2,8 |
| Kantabria | 204.161 | 569.485 | 2,8 |
| Extremadura | 387.952 | 1.072.289 | 2,8 |
| Madril | 2.249.309 | 6.215.394 | 2,8 |
| Galizia | 994.426 | 2.722.844 | 2,7 |
| Nafarroa | 228.391 | 602.752 | 2,6 |
| Valentziako Erkidegoa | 1.876.195 | 4.929.630 | 2,6 |
| Balearrak | 402.089 | 1.053.694 | 2,6 |
| Katalunia | 2.755.175 | 7.229.523 | 2,6 |
| Errioxa | 118.743 | 311.107 | 2,6 |
| Aragoi | 504.080 | 1.293.770 | 2,6 |
| Gaztela eta Leon | 964.369 | 2.477.831 | 2,6 |
| Asturias | 414.722 | 1.052.374 | 2,5 |
| **Euskadi** | **842.188** | **2.120.925** | **2,5** |

*Iturria*: EIN. Familiako aurrekontuen inkesta.

## EZKONTZAK

# 1.2

2009an, 8.745 bikote ezkondu ziren EAEn. Eta 2008ko ezkontza-tasa, hau da, ezkontza-kopurua 1.000 biztanleko, 4,2 izan zen. Euskadin ezkontza-kopuruak eta haren tasak zer bilakaera izan duten aztertuz, beherakada garbia ikusten da 1978tik 2009ra bitartean. 1978an, azken 30 urteetako tasa altuena erregistratu zen, 7,1. 1983tik aurrera, tasa hori 4,9 baino baxuagoa izan da beti.

### 1.15. TAULA. Ezkontza-kopuruen eta ezkontza-tasaren bilakaera EAEn. 1978-2008

| | EZKONTZAK | TASA |
|---|---|---|
| 1978 | 15.108 | 7,1 |
| 1983 | 10.487 | 4,9 |
| 1988 | 9.452 | 4,4 |
| 1993 | 9.581 | 4,6 |
| 1998 | 10.063 | 4,8 |
| 2003 | 10.130 | 4,8 |
| 2008 | 9.100 | 4,2 |
| 2009 | 8.745 | |

*Iturria*: Eustat. Ezkontzak.

*Oharra*: 2009ko ezkontzei buruzko datuak argitaratu gabe zeuden oraindik txosten hau idatzi zenean.

Ezkontzeko adinari dagokionez, 2008ko datuen arabera, emakumeen batez besteko adina 32,2 urte zen, eta gizonena, berriz, 34,8. Horrenbestez, ezkondutako pertsonen batez besteko adinean 2,6 urteko aldea zegoen emakumeen eta gizonen artean. Alde hori ia ez da aldatu 1978tik, baina ez da gauza bera gertatu ezkontzeko batez besteko adinarekin. Izan ere, azken hori 8 urte atzeratu da bai emakumeentzat, bai gizonentzat.

### 1.16. TAULA. Ezkondutako pertsonen batez besteko adinaren bilakaera EAEn, sexuaren arabera. 1978-2008

| | EMAZTEAK | SENARRAK | ALDEA |
|---|---|---|---|
| 2008 | 32,2 | 34,8 | 2,6 |
| 2003 | 30,8 | 33,4 | 2,6 |
| 1998 | 29,9 | 32,5 | 2,7 |
| 1993 | 28,4 | 31,1 | 2,7 |
| 1988 | 26,6 | 29,3 | 2,7 |
| 1983 | 25,7 | 28,3 | 2,6 |
| 1978 | 24,5 | 27,1 | 2,6 |

*Iturria*: EIN. Oinarrizko adierazle demografikoak.

Autonomia-erkidegoei buruzko datuei dagokienez, Euskadi Estatuko batez bestekoaren gainetik dago bai emakumeen batez besteko adinean (31,5 Espainian, 32,2 Euskadin), bai gizonenean (34,5 Espainian, 34,8 Euskadin). Ezkondutako pertsonen arteko adin-aldea, berriz, handiagoa da Espainian (3,1 urte) Euskadin baino (2,6 urte). Kanarietako emakumeak dira, batez beste, beranduen ezkontzen direnak (32,9 urterekin). Ostera, Ceutakoak ezkontzen dira azkarren (28,2 urterekin). Ceutan eta Melillan, nabarmena da senarraren eta emaztearen adinen arteko aldea; 5,3 eta 6,7 urte, hurrenez hurren.

## 1.17. TAULA. Ezkondutako pertsonen batez besteko adina, sexuaren eta autonomia--erkidegoaren arabera. 2008

| | EMAZTEAK | SENARRAK | ALDEA |
|---|---|---|---|
| GUZTIRA | 31,5 | 34,5 | 3,1 |
| Kanariak | 32,9 | 36,5 | 3,6 |
| Balearrak | 32,8 | 36,4 | 3,6 |
| Katalunia | 32,5 | 35,8 | 3,4 |
| Madril | 32,3 | 35,3 | 2,9 |
| **Euskadi** | **32,2** | **34,8** | **2,6** |
| Asturias | 31,8 | 34,8 | 3,1 |
| Errioxa | 31,8 | 34,7 | 2,9 |
| Kantabria | 31,6 | 34,7 | 3,1 |
| Gaztela eta Leon | 31,6 | 34,4 | 2,8 |
| Nafarroa | 31,6 | 34,4 | 2,8 |
| Aragoi | 31,5 | 34,3 | 2,9 |
| Galizia | 31,3 | 34,1 | 2,8 |
| Valentziako Erkidegoa | 31,1 | 34,4 | 3,3 |
| Andaluzia | 30,4 | 33,4 | 3,0 |
| Extremadura | 30,3 | 33,0 | 2,7 |
| Gaztela-Mantxa | 30,2 | 32,9 | 2,8 |
| Murtzia | 29,9 | 33,2 | 3,3 |
| Melilla | 28,4 | 35,1 | 6,7 |
| Ceuta | 28,2 | 33,6 | 5,3 |

*Iturria*: EIN. Oinarrizko adierazle demografikoak.

Ezkondutako pertsonen egoera zibila aztertuz gero, ikusiko dugu % 90etik gora ezkongabeak direla. Pertsona alargunak edo dibortziatuak gutxiengoa dira, nahiz eta azken horien ezkontza-kopuruak gora egin azken hamarkadan. Zehazki, 1996an % 4,1 ziren ezkondutako emakume dibortziatuak, eta 2008an, berriz, % 7,7. Berriro ezkontzen diren gizon dibortziatuen kasuan, kopurua % 4,7tik % 8,1era igaro zen denbora-tarte berean.

## 1.18. TAULA. Ezkondutako pertsonen bilakaera, sexuaren eta ezkondu aurretiko egoera zibilaren arabera. 1996-2008

| | EMAZTEAK | | | | SENARRAK | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | % EZKONGABEAK | % ALARGUNAK | % DIBORTZIATUAK | GUZTIRA | % EZKONGABEAK | % ALARGUNAK | % DIBORTZIATUAK |
| 1996 | 9.653 | 95,4 | 0,5 | 4,1 | 9.527 | 94,5 | 0,9 | 4,7 |
| 1998 | 10.393 | 95,2 | 0,5 | 4,3 | 10.237 | 94,1 | 0,8 | 5,1 |
| 2000 | 10.839 | 94,8 | 0,5 | 4,7 | 10.735 | 94,1 | 0,8 | 5,1 |
| 2002 | 10.327 | 94,5 | 0,4 | 5,2 | 10.258 | 93,8 | 0,7 | 5,5 |
| 2004 | 10.275 | 93,7 | 0,4 | 5,9 | 10.238 | 93,3 | 0,7 | 6,0 |
| 2006 | 9.355 | 92,5 | 0,4 | 7,0 | 9.371 | 92,3 | 0,6 | 7,1 |
| 2008 | 9.243 | 91,9 | 0,4 | 7,7 | 9.233 | 91,4 | 0,5 | 8,1 |

*Iturria*: Eustat. Biztanleriaren mugimendua.

Ezkontzen beste aldea banantze-, dibortzio- eta baliogabetasun-epaiak dira (azken horiek oso gutxi dira). 2008an, mota horietako 4.531 epai eman ziren EAEn. Kasuen % 90etik gora dibortzio-epaiak izan ziren lurralde historiko guztietan. Banantzeak ez ziren % 8ra iritsi probintzia bakar batean ere. Datu horiek 2008ko ezkontzetara eramanez gero, 9.100 zehazki, pentsa genezake % 49,8 harremana eteteko arriskuan dagoela.

## 1.19. TAULA. Baliogabetasun-, dibortzio- eta banantze-epaiak, lurralde historikoaren arabera. 2008

| | GUZTIRA | % BALIOGABETASUNAK | % BANANTZEAK | % DIBORTZIOAK |
|---|---|---|---|---|
| EAE | 4.531 | 0,1 | 6,7 | 93,2 |
| Araba | 642 | 0,0 | 6,4 | 93,6 |
| Gipuzkoa | 1.420 | 0,0 | 5,1 | 94,9 |
| Bizkaia | 2.469 | 0,2 | 7,7 | 92,1 |

*Iturria*: EIN. Baliogabetasun, banantze eta dibortzioen estatistika.

EAEn, dibortzio- edo banantze-demanden erdiak alde bietatik datoz (2.236 demanda), eta akordiorik ezean, demanda aurkezten duten emakumeak gehiago dira gizonak baino. Oso antzeko joera dago hiru lurralde historikoetan.

## 1.20. TAULA. Dibortzio- eta banantze-epaiak, demanda jartzen duenaren eta lurralde historikoaren arabera. 2008

| | GUZTIRA | EMAZTEA | | SENARRA | | BIAK | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % |
| EAE | 4.527 | 1.356 | 30,0 | 935 | 20,7 | 2.236 | 49,4 |
| Araba | 642 | 192 | 29,9 | 102 | 15,9 | 348 | 54,2 |
| Gipuzkoa | 1.420 | 403 | 28,4 | 248 | 17,5 | 769 | 54,2 |
| Bizkaia | 2.465 | 761 | 30,9 | 585 | 23,7 | 1.119 | 45,4 |

*Iturria*: EIN. Baliogabetasun, banantze eta dibortzioen estatistika.

Ia banantze guztiak adostuak dira, EAEn nahiz hiru probintzietan. Araban eta Gipuzkoan, % 70etik gora dira, eta datu txikiena Bizkaian aurkituko dugu. Azken lurralde horretan, banantzeen % 63,4 dira adostuak. Beraz, lurralde horretan dira ohikoenak adostasun gabeko banantzeak, % 36,6. Araban eta Gipuzkoan, mota horretako banantzeak ez dira guztizkoaren % 30 ere.

## 1.21. TAULA. Banantzeak, motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2008

| | GUZTIRA | ADOSTASUNEZKOAK | | ADOSTASUNIK GABEKOAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| EAE | 305 | 202 | 66,2 | 103 | 33,8 |
| Araba | 41 | 29 | 70,7 | 12 | 29,3 |
| Gipuzkoa | 73 | 52 | 71,2 | 21 | 28,8 |
| Bizkaia | 191 | 121 | 63,4 | 70 | 36,6 |

*Iturria*: EIN. Baliogabetasun, banantze eta dibortzioen estatistika.

Dibortzio gehienak adostuak dira (% 66,1). Lurralde historikoaren arabera, Gipuzkoa nabarmentzen da beste bi probintzien gainetik. Izan ere, Gipuzkoan adostuak dira dibortzioen % 72,9. Bizkaian, % 62,9 dira mota horretako dibortzioak, eta Araban, berriz, % 63,2.

## 1.22. TAULA. Dibortzioak, motaren eta lurralde historikoen arabera. 2008

| | GUZTIRA | ADOSTASUNEZKOAK | | ADOSTASUNIK GABEAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| EAE | 4.222 | 2.792 | 66,1 | 1.430 | 33,9 |
| Araba | 601 | 380 | 63,2 | 221 | 36,8 |
| Gipuzkoa | 1.347 | 982 | 72,9 | 365 | 27,1 |
| Bizkaia | 2.274 | 1.430 | 62,9 | 844 | 37,1 |

*Iturria*: EIN. Baliogabetasun, banantze eta dibortzioen estatistika.

Dibortziatzen eta banantzen diren pertsonen adinak aintzat hartuta, emakumeen nahiz gizonen kasuan, 40 eta 49 urte artekoa da adin-tarte ohikoena. Emakumeen kasuan, bigarren adin-tarte ohikoena aldatu egiten da lurralde historiko batetik bestera. Banantzeei dagokienez, 30 eta 34 urte arteko tartea da Araban; 35 eta 39 urte artekoa, Gipuzkoan; eta 50 eta 59 urte artekoa, berriz, Bizkaian. Dibortzioei dagokienez, bat datoz hiru probintziak. Emakumeen artean, 35 eta 39 urte arteko adin-tartea da bigarren ohikoena.

## 1.23. TAULA. Dibortzio- eta banantze-epaiak, sexuaren, adin-taldearen eta lurralde historikoaren arabera. 2008 (% bertikalak)

| | ARABA | | | | GIPUZKOA | | | | BIZKAIA | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | EMAZTEAK | | SENARRAK | | EMAZTEAK | | SENARRAK | | EMAZTEAK | | SENARRAK | |
| | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % |
| **Banantzeak:** | | | | | | | | | | | | |
| GUZTIRA | 41 | 100,0 | 41 | 100,0 | 73 | 100,0 | 73 | 100,0 | 191 | 100,0 | 191 | 100,0 |
| 18 arte | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 |
| 19-24 | 1 | 2,4 | 1 | 2,4 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 3 | 1,6 | 0 | 0,0 |
| 25-29 | 4 | 9,8 | 3 | 7,3 | 2 | 2,7 | 0 | 0,0 | 13 | 6,8 | 4 | 2,1 |
| 30-34 | 8 | 19,5 | 5 | 12,2 | 5 | 6,8 | 4 | 5,5 | 22 | 11,5 | 27 | 14,1 |
| 35-39 | 7 | 17,1 | 7 | 17,1 | 12 | 16,4 | 14 | 19,2 | 34 | 17,8 | 33 | 17,3 |
| 40-49 | 14 | 34,1 | 13 | 31,7 | 36 | 49,3 | 34 | 46,6 | 52 | 27,2 | 49 | 25,7 |
| 50-59 | 4 | 9,8 | 9 | 22,0 | 7 | 9,6 | 6 | 8,2 | 48 | 25,1 | 47 | 24,6 |
| 60-69 | 2 | 4,9 | 2 | 4,9 | 7 | 9,6 | 11 | 15,1 | 14 | 7,3 | 21 | 11,0 |
| 70 eta + | 1 | 2,4 | 1 | 2,4 | 4 | 5,5 | 4 | 5,5 | 5 | 2,6 | 10 | 5,2 |
| **Dibortzioak:** | | | | | | | | | | | | |
| GUZTIRA | 601 | 100,0 | 601 | 100,0 | 1.347 | 100,0 | 1.347 | 100,0 | 2.274 | 100,0 | 2.274 | 100,0 |
| 18 arte | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 2 | 0,1 | 0 | 0,0 |
| 19-24 | 8 | 1,3 | 0 | 0,0 | 16 | 1,2 | 4 | 0,3 | 36 | 1,6 | 10 | 0,4 |
| 25-29 | 44 | 7,3 | 28 | 4,7 | 84 | 6,2 | 58 | 4,3 | 127 | 5,6 | 80 | 3,5 |
| 30-34 | 101 | 16,8 | 74 | 12,3 | 225 | 16,7 | 164 | 12,2 | 294 | 12,9 | 219 | 9,6 |
| 35-39 | 140 | 23,3 | 127 | 21,1 | 301 | 22,3 | 248 | 18,4 | 462 | 20,3 | 384 | 16,9 |
| 40-49 | 194 | 32,3 | 220 | 36,6 | 461 | 34,2 | 490 | 36,4 | 877 | 38,6 | 933 | 41,0 |
| 50-59 | 93 | 15,5 | 113 | 18,8 | 204 | 15,1 | 288 | 21,4 | 366 | 16,1 | 487 | 21,4 |
| 60-69 | 19 | 3,2 | 35 | 5,8 | 49 | 3,6 | 84 | 6,2 | 86 | 3,8 | 129 | 5,7 |
| 70 eta + | 2 | 0,3 | 4 | 0,7 | 7 | 0,5 | 11 | 0,8 | 24 | 1,1 | 32 | 1,4 |

*Iturria*: EIN. Baliogabetasun, banantze eta dibortzioen estatistika.

Banantze eta dibortzio gehienetan, atzean gelditzen da 20 urtetik gorako elkarbizitza-harremana; zehatz esanda, banantzeen % 35,7an eta dibortzioen % 31,3an. Bigarrenik, 6 eta 10 urte arteko harremanak eteten dira. Mota horretakoak dira banantzeen % 18,4 eta dibortzioen % 20,2.

## 1.24. TAULA. Banantzeak eta dibortzioak EAEn, ezkontzaren iraupenaren arabera. 2008 (% bertikalak)

| | BANANTZEAK | | DIBORTZIOAK | | GUZTIRA | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % |
| GUZTIRA | 305 | 100,0 | 4.222 | 100,0 | 4.527 | 100,0 |
| Urtebete baino gutxiago | 2 | 0,7 | 41 | 1,0 | 43 | 0,9 |
| 1-2 urte | 24 | 7,9 | 320 | 7,6 | 344 | 7,6 |
| 3-5 urte | 29 | 9,5 | 588 | 13,9 | 617 | 13,6 |
| 6-10 urte | 56 | 18,4 | 852 | 20,2 | 908 | 20,1 |
| 11-15 urte | 47 | 15,4 | 635 | 15,0 | 682 | 15,1 |
| 16-19 urte | 38 | 12,5 | 464 | 11,0 | 502 | 11,1 |
| 20 urte eta + | 109 | 35,7 | 1.322 | 31,3 | 1.431 | 31,6 |

*Iturria*: EIN. Baliogabetasun, banantze eta dibortzioen estatistika.

Banantze- eta dibortzio-epaien erdietan baino gehiagotan, mantenu-pentsioa ordaindu beharra jasotzen da. Banantzeen kasuan, epaien % 49,2an ezarri egiten da aitak hartu behar duela ordainketa horren ardura. Dibortzioei dagokienez, berriz, % 47,1 da ehunekoa. Epaien ia beste erdian ez da mantenu-pentsioa aipatzen, eta oso gutxitan egokitzen zaio amari hura ordaintzea.

## 1.25. TAULA. Banantzeak eta dibortzioak, mantenu-pentsioaren ardura duen pertsonaren arabera. 2008

| | GUZTIRA | AMA | | AITA | | BIAK | | EZ DAGOKIO | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % |
| **Banantzeak:** | | | | | | | | | |
| EAE | 305 | 9 | 3,0 | 150 | 49,2 | 8 | 2,6 | 138 | 45,2 |
| Araba | 41 | 3 | 7,3 | 20 | 48,8 | 1 | 2,4 | 17 | 41,5 |
| Gipuzkoa | 73 | 5 | 6,8 | 40 | 54,8 | 2 | 2,7 | 26 | 35,6 |
| Bizkaia | 191 | 1 | 0,5 | 90 | 47,1 | 5 | 2,6 | 95 | 49,7 |
| **Dibortzioak:** | | | | | | | | | |
| EAE | 4.222 | 103 | 2,4 | 1.987 | 47,1 | 159 | 3,8 | 1.973 | 46,7 |
| Araba | 601 | 7 | 1,2 | 247 | 41,1 | 35 | 5,8 | 312 | 51,9 |
| Gipuzkoa | 1.347 | 32 | 2,4 | 636 | 47,2 | 53 | 3,9 | 626 | 46,5 |
| Bizkaia | 2.274 | 64 | 2,8 | 1.104 | 48,5 | 71 | 3,1 | 1.035 | 45,5 |

*Iturria*: EIN. Baliogabetasun, banantze eta dibortzioen estatistika.

Autonomia-erkidegoka eta kopuru absolututan, Katalunian eta Andaluzian desegiten da ezkontza gehien; baina kontuan hartu behar da, halaber, haietan bizi dela jende gehien. Aitzitik, Ceuta eta Melilla autonomia-hirietan eta Errioxan desegiten da ezkontza gutxien. Autonomia-erkidego guztietan, dibortzioak hausturen % 90 baino gehiago dira. Salbuespenak dira Gaztela-Mantxa, Extremadura, Ceuta eta Melilla. Azken horietan, nahiz eta kopuru hori % 90era iritsi ez, oso altuak dira datuak, % 87tik gorakoak.

## 1.26. TAULA. Baliogabetasun-, dibortzio- eta banantze-epaiak, autonomia-erkidegoaren arabera. 2008

| | GUZTIRA | % BALIOGABETASUNAK | % BANANTZEAK | % DIBORTZIOAK |
|---|---|---|---|---|
| GUZTIRA | 118.823 | 0,1 | 7,4 | 92,5 |
| Kanariak | 6.807 | 0,1 | 4,8 | 95,1 |
| Errioxa | 654 | 0,5 | 5,7 | 93,9 |
| Kantabria | 1.547 | 0,1 | 6,2 | 93,7 |
| Nafarroa | 1.305 | 0,3 | 6,2 | 93,5 |
| Balearrak | 3.083 | 0,1 | 6,4 | 93,5 |
| Aragoi | 2.799 | 0,0 | 6,5 | 93,5 |
| **Euskadi** | **4.531** | **0,1** | **6,7** | **93,2** |
| Valentziako Erkidegoa | 14.634 | 0,2 | 6,8 | 93,0 |
| Galizia | 7.060 | 0,1 | 7,1 | 92,8 |
| Katalunia | 21.913 | 0,1 | 7,2 | 92,7 |
| Madril | 16.246 | 0,1 | 7,3 | 92,6 |
| Murtzia | 3.039 | 0,1 | 7,9 | 92,0 |
| Andaluzia | 21.484 | 0,1 | 7,9 | 92,0 |
| Asturias | 3.058 | 0,1 | 8,6 | 91,3 |
| Gaztela eta Leon | 4.476 | 0,2 | 9,5 | 90,3 |
| Gaztela-Mantxa | 3.734 | 0,1 | 10,2 | 89,8 |
| Melilla | 256 | 0,0 | 10,9 | 89,1 |
| Extremadura | 1.970 | 0,1 | 11,3 | 88,6 |
| Ceuta | 227 | 3,1 | 9,3 | 87,7 |

*Iturria*: EIN. Baliogabetasun, banantze eta dibortzioen estatistika.

Atal honetan, azkenik, eta berritasun moduan, autonomia-erkidegoetan emandako familia ugariaren tituluei buruzko datuak bildu ditugu. Argitaratutako azken datua 2007koa da. Mota horretako titulu gehien dituen autonomia-erkidegoa Madril da, 84.982 titulurekin. Alderantziz, Errioxa da zerrendan azkena, familia ugariaren 3.151 titulurekin. 2007ko biztanleriari dagokionez, Euskadi hirugarren postuan legoke titulu/biztanle sailkapenean, Kanarien eta Galiziaren atzetik. Aitzitik, Murtzia, Madril eta Nafarroa sailkapen horren azken postuetan leudeke, familia ugariaren titulu gutxien izateagatik biztanleko.

## 1.27. TAULA. Familia ugariei emandako tituluak, autonomia-erkidegoaren eta titulu-motaren arabera. 2007

| | INDARREKO TITULUAK | TITULU BERRIAK | TITULU BERRITUAK | BIZTANLERIA | BIZTANLE/ TITULU |
|---|---|---|---|---|---|
| Guztira | 413.537 | 61.311 | 125.866 | 45.200.737 | 109,3 |
| Kanariak | 8.250 | 2.057 | 3.072 | 2.025.951 | 245,6 |
| Galizia | 18.186 | 2.353 | 4.495 | 2.772.533 | 152,5 |
| **Euskadi** | **14.217** | **2.228** | **1.799** | **2.141.860** | **150,7** |
| Kantabria | 3.914 | 506 | 1.086 | 572.824 | 146,4 |
| Aragoi | 9.433 | 1.434 | 2.152 | 1.296.655 | 137,5 |
| Valentziako Erkidegoa | 36.562 | 5.664 | 6.298 | 4.885.029 | 133,6 |
| Balearrak | 7.781 | 1.356 | 1.715 | 1.030.650 | 132,5 |
| Andaluzia | 64.771 | 12.275 | 39.593 | 8.059.461 | 124,4 |
| Gaztela eta Leon | 20.423 | 2.872 | 5.888 | 2.528.417 | 123,8 |
| Katalunia | 71.068 | 10.386 | 18.101 | 7.210.508 | 101,5 |
| Errioxa | 3.151 | 426 | 816 | 308.968 | 98,1 |
| Extremadura | 12.940 | 1.423 | 6.235 | 1.089.990 | 84,2 |
| Gaztela-Mantxa | 24.047 | 2.635 | 12.573 | 1.977.304 | 82,2 |
| Nafarroa | 7.851 | 1.602 | 1.804 | 605.876 | 77,2 |
| Madril | 84.982 | 8.719 | 9.677 | 6.081.689 | 71,6 |
| Murtzia | 20.375 | 3.651 | 3.904 | 1.392.117 | 68,3 |
| Asturias | .. | 631 | 2.012 | 1.074.862 | |

*Iturria*: EIN. Familiak babestea, eta familia eta lana uztartzea.

Titulu gehien-gehienak urritasunik gabeko seme-alaben familia ugariei eman zaizkie. Euskadin, familia horiek guztizkoaren % 87,7 dira; gainerako % 12,3an seme-alabaren batek urritasunen bat dauka. Asturiasko datuen faltan, urritasunen bat duten seme-alabak izanik ehunekotan familia ugariaren titulu gehien eman dituen autonomia-erkidegoa Errioxa da, guztizkoaren % 14,2. Aitzitik, Murtzian aurkitu dugu ehuneko txikiena, guztizkoaren % 5.

**1.28. TAULA.** Familia ugariei emandako tituluak, autonomia-erkidegoaren eta familia-osaeraren arabera. 2007

| | GUZTIRA | % URRITASUNIK GABEKO SEME-ALABADUN FAMILIAK | % URRITASUNEN BAT DUTEN SEME-ALABADUN FAMILIAK |
|---|---|---|---|
| GUZTIRA | 413.537 | 88,5 | 11,5 |
| Murtzia | 20.375 | 95,0 | 5,0 |
| Ceuta eta Melilla | 5.586 | 92,6 | 7,4 |
| Extremadura | 12.940 | 89,8 | 10,2 |
| Andaluzia | 64.771 | 89,2 | 10,8 |
| Gaztela-Mantxa | 24.047 | 89,1 | 10,9 |
| Madril | 84.982 | 88,8 | 11,2 |
| Balearrak | 7.781 | 88,5 | 11,5 |
| Katalunia | 71.068 | 88,4 | 11,6 |
| Kantabria | 3.914 | 87,7 | 12,3 |
| **Euskadi** | **14.217** | **87,7** | **12,3** |
| Kanariak | 8.250 | 87,2 | 12,8 |
| Nafarroa | 7.851 | 86,8 | 13,2 |
| Aragoi | 9.433 | 86,6 | 13,4 |
| Valentziako Erkidegoa | 36.562 | 86,6 | 13,4 |
| Galizia | 18.186 | 86,1 | 13,9 |
| Gaztela eta Leon | 20.423 | 86,0 | 14,0 |
| Errioxa | 3.151 | 85,8 | 14,2 |
| Asturias | .. | | |

*Iturria*: EIN. Familiak babestea, eta familia eta lana uztartzea.

## 1.3 JAIOTZAK

2009an, 21.155 haur jaio ziren EAEn. Haurren % 47,8 neskak ziren, eta % 52,2, mutilak. Joera bera da hiru lurralde historikoetan. Araban, 3.187 haur jaio ziren; Gipuzkoan, 7.238 haur; eta Bizkaian, 10.730. Beraz, nahiz eta datuak orekatuak izan, mutil gehiago jaiotzen da neska baino.

## 1.29. TAULA. Jaiotzak, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera. 2009

| | GUZTIRA | NESKAK | | MUTILAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| EAE | 21.155 | 10.119 | 47,8 | 11.036 | 52,2 |
| Araba | 3.187 | 1.512 | 47,4 | 1.675 | 52,6 |
| Gipuzkoa | 7.238 | 3.433 | 47,4 | 3.805 | 52,6 |
| Bizkaia | 10.730 | 5.174 | 48,2 | 5.556 | 51,8 |

*Iturria*: Eustat. Jaiotzak.

Jaiotza-tasa, hau da, jaiotza-kopurua 1.000 biztanleko, 9,9koa zen 2009an EAE osorako. Araban eta Gipuzkoan, zertxobait handiagoa da; 10,3 eta 10,5, hurrenez hurren. Hiru lurraldeetan, Bizkaia da tasa baxuena daukana (9,4). Bilakaerari erreparatuz gero, ikusiko dugu datu horiek txikituz joan direla denborarekin. 1978an, tasa 16,8koa zen EAEn, eta pixkanaka, txikituz joan zen, 1998ra arte. Urte hartan izan zen baxuena datua (7,7). Urte hartatik aurrera, zertxobait gora egin du tasak. Hala, 2009an 9,9koa izan zen.

## 1.30. TAULA. Bizirik jaiotako haurrak eta jaiotza-tasa 1.000 biztanleko eta lurralde historikoaren arabera. 1978-2009

| | EAE | | ARABA | | BIZKAIA | | GIPUZKOA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | JAIOTZAK | TASA | JAIOTZAK | TASA | JAIOTZAK | TASA | JAIOTZAK | TASA |
| 1978 | 35.657 | 16,8 | 4.560 | 18,4 | 19.987 | 17,0 | 11.110 | 16,1 |
| 1983 | 23.920 | 11,1 | 3.374 | 12,8 | 13.092 | 11,0 | 7.454 | 10,7 |
| 1988 | 18.021 | 8,5 | 2.577 | 9,5 | 9.724 | 8,3 | 5.720 | 8,4 |
| 1993 | 15.801 | 7,5 | 2.239 | 8,1 | 8.203 | 7,1 | 5.359 | 7,9 |
| 1998 | 16.113 | 7,7 | 2.249 | 7,9 | 8.216 | 7,3 | 5.648 | 8,4 |
| 2003 | 19.267 | 9,2 | 2.694 | 9,2 | 9.806 | 8,8 | 6.767 | 9,9 |
| 2008 | 21.315 | 9,9 | 3.209 | 10,2 | 10.861 | 9,4 | 7.245 | 10,4 |
| 2009 | 21.155 | 9,9 | 3.187 | 10,3 | 10.730 | 9,4 | 7.238 | 10,5 |

*Iturria*: Eustat. Jaiotzak.

Ugalkortasun-tasa orokorrak erakusten du zenbat haur jaio diren urte batean 15 eta 49 urte bitarteko 1.000 emakumeko. Euskadin, 42,12 jaiotzakoa izan zen tasa hori 2009an, 1979ko 61,01etik urrun. Duela hogeita hamar urtetik eta laurogeita hamarreko hamarkadaren bukaerara arte, tasa izugarri txikitu zen. 2000. urtearen bueltan hasi zen joera aldatzen, eta ordutik, gora egiten ari da.

## 1.31. TAULA. Ugalkortasun-tasa orokorraren bilakaera EAEn. 1979-2009

| | TASA |
|---|---|
| 1979 | 61,01 |
| 1984 | 41,54 |
| 1989 | 31,12 |
| 1994 | 27,30 |
| 1999 | 30,87 |
| 2004 | 37,18 |
| 2009 | 42,12 |

*Iturria*: EIN. Oinarrizko adierazle demografikoak.

Datu horiek autonomia-erkidegoka aztertuz gero, ikusiko dugu Euskadiko jaiotza-tasa Estatuko batez bestekoa baino baxuagoa dela; 42,12 eta 42,99, hurrenez hurren. Ceuta eta Melilla autonomia-hirietako datuen faltan, Murtzia da datu altuena daukan autonomia-erkidegoa, 49,67ko tasarekin. Kanariak dira azkenak taula horretan, batez bestekoa baino zertxobait baxuagoa baita tasa hori han (33,11).

## 1.32. TAULA. Ugalkortasun-tasa orokorra, autonomia-erkidegoaren arabera. 2009

| | TASA |
|---|---|
| GUZTIRA | 42,99 |
| Murtzia | 49,67 |
| Katalunia | 47,58 |
| Nafarroa | 46,79 |
| Madril | 46,47 |
| Andaluzia | 44,71 |
| Errioxa | 43,53 |
| Balearrak | 42,93 |
| Aragoi | 42,44 |
| Gaztela-Mantxa | 42,25 |
| Euskadi | 42,12 |
| Valentziako Erkidegoa | 41,42 |
| Kantabria | 39,41 |
| Extremadura | 39,30 |
| Gaztela eta Leon | 35,40 |
| Galizia | 34,73 |
| Asturias | 33,78 |
| Kanariak | 33,11 |

*Iturria*: EIN. Oinarrizko adierazle demografikoak.

Ugalkortasun-indize sintetikoak erakusten du zein den adin ugalkorrean (15 urtetik 49 urtera) dagoen emakume bakoitzeko batez besteko seme-alaben kopurua. Biztanleriaren bilakaerari buruzko estatistika-kalkuluen arabera, ugalkortasun-indize sintetikoa 1,42 seme-alabakoa izango da emakumeko 2020an. 2009an, 1,28koa zen datu hori, eta beraz, indizeak gora egitea espero da.

**1.33. TAULA.** Espero diren jaiotza- eta ugalkortasun-adierazleak, lurralde historikoaren eta urtearen arabera. 2007-2020

| | EAE | | | | ARABA | | BIZKAIA | | GIPUZKOA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | JAIOTZAK | TASA GORDINA ‰ | UIS | BATEZ BESTEKO ADINA | JAIOTZAK | TASA GORDINA ‰ | JAIOTZAK | TASA GORDINA ‰ | JAIOTZAK | TASA GORDINA ‰ |
| 2007 | 20,6 | 9,57 | 1,25 | 32,19 | 3,0 | 9,68 | 10,4 | 9,07 | 7,2 | 10,36 |
| 2008 | 20,9 | 9,62 | 1,27 | 32,20 | 3,1 | 9,73 | 10,6 | 9,15 | 7,2 | 10,36 |
| 2009 | 21,0 | 9,61 | 1,28 | 32,21 | 3,1 | 9,72 | 10,7 | 9,18 | 7,2 | 10,29 |
| 2010 | 21,0 | 9,56 | 1,30 | 32,22 | 3,1 | 9,67 | 10,7 | 9,17 | 7,1 | 10,17 |
| 2011 | 20,9 | 9,46 | 1,32 | 32,22 | 3,1 | 9,58 | 10,7 | 9,11 | 7,0 | 9,99 |
| 2012 | 20,6 | 9,33 | 1,33 | 32,23 | 3,1 | 9,45 | 10,6 | 9,02 | 6,9 | 9,78 |
| 2013 | 20,3 | 9,16 | 1,34 | 32,24 | 3,1 | 9,29 | 10,5 | 8,90 | 6,7 | 9,54 |
| 2014 | 19,9 | 8,97 | 1,36 | 32,24 | 3,0 | 9,11 | 10,3 | 8,75 | 6,6 | 9,28 |
| 2015 | 19,5 | 8,77 | 1,37 | 32,25 | 3,0 | 8,92 | 10,1 | 8,58 | 6,4 | 9,01 |
| 2016 | 19,1 | 8,57 | 1,38 | 32,25 | 2,9 | 8,73 | 9,9 | 8,41 | 6,2 | 8,76 |
| 2017 | 18,7 | 8,37 | 1,39 | 32,26 | 2,9 | 8,54 | 9,7 | 8,23 | 6,0 | 8,51 |
| 2018 | 18,3 | 8,18 | 1,40 | 32,26 | 2,8 | 8,36 | 9,5 | 8,07 | 5,9 | 8,29 |
| 2019 | 17,9 | 8,02 | 1,41 | 32,27 | 2,8 | 8,20 | 9,4 | 7,92 | 5,7 | 8,09 |
| 2020 | 17,6 | 7,87 | 1,42 | 32,27 | 2,8 | 8,05 | 9,2 | 7,78 | 5,6 | 7,93 |

*Iturria*: Eustat. Biztanleriaren proiekzioak.

*Oharra*: UIS: ugalkortasun-indize sintetikoa.

Argitaratutako azken datuaren arabera, 2008koa, EAEn ama izateko batez besteko adina 31-35 urte artekoa da % 44,6an, eta haren atzetik, bigarren, 36-40 urte arteko adin-tartea dago (% 21,9).

**1.34. TAULA.** EAEko jaiotzak, amaren adinaren eta jaiotako haurraren sexuaren arabera. 2008

| | GUZTIRA | | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % |
| GUZTIRA | 21.310 | 100 | 10.329 | 100 | 10.981 | 100 |
| 15 urte baino gutxiago | 8 | 0,0 | 5 | 0,0 | 3 | 0,0 |
| 15-20 urte | 493 | 2,3 | 226 | 2,2 | 267 | 2,4 |
| 21-25 urte | 1351 | 6,3 | 670 | 6,5 | 681 | 6,2 |
| 26-30 urte | 4.615 | 21,7 | 2.234 | 21,6 | 2.381 | 21,7 |
| 31-35 urte | 9.504 | 44,6 | 4.628 | 44,8 | 4.876 | 44,4 |
| 36-40 urte | 4.666 | 21,9 | 2.247 | 21,8 | 2.419 | 22,0 |
| 41-45 urte | 650 | 3,1 | 309 | 3,0 | 341 | 3,1 |
| 46-49 urte | 20 | 0,1 | 8 | 0,1 | 12 | |
| 50 urtekoak eta + | 3 | 0,0 | 2 | 0,0 | 1 | 0,0 |

*Iturria*: Eustat. Jaiotzak.

Ama izateko batez besteko adinak gora egin du azken hogeita hamar urteotan. Hala, 1978an, emakumeek 28,46 urterekin izaten zuten haurra EAEn, eta 2003an, berriz, 32,4

urterekin. 2008an, batez besteko adinak behera egin zuen apur bat (32,18 urte). Gainerako autonomia-erkidegoekin analisi konparatiboa eginez gero, ikusiko dugu Euskadi dagoela sailkapeneko lehen postuan, Estatuko batez bestekoa gaindituta (30,83 urte). Ceutan eta Melillan daude ama gazteenak. Haietan, hurrenez hurren, 29,61 eta 29,31 urterekin izaten dute haurra emakumeek batez beste.

**1.35. TAULA.** Amen batez besteko adinaren bilakaera, autonomia-erkidegoen arabera. 1978-2008

| | 2008 | 2003 | 1998 | 1993 | 1988 | 1983 | 1978 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| GUZTIRA | 30,8 | 30,8 | 30,5 | 29,5 | 28,6 | 28,4 | 28,4 |
| **Euskadi** | **32,2** | **32,4** | **31,8** | **30,6** | **29,3** | **28,8** | **28,5** |
| Galizia | 31,6 | 30,9 | 30,1 | 28,5 | 27,5 | 27,4 | 27,5 |
| Kantabria | 31,6 | 31,4 | 30,8 | 29,3 | 28,4 | 28,3 | 27,8 |
| Gaztela eta Leon | 31,5 | 31,6 | 31,0 | 29,8 | 28,9 | 28,9 | 28,9 |
| Nafarroa | 31,4 | 31,7 | 31,6 | 30,5 | 29,7 | 29,4 | 29,2 |
| Madril | 31,3 | 31,4 | 31,4 | 30,2 | 29,1 | 28,7 | 28,6 |
| Asturias | 31,3 | 31,0 | 30,3 | 29,0 | 27,7 | 27,7 | 27,3 |
| Aragoi | 31,1 | 31,4 | 31,3 | 30,0 | 29,2 | 28,8 | 28,7 |
| Extremadura | 31,0 | 30,8 | 29,8 | 29,0 | 28,5 | 28,7 | 29,0 |
| Katalunia | 30,8 | 30,9 | 30,8 | 29,8 | 28,7 | 28,2 | 27,8 |
| Errioxa | 30,7 | 31,2 | 31,1 | 30,1 | 28,9 | 28,6 | 28,7 |
| Valentziako Erkidegoa | 30,6 | 30,7 | 30,6 | 29,5 | 28,6 | 28,4 | 28,3 |
| Gaztela-Mantxa | 30,6 | 30,7 | 30,4 | 29,3 | 28,9 | 28,9 | 29,2 |
| Andaluzia | 30,4 | 30,4 | 29,9 | 29,1 | 28,5 | 28,5 | 28,7 |
| Balearrak | 30,4 | 30,3 | 30,2 | 29,2 | 28,4 | 28,0 | 27,7 |
| Murtzia | 30,1 | 30,0 | 30,1 | 29,2 | 28,4 | 28,5 | 28,2 |
| Kanariak | 30,1 | 29,8 | 29,3 | 28,7 | 28,1 | 28,1 | 28,1 |
| Ceuta | 29,6 | 29,8 | 29,7 | 28,9 | .. | .. | .. |
| Melilla | 29,3 | 29,8 | 29,4 | 28,7 | .. | .. | .. |

*Iturria*: EIN. Oinarrizko adierazle demografikoak.

## 1.4 HERIOTZAK

2009an, 19.541 pertsona hil ziren guztira EAEn, eta haietatik, % 48 emakumeak ziren. Lurralde historikoetako datuek ere gauza bera erakusten dute, hau da, gizon gehiago hil zen emakume baino.

**1.36. TAULA.** Heriotzak, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera. 2008

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| EAE | 19.541 | 9.383 | 48,0 | 10.158 | 52,0 |
| Araba | 2.377 | 1.123 | 47,2 | 1.254 | 52,8 |
| Gipuzkoa | 6.247 | 3.047 | 48,8 | 3.200 | 51,2 |
| Bizkaia | 10.917 | 5.213 | 47,8 | 5.704 | 52,2 |

*Iturria*: Eustat. Heriotzak.

Heriotzak adin-taldeka bilduz gero, ikusiko dugu pertsona gehienak 81-90 urteen artean hiltzen direla. Adin-tarte horretan, emakume gehiago hiltzen da gizon baino (% 56,5). Adin-tarte guztietan daude alde handiak emakumeen eta gizonen artean. Urtebete baino gutxiagotik 10 urtera arte, eta 81-100 urteen artean, heriotza gehien-gehienak emakumeenak dira. Zehazki, 81-90 urteen artean, hildako pertsonen % 56,5 emakumeak dira, eta % 100, berriz, urtebete baino gutxiagorekin hildakoen artean (2 pertsona guztira). 11-80 urteen artean, heriotza gehienak gizonenak dira. Datu txikiena 31-40 urteen artekoa da, heriotzen guztizkoaren % 62,5ekin. Beste muturrean, aipatzekoa da 21-30 urte arteko adin-taldea. Bertan, gizonak izan ziren hildako pertsona guztiak (10 pertsona guztira). Lurralde historikoei dagokienez, joera antzekoa da: emakumeen eta gizonen arteko aldea oso handia da adin-taldeka, eta oro har, 81 urtetik aurrera soilik hiltzen da emakume gehiago gizon baino.

**1.37. TAULA.** Heriotzak, adin-taldearen, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera. 2008

| | ARABA | | | GIPUZKOA | | | BIZKAIA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | % E | % G | GUZTIRA | % E | % G | GUZTIRA | % E | % G |
| GUZTIRA | 2.412 | 47,1 | 52,9 | 6.269 | 47,8 | 52,2 | 10.752 | 48,2 | 51,8 |
| Urtebete baino gutxiago | 2 | 100,0 | 0,0 | 22 | 54,5 | 45,5 | 38 | 42,1 | 57,9 |
| 1-10 urte | 3 | 66,7 | 33,3 | 6 | 33,3 | 66,7 | 12 | 25,0 | 75,0 |
| 11-20 urte | 3 | 33,3 | 66,7 | 13 | 38,5 | 61,5 | 20 | 30,0 | 70,0 |
| 21-30 urte | 10 | 0,0 | 100,0 | 34 | 29,4 | 70,6 | 55 | 32,7 | 67,3 |
| 31-40 urte | 40 | 37,5 | 62,5 | 76 | 31,6 | 68,4 | 123 | 37,4 | 62,6 |
| 41-50 urte | 78 | 33,3 | 66,7 | 227 | 31,3 | 68,7 | 384 | 37,2 | 62,8 |
| 51-60 urte | 174 | 27,6 | 72,4 | 431 | 26,7 | 73,3 | 741 | 30,8 | 69,2 |
| 61-70 urte | 276 | 28,3 | 71,7 | 631 | 27,3 | 72,7 | 1.137 | 28,2 | 71,8 |
| 71-80 urte | 612 | 34,6 | 65,4 | 1.570 | 35,1 | 64,9 | 2.831 | 36,4 | 63,6 |
| 81-90 urte | 834 | 56,5 | 43,5 | 2.308 | 57,5 | 42,5 | 3.898 | 56,8 | 43,2 |
| 91-100 urte | 363 | 73,0 | 27,0 | 917 | 74,0 | 26,0 | 1.460 | 75,8 | 24,2 |
| 100 urtetik gora | 17 | 88,2 | 11,8 | 34 | 88,2 | 11,8 | 53 | 92,5 | 7,5 |

*Iturria*: EIN. Biztanleriaren mugimendu naturala.

Biztanleriari dagokion atala bukatzeko, heriotza-tasa aipatuko dugu, 1.000 biztanleko heriotza-kopurua adierazten duena, eta haren bilakaera. Datuen arabera, gora egin du hiru lurralde historikoetan 1978 eta 2008 urteen artean (Eustaten argitaratutako azken datua). Zehazki, EAEn 6,7tik 9,0ra pasatu zen 2008an. Urte hartan bertan, 7,7ko tasa zeukan Arabak (Euskadiko baxuena); 9,3koa, Bizkaiak; eta 9,0koa, berriz, Gipuzkoak.

## 1.38. TAULA. Heriotza-tasaren bilakaera, lurralde historikoaren arabera. 1978-2008

| | EAE | | ARABA | | BIZKAIA | | GIPUZKOA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | HERIOTZAK | TASA | HERIOTZAK | TASA | HERIOTZAK | TASA | HERIOTZAK | TASA |
| 1978 | 14.235 | 6,7 | 1.617 | 6,5 | 8.225 | 7,0 | 4.393 | 6,4 |
| 1983 | 14.853 | 6,9 | 1.513 | 5,7 | 8.431 | 7,1 | 4.909 | 7,1 |
| 1988 | 15.680 | 7,4 | 1.758 | 6,5 | 8.634 | 7,4 | 5.288 | 7,7 |
| 1993 | 16.799 | 8,0 | 1.906 | 6,9 | 9.393 | 8,2 | 5.500 | 8,1 |
| 1998 | 18.151 | 8,7 | 2.104 | 7,4 | 10.071 | 8,9 | 5.976 | 8,9 |
| 2003 | 19.305 | 9,2 | 2.357 | 8,1 | 10.684 | 9,5 | 6.264 | 9,2 |
| 2008 | 19.437 | 9,0 | 2.414 | 7,7 | 10.755 | 9,3 | 6.268 | 9,0 |

*Iturria*: Eustat. Heriotzak.

# 2

# EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ETA BALIO-ALDAKETA: BALIABIDE EKONOMIKOAK ESKURATZEA ETA KONTROLATZEA

## LAN PRODUKTIBOA 2.1

Lan produktiboak soldatako lanari edo autoenpleguari egiten die erreferentzia, eta atal honetan bildu dira emakumeek eta gizonek lan-merkatuan bizi duten egoerari buruzko adierazleak. Euskadin errealitate horri buruzko informazio estatistikoa jasotzen duen iturri nagusia Jarduerari buruzko biztanleriaren inkesta (BJA) da, Estatistika Institutu Nazionalaren Biztanleria aktiboari buruzko inkestatik (BAI) datuak hartuta, azterketa konparatuan batez ere. Sektore-estatistikek aukera emango digute, halaber, zenbait enplegu-sektoretan sakontzeko; hezkuntzan eta osasunean, esate baterako. Era horretara, irakasleei buruzko estatistikak, tradizioz Hezkuntza atalean kokatu izan direnak, atal honetan ageri dira 2010eko txostenean.

### DATU OROKORRAK 2.1.1

Emakumeak lan produktiboan pixkanaka nola sartu diren ikusten da eremu horri erreferentzia egiten dioten adierazleetan. Modu horretara, emakumeen jarduera-tasaren azken bi hamarkadetako bilakaera, emakume okupatuen eta langabeen proportzioa 16-64 urte arteko emakume guztiekiko, 10 puntu igo da. Aitzitik, gizonen biztanleria aktiboaren tasa ia 4 puntu jaitsi da, eta beraz, ia erdira murriztu da genero-hesia; 31,9 puntutik 1989an, % 16,4ra 2009an.

**2.1. TAULA.** 16 urteko eta gehiagoko biztanleriaren jarduera-tasaren bilakaera, sexuaren eta urtearen arabera. 1989-2009

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | GIZONAK | G-E |
|---|---|---|---|---|
| 1989 | 52,5 | 36,9 | 68,8 | 31,9 |
| 1994 | 52,5 | 40,4 | 65,1 | 24,7 |
| 1999 | 54,0 | 42,8 | 65,8 | 23,0 |
| 2004 | 55,5 | 45,6 | 65,9 | 20,3 |
| 2009 | 55,6 | 47,6 | 64,0 | 16,4 |

*Iturria*: Eustat. BJA.

*Oharra*: G-E: (gizonen tasa – emakumeen tasa).

Emakumeen eta gizonen egoera ez da berdina adin-talde guztietan. Belaunaldien arteko bilakaerak azaltzen du bi adin-talderen arteko genero-hesien arteko alde handia: 45 urte eta gehiagoko taldearena (18,6) eta 25-44 urte arteko taldearena (10,5). Aurreikuspenen arabera, datozen urteetan genero-hesia txikitu egingo da adin-talde adintsuenetan. Nolanahi ere, 5,7 puntuko genero-hesia, 29,1eko tasarekin 16-24 urte arteko emakumeen kasuan, lotuta dago emakumeak eta gizonak lan-munduan sartzeko adinarekin.

**2.2. TAULA.** 16 urteko eta gehiagoko biztanleriaren jarduera-tasa, adin-taldearen eta sexuaren arabera. 2009

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | GIZONAK | G-E |
|---|---|---|---|---|
| GUZTIRA | 55,6 | 47,6 | 64,0 | 16,4 |
| 16-24 urte | 32,0 | 29,1 | 34,8 | 5,7 |
| 25-44 urte | 87,6 | 82,2 | 92,7 | 10,5 |
| 45 urte eta + | 38,1 | 29,5 | 48,1 | 18,6 |

*Iturria*: Eustat. BJA. *Oharra*: G-E: (gizonen tasa – emakumeen tasa).

Heziketa-maila eta adina adierazleek azaltzen dute, besteak beste, emakumeek eta gizonek lan-merkatuan bizi duten egoera. Era horretara, ia ez dago genero-hesirik goi-mailako ikasketak izanik lan-merkatuan dauden edo sartu nahi duten pertsonen artean. Lehen mailako ikasketak dituzten pertsonen artean, berriz, gizonen jarduera-tasa emakumeena halako bi da.

**2.3. TAULA.** 16 urteko eta gehiagoko biztanleriaren jarduera-tasa, sexuaren eta heziketa-mailaren arabera. 2009

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | GIZONAK | G-E |
|---|---|---|---|---|
| GUZTIRA | 55,6 | 47,6 | 64,0 | 16,4 |
| Lehen mailako ikasketak | 18,6 | 13,1 | 26,8 | 13,7 |
| Erdi-mailako ikasketak | 68,5 | 59,4 | 75,9 | 16,5 |
| Goi-mailako ikasketak | 76,9 | 76,9 | 76,8 | -0,1 |

*Iturria*: Eustat. BJA. *Oharra*: G-E: (gizonen tasa – emakumeen tasa).

Beren kargu duten seme-alaben kopuruak ere eragina du jarduera-tasako genero-hesian. Emakumeen eta gizonen tasen arteko alde handiena bi seme-alaba edo gehiagoko biztanleen artean dago, ia 24 puntu; dena den, tasa orokorra ere handiagoa da kategoria horietan, eta beraz, aldeak neutralizatu egiten dira. Esanak esan, ondorengo-kopuru handiak zuzeneko lotura dauka jarduera-tasaren gorakadarekin, bi sexuetan gainera, beren kargu bi seme-alaba arte dituzten pertsonetan behintzat.

**2.4. TAULA.** 16 urteko eta gehiagoko biztanleriaren jarduera-tasa, beren kargu duten seme-alaben kopuruaren eta sexuaren arabera. 2009

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | GIZONAK | G-E |
|---|---|---|---|---|
| GUZTIRA | 55,6 | 47,6 | 64,0 | 16,4 |
| 0 | 48,1 | 41,1 | 55,1 | 14,0 |
| 1 | 58,4 | 50,3 | 68,1 | 17,8 |
| 2 | 75,9 | 64,5 | 88,2 | 23,7 |
| 3 edo + | 70,1 | 58,9 | 82,0 | 23,1 |

*Iturria*: Eustat. BJA. *Oharra*: G-E: (gizonen tasa – emakumeen tasa).

EINen Biztanleria aktiboaren inkestaren arabera, 16-64 urte arteko emakumeen eta gizonen jarduera-tasan genero-hesi txikiena duten autonomia-erkidegoen artean dago Euskadi. Hiru autonomia-erkidegotan soilik da txikiagoa hesi hori: Galizian, Asturiasen eta Madrilen.

## 2.5. TAULA. 16 eta 64 urte arteko biztanleriaren jarduera-tasa, sexuaren eta autonomia-erkidegoaren arabera. 2009

| | EMAKUMEAK | GIZONAK | G-E |
|---|---|---|---|
| Estatua, guztira | 65,7 | 82,2 | 16,5 |
| Galizia | 66,1 | 78,6 | 12,5 |
| Asturias (Printzerria) | 61,8 | 74,7 | 12,9 |
| Madril (Erkidegoa) | 71,1 | 85,0 | 13,8 |
| **Euskadi** | **66,0** | **80,1** | **14,2** |
| Katalunia | 70,1 | 84,7 | 14,6 |
| Balearrak (Uharteak) | 70,2 | 85,3 | 15,1 |
| Kantabria | 63,5 | 79,0 | 15,5 |
| Aragoi | 67,5 | 83,6 | 16,1 |
| Nafarroa (Foru Komunitatea) | 67,2 | 83,5 | 16,2 |
| Valentziako Erkidegoa | 66,4 | 83,4 | 16,9 |
| Kanariak | 64,2 | 81,1 | 17,0 |
| Gaztela eta Leon | 63,1 | 80,8 | 17,7 |
| Errioxa | 66,2 | 84,2 | 18,0 |
| Murtzia (Eskualdea) | 63,5 | 82,6 | 19,1 |
| Andaluzia | 60,4 | 80,1 | 19,7 |
| Extremadura | 58,1 | 78,5 | 20,4 |
| Gaztela-Mantxa | 60,5 | 83,3 | 22,8 |
| Melilla (Autonomia-hiria) | 50,9 | 74,6 | 23,7 |
| Ceuta (Autonomia-hiria) | 52,3 | 76,7 | 24,4 |

*Iturria*: EIN. BAI. *Oharra*: G-E: (gizonen tasa – emakumeen tasa).

Okupazio-tasa, hau da, 16 urte eta gehiagoko biztanleen arteko biztanleria okupatua, berdintasunerako joera erakusten ari da, azken 20 urteotan, emakumeen eta gizonen lan produktiboan. 1989an emakumeen okupazio-tasa gizonen okupazio-tasaren erdia baino gutxiago bazen, gaur egun 14,7 puntuko hesia dago: 43,9 emakumeak, eta 58,6, berriz, gizonak. Murrizketa handienak laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran eta azken bost urteotan gertatu dira.

## 2.6. TAULA. 16 urteko eta gehiagoko biztanleriaren okupazio-tasaren bilakaera, sexuaren arabera. 1989-2009

| | EMAKUMEAK | GIZONAK | G-E |
|---|---|---|---|
| 1989 | 25,9 | 60,1 | 34,2 |
| 1994 | 26,3 | 53,2 | 26,9 |
| 1999 | 33,1 | 58,8 | 25,7 |
| 2004 | 41,3 | 61,6 | 20,3 |
| 2009 | 43,9 | 58,6 | 14,7 |

*Iturria*: Eustat .BJA.

Murrizketa horren arrazoiak bat baino gehiago dira: alde batetik, emakumeen okupazio-tasaren gorakada, prozesu ia lineal eta gorakorra bera; eta bestetik, gizonen okupazio-tasaren beherakada, argi ikus daitekeenez 1994-1995 urteetako eta 2008-2009 urteetako datuetan. Dakigunez, krisi ekonomikoak eragin handia izan du bereziki gizonenak diren zenbait sektoretan, eraikuntzan eta industrian esaterako, eta horrek kalte egin dio gizonen okupazio-tasari. Epe ertainean, gainera, emakumeen okupazio-tasak ere behera egin dezake, sektore horien beherakadak zerbitzu-sektorean ondorioak eragiten baditu.

**2.1. GRAFIKOA.** 16 urteko eta gehiagoko biztanleriaren okupazio-tasaren bilakaera, sexuaren arabera. 1989-2009




*Iturria*: Eustat. BJA.

Jarduera-tasan gertatzen den bezalaxe, aldeak era batekoak edo bestekoak izan daitezke adina, heziketa-maila edota beren kargu duten seme-alaben kopuruaren arabera. Emakumeen artean, 25-34 urteen artean dago okupazio-tasa altuena, eta okupazioak behera egiten du ibilbide profesionalak garrantzi handia duen adin-taldeetan, 35-44 urteen artean. Belaunaldiak oinarri hartuta irakur daiteke okupazio-tasaren beherakada. Beste era batera esanda, emakumeek lan-munduan zer presentzia duten aztertzean, kontuan hartu behar dira adin-taldeak edota bizi-zikloak, hau da, adin horretako ugalketa-lanaren gorakadaren eraginak. Kontrastea handiagoa da oraindik emakumeen tasa hori gizonen adin-taldeen araberako okupazio-tasarekin alderatuz gero. Hala, tasa hori 10 puntu gehiago da 35-44 urte arteko gizonen artean 25-34 urte arteko gizonetan baino.

## 2.7. TAULA. 16 urteko eta gehiagoko biztanleriaren okupazio-tasa, adinaren eta sexuaren arabera. 2009

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | GIZONAK | G-E |
|---|---|---|---|---|
| GUZTIRA | 51,0 | 43,9 | 58,6 | 14,7 |
| 16-24 urte | 24,7 | 23,9 | 25,4 | 1,5 |
| 25-34 urte | 77,9 | 76,5 | 79,2 | 2,7 |
| 35-44 urte | 81,6 | 74,1 | 88,8 | 14,7 |
| 45-54 urte | 75,4 | 65,2 | 85,9 | 20,7 |
| 55 urte eta + | 17,4 | 11,5 | 24,7 | 13,2 |

*Iturria*: Eustat. BJA.

Heziketa-mailak azaltzen ditu emakumeen eta gizonen okupazio-tasen arteko aldeak. Lehen mailako ikasketak dituzten emakumeek 12,2ko okupazio-tasa daukate, gizonen okupazio-tasaren erdia. Aldiz, goi-mailako ikasketadun pertsonen arteko genero-hesia ez da adierazgarria, puntu bat baino ez, eta kasu horretan, emakumeen tasa altuagoa da gizonena baino.

## 2.8. TAULA. 16 urteko eta gehiagoko biztanleriaren okupazio-tasa, heziketa-mailaren eta sexuaren arabera. 2009

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | GIZONAK | G-E |
|---|---|---|---|---|
| GUZTIRA | 51,0 | 43,9 | 58,6 | 14,7 |
| Lehen mailako ikasketak | 17,4 | 12,2 | 25,0 | 12,8 |
| Erdi-mailako ikasketak | 61,6 | 53,1 | 68,4 | 15,3 |
| Goi-mailako ikasketak | 73,0 | 73,5 | 72,5 | -1,0 |

*Iturria*: Eustat. BJA.

Seme-alaba askoko pertsonek daukate okupazio-tasa altuena, bai emakumeen bai gizonen artean. Hala, beren kargu seme-alabarik ez daukaten emakumeen okupazio-tasa 37,2koa bada, tasa hori bera 59,9koa da beren kargu bi seme-alaba edo gehiago dauzkaten emakumeen artean. Adinaren eragina da hori. Adinaren adierazlea neutralizatzeko eta seme-alabak izateak zer eragin duen jakiteko, adin-taldearen arabera aztertu beharko litzateke seme-alabadun emakumeen okupazioa. Era berean, kargarik gabeko gizonen okupazio-tasa 48,4koa da, eta 83,6koa, berriz, bi seme-alaba edo gehiago dauzkaten gizonena. Beren kargu zenbat eta seme-alaba gehiago izan, orduan eta handiagoa da genero-hesia, hau da, emakumeen eta gizonen okupazio-tasen arteko aldea.

**2.9. TAULA.** 16 urteko eta gehiagoko biztanleriaren okupazio-tasa, beren kargu dauzkaten seme-alaben eta sexuaren arabera. 2009

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | GIZONAK | G-E |
|---|---|---|---|---|
| GUZTIRA | 51,0 | 43,9 | 58,6 | 14,7 |
| 0 | 42,8 | 37,2 | 48,4 | 11,2 |
| 1 | 55,3 | 47,0 | 65,2 | 18,2 |
| 2 edo + | 71,4 | 59,9 | 83,6 | 23,7 |

*Iturria*: Eustat. BJA.

16-34 urte arteko pertsonen okupazio-tasari buruzko datuek, Estatistika Institutu Nazionalarenak, agerian jartzen dute nola dagoen kokatuta Euskadi beste autonomia-erkidegoan artean, adierazle horretan genero-hesia alderatzean. Hala, hauek dira emakumeen okupazio-tasa Euskadikoa baino altuagoa duten autonomia-erkidegoak: Madril, Katalunia, Balearrak, Aragoi eta Nafarroa.

**2.10. TAULA.** 16-64 urte arteko okupazio-tasa, sexuaren eta autonomia-erkidegoaren arabera. 2009

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | GIZONAK | E-G |
|---|---|---|---|---|
| ESTATUA, GUZTIRA | 60,6 | 53,5 | 67,6 | 14,0 |
| Balearrak (Uharteak) | 63,8 | 58,5 | 68,9 | 10,3 |
| Katalunia | 64,8 | 59,4 | 70,1 | 10,8 |
| Madril (Erkidegoa) | 67,0 | 61,2 | 72,9 | 11,7 |
| Galizia | 63,1 | 57,1 | 69,3 | 12,2 |
| Asturias (Printzerria) | 59,0 | 52,9 | 65,3 | 12,4 |
| Murtzia (Eskualdea) | 58,2 | 51,6 | 64,3 | 12,7 |
| Valentziako Erkidegoa | 59,0 | 52,4 | 65,4 | 13,0 |
| **Euskadi** | **65,0** | **58,3** | **71,5** | **13,2** |
| Kanariak | 53,6 | 46,7 | 60,2 | 13,6 |
| Aragoi | 66,1 | 59,0 | 72,7 | 13,6 |
| Kantabria | 62,7 | 55,3 | 70,0 | 14,7 |
| Nafarroa (Foru Komunitatea) | 67,3 | 59,2 | 75,0 | 15,8 |
| Errioxa | 65,8 | 57,5 | 73,5 | 16,0 |
| Andaluzia | 52,5 | 44,0 | 60,8 | 16,8 |
| Gaztela eta Leon | 62,1 | 52,6 | 71,2 | 18,6 |
| Gaztela-Mantxa | 58,6 | 47,5 | 69,0 | 21,5 |
| Extremadura | 54,4 | 43,4 | 64,9 | 21,5 |
| Melilla (Autonomia-hiria) | 47,1 | 33,7 | 61,2 | 27,5 |
| Ceuta (Autonomia-hiria) | 52,4 | 37,2 | 66,6 | 29,4 |

*Iturria*: EIN. BAI.

Europako herrialdeekin alderatzeko, 16-64 urte arteko biztanleekin kalkulatzen da autonomia-erkidegoko okupazio-tasa, eta ez 16 urtetik gorako biztanleekin, aurreko tauletan bezala. Eustaten jasotako Eurostaten datuen arabera, 12 puntukoa da 27en Europar Batasuneko emakumeen eta gizonen okupazio-tasen arteko genero-hesia. Euskadin eta Espainian, genero-hesia handiagoa da, ia 14 puntukoa, eta beraz, azkenetakoak gaude

zerrendan, beste zenbait herrialderekin batera: Eslovakia, Zipre, Luxenburgo, Txekiar Errepublika, Italia, Grezia eta Malta.

**2.11. TAULA.** 16 urteko eta gehiagoko biztanleriaren okupazio-tasa, sexuaren eta Europar Batasuneko herrialdearen arabera. 2009

| | EMAKUMEAK | GIZONAK | G-E |
|---|---|---|---|
| **EB 27** | **58,6** | **70,7** | **12,1** |
| Lituania | 60,7 | 59,5 | -1,2 |
| Letonia | 60,9 | 61,0 | 0,1 |
| Estonia | 63,0 | 64,1 | 1,1 |
| Finlandia | 67,9 | 69,5 | 1,6 |
| Suedia | 70,2 | 74,2 | 4,0 |
| Danimarka | 73,1 | 78,3 | 5,2 |
| Eslovenia | 63,8 | 71,0 | 7,2 |
| Frantzia | 60,1 | 68,5 | 8,4 |
| Bulgaria | 58,3 | 66,9 | 8,6 |
| Irlanda | 57,4 | 66,3 | 8,9 |
| Alemania | 66,2 | 75,6 | 9,4 |
| Portugal | 61,6 | 71,1 | 9,5 |
| Erresuma Batua | 65,0 | 74,8 | 9,8 |
| Austria | 66,4 | 76,9 | 10,5 |
| Holanda | 71,5 | 82,4 | 10,9 |
| Belgika | 56,0 | 67,2 | 11,2 |
| Hungaria | 49,9 | 61,1 | 11,2 |
| Errumania | 52,0 | 65,2 | 13,2 |
| Polonia | 52,8 | 66,1 | 13,3 |
| Espainia | 52,8 | 66,6 | 13,8 |
| **Euskadi** | **58,2** | **72,0** | **13,8** |
| Eslovakia | 52,8 | 67,6 | 14,8 |
| Zipre | 62,5 | 77,6 | 15,1 |
| Luxenburgo | 57,0 | 73,2 | 16,2 |
| Txekiar Errepublika | 56,7 | 73,8 | 17,1 |
| Italia | 46,4 | 68,6 | 22,2 |
| Grezia | 48,9 | 73,5 | 24,6 |
| Malta | 37,7 | 71,5 | 33,8 |

*Iturria*: Eustat eta EUROSTAT.

1989tik 2009ra, langabezia-tasak behera egin zuen etengabe. Iaz, 0,3 hazi zen langabezia-tasa aurreko urtearekin alderatuta, eta aurreikuspenen arabera, urteko batez besteko tasak ere gora egingo du 2010ean. 20 urte horietan, langabezia-tasako genero-hesia ere murriztu da, 17,2tik 0,6ra, eta lehen aldiz, gizonen langabezia-tasa emakumeena baino altuagoa izan da. Hala, krisi ekonomikoaren lehen etapetan, berdindu egin ziren emakumeen eta gizonen egoerak; ez, ordea, emakumeen langabezia-tasak behera egin zuelako bakarrik, baita, nagusiki, gizonen langabezia-tasak gora egin zuelako. Krisia luzatzen bada eta biztanleriaren erosteko ahalmenari eragiten badio, litekeena da langabezia-tasak gora egitea zerbitzu-sektorean, eta orduan, horrek emakumeei nola eragiten dien ikusi beharko da.

## 2.12. TAULA. 16 urteko eta gehiagoko biztanleriaren langabezia-tasaren bilakaera, sexuaren eta urtearen arabera. 1989-2009

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | GIZONAK | G-E |
|---|---|---|---|---|
| 1989 | 18,8 | 29,8 | 12,6 | -17,2 |
| 1994 | 24,9 | 34,9 | 18,3 | -16,6 |
| 1999 | 15,5 | 22,7 | 10,6 | -12,1 |
| 2004 | 7,8 | 9,5 | 6,5 | -3,0 |
| 2009 | 8,1 | 7,8 | 8,4 | 0,6 |

*Iturria*: Eustat. BJA.

Langabezia aldatu egiten da adin-talde batetik bestera. Emakumeetan, 16-19 urteen artean da altuena langabezia-tasa (44,7), eta tasa hori altua da, halaber, adin-talde horretako gizonen artean. Langabezia-tasako genero-hesia era batekoa edo bestekoa izango da adintaldearen arabera. Hala, nahiz eta gainerako adin-talde guztietan emakumeen langabeziatasa gizonena baino altuagoa izan, 20-24 urteen artean alderantziz gertatzen da, gizonen langabezia-tasa da altuena.

## 2.13. TAULA. Langabezia-tasa EAEn, sexuaren eta adin-taldearen arabera. 2009

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | GIZONAK | G-E |
|---|---|---|---|---|
| GUZTIRA | 11,0 | 11,5 | 10,7 | -0,9 |
| 25 urte baino gutxiago | 31,5 | 28,5 | 34,2 | 5,6 |
| 25 urte eta + | 9,5 | 10,2 | 9,0 | -1,2 |
| 16-19 urte | 42,7 | 44,7 | 40,8 | -3,9 |
| 20-24 urte | 29,6 | 25,8 | 33,0 | 7,2 |
| 25-54 urte | 9,9 | 10,3 | 9,6 | -0,7 |
| 55 urte eta + | 6,5 | 8,7 | 5,2 | -3,5 |

*Iturria*: EIN. BAI.

*Oharra*: G-E: (gizonen tasa – emakumeen tasa).

Estatistika Institutu Nazionalaren Biztanleria aktiboari buruzko inkestan biltzen dira autonomia-erkidego guztietako langabezia-tasak. Datu horien arabera, langabezia-tasa orokorrean genero-hesi txikiena duten autonomia-erkidegoen artean dago Euskadi, beste lau autonomia-erkidegorekin batera: Aragoi, Valentzia, Madril eta Errioxa. Gainera, hauxe da emakumeen langabezia-tasa txikiena daukan autonomia-erkidegoa; 11,5ekoa, aipatutako inkestaren arabera.

**2.14. TAULA.** 16 eta 64 urte arteko biztanleriaren langabezia-tasa, sexuaren eta autonomia-erkidegoaren arabera. 2009

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | GIZONAK | G-E |
|---|---|---|---|---|
| GUZTIRA | 18,0 | 18,4 | 17,7 | -0,7 |
| Murtzia | 20,7 | 18,8 | 22,1 | 3,3 |
| Balearrak | 18,0 | 16,5 | 19,2 | 2,7 |
| Katalunia | 16,3 | 15,2 | 17,1 | 1,9 |
| Aragoi | 12,8 | 12,5 | 13,0 | 0,5 |
| Valentziako Erkidegoa | 21,2 | 21,0 | 21,4 | 0,4 |
| Madril | 14,0 | 14,0 | 14,1 | 0,2 |
| Errioxa | 12,8 | 13,1 | 12,5 | -0,5 |
| Euskadi | 11,0 | 11,5 | 10,7 | -0,9 |
| Kantabria | 12,0 | 12,8 | 11,3 | -1,5 |
| Kanariak | 26,2 | 27,0 | 25,5 | -1,5 |
| Galizia | 12,6 | 13,6 | 11,8 | -1,8 |
| Nafarroa | 10,9 | 12,0 | 10,1 | -1,9 |
| Asturias | 13,4 | 14,5 | 12,5 | -1,9 |
| Andaluzia | 25,4 | 27,1 | 24,1 | -3,0 |
| Gaztela-Mantxa | 18,8 | 21,4 | 17,1 | -4,3 |
| Gaztela eta Leon | 13,8 | 16,5 | 11,8 | -4,8 |
| Extremadura | 20,6 | 25,3 | 17,2 | -8,0 |
| Ceuta | 18,9 | 28,2 | 12,9 | -15,3 |
| Melilla | 24,2 | 33,6 | 17,6 | -16,1 |

*Iturria*: EIN. BAI.

*Oharra*: G-E: (gizonen tasa – emakumeen tasa).

## BIZTANLERIA AKTIBOA 2.1.2

2009an, 1.864.100 pertsonak osatzen zuten Euskadiko biztanleria aktiboa. Haietatik, % 57 emakumeak ziren; nolanahi ere, emakume horiek lan-jarduera duten biztanleen % 44 baino ez dira. Lan-jarduera duten pertsonak lanari eskainitako denboraren arabera sailkatuz gero, 420.800 emakumeetatik 10.200 baino ez daude gainokupatuta, eta gizonetatik, berriz, ia halako hiru. Zehazki, gainokupazioaz edo okupazio hertsiaz azpiko lan-jarduera daukaten pertsonen % 85etik gora emakumeak dira.

10 pertsona aktibotatik ia 6 emakumeak dira, baina lan-jarduerari eskainitako denborak gora egin ahala, gero eta txikiagoa da emakumeen presentzia. Hala, lanez kanpoko jarduera duten 10 pertsonatik 7 baino gehiago emakumeak dira; ez dabiltza enplegu bila, eta etxeko lanak egiten edo ikasten soilik aritzen dira. Aitzitik, pertsona langabeen eta erretiratuen artean ez da gauza bera gertatzen, eta han, 10 pertsonatik 8 baino gehiago gizonak dira.

## 2.15. TAULA. 16 urteko eta gehiagoko biztanleria, jarduerarekiko egoeraren eta sexuaren arabera. 2009

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| GUZTIRA | **1.864,1** | **958,3** | **51,4** | **905,8** | **48,6** |
| **Jarduera duen biztanleria** | **1.626,1** | **926,5** | **57,0** | **699,6** | **43,0** |
| Lan-jarduera duen biztanleria | 951,5 | 420,8 | 44,2 | 530,7 | 55,8 |
| *Gainokupatuak* | *38,3* | *10,2* | *26,6* | *28,1* | *73,4* |
| *Okupatu hertsiak* | *897,9* | *397,4* | *44,3* | *500,5* | *55,7* |
| *Lan-jarduera duen gainerako biztanleria* | *15,2* | *13,2* | *86,8* | *2,0* | *13,2* |
| Lanez kanpoko jarduera duen biztanleria | 674,6 | 505,7 | 75,0 | 169,0 | 25,1 |
| *Lanez kanpoko jardueran okupatuak* | *626,5* | *475,2* | *75,8* | *151,3* | *24,2* |
| *Lanez kanpoko jarduera duen gainerako biztanleria* | *48,2* | *30,5* | *63,3* | *17,7* | *36,7* |
| **Jarduerarik gabeko biztanleria** | **238,0** | **31,9** | **13,4** | **206,2** | **86,6** |
| Langabe hertsiak | 36,1 | 5,1 | 14,1 | 31,0 | 85,9 |
| Erretiratu hertsiak eta beste batzuk | 201,9 | 26,8 | 13,3 | 175,1 | 86,7 |

*Iturria*: Eustat. BJA.

Azken 10 urteetan, emakumeen presentziak gora egin du lan-merkatuan: lan-jardueradun 10 biztanletik 3 izatetik 4 baino gehiago izatera pasatu dira. Emakume gainokupatuen kopuruak ere gora egin du, % 5 inguru. Era berean, emakumeen proportzioak behera egin du lanez kanpoko jarduera duten eta jarduerarik gabeko biztanleen artean, beheko taulan ikus daitekeenez.

## 2.16. TAULA. 16 urteko eta gehiagoko biztanleria aktiboaren bilakaera (emakumeen ehunekoa guztizko biztanleriarekiko), jarduerarekiko egoeraren eta sexuaren arabera. 1989-2009

| | 1989 | 1994 | 1999 | 2004 | 2009 |
|---|---|---|---|---|---|
| | % E | % E | % E | % E | % E |
| GUZTIRA | **51,2** | **51,3** | **51,3** | **51,4** | **51,4** |
| **Jarduera duen biztanleria** | **56,2** | **58,1** | **57,7** | **57,9** | **57,0** |
| Lan-jarduera duen biztanleria | 31,2 | 34,2 | 37,2 | 41,4 | 44,2 |
| *Gainokupatuak* | *21,6* | *24,4* | *24,9* | *23,0* | *26,6* |
| *Okupatu hertsiak* | *31,1* | *34,4* | *37,4* | *42,2* | *44,3* |
| *Lan-jarduera duen gainerako biztanleria* | *58,6* | *73,7* | *83,0* | *86,6* | *86,8* |
| Lanez kanpoko jarduera duen biztanleria | 83,5 | 81,3 | 83,7 | 83,8 | 75,0 |
| *Lanez kanpoko jardueran okupatuak* | *83,4* | *81,1* | *83,8* | *83,7* | *75,8* |
| *Lanez kanpoko jarduera duen gainerako biztanleria* | *84,2* | *82,6* | *83,5* | *84,9* | *63,3* |
| **Jarduerarik gabeko biztanleria** | **27,9** | **24,2** | **24,0** | **18,6** | **13,4** |
| Langabe hertsiak | 33,4 | 31,5 | 37,2 | 30,1 | 14,1 |
| Erretiratu hertsiak eta beste batzuk | 25,7 | 20,3 | 19,9 | 16,4 | 13,3 |

*Iturria*: Eustat. BJA.

Pertsona ez-aktiboen errealitatea oso bestelakoa da genero-ikuspegitik. 2009an, pertsona ez-aktiboen % 60 emakumeak ziren. Ez-aktibotasun horren arrazoi nagusia etxeko lanetan

aritzea da, eta arrazoi horren atzetik, erretiroa ez beste pentsioren bat jasotzea. Zehazki, pertsona ez-aktiboen % 40 baino gutxiago dira gizonak, eta 10etik 6, erretiroa edo aurre-erretiroa hartu dutelako. % 5 baino ez da ari ugalketa-lanetan.

**2.17. TAULA.** EAEko 16 urteko eta gehiagoko biztanleria ez-aktiboa (milakotan), ez-aktibotasunaren motaren eta sexuaren arabera. 2009

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | | GIZONAK | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % H | % B | ABS. | % H | % B |
| GUZTIRA | 778,0 | 470,2 | 60,4 | 100,0 | 307,8 | 39,6 | 100,0 |
| Ikasten | 106,6 | 55,6 | 52,2 | 11,8 | 51,0 | 47,8 | 16,6 |
| Erretiratuak edo aurrez erretiratuak | 264,2 | 71,5 | 27,1 | 15,2 | 192,7 | 72,9 | 62,6 |
| Etxeko lanak | 219,7 | 205,0 | 93,3 | 43,6 | 14,7 | 6,7 | 4,8 |
| Ezintasun iraunkorra dutenak | 69,2 | 38,7 | 55,9 | 8,2 | 30,4 | 43,9 | 9,9 |
| Erretiroa edo aurre-erretiroa ez den beste pentsioren bat | 99,9 | 93,3 | 93,4 | 19,8 | 6,5 | 6,5 | 2,1 |
| Beste batzuk | 18,4 | 5,9 | 32,1 | 1,3 | 12,5 | 67,9 | 4,1 |

*Iturria*: EIN. BAI. *Oharra*: % H: % horizontalak/lerroak; % B: % bertikalak/zutabeak

Emakumeak lan-merkatuan sartzea argi eta garbi ikusten da 16 urteko eta gehiagoko biztanleen bilakaeran. Modu horretara, azken 15 urteotan, ia bikoiztu egin da emakume okupatuen kopurua, 195.800etik 362.500era. Nahiz eta okupatuen kopuruak ere gora egin (ia 75.000 pertsona), igoera hori ez da hainbestekoa izan, eta beraz, murriztu egin da pertsona okupatuen arteko genero-hesia.

**2.18. TAULA.** 16 urteko eta gehiagoko biztanleria okupatuaren bilakaera (milakotan), sexuaren arabera. 1995-2009

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| 1995 | 545,9 | 195,8 | 35,9 | 350,1 | 64,1 |
| 1997 | 569,8 | 211,5 | 37,1 | 358,2 | 62,9 |
| 1999 | 654,0 | 252,6 | 38,6 | 401,4 | 61,4 |
| 2001 | 691,1 | 273,0 | 39,5 | 418,2 | 60,5 |
| 2003 | 730,7 | 308,0 | 42,2 | 422,7 | 57,8 |
| 2005 | 772,7 | 336,0 | 43,5 | 436,7 | 56,5 |
| 2007 | 805,5 | 356,4 | 44,2 | 449,1 | 55,8 |
| 2009 | 787,6 | 362,5 | 46,0 | 425,1 | 54,0 |

*Iturria*: Eustat. PRA.

Ikasketa-mailak eragina dauka emakumeen okupazioan. Emakume okupatuen erdiek baino gehiagok dauzkate goi-mailako ikasketak. Lehen mailako ikasketak dituzten 21.500 emakume soilik ari dira lanean, eta gizonak, berriz, 32.900. Alde horiek argiago ikusten dira lehen mailako ikasketak dituzten emakume eta gizon aktiboen guztizkoen arabera eginez gero azterketa, okupazio-tasaren kasuan egiten den bezala.

## 2.19. TAULA. 16 urteko eta gehiagoko biztanleria okupatua (milakotan), EAEn lortutako prestakuntzaren arabera. 2009

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | | GIZONAK | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % H | % B | ABS. | % H | % B |
| GUZTIRA | 932,0 | 417,3 | 44,8 | 100,0 | 514,7 | 55,2 | 100,0 |
| Analfabetoak | 1,0 | 0,2 | 20,0 | 0,0 | 0,8 | 80,0 | 0,2 |
| Lehen Hezkuntza | 54,4 | 21,5 | 39,5 | 5,2 | 32,9 | 60,5 | 6,4 |
| Bigarren Hezkuntza, lehen zikloa | 196,2 | 76,7 | 39,1 | 18,4 | 119,6 | 61,0 | 23,2 |
| Bigarren Hezkuntza, bigarren zikloa | 204,5 | 89,5 | 43,8 | 21,4 | 115,0 | 56,2 | 22,3 |
| Goi-mailako hezkuntza, doktoregoa izan ezik | 466,8 | 225,8 | 48,4 | 54,1 | 241,0 | 51,6 | 46,8 |
| Doktoregoa | 9,1 | 3,7 | 40,7 | 0,9 | 5,4 | 59,3 | 1,0 |

*Iturria*: EIN. BAI.

*Oharra*: % H: % horizontalak/lerroak; % B: % bertikalak/zutabeak

Pertsona okupatuen arteko genero-hesia adinarekin batera hasten da. Hala, emakume okupatuak 25-34 urte arteko pertsona okupatuen % 47,3 badira ere, % 36,6 baino ez dira 55 urte edo gehiagoko pertsonen artean. Bilakaera horren arrazoiak bat baino gehiago izan daitezke. Alde batetik, belaunaldien arteko aldaketak; haien arabera, etorkizunean murriztu egingo da pertsona okupatuen arteko genero-hesia. Beste aldetik, emakumeen ugalketa-lanaren eragina adin-talde horietatik aurrera.

## 2.20. TAULA. EAEko 15 urteko eta gehiagoko biztanleria okupatua (milakotan), adinaren arabera. 2009

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| GUZTIRA | 951,5 | 420,8 | 44,2 | 530,7 | 55,8 |
| 16-24 | 43,7 | 20,5 | 46,9 | 23,2 | 53,1 |
| 25-34 | 253,5 | 119,8 | 47,3 | 133,7 | 52,7 |
| 35-44 | 288,5 | 128,2 | 44,4 | 160,3 | 55,6 |
| 44-54 | 247,6 | 109,1 | 44,1 | 138,5 | 55,9 |
| 55 eta + | 118,3 | 43,3 | 36,6 | 75,0 | 63,4 |

*Iturria*: Eustat. PRA.

Adin-taldeka, 16 urte eta gehiagoko pertsonen artean emakumeen ehunekoak azken bost urteotan zer bilakaera izan duen aztertuta, ikusiko dugu emakumeen presentziaren bilakaera ezin interpreta daitekeela belaunaldi-zikloari soilik lotuta. Modu horretara, bilakaera gorakorra argia bada ere 44 urte eta gehiagoko pertsonen taldean, talde gazteenetan ez dago joera linealik. 16-24 urte arteko pertsonen artean emakumeen presentzia 4 puntu igo bada ere azken bost urteotan, bilakaera hori irregularra izan da. Esaterako, 2007an aurreko urtean baino % 42 txikiagoa izan zen.

**2.21. TAULA.** 16 urteko eta gehiagoko pertsona okupatuen arteko emakumeen bilakaera, adinaren arabera. 2005-2009

| | 2005 | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 |
|---|---|---|---|---|---|
| 16-24 | 42,3 | 44,0 | 42,0 | 44,4 | 46,9 |
| 25-34 | 45,7 | 46,6 | 45,8 | 47,2 | 47,3 |
| 35-44 | 43,4 | 42,8 | 43,3 | 43,4 | 44,4 |
| 44-54 | 38,8 | 40,9 | 41,0 | 42,3 | 44,1 |
| 55 eta + | 31,7 | 33,2 | 33,0 | 34,4 | 36,6 |

*Iturria*: Eustat. PRA.

Beheko grafikoan, argiago erakusten dira adinaren araberako bilakaerak. Esaterako, 24 urtera arteko talde gazteenean eta 44 urtetik gorako talde adintsuenetan emakumeen presentziaren gorakada % 5 ingurukoa bada ere, 25-44 urte arteko emakumeetan % 1-1,5ekoa da.

**2.2. GRAFIKOA.** 16 urteko eta gehiagoko emakume okupatuen ehuneko, adintaldearen arabera. 2005-2009




Gizarte Segurantzaren datuen arabera, 2009an 934.690 pertsona zeuden bertan alta emanda. Haietatik, % 43,2 emakumeak ziren. Eustatek jarduerarekin lotuta biztanleen artean egindako inkestan jasotzen denez, emakumeen presentzia 25-34 urteen arteko adin-taldeetan da handiena, eta proportzioa txikituz doa gainerako adin-taldeetan. 60-64 urte arteko pertsonen adin-tartean dago muga (% 32,1).

## 2.22. TAULA. Gizarte Segurantzan alta emandako biztanleria (milakotan), adinaren eta sexuaren arabera. 2009

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | | GIZONAK | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % H | % B | ABS. | % H | % B |
| GUZTIRA | 934,7 | 403,7 | 43,2 | | 531,0 | 56,8 | |
| 16-19 urte | 4,2 | 1,8 | 43,0 | 0,4 | 2,4 | 58,1 | 0,5 |
| 20-24 urte | 41,4 | 19,6 | 47,3 | 4,8 | 21,8 | 52,8 | 4,1 |
| 25-29 urte | 98,1 | 47,1 | 48,0 | 11,7 | 51,0 | 52,0 | 9,6 |
| 30-34 urte | 142,0 | 65,1 | 45,9 | 16,1 | 76,9 | 54,1 | 14,5 |
| 35-39 urte | 141,5 | 61,8 | 43,7 | 15,3 | 79,7 | 56,4 | 15,0 |
| 40-44 urte | 135,6 | 58,9 | 43,4 | 14,6 | 76,8 | 56,6 | 14,5 |
| 45-49 urte | 127,8 | 55,7 | 43,6 | 13,8 | 72,1 | 56,5 | 13,6 |
| 50-54 urte | 109,0 | 45,0 | 41,3 | 11,2 | 64,0 | 58,7 | 12,0 |
| 55-59 urte | 79,2 | 29,6 | 37,4 | 7,3 | 49,6 | 62,6 | 9,3 |
| 60-64 urte | 50,2 | 16,1 | 32,1 | 4,0 | 34,1 | 67,9 | 6,4 |
| 65 urtekoak eta + | 5,4 | 3,0 | 55,0 | 0,7 | 2,5 | 45,7 | 0,5 |

*Iturria*: Gizarte Segurantza.

*Oharra*: % H: % horizontalak/lerroak; % B: % bertikalak/zutabeak

Pertsona okupatu gehienek ez daukate seme-alabarik beren kargu; multzo horretakoak dira emakumeen % 48,5 eta gizonen % 49,8. Beren kargu duten seme-alaben kopuruak ez dauka eragin handirik lan-arloan emakumeen eta gizonen proportzioan. Hori bai, egia da emakumeen proportzioa batez besteko orokorra baino handiagoa dela beren kargu hartutako ondorengo bakarrarekin (% 46,4).

## 2.23. TAULA. 16 urteko eta gehiagoko biztanleria okupatua, beren kargu duten seme-alaben kopuruaren eta sexuaren arabera. 2009

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | | GIZONAK | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % H | % B | ABS. | % H | % B |
| GUZTIRA | 951,5 | 420,8 | 44,2 | 100,0 | 530,7 | 55,8 | 100,0 |
| 0 | 468,1 | 204,0 | 43,6 | 48,5 | 264,1 | 56,4 | 49,8 |
| 1 | 228,2 | 105,9 | 46,4 | 25,2 | 122,3 | 53,6 | 23,0 |
| 2 edo + | 255,1 | 110,8 | 43,4 | 26,3 | 144,3 | 56,6 | 27,2 |

*Iturria*: Eustat. BJA.

*Oharra*: % H: % horizontalak/lerroak; % B: % Bertikalak/zutabeak

Nolanahi ere, beren kargu duten seme-alaben kopuruaren arabera pertsona okupatuen artean emakumeen presentziak izan duen bilakaerak kontuan hartu beharreko zenbait aldaketa jartzen ditu agerian. Esaterako, ondorengoren bat beren kargu duten pertsonen artean gertatu da batez ere emakumeen proportzioaren gorakada azken bost urteotan. Bestalde, bilakaera irregularragoa izan du, eta egonkorra, beren kargu seme-alabarik ez duten emakume okupatuen proportzioak. Beren kargu seme-alaba bat duten emakumeen kopuruak asko egin du gora, 23.400 emakume gehiago; eta beren kargu seme-alabarik ez duten emakumeen kopuruak, berriz, oso gutxi, 200 emakume baino ez.

## 2.24. TAULA. Emakume okupatuen kopuruaren eta ehunekoaren bilakaera, beren kargu duten seme-alaben kopuruaren arabera 2005-2009

| | 0 | | 1 | | 2 EDO GEHIAGO | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % |
| 2005 | 203,8 | 42,5 | 82,4 | 41,9 | 106,5 | 39,6 |
| 2006 | 213,6 | 43,1 | 85,1 | 42,8 | 109,0 | 40,9 |
| 2007 | 211,9 | 42,7 | 93,9 | 42,6 | 106,8 | 41,0 |
| 2008 | 212,4 | 43,2 | 108,3 | 44,4 | 105,5 | 42,0 |
| 2009 | 204,0 | 43,6 | 105,9 | 46,4 | 110,8 | 43,4 |
| 2009-2005 | 0,2 | 1,1 | 23,5 | 4,5 | 4,3 | 3,9 |

*Iturria*: Eustat. BJA.

Zenbait ezaugarri soziodemografikok, hala nola adinak, prestakuntza-mailak edota nork bere kargu dituen seme-alaben kopuruak eragina dute emakumeen eta gizonen lan-merkatuko okupazioan. Dena den, behin okupatuta, egoera nahiko desberdina da sexuaren arabera. Lan-merkatuaren ohiko irudia da zenbait sektore gizonentzat gordetzea, hala nola industria eta eraikuntza, eta aldiz, zerbitzu-sektorea emakumeentzat uztea. Estatistika Institutu Nazionalak biztanleria aktiboari buruz egindako inkestaren datuek agerian jartzen dute irudi hori. Modu horretan, eraikuntzan eta industrian 10 pertsonatik 1 edo 2 baino ez dira emakumeak; eta zerbitzu-sektorean, berriz, 10etik ia 6 dira emakumeak. Dena den, emakumeen enpleguaren sektorizazioari buruzko datuak azterketa bertikalaren bidez ikusten dira argien: 10 emakume okupatutik ia 9 zerbitzu-sektorean ari dira lanean.

## 2.25. TAULA. EAEko 16 urteko eta gehiagoko biztanleria okupatua (milakotan), sektorearen eta sexuaren arabera. 2009

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | | GIZONAK | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % H | % B | ABS. | % H | % B |
| GUZTIRA | 932,0 | 417,3 | 44,8 | 100,0 | 514,7 | 55,2 | 100,0 |
| Nekazaritza | 13,1 | 3,9 | 29,8 | 0,9 | 9,2 | 70,2 | 1,8 |
| Industria | 213,8 | 41,9 | 19,6 | 10,0 | 171,9 | 80,4 | 33,4 |
| Eraikuntza | 74,7 | 6,5 | 8,7 | 1,6 | 68,2 | 91,3 | 13,3 |
| Zerbitzuak | 630,5 | 365,1 | 57,9 | 87,5 | 265,4 | 42,1 | 51,6 |

*Iturria*: EIN. BAI.

*Oharra*: % H: % horizontalak/lerroak; % B: % bertikalak/zutabeak

Pertsona okupatuek zer jarduera-adarretan lan egiten duten aztertuta, zehatzago jakingo dugu zer-nolako genero-hesia dagoen. Dibertimenduzko eta denbora-pasarako arte-jardueretan lan egiten duten 10 pertsonatik ia 8 emakumeak dira. Halakoak dira etxeko lanak egiten dituztenak, norberak erabiltzeko ondasunen eta zerbitzuen ekoizleak; edota lurraldez kanpoko erakundeen jardueretan eta beste zerbitzu batzuk ematen lan egiten dutenak. 10etik 7 baino gehiago dira, halaber, higiezinen sektorean. Bestalde, emakumeak ez dira pertsona okupatuen laurdena ere industrian eta eraikuntzan. Emakumeen okupazio nagusia administrazio publikoa da. Bertan daude emakume okupatuen 10etik ia 3, eta ondoren,

merkataritzan (% 26,7). Gizonei dagokienez, 10 gizon okupatutik 6k baino gehiagok industrian eta eraikuntzan egiten dute lan, eta % 22,4k, berriz, merkataritzan.

## 2.26. TAULA. 16 urteko eta gehiagoko biztanleria okupatua, jarduera-adarraren eta sexuaren arabera. 2009

| | EMAKUMEAK | | | GIZONAK | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | % H | % B | ABS. | % H | % B |
| GUZTIRA | 417,3 | 44,8 | | 514,7 | 55,2 | |
| Nekazaritza (A) | 3,9 | 29,8 | 0,9 | 9,2 | 70,2 | 1,8 |
| Industria guztira (B + C + D + E) | 41,9 | 19,6 | 10,0 | 171,9 | 80,4 | 33,4 |
| Industriak (2) | 1,5 | 14,7 | 0,4 | 8,7 | 85,3 | 1,7 |
| Manufaktura-industriak (C) | 40,4 | 19,8 | 9,7 | 163,1 | 80,1 | 31,7 |
| Eraikuntza (F) | 6,5 | 8,7 | 1,6 | 68,2 | 91,3 | 13,3 |
| Merkataritza (1) | 111,6 | 49,2 | 26,7 | 115,3 | 50,8 | 22,4 |
| Informazioa eta komunikazioa (J) | 9,9 | 37,4 | 2,4 | 16,6 | 62,6 | 3,2 |
| Finantza- eta aseguru-jarduerak (K) | 10,9 | 47,8 | 2,6 | 11,9 | 52,2 | 2,3 |
| Higiezin-jarduerak (L) | 3,4 | 73,9 | 0,8 | 1,3 | 28,3 | 0,3 |
| Jarduera profesionalak (3) | 56,5 | 57,0 | 13,5 | 42,7 | 43,0 | 8,3 |
| Herri-administrazioa (4) | 118,8 | 65,2 | 28,5 | 63,3 | 34,8 | 12,3 |
| Arte-jarduerak eta beste batzuk (5) | 54,1 | 79,1 | 13,0 | 14,3 | 20,9 | 2,8 |

*Iturria*: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila, eta EIN: Biztanleria Aktiboari buruzko Inkesta (EPA).

*Oharra*: (1) Handizkako eta txikizkako merkataritza; motordun ibilgailuen eta motorren konponketa; garraioa eta biltegiratzea; ostalaritza. (2) Erauzketa-industriak; energia elektriko, gas, lurrun eta aire girotuaren hornidura; ur hornidura; saneamendu-jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa (B + D + E). (3) Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak; administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak (M + N). (4) Herri-administrazioa eta herrizaingoa, derrigorrezko gizarte-segurantza; hezkuntza; osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuenak (O + P + Q). (5) Arte-jarduerak, jolas- eta entretenimendu-jarduerak; etxeak, etxeko langileak enplegatzen dituzten aldetik, eta norberaren erabilerarako ondasunen eta zerbitzuen ekoizle diren aldetik; lurraldez kanpoko erakundeen jarduerak; beste zerbitzu batzuk (R + S + T + U). Kalt.: pertsona kaltetuak; Enpleg.: pertsona enplegatuak.

Eraikuntzaren sektorea batez ere gizonentzat gordetako sektoretako bat da oraindik. EAEn, 4.102 emakume kontratatu ziren sektore horretan 2000-2008 urteen artean. Hala, pertsona kontratatuen % 5,5 izatetik % 15,1 izatera pasatu ziren. Bilakaera gorakorra konstantea izan zen 2008ra arte. Orduantxe nabaritu ziren krisiaren lehen eraginak, eta lanpostua galdu zuten 2.094 emakumek eta 2.937 gizonek.

## 2.27. TAULA. Eraikuntzan enplegatutako langileak, sexuaren arabera. 2000-2008

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| 2000 | 69.155 | 3.780 | 5,5 | 65.375 | 94,5 |
| 2001 | 75.790 | 4.516 | 6,0 | 71.274 | 94,0 |
| 2002 | 81.118 | 5.263 | 6,5 | 75.855 | 93,5 |
| 2003 | 86.353 | 5.809 | 6,7 | 80.544 | 93,3 |
| 2004 | 90.774 | 6.634 | 7,3 | 84.140 | 92,7 |
| 2005 | 93.176 | 6.802 | 7,3 | 86.374 | 92,7 |
| 2006 | 96.312 | 7.117 | 7,4 | 89.195 | 92,6 |
| 2007 | 101.437 | 9.976 | 9,8 | 91.461 | 90,2 |
| 2008 | 96.406 | 7.882 | 8,2 | 88.524 | 91,8 |
| 2008-2000 | 27.251 | 4.102 | 15,1 | 23.149 | 84,9 |

*Iturria*: Eustat. Eraikuntzari buruzko estatistika.

Eraikuntza bezala, industria ere ez da emakumeen sektorea. Sektore horretan, emakumeen presentzia ez zen % 20ra iristen 2008an. Jarduera industrialen artean, mineral metalikoen eta ez-metalikoen industrietan dago emakume gutxien. Ez da % 10era iristen edo hor nonbait dabil, hala nola zuraren industrian eta petrolio-findegietan. Gizonak nagusi ez diren bi jarduera industrial bakarrik daude: ehungintza, langileen % 65,3 emakumeak baitira; eta larrugintza eta oinetakogintza, % 51,5 emakumeak izanik.

## 2.28. TAULA. Industrian enplegatutako langileak, sexuaren eta jardueraren arabera. 2008

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| INDUSTRIA, GUZTIRA | 250.292 | 48.291 | 19,3 | 202.001 | 80,7 |
| Mineral metalikoak eta ez-metalikoak | 800 | 57 | 7,1 | 743 | 92,9 |
| Elikagaigintza | 15.963 | 5.846 | 36,6 | 10.117 | 63,4 |
| Ehungintza eta jantzigintza | 2.996 | 1.955 | 65,3 | 1.041 | 34,7 |
| Larrugintza eta oinetakogintza | 262 | 135 | 51,5 | 127 | 48,5 |
| Zuraren industria | 6.428 | 706 | 11,0 | 5.722 | 89,0 |
| Papera, edizioa eta inprenta | 14.187 | 4.100 | 28,9 | 10.087 | 71,1 |
| Petrolio-findegiak | 1.086 | 119 | 11,0 | 967 | 89,0 |
| Kimika-industria | 6.011 | 1.664 | 27,7 | 4.347 | 72,3 |
| Kautxua eta plastikoa | 18.302 | 3.014 | 16,5 | 15.288 | 83,5 |
| Industria ez-metalikoa | 7.587 | 881 | 11,6 | 6.706 | 88,4 |
| Metalurgia eta gai metalikoak | 88.744 | 12.739 | 14,4 | 76.005 | 85,6 |
| Makinak | 32.645 | 5.842 | 17,9 | 26.803 | 82,1 |
| Material elektrikoa | 19.926 | 5.270 | 26,4 | 14.656 | 73,6 |
| Garraio-materiala | 20.438 | 3.151 | 15,4 | 17.287 | 84,6 |
| Beste manufaktura-industria batzuk | 10.855 | 2.058 | 19,0 | 8.797 | 81,0 |
| Energia elektrikoa, gasa eta ura | 4.062 | 754 | 18,6 | 3.308 | 81,4 |

*Iturria*: Eustat. Industriari buruzko estatistika.

Sektore guztietako egoera ekonomikoa zein den eta haietan lan egiten duten pertsonek zer-nolako bilakaera izan duten erakusten duten estatistiken artean, Eustatek badauka ikerketa zientifikorako eta garapen teknologikorako jarduerei buruzko estatistika bat. Bertan jasotzen da zer ahalegin egiten duten ikertzen Euskadiko ekonomiaren hainbat sektoretan, bai enpresetan, bai administrazio publikoan, bai eta goi-mailako irakaskuntzan ere. 2008ko datuen arabera, eremu horretan 15.373 pertsona zeuden lanean, lanaldi osoaren baliokide, eta haietatik % 66,6 gizonak ziren. Okupazio-kategoriak aintzat hartuz, laguntzaileen kasuan izan ezik, ez dago parekotasunik. Esaterako, ikertzaileen artean % 34,3 emakumeak ziren, eta % 28,4, berriz, teknikarien artean. Diziplina zientifikoetan presentzia handia ala txikia izan okupazioaren kategoriaren baitan dago, nahiz eta antzekotasun batzuk izan.

Emakumeen presentzia txikiagoa da beti ingeniaritzetan gainerako diziplinetan baino. Errealitate hori bat dator unibertsitatean ingeniaritza-eskolak hartzen dituen emakumeen kopuruarekin. Nolanahi ere, Euskadin ikerketan eta garapenean lan egiten duten ia pertsona guztiak ingeniaritzatik datoz, 15.373,2tik 10.920.

**2.29. TAULA.** LOB duten langileak, eremu edo diziplina zientifikoaren, okupazioaren eta sexuaren arabera. 2008

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| GUZTIRA | 15.373,2 | 5.135,3 | 33,4 | 10.237,9 | 66,6 |
| Zientzia Zehatzak | 1.606,4 | 736,9 | 45,9 | 869,5 | 54,1 |
| Ingeniaritza | 10.920,5 | 2.990,7 | 27,4 | 7.929,8 | 72,6 |
| Medikuntza Zientziak | 1.252,6 | 639,4 | 51,0 | 613,2 | 49,0 |
| Nekazaritza Zientziak | 504,6 | 252,1 | 50,0 | 252,5 | 50,0 |
| Gizarte Zientziak | 1.089,1 | 516,2 | 47,4 | 572,8 | 52,6 |
| **Ikertzaileak** | **9.640,1** | **3.306,7** | **34,3** | **6.333,4** | **65,7** |
| Zientzia Zehatzak | 1.358,4 | 588,4 | 43,3 | 770,0 | 56,7 |
| Ingeniaritza | 6.200,5 | 1.743,7 | 28,1 | 4.456,8 | 71,9 |
| Medikuntza Zientziak | 940,7 | 444,0 | 47,2 | 496,7 | 52,8 |
| Nekazaritza Zientziak | 273,5 | 134,1 | 49,0 | 139,4 | 51,0 |
| Gizarte Zientziak | 867,0 | 396,4 | 45,7 | 470,5 | 54,3 |
| **Teknikariak** | **4.190,4** | **1.188,4** | **28,4** | **3.002,0** | **71,6** |
| Zientzia Zehatzak | 184,9 | 99,1 | 53,6 | 85,8 | 46,4 |
| Ingeniaritza | 3.494,4 | 831,2 | 23,8 | 2.663,1 | 76,2 |
| Medikuntza Zientziak | 207,7 | 119,9 | 57,7 | 87,8 | 42,3 |
| Nekazaritza Zientziak | 152,6 | 76,2 | 49,9 | 76,4 | 50,1 |
| Gizarte Zientziak | 150,8 | 62,0 | 41,1 | 88,8 | 58,9 |
| **Laguntzaileak** | **1.542,7** | **640,2** | **41,5** | **902,5** | **58,5** |
| Zientzia Zehatzak | 63,1 | 49,4 | 78,3 | 13,7 | 21,7 |
| Ingeniaritza | 1.225,7 | 415,7 | 33,9 | 809,9 | 66,1 |
| Medikuntza Zientziak | 104,1 | 75,5 | 72,5 | 28,6 | 27,5 |
| Nekazaritza Zientziak | 78,5 | 41,8 | 53,2 | 36,7 | 46,8 |
| Gizarte Zientziak | 71,3 | 57,8 | 81,1 | 13,5 | 18,9 |

*Iturria*: Eustat. Ikerketa zientifikorako eta garapen teknologikorako jarduerei buruzko estatistika.

*Oharra*: LOB = lanaldi osoaren baliokidea. Hori kalkulatzeko, batu egin behar dira lanaldi osoko langileak eta lanaldi partzialeko langileek I+G jardueretan igarotzen duten denbora.

Azken 15 urteotan, 1993tik, gero eta emakume gehiagok egiten dute lan ikerketa zientifikoaren eta garapenaren alorrean, eta hala, % 22,6 izatetik % 33,4 izatera pasatu dira.

Nolanahi ere, igoera hori ez da konstantea; 2002an % 32koa zen, baina ondoren, atzera egin zuen 2006ra arte.

**2.30. TAULA.** LOB duten langileen bilakaera, urtearen eta sexuaren arabera. 1993-2008

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| 1993 | 5.741,8 | 1.298,2 | 22,6 | 4.443,7 | 77,4 |
| 1994 | 5.666,9 | 1.328,0 | 23,4 | 4.339,0 | 76,6 |
| 1995 | 5.644,7 | 1.272,8 | 22,5 | 4.371,9 | 77,5 |
| 1996 | 6.235,9 | 1.459,7 | 23,4 | 4.776,2 | 76,6 |
| 1997 | 6.728,6 | 1.624,9 | 24,1 | 5.103,7 | 75,9 |
| 1998 | 6.794,8 | 1.757,4 | 25,9 | 5.037,4 | 74,1 |
| 1999 | 8.266,3 | 2.127,1 | 25,7 | 6.139,2 | 74,3 |
| 2000 | 9.091,5 | 2.416,4 | 26,6 | 6.675,1 | 73,4 |
| 2001 | 10.618,6 | 2.924,7 | 27,5 | 7.693,9 | 72,5 |
| 2002 | 13.065,3 | 4.178,9 | 32,0 | 8.886,4 | 68,0 |
| 2003 | 11.352,6 | 3.458,8 | 30,5 | 7.893,9 | 69,5 |
| 2004 | 11.925,1 | 3.655,3 | 30,7 | 8.269,8 | 69,3 |
| 2005 | 12.505,5 | 3.966,6 | 31,7 | 8.538,9 | 68,3 |
| 2006 | 13.065,3 | 4.178,9 | 32,0 | 8.886,4 | 68,0 |
| 2007 | 14.434,9 | 4.769,4 | 33,0 | 9.665,4 | 67,0 |
| 2008 | 15.373,2 | 5.135,3 | 33,4 | 10.237,9 | 66,6 |

*Iturria*: Eustat. Ikerketa zientifikorako eta garapen teknologikorako jarduerei buruzko estatistika.

*Oharra*: LOB = lanaldi osoaren baliokidea. Hori kalkulatzeko, batu egin behar dira lanaldi osoko langileak eta lanaldi partzialeko langileek I+G jardueretan igarotzen duten denbora.

Oro har, pertsonen autonomia ekonomikoa lortzea bada lanaren helburua, errealitatea da emakume okupatuen lan-baldintzak gizon okupatuenak baino txarragoak direla. 2009an, kontraturik gabeko soldatako 19.100 pertsona okupatu zenbatu ziren guztira, eta halako 10etik 9 emakumeak ziren, hau da, 17.200. Kontratu mugagabea edo finkoa duten soldatako emakumeak guztizkoaren % 42,9 dira, eta gizonak, berriz, ia % 15 gehiago. 1994tik, soldatako emakumeen proportzioak gora egin du, % 35,1etik % 46ra; baina haien ezegonkortasun-egoera ez da aldatu, hau da, 1994an soldatako eta kontraturik gabeko 10 pertsonatik 8 emakumeak ziren, eta orain, berriz, 10etik 9, soldatako emakumeen guztizkoaren % 4,7. Kontratu mugagabeen edo finkoen proportzioak gora egin du emakumeen nahiz gizonen artean, % 13,1 eta % 8,9, hurrenez hurren. Beraz, banaketa bertikalean murriztu egin da genero-hesia kontratu mugagabeen edo finkoen artean, 14 puntutik 9,8 puntura.

## 2.31. TAULA. 16 urteko eta gehiagoko biztanleria okupatu soldatakoaren bilakaera, kontratu-motaren eta sexuaren arabera. 1994-2009

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | | GIZONAK | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % H | % B | ABS. | % H | % B |
| **1994** | | | | | | | |
| GUZTIRA | 537,7 | 188,6 | 35,1 | 100,0 | 349,1 | 64,9 | 100,0 |
| Mugagabeak – finkoak | 374,9 | 114,2 | 30,5 | 60,6 | 260,6 | 69,5 | 74,6 |
| Aldi baterakoak | 134,6 | 51,4 | 38,2 | 27,3 | 83,2 | 61,8 | 23,8 |
| Kontraturik gabe eta beste batzuk | 28,3 | 22,9 | 80,9 | 12,1 | 5,3 | 18,7 | 1,5 |
| **1999** | | | | | | | |
| GUZTIRA | 654,0 | 252,6 | 38,6 | 100,0 | 401,4 | 61,4 | 100,0 |
| Mugagabeak – finkoak | 419,8 | 141,0 | 33,6 | 55,8 | 278,8 | 66,4 | 69,5 |
| Aldi baterakoak | 192,5 | 77,3 | 40,2 | 30,6 | 115,2 | 59,8 | 28,7 |
| Kontraturik gabe eta beste batzuk | 41,8 | 34,4 | 82,3 | 13,6 | 7,4 | 17,7 | 1,8 |
| **2004** | | | | | | | |
| GUZTIRA | 754,8 | 325,1 | 43,1 | 100,0 | 429,7 | 56,9 | 100,0 |
| Mugagabeak – finkoak | 517,2 | 198,7 | 38,4 | 61,1 | 318,5 | 61,6 | 74,1 |
| Aldi baterakoak | 203,2 | 96,3 | 47,4 | 29,6 | 106,8 | 52,6 | 24,9 |
| Kontraturik gabe eta beste batzuk | 34,4 | 30,0 | 87,2 | 9,2 | 4,4 | 12,8 | 1,0 |
| **2009** | | | | | | | |
| GUZTIRA | 787,6 | 362,5 | 46,0 | 100,0 | 425,1 | 54,0 | 100,0 |
| Mugagabeak – finkoak | 622,0 | 267,0 | 42,9 | 73,7 | 355,0 | 57,1 | 83,5 |
| Aldi baterakoak | 146,5 | 78,3 | 53,4 | 21,6 | 68,2 | 46,6 | 16,0 |
| Kontraturik gabe eta beste batzuk | 19,1 | 17,2 | 90,1 | 4,7 | 1,9 | 9,9 | 0,4 |

*Iturria*: Eustat. BJA.

*Oharra*: % H: % horizontalak/lerroak; % B: % bertikalak/zutabeak

Etorkizuneko erronketako bat da, hain justu, emakumeek lanaldi partzialean lan egiteak zer ondorio dituen aztertzea. Familia-bizitza eta lana uztartzeak ez du ardurakidetza ekarri; aitzitik, zaintza-zerbitzu publiko edo pribatuak konbinatzen dira soldatako lanean orduak murriztearekin. Horrek guztiak ondorioak eragiten ditu uneko autonomia ekonomikoan eta nork bere burua profesionalki sustatzeko aukeretan, baina baita langabeziako eta erretiroko diru-laguntzak eskuratzeko orduan ere. Esate baterako, Europako iparraldean oso altua da emakumeen okupazio-tasa, baina tasa horren atzean, lan produktibo partzialeko tasa altua dago. Zaintzan laguntzeko helburuarekin eta partzialtasuna sustatzeko administrazio publikoek hartutako neurriak emakumeek bereganatu dituzte hein handian.

Errealitate hori agerian gelditzen da Eustatek jarduerarekin lotuta biztanleen artean egindako inkestako datuetan. Sektore pribatuan eta kooperatibetan, lanaldi partzialeko soldatako pertsonen % 87 emakumeak dira, eta % 82,4, berriz, sektore publikoko soldatako pertsonen artean. Azken bost urteotan, gora egin du lanaldi partzialaren feminizazioak. Soldatako emakumeen proportzioa 8 puntu igo da sektore publikoan 2005etik, eta 6 puntu, berriz, sektore pribatuan eta kooperatibetan.

## 2.32. TAULA. Soldatako langileak, sektorearen, lan-jardunaldiaren eta sexuaren arabera. 2009

| | GUZTIRA | | OSOA | | PARTZIALA | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | % EMAKUMEAK | GUZTIRA | % EMAKUMEAK | GUZTIRA | % EMAKUMEAK |
| **2005** | | | | | | |
| Sektore publikoko soldatakoak | 132,5 | 56,7 | 123,5 | 55,4 | 9,0 | 74,4 |
| Sektore pribatuko soldatakoak eta kooperatibistak | 665,9 | 41,1 | 599,0 | 36,6 | 66,9 | 81,2 |
| **2006** | | | | | | |
| Sektore publikoko soldatakoak | 134,4 | 56,8 | 126,8 | 55,7 | 7,6 | 75,0 |
| Sektore pribatuko soldatakoak eta kooperatibistak | 680,3 | 42,2 | 617,9 | 37,7 | 62,5 | 87,4 |
| **2007** | | | | | | |
| Sektore publikoko soldatakoak | 136,3 | 59,8 | 128,2 | 58,4 | 8,1 | 80,2 |
| Sektore pribatuko soldatakoak eta kooperatibistak | 695,3 | 41,4 | 633,1 | 36,9 | 62,1 | 87,3 |
| **2008** | | | | | | |
| Sektore publikoko soldatakoak | 139,4 | 60,8 | 132,5 | 59,8 | 6,9 | 79,7 |
| Sektore pribatuko soldatakoak eta kooperatibistak | 705,2 | 41,9 | 640,3 | 37,3 | 64,9 | 86,9 |
| **2009** | | | | | | |
| Sektore publikoko soldatakoak | 145,6 | 60,1 | 138,2 | 58,9 | 7,4 | 82,4 |
| Sektore pribatuko soldatakoak eta kooperatibistak | 665,3 | 43,0 | 599,1 | 38,1 | 66,2 | 87,0 |

*Iturria*: Eustat. BJA.

Euskadi eta Errioxa dira lan partzialean feminizazio handiena duten autonomia-erkidegoak, Estatistika Institutu Nazionalak biztanleria aktiboari buruz egindako inkestaren arabera; zehazki, emakumeek egiten dute lanaldi partzialeko lanaren % 85,3. Haien atzetik, Extremadura, Aragoi eta Nafarroa daude.

## 2.33. TAULA. Biztanleria okupatua, autonomia-erkidegoaren, lan-jardunaldiaren eta sexuaren arabera. 2009

| | LANALDI OSOA | | | LANALDI PARTZIALA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | % E | % G | GUZTIRA | % E | % G |
| GUZTIRA | 16.472,9 | 38,5 | 61,5 | 2.415,1 | 78,6 | 21,4 |
| **Euskadi** | **799,5** | **38,1** | **61,9** | **132,4** | **85,3** | **14,7** |
| Errioxa | 121,0 | 35,5 | 64,4 | 18,4 | 85,3 | 14,7 |
| Extremadura | 339,1 | 32,8 | 67,2 | 47,6 | 82,4 | 17,9 |
| Aragoi | 497,3 | 37,3 | 62,7 | 76,7 | 82,3 | 17,7 |
| Nafarroa | 238,4 | 36,7 | 63,3 | 37,5 | 82,1 | 17,9 |
| Gaztela eta Leon | 889,0 | 35,5 | 64,5 | 128,4 | 81,5 | 18,5 |
| Asturias | 375,2 | 40,9 | 59,1 | 44,8 | 81,0 | 19,0 |
| Kantabria | 223,4 | 39,7 | 60,3 | 24,2 | 81,0 | 19,0 |
| Gaztela-Mantxa | 701,0 | 33,5 | 66,5 | 93,4 | 80,1 | 19,9 |
| Galizia | 1.023,7 | 41,2 | 58,8 | 127,7 | 79,1 | 20,9 |
| Katalunia | 2.810,9 | 40,8 | 59,2 | 377,9 | 78,7 | 21,3 |
| Balearrak | 423,5 | 40,5 | 59,5 | 55,4 | 78,7 | 21,5 |
| Andaluzia | 2.515,6 | 35,5 | 64,5 | 407,6 | 78,7 | 21,3 |
| Madril | 2.552,0 | 41,5 | 58,5 | 366,0 | 77,6 | 22,4 |
| Murtzia | 504,2 | 37,9 | 62,1 | 71,4 | 75,9 | 24,1 |
| Valentzia | 1.707,8 | 38,0 | 62,0 | 313,8 | 74,6 | 25,4 |
| Kanariak | 708,5 | 39,2 | 60,8 | 86,8 | 72,8 | 27,2 |
| Melilla | 19,0 | 31,6 | 68,4 | 2,4 | 70,8 | 25,0 |
| Ceuta | 23,9 | 30,1 | 69,5 | 2,7 | 70,4 | 29,6 |

*Iturria*: EIN. BAI. *Oharra*: % E: % emakumeak; % G: % gizonak.

Zehazki, 10 emakume okupatutik 2,7k lanaldi partzialeko kontratua daukate Euskadin, eta proportzio hori 100etik 3,8koa da gizonen artean. Autonomia-erkidego guztiak kontuan hartuta, emakume okupatuen % 23k dauka lanaldi partziala, eta batez besteko horren gainetik daude Errioxa, Euskadi, Extremadura, Nafarroa, Andaluzia, Aragoi, Gaztela eta Leon, Gaztela-Mantxa eta Valentzia. Estatu osoan, lanaldi partziala daukaten gizonak pertsona okupatuen guztizkoaren % 4,9 baino ez dira. Emakume okupatuen arteko lanaldi partzialaren ehunekoa eta gizon okupatuen arteko lanaldi partzialaren ehunekoa alderatuz gero, Euskadi da alde handiena duen bigarren autonomia-erkidegoa, Errioxaren ondoren.

### 2.34. TAULA. Lanaldi partziala duen biztanleria okupatuaren ehuneko bertikala, autonomia-erkidegoaren eta sexuaren arabera. 2009

| | EMAKUMEAK | GIZONAK | E-G |
|---|---|---|---|
| | % B | % B | % |
| ESTATUA, GUZTIRA | 23,0 | 4,9 | 18,2 |
| Errioxa | 26,7 | 3,3 | 23,4 |
| **Euskadi** | **27,1** | **3,8** | **23,3** |
| Extremadura | 26,0 | 3,6 | 22,4 |
| Nafarroa | 26,0 | 4,3 | 21,8 |
| Andaluzia | 26,4 | 5,1 | 21,4 |
| Aragoi | 25,4 | 4,2 | 21,2 |
| Gaztela eta Leon | 24,9 | 4,0 | 20,9 |
| Gaztela-Mantxa | 24,2 | 3,8 | 20,3 |
| Valentzia | 26,5 | 7,0 | 19,5 |
| Melilla | 22,1 | 4,4 | 17,7 |
| Murtzia | 22,1 | 5,2 | 16,9 |
| Ceuta | 20,9 | 4,6 | 16,3 |
| Katalunia | 20,6 | 4,6 | 16,0 |
| Madril | 21,2 | 5,2 | 15,9 |
| Balearrak | 20,3 | 4,5 | 15,8 |
| Asturias | 19,1 | 3,7 | 15,5 |
| Galizia | 19,3 | 4,2 | 15,1 |
| Kantabria | 18,1 | 3,3 | 14,8 |
| Kanariak | 18,5 | 5,2 | 13,3 |

*Iturria*: EIN. BAI.

*Oharra*: % B: % bertikalak / emakume/gizon okupatuen guztizkoaren gainean.

Eremu produktiboan emakumeen eta gizonen arteko aldea agerian jartzen duen beste aldagai bat lan-egoera da. Jarduerari buruzko biztanleriaren inkestan kategoria hauek bereizten dira: norbere konturako langilea (enplegu-emailea soldatakoekin edo haiek gabe, eta kooperatibistak), familia-laguntzen jasotzaileak eta soldatako langileak (sektore publikoa eta pribatua). Norbere konturako langileen % 65,6 gizonak dira, eta proportzio hori % 75,6ra iristen da soldatakodun pertsona enplegu-emaileen kasuan. Langiledun pertsona enplegu-emaileen laurdena baino ez dira emakumeak.

**2.35. TAULA.** EAEko 16 urteko eta gehiagoko biztanleria okupatua (milakotan), lan-egoeraren arabera. 2009

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| GUZTIRA | 932,0 | 417,3 | 44,8 | 514,7 | 55,2 |
| Norbere konturako langilea: guztira | 156,8 | 53,9 | 34,4 | 102,9 | 65,6 |
| Enplegu-emailea | 45,0 | 11,0 | 24,4 | 34,0 | 75,6 |
| Soldatakorik gabeko enpresaburua | 85,8 | 31,2 | 36,4 | 54,5 | 63,5 |
| Kooperatibista | 20,8 | 8,3 | 39,9 | 12,5 | 60,1 |
| Familia-laguntza | 5,3 | 3,4 | 64,2 | 1,9 | 35,8 |
| Soldatakoak: guztira | 774,9 | 363,2 | 46,9 | 411,7 | 53,1 |
| Sektore publikoko soldatakoak | 131,8 | 77,7 | 59,0 | 54,1 | 41,0 |
| Sektore pribatuko soldatakoak | 643,1 | 285,5 | 44,4 | 357,5 | 55,6 |
| Beste lan-egoera batzuk | 0,3 | 0,2 | 66,7 | 0,1 | 33,3 |

*Iturria*: EIN. BAI.

Hezkuntza da sektore publikoan lanpostu gehien dituen eremuetako bat. 2008/2009 ikasturterako irakaskuntzari buruzko estatistikaren arabera, 33.577 irakasle zeuden, eta haietako 10etik 7 emakumeak ziren. Irakaskuntza feminizatuta dago, lanbide-heziketan eta unibertsitatean izan ezik. Maila akademikoa igotzen den heinean, gizonezko irakasleen ehunekoak gora egiten du. Hala, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan gizonak ez dira irakasleen guztizkoaren % 15; Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, % 34ra iristen dira; eta Batxilergoan, berriz, parekotasun-printzipioa betetzen da, gizonak % 41,5 izanik.

**2.36. TAULA.** Irakasleak guztira, sexuaren eta mailaren arabera. 2008/09

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| GUZTIRA | 33.577 | 23.943 | 71,3 | 9.634 | 28,7 |
| Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza | 16.015 | 13.631 | 85,1 | 2.384 | 14,9 |
| Haur Hezkuntza | 7.666 | 7.017 | 91,5 | 649 | 8,5 |
| Lehen Hezkuntza | 10.814 | 8.686 | 80,3 | 2.128 | 19,7 |
| Irakaskuntza ertainak | 15.100 | 8.832 | 58,5 | 6.268 | 41,5 |
| DBH | 10.276 | 6.740 | 65,6 | 3.536 | 34,4 |
| Batxilergoa | 5.095 | 2.998 | 58,8 | 2.097 | 41,2 |
| Lanbide-heziketa | 3.583 | 1.406 | 39,2 | 2.177 | 60,8 |
| Hezkuntza berezia | 558 | 433 | 77,6 | 125 | 22,4 |
| Helduen hezkuntza | 738 | 530 | 71,8 | 208 | 28,2 |
| HLPP | 729 | 340 | 46,6 | 389 | 53,4 |

*Iturria*: Eustat. Irakaskuntza.

Unibertsitateko irakasleak, oraindik ere, gizonak dira gehienak, % 60tik gora. Proportzio hori ez dator bat ikasleen errealitatearekin, emakumeek gainditu egiten dute-eta proportzio hori. Proportzioa ez da aldatzen unibertsitatearen titulartasunaren arabera. Zehazki, bai Euskal Herriko Unibertsitatean, bai Deustuko Unibertsitatean, bai eta Mondragon

Unibertsitatean ere, proportzioa hurbil dago parekotasun-printzipiotik, baina joera horrek hor jarraitzen du.

## 2.37. TAULA. EAEko unibertsitateetako irakasleak, sexuaren arabera. 2008/09

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| GUZTIRA | 5.717 | 2.220 | 38,8 | 3.497 | 61,2 |
| Unibertsitate publikoa | 4.497 | 1.778 | 39,5 | 2.719 | 60,5 |
| Unibertsitate pribatuak | 1.220 | 442 | 36,2 | 778 | 63,8 |

*Iturria*: Eustat. Irakaskuntza.

Unibertsitateko kolektiboetako osaeraren genero-hesia are nabariagoa da kategoria akademikoetan oinarrituta aztertuz gero. Hiru kategoriatan baino ez litzateke beteko parekotasun-printzipioa: unibertsitateko eta unibertsitate-eskoletako titularretan eta langile laguntzaileetan. Modu horretara, emakumezko irakasleak katedradun guztien % 20 dira. Emakumezko irakasleetatik % 4,6 soilik dira katedradunak; gizonezko irakasleetatik, berriz, % 12,2. Masa kritikoaren faltari buruzko argudioak hauek dira: emakumeen proportzioa txikiagoa dela, halaber, pertsona titularretan, eta horrek emakumezko irakasleen presentzia zailtzen duela katedradunen artean. Dena den, argudio horiek indarra galtzen dute katedra-kopurua zati bi sexuetako titular-kopurua eginez gero. Emakumeen artean, unibertsitateko katedradun bat dago unibertsitateko 4,9 emakume titularreko; aitzitik, proportzio hori 1,9koa da gizonen artean.

## 2.38. TAULA. Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak, kategoriaren arabera. 2008/09

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | | GIZONAK | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % H | % B | ABS. | % H | % B |
| GUZTIRA | 4.922 | 2.028 | 41,2 | 100,0 | 2.894 | 58,8 | 100,0 |
| Irakasle bisitariak | 1 | 1 | 100,0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 0,0 |
| UE titularrak | 706 | 330 | 46,7 | 16,3 | 376 | 53,3 | 13,0 |
| Laguntzaileak | 328 | 152 | 46,3 | 7,5 | 176 | 53,7 | 6,1 |
| Unibertsitate-titularrak | 1.130 | 457 | 40,4 | 22,5 | 673 | 59,6 | 23,3 |
| Irakasle elkartuak | 404 | 129 | 31,9 | 6,4 | 275 | 68,1 | 9,5 |
| Emerituak | 10 | 3 | 30,0 | 0,1 | 7 | 70,0 | 0,2 |
| Osasunaren Zientzietako elkartuak | 270 | 62 | 23,0 | 3,1 | 208 | 77,0 | 7,2 |
| Unibertsitate-katedradunak | 454 | 94 | 20,7 | 4,6 | 360 | 79,3 | 12,4 |
| UE katedradunak | 65 | 13 | 20,0 | 0,6 | 52 | 80,0 | 1,8 |
| Lantegiko maisu-maistrak | 3 | 0 | 0,0 | 0,0 | 3 | 100,0 | 0,1 |
| Beste batzuk eta agertzen ez direnak | 1.551 | 787 | 50,7 | 38,8 | 764 | 49,3 | 26,4 |

*Iturria*: EIN. Unibertsitateko irakaskuntzari buruzko estatistika.

*Oharra*: % E: % emakumeak; % G: % gizonak.

Unibertsitate pribatuek ez dute sistema bera erabiltzen irakasleak antolatzeko, eta bi kategoria handi ezartzen dituzte: pertsona doktoregodunak eta doktoregorik gabeak. Deustuko Unibertsitatean, emakumezko irakasleak ez dira guztizkoaren % 40, baina bai doktoregodunen % 47,1; hau da, doktoregodun gehiago dago emakumezko irakasleen artean gizonezko irakasleen artean baino. Mondragon Unibertsitatean, berriz, pertsona doktoregodunen arteko emakumeen presentzia txikiagoa da guztizkoarekiko, % 30,9koa.

**2.39. TAULA.** Unibertsitate pribatuetako emakumezko eta gizonezko irakasleen proportzioak, doktorego-tituluaren eta sexuaren arabera. 2008/09

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| **Deustu:** | | | | | |
| GUZTIRA | 572 | 222 | 38,8 | 350 | 61,2 |
| Doktoregodunak | 289 | 136 | 47,1 | 153 | 52,9 |
| Doktoregorik gabeak | 283 | 86 | 30,4 | 197 | 69,6 |
| **Mondragon:** | | | | | |
| GUZTIRA | 385 | 145 | 37,7 | 240 | 62,3 |
| Doktoregodunak | 94 | 29 | 30,9 | 68 | 72,3 |
| Doktoregorik gabeak | 291 | 116 | 39,9 | 172 | 59,1 |

*Iturria*: EIN. Unibertsitateko irakaskuntzari buruzko estatistika.

Unibertsitate-eremuan barnean hartutako beste kolektibo bat administrazioko eta zerbitzuetako langileak dira. 2008/2009 ikasturterako, 2.196 pertsona baliatu ziren unibertsitate publikoetan eta pribatuetan, eta pertsona haietatik, 1.434 emakumeak ziren, hau da, % 65. Kolektibo horren feminizazioa funtzionarioen artean gertatzen da bereziki, gizonen presentzia 4tik 1ekoa baino ez da eta. Administrazioko eta zerbitzuetako langileen feminizazioari ihes egiten dioten bakarrak Euskal Herriko Unibertsitatean lan-kontratu finkoa eta aldi baterakoa daukaten pertsonak dira; hor, % 65 inguru dira gizonak.

**2.40. TAULA.** Administrazioko eta zerbitzuetako langileak, unibertsitatearen, kontratu-motaren eta sexuaren arabera. 2008/09

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| **Euskadi** | | | | | |
| GUZTIRA | 1.700 | 1.084 | 63,8 | 616 | 36,2 |
| Funtzionarioak | 1.227 | 918 | 74,8 | 309 | 25,2 |
| Finkoak | 129 | 42 | 32,6 | 87 | 67,4 |
| Aldi baterakoak | 344 | 124 | 36,0 | 220 | 64,0 |
| **Deustu** | | | | | |
| GUZTIRA | 393 | 281 | 71,5 | 112 | 28,5 |
| Finkoak | 293 | 205 | 70,0 | 88 | 30,0 |
| Aldi baterakoak | 100 | 76 | 76,0 | 24 | 24,0 |
| **Mondragon** | | | | | |
| GUZTIRA | 103 | 69 | 67,0 | 34 | 33,0 |
| Finkoak | 77 | 50 | 64,9 | 27 | 35,1 |
| Aldi baterakoak | 26 | 19 | 73,1 | 7 | 26,9 |

*Iturria*: EIN. Unibertsitateko irakaskuntzari buruzko estatistika.

Feminizatutako beste eremu bat gizarte-zerbitzuetan lan egiten duten pertsonena da. Gizarte-zerbitzuen zentroei buruzko Eustaten estatistiken arabera, 2007an 24.203 pertsonak egin zuten lan bertan, eta haietatik, % 68,9 emakumeak ziren. Zentro horietan era askotako jarduerak egiten dituzte, eta langileak ere multzotan bereizten dira: zerbitzuko langileak, osasun-langileak, langile teknikariak eta hezkuntzako langileak. Garbiketa-zerbitzuko langileen artean, ia guztiak emakumezkoak dira oraindik ere: % 97,7. Osasun-langileen artean, oraindik ere nabarmena da rolen araberako banaketa: medikuen % 52,3 emakumezkoa da; OLTen eta fisioterapeuten % 91,3 ere bai; eta klinika-laguntzaileen % 94,2. Langile teknikoei dagokienez, gizarte-laguntzaileen % 93,7 emakumezkoa da; beraz, arlo horretan ere nabarmena da emakumeak aritzen direla batez ere. Hezkuntza-langileen artean, generoen arteko aldea txikiagoa da; edonola ere, eragile soziokulturalen % 83,5 emakumezkoa da.

## 2.41. TAULA. Gizarte-zerbitzuen zentroetako langileak, sexuaren arabera. 2007

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| LANGILEAK GUZTIRA | 24.203 | 16.678 | 68,9 | 7.525 | 31,1 |
| **Zuzendaritza-administrazioa** | **3.158** | **2.181** | **69,1** | **977** | **30,9** |
| **Zerbitzuko langileak** | **2.240** | **1.893** | **84,5** | **347** | **15,5** |
| Ostalaritza | 703 | 604 | 85,9 | 99 | 14,1 |
| Garbiketa | 1.114 | 1.088 | 97,7 | 26 | 2,3 |
| Beste batzuk | 423 | 201 | 47,5 | 222 | 52,5 |
| **Osasun-langileak** | **5.973** | **5.462** | **91,4** | **511** | **8,6** |
| Medikuak | 243 | 127 | 52,3 | 116 | 47,7 |
| OLTak eta fisioterapeutak | 768 | 701 | 91,3 | 67 | 8,7 |
| Klinika-laguntzaileak | 4.780 | 4.504 | 94,2 | 276 | 5,8 |
| Okupazio-terapeutak | 182 | 130 | 71,4 | 52 | 28,6 |
| **Langile teknikoak** | **1.835** | **1.606** | **87,5** | **229** | **12,5** |
| Psikologoak eta pedagogoak | 654 | 506 | 77,4 | 148 | 22,6 |
| Gizarte-laguntzaileak | 1.112 | 1.042 | 93,7 | 70 | 6,3 |
| Droga-mendetasunen prebentziorako tek. | 69 | 58 | 84,1 | 11 | 15,9 |
| **Hezkuntzako langileak** | **2.926** | **1.868** | **63,8** | **1.058** | **36,2** |
| Hezitzaileak eta irakasleak | 1.426 | 1.021 | 71,6 | 405 | 28,4 |
| Begiraleak, langileburuak eta Enplegu Zentro Berezietako buruak | 1.391 | 756 | 54,3 | 635 | 45,7 |
| Eragile soziokulturalak | 109 | 91 | 83,5 | 18 | 16,5 |
| **Beste langile batzuk** | **1.532** | **1.224** | **79,9** | **308** | **20,1** |
| Zerbitzu pertsonalak (1) | 1.192 | 996 | 83,6 | 196 | 16,4 |
| Beste batzuk | 340 | 228 | 67,1 | 112 | 32,9 |
| **Enplegu Zentro Berezietako langile-erabiltzaileak** | **6.539** | **2.444** | **37,4** | **4.095** | **62,6** |

*Iturria*: Eustat. Gizarte-zerbitzuak.

*Oharra*: (1): zaintzaileak, etxeko laguntzaileak, etab.

Osasun-arloa ere oso enplegu-zentro garrantzitsua da Herri-administrazioaren barnean. Osakidetzaren 2008ko Memoriako datuen arabera, 21.633 langile ari ziren zerbitzu horretan, eta haietako % 73,9 emakumezkoa zen. Lanbide-taldeetan emakumeen eta gizonen banaketa nolakoa den adierazten duten datuek agerian jartzen dute oraindik ere rol tradizionalek irauten dutela. Hala, talde jakin batzuetan ia langile guztiak dira emakumezkoak; esaterako, emaginak, erizainak eta erizaintza-laguntzaileak. Aldiz, emakumezko langileak laurdena baino gutxiago dira zelarien artean, eta % 5 baino gutxiago mantentze-zerbitzuko langileen artean.

**2.42. TAULA.** Osakidetzako langileak, lanbide-taldearen eta sexuaren arabera. 2008

| | EMAKUMEEN % |
|---|---|
| Zuzendaritza-kargudunak | 45,2 |
| Fakultatibo mediku eta teknikoak | 45,5 |
| Emaginak | 96,9 |
| Beste osasun-diplomadun batzuk | 75,9 |
| Erizainak | 91,5 |
| Teknikari espezialistak | 88,9 |
| Erizaintza-laguntzaileak | 95,2 |
| Administrariak | 81,1 |
| Mantentze-zerbitzuko langileak | 4,7 |
| Zerbitzu orokorretakoak | 75,8 |
| Zelariak | 25,9 |
| Administrazio Orokorrekoak | 50,9 |

*Iturria*: Osakidetzaren 2008ko Memoria.

## BIZTANLERIA LANGABEA 2.1.3

Krisi ekonomikoa dela eta, 1995. urtean hasitako langabezia-tasaren beherakada eten egin da. Hala, 2008an tasa hori igotzen hasi zen, eta joera horrek iraun du 2009an ere. Krisiak eragin handiagoa izan du gizonengan emakumeengan baino; hain zuzen ere, 2009an, gizonezkoen langabezia-tasa emakumezkoena baino handiagoa izan zen lehenengoz. Hortaz, generoen arteko aldea murriztu egin da, eta gaur egun 6 puntukoa da, 2007an bezala.

**2.3. GRAFIKOA.** Langabezia-tasaren bilakaera, sexuaren arabera. 1990-2009




*Iturria*: Eustat. Biztanleriaren Jardueraren Araberako Inkesta (BJA).

Krisi ekonomikoak gizonengan emakumeengan baino eragin handiagoa izan duela adierazten duten aldagaietako bat jarduera-adarra da. Industria da krisi ekonomikoaren eragin handiena jasan duen sektorea. Izan ere, 2009. urtean, 68.722 pertsonak pairatu zituzten enplegu-erregulazioko espedienteengatiko kalteak, eta haietako 60.534 industriako langileak ziren. Estatistika Institutu Nazionalaren Biztanleria Aktiboari buruzko Inkestaren (EPA) arabera, sektore horretan langileen % 20 baino gutxiago da emakumezkoa, eta espedienteek kaltetutako guztien % 15. 2009an enplegu-erregulazioko espedienteek kaltetutako pertsona gehien izan dituzten sektoreen artean bigarrena merkataritza da: 3.278 guztira. Adar horretako langileen % 51 da gizonezkoa, eta espedienteek kaltetutako guztien % 70.

## 2.43. TAULA. Enplegu-erregulazioko espedienteek kaltetutako pertsonak, eta enplegatutako pertsonen eta espedienteek kaltetutakoen ehunekoak, jarduera-adarraren eta sexuaren arabera. 2009.

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | | GIZONAK | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % H KALT. | % H ENPLEG. | ABS. | % H KALT. | % H ENPLEG. |
| GUZTIRA | 68.722 | 11.785 | 17,1 | 44,8 | 56.937 | 82,9 | 55,2 |
| Nekazaritza (A) | 901 | 6 | 0,7 | 29,8 | 895 | 99,3 | 70,2 |
| Industria guztira (B + C + D + E) | 60.534 | 9.408 | 15,5 | 19,8 | 51.126 | 84,5 | 80,4 |
| Eraikuntza (F) | 999 | 126 | 12,6 | 8,7 | 873 | 87,4 | 91,3 |
| Merkataritza (1) | 3.278 | 992 | 30,3 | 49,2 | 2.286 | 69,7 | 50,8 |
| Informazioa eta komunikazioa (J) | 150 | 60 | 40,0 | 37,4 | 90 | 60,0 | 62,6 |
| Finantza- eta aseguru-jarduerak (K) | 33 | 19 | 57,6 | 47,8 | 14 | 42,4 | 52,2 |
| Higiezin-jarduerak (L) | 0 | 0 | | 73,9 | 0 | | 28,3 |
| Jarduera profesionalak (2) | 2.710 | 1.092 | 40,3 | 57,0 | 1.618 | 59,7 | 4,03 |
| Herri-administrazioa (3) | 64 | 55 | 85,9 | 65,2 | 9 | 14,1 | 34,8 |
| Arte-jarduerak eta beste batzuk (4) | 53 | 27 | 50,9 | 79,1 | 26 | 49,1 | 20,9 |

*Iturria*: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila, eta EIN: Biztanleria Aktiboari buruzko Inkesta (EPA).

*Oharra*: (1) Handizkako eta txikizkako merkataritza; motordun ibilgailuen eta motorren konponketa; garraioa eta biltegiratzea; ostalaritza. (2) Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak; administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak (M + N). (3) Herri-administrazioa eta herrizaingoa, derrigorrezko gizarte-segurantza; hezkuntza; osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuenak (O + P + Q). (4) Arte-jarduerak, jolas- eta entretenimendu-jarduerak; etxeak, etxeko langileak enplegatzen dituzten aldetik, eta norberaren erabilerarako ondasunen eta zerbitzuen ekoizle diren aldetik; lurraldez kanpoko erakundeen jarduerak; beste zerbitzu batzuk (R + S + T + U). Kalt.: pertsona kaltetuak; Enpleg.: pertsona enplegatuak.

Datuak lurralde historikoen arabera aztertuta, egoera antzekoa da: krisiak eragin bortitza izan du industrian, eta gutxiago kaltetu ditu emakumeak gizonak baino, adar honetan izan ezik: Herri-administrazioa eta herrizaingoa, derrigorrezko gizarte-segurantza, hezkuntza, osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuenak; izan ere, adar horretan, kaltetutako 10 langiletik ia 9 emakumezkoak dira; edonola ere, ez dira pertsona asko: 56 Bizkaian eta 8 Gipuzkoan.

## 2.44. TAULA. Enplegu-erregulazioko espedienteek kaltetutako pertsonak eta kaltetutako emakumeen ehunekoak, jarduera-adarraren eta lurralde historikoaren arabera. 2009

| | ARABA | | BIZKAIA | | GIPUZKOA | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | EMAKUMEEN % | ABS. | EMAKUMEEN % | ABS. | EMAKUMEEN % |
| GUZTIRA | 18.744 | 16,5 | 24.788 | 17,4 | 25.190 | 17,4 |
| Nekazaritza (A) | | | 263 | 1,5 | 638 | 0,3 |
| Industria guztira (B + C + D + E) | 17.426 | 14,4 | 22.003 | 16,4 | 21.105 | 15,5 |
| Eraikuntza (F) | 0 | | 605 | 11,6 | 394 | 14,2 |
| Merkataritza (1) | 834 | 35,1 | 1.141 | 31,8 | 1.303 | 25,8 |
| Informazioa eta komunikazioa (J) | 6 | 66,7 | 104 | 42,3 | 40 | 30,0 |
| Finantza- eta aseguru-jarduerak (K) | 0 | | 21 | 57,1 | 12 | 58,3 |
| Higiezin-jarduerak (L) | 0 | | 0 | | 0 | |
| Jarduera profesionalak (2) | 472 | 56,6 | 570 | 26,0 | 1668 | 40,6 |
| Herri-administrazioa (3) | 0 | | 56 | 89,3 | 8 | 62,5 |
| Arte-jarduerak eta beste batzuk (4) | 6 | 50,0 | 25 | 24,0 | 22 | 81,8 |

*Iturria*: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila.

*Oharra*: (1) Handizkako eta txikizkako merkataritza; motordun ibilgailuen eta motorren konponketa; garraioa eta biltegiratzea; ostalaritza. (2) Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak; administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak (M + N). (3) Herri-administrazioa eta herrizaingoa, derrigorrezko gizarte-segurantza; hezkuntza; osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuenak (O + P + Q). (4) Arte-jarduerak, jolas- eta entretenimendu-jarduerak; etxeak, etxeko langileak enplegatzen dituzten aldetik, eta norberaren erabilerarako ondasunen eta zerbitzuen ekoizle diren aldetik; lurraldez kanpoko erakundeen jarduerak; beste zerbitzu batzuk (R + S + T + U). Kalt.: pertsona kaltetuak; enpleg.: pertsona enplegatuak.

Enplegu-erregulazioko espedienteen bilakaera irregularra izan da. Goren unea 1993an izan zen: urte horretan, enplegu-erregulazioko 88.166 espediente izan ziren. Gerora, kopuru hori murriztuz joan zen 2008ra arte, 2003an izan ezik. 2008an, berriro ere gorantz egiten hasi zen espediente-kopurua, eta 2009ko egoera 1992koaren antzekoa izan zen. 1990eko hamarkadaren hasieran, pertsona kaltetuen % 10 zen emakumezkoa; 2009an, berriz, % 17,1.

## 2.45. TAULA. Enplegu-erregulazioko espedienteek kaltetutako pertsonak, sexuaren arabera. 1991-2009

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % H | ABS. | % H |
| 1991 | 61.983 | 4.923 | 7,9 | 57.060 | 92,1 |
| 1992 | 69.315 | 6.745 | 9,7 | 62.570 | 90,3 |
| 1993 | 88.166 | 9.901 | 11,2 | 78.265 | 88,8 |
| 1994 | 48.041 | 5.354 | 11,1 | 42.687 | 88,9 |
| 1995 | 20.599 | 2.799 | 13,6 | 17.800 | 86,4 |
| 1996 | 11.816 | 1.933 | 16,4 | 9.883 | 83,6 |
| 1997 | 17.480 | 2.427 | 13,9 | 15.053 | 86,1 |
| 1998 | 7.814 | 1.244 | 15,9 | 6.570 | 84,1 |
| 1999 | 7.043 | 1.342 | 19,1 | 5.701 | 80,9 |
| 2000 | 6.257 | 1.174 | 18,8 | 5.083 | 81,2 |
| 2001 | 5.792 | 1.077 | 18,6 | 4.715 | 81,4 |
| 2002 | 5.650 | 1.352 | 23,9 | 4.298 | 76,1 |
| 2003 | 12.036 | 1.911 | 15,9 | 10.125 | 84,1 |
| 2004 | 5.614 | 1.028 | 18,3 | 4.586 | 81,7 |
| 2005 | 6.158 | 988 | 16,0 | 5.170 | 84,0 |
| 2006 | 3.338 | 664 | 19,9 | 2.674 | 80,1 |
| 2007 | 4.815 | 786 | 16,3 | 4.029 | 83,7 |
| 2008 | 12.794 | 2.398 | 18,7 | 10.396 | 81,3 |
| 2009 | 68.722 | 11.785 | 17,1 | 56.937 | 82,9 |

*Iturria*: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila.

Langabeen banaketan, aintzat hartuta heziketa-maila, ez dago desberdintasun handirik gizon eta emakumeen artean. Nolanahi ere, goi-mailako ikasketak dituzten emakume langabeen ehunekoa gizonezkoena baino handiagoa da. Gizonezko langabe gehienek Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko ikasketak dituzte: gizonezko langabe guztien % 33,6 osatzen dute. Emakumeen artean, berriz, goi-mailako ikasketak dituztenek osatzen dute emakumezko langabe guztien ehunekorik handiena: % 35,2.

## 2.46. TAULA. 16 urteko eta gehiagoko biztanleria langabea (milakotan), heziketa-mailaren eta sexuaren arabera. 2009

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | | GIZONAK | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % H | % B | ABS. | % H | % B |
| GUZTIRA | 115,6 | 54,3 | 47,0 | 100,0 | 61,3 | 53,0 | 100,0 |
| Analfabetoak | 0,2 | | | | 0,2 | 100,0 | 0,3 |
| Lehen Hezkuntza | 14,3 | 6,4 | 44,8 | 11,8 | 7,9 | 55,2 | 12,9 |
| Bigarren Hezkuntza, lehen zikloa | 37,7 | 17,1 | 45,4 | 31,5 | 20,6 | 54,6 | 33,6 |
| Bigarren Hezkuntza, bigarren zikloa | 25,8 | 11,6 | 45,0 | 21,4 | 14,1 | 54,7 | 23,0 |
| Goi-mailako hezkuntza, doktoregoa izan ezik | 37,6 | 19,1 | 50,8 | 35,2 | 18,5 | 49,2 | 30,2 |
| Doktoregoa | 0,1 | 0,1 | 100,0 | 0,2 | .. | | |

*Iturria*: EIN. Biztanleria Aktiboari buruzko Inkesta (EPA).

Adin-taldeak aintzat hartuta, generoen arteko alderik handiena 20 urtetik 24ra artekoen taldean dago: izan ere, talde horretan langabe guztien % 41 soilik da emakumezkoa. Aldiz, 35 urtetik 44ra artekoen taldean, langabeen % 50 da emakumezkoa.

## 2.47. TAULA. 16 urteko eta gehiagoko biztanleria langabea (milakotan) EAEn, adinaren eta sexuaren arabera. 2009

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | | GIZONAK | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % H | % B | ABS. | % H | % B |
| GUZTIRA | 115,6 | 54,3 | 47,0 | 100,0 | 61,3 | 53,0 | 100,0 |
| 16-19 urte | 4,5 | 2,2 | 48,9 | 4,1 | 2,3 | 51,1 | 3,8 |
| 20-24 urte | 18,5 | 7,7 | 41,6 | 14,2 | 10,8 | 58,4 | 17,6 |
| 25-34 urte | 36,3 | 17,3 | 47,7 | 31,9 | 19,0 | 52,3 | 31,0 |
| 35-44 urte | 25,8 | 12,9 | 50,0 | 23,8 | 13,0 | 50,4 | 21,2 |
| 45-54 urte | 22,3 | 10,0 | 44,8 | 18,4 | 12,2 | 54,7 | 19,9 |
| 55 urte eta gehiago | 8,2 | 4,1 | 50,0 | 7,6 | 4,1 | 50,0 | 6,7 |

*Iturria*: EIN. Biztanleria Aktiboari buruzko Inkesta (EPA).

Langabe gehienek 6 hilabetetik urtebetera bitartean daramate lan bila: emakumeen % 19k eta gizonen % 20,6k. Lan bila aritutako denbora aintzat hartuta, generoen arteko aldeak ez dira oso handiak. Nolanahi ere, azpimarratzekoa da 2 urte edo gehiago lan bila daramaten emakumeen ehunekoa gizonena baino handiagoa dela: hain zuzen, langabeen % 55,4 osatzen dute, eta emakume langabeen % 16.

**2.48. TAULA.** 16 urteko eta gehiagoko biztanleria langabea (milakotan), enplegu bila emandako denboraren eta sexuaren arabera. 2009

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | | GIZONAK | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % H | % B | ABS. | % H | % B |
| GUZTIRA | 115,6 | 54,3 | 47,0 | 100,0 | 61,3 | 53,0 | 100,0 |
| Enplegua aurkitu dute jada | 9,0 | 4,1 | 45,6 | 7,6 | 4,9 | 54,4 | 8,0 |
| 1 hilabete baino gutxiago | 8,3 | 4,1 | 49,4 | 7,6 | 4,3 | 51,8 | 7,0 |
| 1 hilabetetik 3 hilabete baino gutxiagoko epean | 20,4 | 9,7 | 47,5 | 17,9 | 10,7 | 52,5 | 17,5 |
| 3 hilabetetik 6 hilabete baino gutxiagoko epean | 21,2 | 9,4 | 44,3 | 17,3 | 11,9 | 56,1 | 19,4 |
| 6 hilabetetik urtebete baino gutxiagoko epean | 22,9 | 10,3 | 45,0 | 19,0 | 12,6 | 55,0 | 20,6 |
| Urtebetetik 2 urte baino gutxiagoko epean | 18,1 | 8,1 | 44,8 | 14,9 | 10,0 | 55,2 | 16,3 |
| 2 urte edo gehiagoko epean | 15,7 | 8,7 | 55,4 | 16,0 | 7,0 | 44,6 | 11,4 |

*Iturria*: EIN. Biztanleria Aktiboari buruzko Inkesta (EPA)

## AUTONOMIA EKONOMIKOA 2.2

Autonomia ekonomikoa funtsezko alderdia da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako bidean aurrera egiteko. Autonomia ekonomikoa oso lotuta dago lan-merkatuaren egoerarekin. Ahalmen ekonomikoa genero-ikuspegitik aztertuta, emakumeen eta gizonen artean alde garrantzitsuak daudela ikus daiteke. Azken urteotan, desberdintasun horiek agerian jartzen dituzten hainbat estatistika egin dira. Eustatek, Euskal Estatistika Erakundeak, iturri ezin hobea dauka biztanleriaren artean dauden alde ekonomikoak neurtzeko: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari (PFEZ) buruzko datuak. Datu horiek 2010. urtean eguneratu dira azkenekoz, eta 2006ko errentari buruzkoak dira.

Erosteko ahalmenean, emakumeen eta gizonen arteko aldea izugarria da. Hain zuzen ere, emakumeen batez besteko errenta pertsonala 11.857 eurokoa da, eta gizonena, aldiz, ia bikoitza: 23.224 eurokoa. Alde hori azaltzeko, aintzat har daiteke emakumeen okupazio-tasa baxuagoa dela eta lanaldi laburretan gizonak baino gehiago aritzen direla; baina hala ere, errentan dagoen generoen arteko aldea handiegia da. Gizonek emakumeek lortzen dutenaren bikoitza baino gehiago eskuratzen dute lan-errenten bidez. Emakumeek errenta-mota bakarra dute gizonezkoena baino handiagoa: kapital higiezinen errenta.

## 2.49. TAULA. Batez besteko errenta pertsonala eurotan, errenta-motaren eta sexuaren arabera. 2006

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | GIZONAK | G-E |
|---|---|---|---|---|
| ERRENTA GUZTIRA | 17.362 | 11.857 | 23.224 | 11.367 |
| Lan-errenta | 11.002 | 7.058 | 15.202 | 8.144 |
| Kapital higigarrien errenta | 1.702 | 1.550 | 1.865 | 315 |
| Kapital higiezinen errenta | 258 | 280 | 233 | -47 |
| Jardueren errenta | 966 | 543 | 1.416 | 873 |
| Transferentziak | 3.433 | 2.425 | 4.507 | 2.082 |
| Errenta erabilgarria | 14.598 | 10.194 | 19.287 | 9.093 |

*Iturria*: Eustat. Errenta Pertsonalaren eta Familiako Errentaren Estatistika.

*Oharra*: G-E: Gizonen errenta - Emakumeen errenta.

Errentak lurralde historikoen arabera aztertuta ere, agerian jartzen da generoen arteko alde handi hori, hurrengo tauletan azaltzen denez.

## 2.50. TAULA. Batez besteko errenta pertsonala eurotan, errenta-motaren, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera. 2006

| | ARABA | | | BIZKAIA | | | GIPUZKOA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | EMAKUMEAK | GIZONAK | G-E | EMAKUMEAK | GIZONAK | G-E | EMAKUMEAK | GIZONAK | G-E |
| Errenta guztira | 11.768 | 22.703 | 10.935 | 11.768 | 23.370 | 11.602 | 12.049 | 23.219 | 11.170 |
| Lan-errenta | 7.459 | 15.422 | 7.963 | 6.875 | 15.071 | 8.196 | 7.194 | 15.320 | 8.126 |
| Kapital higigarrien errenta | 1.263 | 1.603 | 340 | 1.698 | 1.980 | 282 | 1.426 | 1.794 | 368 |
| Kapital higiezinen errenta | 268 | 238 | -30 | 260 | 214 | -46 | 320 | 263 | -57 |
| Jardueren errenta | 552 | 1.373 | 821 | 512 | 1.338 | 826 | 592 | 1.567 | 975 |
| Transferentziak | 2.228 | 4.067 | 1.839 | 2.423 | 4.768 | 2.345 | 2.517 | 4.275 | 1.758 |
| Errenta erabilgarria | 10.246 | 18.996 | 8.750 | 10.038 | 19.343 | 9.305 | 10.438 | 19.329 | 8.891 |

*Iturria*: Eustat. Errenta Pertsonalaren eta Familiako Errentaren Estatistika.

Hurrengo taulan ere, errentan sexuaren arabera dauden aldeak adierazi dira: emakumezkoen eta gizonezkoen ehunekoak, errenta-kopuruaren arabera. Bertan ikus daiteke emakumezkoen ia % 16k ez duela errentarik; gizonezkoen artean, ordea, errentarik ez dutenen ehunekoa askoz txikiagoa da: % 8,49. Horrez gain, urteko batez besteko errenta 15.000 euro baino txikiagoa dutenen artean ere alde handiak daude: emakumezkoen % 63,7k, eta gizonezkoen % 30ek baino gutxiagok. Lurralde historikoen araberako banaketa aintzat hartuta ere, egoera nahiko antzekoa da.

**2.51. TAULA.** Pertsonen ehunekoak, aintzat hartuta errenta-taldea, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera. 2006.

| | EAE | | ARABA | | BIZKAIA | | GIPUZKOA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | EMAKUMEAK | GIZONAK | EMAKUMEAK | GIZONAK | EMAKUMEAK | GIZONAK | EMAKUMEAK | GIZONAK |
| **GUZTIRA** | **100,00** | **100,00** | **100,00** | **100,00** | **100,00** | **100,00** | **100,00** | **100,00** |
| Errentarik ez | 15,75 | 8,49 | 19,12 | 11,37 | 16,43 | 8,19 | 13,10 | 7,69 |
| 1.500era artekoa | 17,88 | 4,40 | 15,10 | 3,85 | 17,55 | 4,09 | 19,67 | 5,16 |
| 1.501-3.000 | 3,63 | 1,53 | 3,92 | 1,62 | 3,76 | 1,63 | 3,27 | 1,33 |
| 3.001-4.500 | 2,77 | 1,41 | 2,74 | 1,29 | 2,86 | 1,52 | 2,62 | 1,27 |
| 4.501-6.000 | 4,09 | 1,68 | 3,55 | 1,37 | 4,21 | 1,87 | 4,12 | 1,51 |
| 6.001-9.000 | 11,00 | 5,47 | 9,98 | 4,82 | 11,51 | 5,93 | 10,56 | 5,01 |
| 9.001-12.000 | 8,59 | 5,97 | 8,31 | 5,24 | 8,72 | 6,34 | 8,49 | 5,69 |
| 12.001-15.000 | 7,64 | 7,49 | 7,61 | 6,80 | 7,61 | 8,10 | 7,70 | 6,81 |
| **15.000ra artekoen batura** | **63,69** | **28,96** | **62,72** | **29,55** | **65,04** | **29,57** | **61,83** | **27,66** |
| 15.001-18.000 | 5,99 | 9,03 | 6,37 | 8,50 | 5,67 | 9,62 | 6,37 | 8,30 |
| 18.001-21.000 | 4,46 | 9,36 | 4,87 | 9,48 | 4,05 | 9,22 | 4,98 | 9,55 |
| 21.001-24.000 | 3,38 | 8,27 | 3,63 | 8,14 | 3,09 | 7,85 | 3,76 | 9,04 |
| 24.001-27.000 | 2,89 | 6,83 | 3,00 | 7,07 | 2,68 | 6,45 | 3,21 | 7,33 |
| 27.001-30.000 | 2,39 | 5,74 | 2,54 | 6,12 | 2,22 | 5,31 | 2,59 | 6,28 |
| 30.001-33.000 | 2,12 | 4,83 | 2,15 | 5,07 | 2,00 | 4,44 | 2,31 | 5,37 |
| 33.001-36.000 | 1,78 | 4,09 | 1,76 | 4,27 | 1,73 | 3,93 | 1,88 | 4,26 |
| 36.001-39.000 | 1,27 | 2,98 | 1,26 | 3,00 | 1,26 | 2,86 | 1,30 | 3,18 |
| 39.001-42.000 | 0,90 | 2,14 | 0,85 | 2,23 | 0,95 | 2,06 | 0,84 | 2,24 |
| 42.001-45.000 | 0,60 | 1,59 | 0,57 | 1,55 | 0,62 | 1,55 | 0,58 | 1,67 |
| 45.001-48.000 | 0,44 | 1,25 | 0,43 | 1,18 | 0,46 | 1,24 | 0,41 | 1,30 |
| 48.001-51.000 | 0,34 | 0,99 | 0,33 | 0,97 | 0,36 | 0,99 | 0,32 | 1,01 |
| 51.001-54.000 | 0,28 | 0,78 | 0,24 | 0,73 | 0,30 | 0,78 | 0,26 | 0,78 |
| 54.001-57.000 | 0,23 | 0,66 | 0,25 | 0,62 | 0,24 | 0,69 | 0,21 | 0,64 |
| 57.001-60.000 | 0,20 | 0,56 | 0,15 | 0,53 | 0,21 | 0,58 | 0,20 | 0,54 |
| 60.001-63.000 | 0,18 | 0,51 | 0,15 | 0,50 | 0,18 | 0,52 | 0,18 | 0,48 |
| 63.001-66.000 | 0,15 | 0,45 | 0,15 | 0,45 | 0,16 | 0,46 | 0,14 | 0,43 |
| 66.001-69.000 | 0,12 | 0,38 | 0,11 | 0,37 | 0,13 | 0,40 | 0,11 | 0,35 |
| 69.001-72.000 | 0,11 | 0,32 | 0,11 | 0,33 | 0,12 | 0,33 | 0,09 | 0,31 |
| 72.001-75.000 | 0,08 | 0,29 | 0,08 | 0,28 | 0,09 | 0,31 | 0,07 | 0,26 |
| 75.001-78.000 | 0,07 | 0,25 | 0,05 | 0,26 | 0,07 | 0,26 | 0,07 | 0,22 |
| 78.001-81.000 | 0,06 | 0,21 | 0,06 | 0,21 | 0,07 | 0,23 | 0,06 | 0,19 |
| 81.001-84.000 | 0,06 | 0,18 | 0,06 | 0,17 | 0,06 | 0,19 | 0,05 | 0,16 |
| 84.001-87.000 | 0,05 | 0,16 | 0,03 | 0,16 | 0,05 | 0,16 | 0,04 | 0,15 |
| 87.001-90.000 | 0,04 | 0,14 | 0,04 | 0,12 | 0,05 | 0,16 | 0,03 | 0,14 |
| 90.001-93.000 | 0,03 | 0,13 | 0,04 | 0,11 | 0,04 | 0,14 | 0,03 | 0,11 |
| 93.001-96.000 | 0,03 | 0,11 | 0,02 | 0,10 | 0,04 | 0,13 | 0,02 | 0,10 |
| 96.001-99.000 | 0,03 | 0,10 | 0,02 | 0,09 | 0,03 | 0,10 | 0,02 | 0,10 |
| 99.001-102.000 | 0,02 | 0,09 | 0,03 | 0,07 | 0,02 | 0,10 | 0,02 | 0,09 |
| ≥ 102.001 | 0,36 | 1,12 | 0,31 | 0,99 | 0,40 | 1,25 | 0,31 | 0,96 |

*Iturria*: Eustat. Errenta Pertsonalaren eta Familiako Errentaren Estatistika.

Batez besteko errentan gizonen eta emakumeen artean dauden aldeak aldatu egiten dira adin-taldeen arabera. 18 urtetik 24ra arteko gazteen artean, generoen arteko aldea oso handia da. Hurrengo etapan, ordea, 25 urtetik 39ra artekoen taldean, aldea txikiagoa da: emakumezkoen urteko batez besteko errenta gizonen errentaren % 60-75 ingurukoa da. Adin horretatik aurrera, berriz, aldea askoz handiagoa da: 55 urtetik 69ra artekoen taldean, emakumeen urteko batez besteko errenta gizonen errentaren herena soilik da: gizonena, 33.568 euro, eta emakumeena, 12.238 euro.

**2.52. TAULA.** Batez besteko errenta pertsonala, sexuaren, adinaren (bost urteka) eta errenta-motaren arabera. 2006

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | GIZONAK | G-E | GI |
|---|---|---|---|---|---|
| GUZTIRA | 17.362 | 11.857 | 23.224 | 11.367 | 0,51 |
| 18-19 urte | 2.009 | 1.238 | 2.747 | 1.509 | 0,45 |
| 20-24 urte | 6.298 | 4.678 | 7.850 | 3.172 | 0,60 |
| 25-29 urte | 13.742 | 11.687 | 15.684 | 3.997 | 0,75 |
| 30-34 urte | 17.712 | 14.389 | 20.830 | 6.441 | 0,69 |
| 35-39 urte | 18.835 | 13.770 | 23.653 | 9.883 | 0,58 |
| 40-44 urte | 20.521 | 14.739 | 26.280 | 11.541 | 0,56 |
| 45-49 urte | 22.357 | 15.848 | 29.003 | 13.155 | 0,55 |
| 50-54 urte | 23.504 | 15.072 | 32.126 | 17.054 | 0,47 |
| 55-59 urte | 22.767 | 12.238 | 33.568 | 21.330 | 0,36 |
| 60-64 urte | 19.703 | 10.103 | 29.869 | 19.766 | 0,34 |
| 65-69 urte | 16.156 | 9.068 | 24.061 | 14.993 | 0,38 |
| 70-74 urte | 14.390 | 9.034 | 20.929 | 11.895 | 0,43 |
| 75-79 urte | 13.743 | 9.557 | 19.416 | 9.859 | 0,49 |
| 80-84 urte | 13.191 | 10.290 | 18.192 | 7.902 | 0,57 |
| 85-89 urte | 13.371 | 11.297 | 18.276 | 6.979 | 0,62 |
| 90-94 urte | 12.130 | 10.620 | 16.996 | 6.376 | 0,62 |
| 95 urte eta gehiago | 10.020 | 9.289 | 13.147 | 3.858 | 0,71 |

*Iturria*: Eustat. Errenta Pertsonalaren eta Familiako Errentaren Estatistika.

*Oharra*: %G-E: Gizonen guztizko errentaren arabera kalkulatzen da.

Errenta-mota nagusia aldatu egiten da adinaren arabera; hala, lan-errentek guztizko errentaren ia %90 osatzen dute 25 urtetik 34ra arteko adin-taldean. Errenta-mota hori, ordea, ez da hain garrantzitsua 50 urtetik 65era arteko taldean: emakumeen errentaren % 5, eta gizonen errentaren % 9. Hortaz, 65 urtetik aurrera emakumeen eta gizonen errenten artean dauden aldeak ez zaizkio zor soldata-desberdintasunari; aitzitik, aurreko etapan egindako ekoizpen-lanagatik bereganatutako eta aitortutako eskubideak direla-eta dago alde hori. Lan-errentak neurri berean dira garrantzitsuak emakumeen zein gizonen artean; edonola ere, 30 urtetik 65era bitartean, emakumeen taldean lan-errentek errentaren guztizkoan duten ehunekoa gizonen taldean dutena baino puntu batzuk txikiagoa da.

## 2.4. GRAFIKOA. Lan-errentaren ehunekoa errentaren guztizkoan, sexuaren arabera. 2006




| | 18-19 | 20-24 | 25-29 | 30-34 | 35-39 | 40-44 | 45-49 | 50-54 | 55-59 | 60-64 | 65-69 | 70-74 | 75-79 | 80-84 | 85-89 | 90-94 | 95 < |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| E | 59,5 | 84,9 | 88,0 | 83,6 | 80,5 | 80,8 | 78,0 | 71,2 | 57,6 | 27,1 | 5,0 | 1,1 | 0,8 | 0,7 | 0,6 | 0,5 | 1,4 |
| G | 58,7 | 86,6 | 89,4 | 87,7 | 84,7 | 83,1 | 81,1 | 79,4 | 72,9 | 43,0 | 9,0 | 3,3 | 1,6 | 1,0 | 1,5 | 1,2 | 2,2 |

*Iturria*: Eustat. Errenta Pertsonalaren eta Familiako Errentaren Estatistika.

Emakumeen eta gizonen batez besteko lan-errenta pertsonalean dagoen aldea emakumeen okupazio-tasa baxuagoa izateak azal dezake neurri batean. Hala ere, pertsona landunen batez besteko lan-errenta soilik aztertuta, agerian jartzen da zer-nolakoa den emakumeen egoera lan-merkatuan eta zer-nolako aldeak dauden soldatetan.

Estatistika Institutu Nazionalak Soldata Egiturari buruzko Inkestan bildutako datuak aztertuta, agerian jartzen da zer-nolako aldeak dauden emakumeen eta gizonen urteko batez besteko soldaten artean. Hala, 2007an 7.139 euroko aldea zegoen generoen artean. Sektoreen arabera, berriz, alderik handienak emakume gehien aritzen den sektorean gertatzen dira: zerbitzuetan. Izan ere, zerbitzuen sektorean ari diren gizonezkoen batez besteko lan-errenta 27.000 eurokoa da, eta emakumezkoena, berriz, ez da 20.000ra iristen.

## 2.53. TAULA. Urteko batez besteko soldata-desberdintasuna, jarduera-sektorearen arabera. 2007

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | GIZONAK | G-E | GI |
|---|---|---|---|---|---|
| GUZTIRA | 23.892,70 | 19.771,80 | 26.911,40 | 7.139,50 | 0,73 |
| Industria | 26.993,20 | 22.464,20 | 28.198,50 | 5.734,20 | 0,80 |
| Eraikuntza | 22.717,10 | | 23.158,80 | | |
| Zerbitzuak | 22.602,60 | 19.315,30 | 27.003,60 | 7.688,30 | 0,72 |

*Iturria*: EIN. Soldata Egiturari buruzko Inkesta.

Lanbide- eta kontratu-motaren arabera ere generoen arteko aldeak daude urteko batez besteko soldatetan. Maila ertaineko zein behe-mailako lanbideetan ari diren emakumeen eta gizonen soldatak alderatuta, hau ondoriozta daiteke: gizonena 100 izanik, emakumee-

na 65-67 dela. Azken ehuneko hori handiagoa da goi-mailako lanbideak dituztenen kasuan, baina ez da soldata-berdintasunaren adierazle izango litzatekeen 100era iristen. Kontratu-motaren arabera, generoen arteko alderik txikiena iraupen jakineko kontratuak dituzten pertsonen artekoa da: emakumezkoen urteko batez besteko soldata gizonezkoenaren % 90 da.

### 2.54. TAULA. Urteko batez besteko soldata-desberdintasuna, lanbide- eta kontratu-motaren arabera. 2007

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | GIZONAK | G-E | GI (E/G) |
|---|---|---|---|---|---|
| **Lanbide-mota** | | | | | |
| GUZTIAK | 23.892,70 | 19.771,80 | 26.911,40 | 7.139,50 | 0,73 |
| Goi-mailakoa | 32.203,90 | 26.792,40 | 37.594,70 | 10.802,30 | 0,71 |
| Maila ertainekoa | 19.886,70 | 15.772,70 | 23.405,90 | 7.633,20 | 0,67 |
| Behe-mailakoa | 19.855,10 | 14.215,50 | 21.827,90 | 7.612,40 | 0,65 |
| **Kontratu-mota** | | | | | |
| GUZTIRA | 23.892,70 | 19.771,80 | 26.911,40 | 7.139,50 | 0,73 |
| Iraupena: mugagabea | 25.505,10 | 20.708,80 | 29.037,50 | 8.328,70 | 0,71 |
| Iraupena: aldi baterakoa | 17.221,20 | 15.833,20 | 18.215,70 | 2.382,50 | 0,87 |

*Iturria*: EIN. Soldata Egiturari buruzko Inkesta.

*Oharra*: G-E: gizonezkoen errenta ken emakumezkoena. GI: emakumezkoen errenta/gizonezkoen errenta.

Soldata Egiturari buruzko Inkesta bat dator Eustatek bildutako batez besteko errenta pertsonalaren adin-taldeen araberako datuekin. Soldata-desberdintasun erlatiboak handiagoak dira 55 urtetik gorako pertsonen artean, gazteagoen artean baino. Izan ere, emakumezkoen batez besteko urteko soldata gizonezkoenaren % 68 soilik da. Aurreko taldean, ordea, 45 urtetik 54ra artekoenean, aldea txikiagoa da: emakumezkoen urteko batez besteko soldata gizonen soldataren % 78 da. Hala ere, ezin esan daiteke lotura zuzena dagoenik adinaren eta emakume eta gizonen batez besteko urteko soldataren berdintasunaren artean; hain zuzen, 35 urtetik 44ra arteko taldean ere, aldeak handiak dira.

### 2.55. TAULA. Urteko batez besteko soldata-desberdintasuna, adinaren arabera. 2007

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | GIZONAK | G-E | GI |
|---|---|---|---|---|---|
| GUZTIRA | 23.892,70 | 19.771,80 | 26.911,40 | 7.139,50 | 0,73 |
| 25 urte baino gutxiago | 13.829,80 | .. | 15.679,50 | | |
| 25-34 urte | 20.284,30 | 17.624,00 | 22.818,10 | 5.194,10 | 0,77 |
| 35-44 urte | 24.306,70 | 19.871,70 | 27.886,40 | 8.014,70 | 0,71 |
| 45-54 urte | 28.369,60 | 24.318,60 | 31.033,40 | 6.714,80 | 0,78 |
| 55 urte eta gehiago | 26.425,50 | 19.990,10 | 29.318,00 | 49.308,10 | 0,68 |

*Iturria*: EIN. Soldata Egiturari buruzko Inkesta.

*Oharra*: G-E: gizonezkoen errenta ken emakumezkoena. GI: emakumezkoen errenta/gizonezkoen errenta.

65 urtetik aurrera, pertsonen guztizko errenta ez da lan-errenten bidez definitzen; aitzitik, diru-sarrera nagusiak transferentzietatik lortzen dira. 65 urtetik 69ra arteko taldean, transferentzien bidez lortzen da gizonen errentaren % 70 eta emakumeen errentaren ia % 60. Transferentziatzat jotzen dira derrigorrezko estaldurako diru-prestazio sozialak edo gizarte-elkartasunaren printzipioetan oinarritutakoak; pentsioak eta hartzeko pasiboak, langabeziagatiko prestazioak edo diru-laguntzak, terrorismo-ekintzengatiko prestazio publikoak, eta hiesa dutenek jasotako laguntzak.

## 2.5. GRAFIKOA. Transferentzia bidezko errentaren ehunekoa errentaren guztizkoan, sexuaren arabera. 2006




| | 18-19 | 20-24 | 25-29 | 30-34 | 35-39 | 40-44 | 45-49 | 50-54 | 55-59 | 60-64 | 65-69 | 70-74 | 75-79 | 80-84 | 85-89 | 90-94 | 95 < |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| E | 19,8 | 6,1 | 4,5 | 6,6 | 6,1 | 4,3 | 5,0 | 7,9 | 14,0 | 33,7 | 58,5 | 63,9 | 70,0 | 73,5 | 71,4 | 73,9 | 72,1 |
| G | 24,2 | 6,6 | 3,3 | 2,7 | 2,6 | 2,7 | 3,2 | 4,4 | 9,7 | 36,9 | 70,0 | 78,5 | 81,1 | 81,2 | 75,8 | 71,2 | 67,5 |

*Iturria*: Eustat. Errenta Pertsonalaren eta Familiako Errentaren Estatistika.

Hortaz, 65 urtetik aurrera emakumeen eta gizonen errenten artean dauden aldeak lotuta daude ekoizpen-lanaren balioespen publikoarekin; izan ere, lan-pentsioak horri soilik lotzen zaizkio, eta, beraz, desberdina da ekoizpen-lanari eta ugalketarekin lotutako lanari emandako balioa. Horrela, lan-jarduerarako etapan kontraturik gabe lan egiteak, lanaldi laburrean aritzeak edo lanik ez izateak autonomia ekonomikorik eza dakar, eta egoera horrek 65 urtetik aurrera ere jarraitzen du; hori dela-eta, mendetasun ekonomikoa kroniko bihurtzen da, bai eta sexuen arabera errentan dauden aldeak ere; eta pentsio-sistemaren bidez, ekoizpen-lana balioestearekin batera, ugalketarekin lotutako lana gutxiesten da. Aipatutako hori berresten dute transferentzia bidezko batez besteko errenta pertsonalari buruzko 2006ko datuek: gizonek 100 jasotzen badute, emakumeek 32; hau da, 65 urtetik 69ra arteko taldean, gizonek 16.837 euro jasotzen dute, eta emakumeek, berriz, 5.306.

**2.56. TAULA.** Transferentzia bidezko batez besteko errenta pertsonala 65 urtetik aurrera, adin-taldearen eta sexuaren arabera. 2006

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | GIZONAK | G-E | GI |
|---|---|---|---|---|---|
| 65-69 | 10.757 | 5.306 | 16.837 | 11.531 | 0,32 |
| 70-74 | 10.569 | 5.776 | 16.419 | 10.643 | 0,35 |
| 75-79 | 10.536 | 6.690 | 15.749 | 9.059 | 0,42 |
| 80-84 | 10.210 | 7.568 | 14.764 | 7.196 | 0,51 |
| 85-89 | 9.786 | 8.070 | 13.847 | 5.777 | 0,58 |
| 90-94 | 8.855 | 7.848 | 12.103 | 4.255 | 0,65 |
| 95 eta gehiago | 7.113 | 6.702 | 8.874 | 2.172 | 0,76 |

*Iturria*: Eustat. Errenta Pertsonalaren eta Familiako Errentaren Estatistika.

Gizarte Segurantzaren Diruzaintzaren 2009ko datuen arabera, Euskadin batez besteko erretiro-pentsioa hileko 1.069,47 eurokoa da, ezintasun iraunkorragatiko pentsioaren antzekoa. Alargun-pentsioa, berriz, hileko 655,97 eurokoa da; dena den, hori baino altuagoa da Bizkaian, eta baxuagoa Gipuzkoan eta Araban.

**2.57. TAULA.** Pentsioen babez besteko zenbatekoa hilean, pentsio-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2009

| | GUZTIRA | EZINTASUN IRAUNKORRA | ERRETIROA | ALARGUNTZA | ZURZTASUNA |
|---|---|---|---|---|---|
| EAE | 938,44 | 1.070,23 | 1.069,47 | 655,97 | 418,36 |
| Araba | 942,20 | 1.085,40 | 1.063,44 | 630,26 | 395,13 |
| Bizkaia | 950,13 | 1.072,49 | 1.096,64 | 666,42 | 425,15 |
| Gipuzkoa | 918,56 | 1.061,52 | 1.030,93 | 646,99 | 413,84 |

*Iturria*: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza.

Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestan ere (PGDI) aztertzen dira errentak, aintzat hartuta diru-sarrera motak eta pertsonen ezaugarri sozioekonomikoak, etxeen arabera. Bakarrik bizi diren emakumeek dute per capita errentarik baxuena: 884 euro; egoera berean dauden gizonezkoena, berriz, 1.414 eurokoa da. Aita edo ama soilik buru duten etxeetan, generoen arteko alde txikiagoa dago per capita errentan. Senar-emazteak seme-alabekin edo haiek gabe bizi diren etxeetan, emakumeen per capita errenta gizonena baino handiagoa da.

**2.58. TAULA.** Batez besteko errenta, familia-motaren eta sexuaren arabera. Oinarria: per capita baliokidetasuna (eurotan). 2008

| | EMAKUMEAK | GIZONAK | G-E |
|---|---|---|---|
| Familia ez | 883,8 | 1.414,0 | 530,2 |
| Senar-emazteak edo bikotea seme-alabarik gabe | 1.262,5 | 916,7 | -345,8 |
| Senar-emazteak edo bikotea seme-alabekin | 1.059,7 | 850,0 | -209,7 |
| Aita edo ama seme-alabekin | 845,3 | 800,0 | -45,3 |
| Beste batzuk | 844,2 | 977,8 | 133,6 |

*Iturria*: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta.

Dibortziatutako emakumeak buru dituzten etxeak dira per capita errentarik txikiena dutenak. Bestalde, pertsonen per capita errentan dagoen generoen arteko alderik handiena, aintzat hartuta egoera zibila, alargunen artekoa da. Izan ere, emakumezko alargunak buru dituzten etxeetako per capita errenta 874,6 eurokoa da; aldiz, gizonezko alargunak buru dituzten etxeetakoa, 1.175 eurokoa.

**2.59. TAULA.** Batez besteko errenta, aintzat hartuta pertsona nagusiaren egoera zibila, sexuaren arabera. Oinarria: per capita baliokidetasuna (eurotan). 2008

| | EMAKUMEAK | GIZONAK | G-E |
|---|---|---|---|
| Ezkongabea | 1.012,5 | 1.161,2 | 148,7 |
| Ezkondua | 1.093,3 | 854,2 | -239,2 |
| Alarguna | 874,6 | 1.175,0 | 300,4 |
| Dibortziatua | 716,7 | 809,3 | 92,7 |

*Iturria*: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta.

Per capita errentarik txikienak ama soilik buru duten etxeetakoak dira, amak 45 urtetik behera dituen eta lan egonkorrik ez duen kasuetan; hurrengoak Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetako pertsonak buru dituzten etxeetakoak dira. Bi horien ondoren, hauek dira errentarik txikienak: 45 urte baino gutxiago dituzten eta lan egonkorrik ez duten pertsonak buru dituzten familietakoak; eta 45 urte baino gehiago izanik lan egonkorrik ez duten eta bakarrik bizi diren emakumeenak. Per capita errentarik handienak, berriz, pertsona hauek dituzte: 65 urte baino gutxiago izanik bakarrik bizi direnak, lan egonkorra izanik edo izan gabe, emakumezkoak zein gizonezkoak izan.

**2.60. TAULA.** Batez besteko errenta, familia-motaren arabera. Oinarria: per capita baliokidetasuna, Eurostat eta PGDI (eurotan)

| | BALIOKIDETASUNA | | | BATEZ BESTEKO OROKORRAREN % | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | PER CAPITA | EUROSTAT | PGDI | PER CAPITA | EUROSTAT | PGDI |
| GUZTIRA | 875,0 | 1.364,0 | 1.866,7 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| Ama buru duen familia, lan egonkorrik ez, <45 urte | 381,1 | 567,9 | 984,4 | 43,6 | 41,6 | 52,7 |
| EBz kanpoko herrialdeetakoak | 436,1 | 835,0 | 1.122,3 | 49,8 | 61,2 | 60,1 |
| Familia, <45 urte, lan egonkorrik ez | 635,4 | 1.144,4 | 1.519,3 | 72,6 | 83,9 | 81,4 |
| Emakumea bakarrik, lan egonkorrik ez, >=45 urte | 716,7 | 829,3 | 942,7 | 81,9 | 60,8 | 50,5 |
| Aita buru duen familia | 800,0 | 1.200,0 | 1.686,6 | 91,4 | 88,0 | 90,4 |
| 65 urtetik gorako gizonak | 819,6 | 1.169,0 | 1.403,6 | 93,7 | 85,7 | 75,2 |
| Familia, <45 urte, lan egonkorrak | 852,1 | 1.481,9 | 2.004,8 | 97,4 | 108,6 | 107,4 |
| 65 urtetik gorako emakumeak | 863,8 | 1.050,0 | 1.127,5 | 98,7 | 77,0 | 60,4 |
| Ama buru duen familia, lan egonkorrik ez, >=45 urte | 875,0 | 1.290,0 | 1.610,1 | 100,0 | 94,6 | 86,3 |
| Familia, >=45 urte, lan egonkorrik ez | 880,6 | 1.326,7 | 1.949,6 | 100,6 | 97,3 | 104,4 |
| Ama buru duen familia, lan egonkorra | 965,3 | 1.484,7 | 1.942,7 | 110,3 | 108,9 | 104,1 |
| Familia, >=45 urte, lan egonkorrak | 970,0 | 1.548,9 | 2.339,3 | 110,9 | 113,6 | 125,3 |
| Emakumea bakarrik, lan egonkorrik ez, <45 urte | 1.015,3 | 1.183,2 | 1.322,6 | 116,0 | 86,7 | 70,9 |
| Gizona bakarrik, <65 urte, lan egonkorrik ez | 1.231,7 | 1.231,7 | 1.231,7 | 140,8 | 90,3 | 66,0 |
| Gizona bakarrik, <65 urte, lan egonkorra | 1.620,8 | 1.833,3 | 1.866,7 | 185,2 | 134,4 | 100,0 |
| Emakumea bakarrik, <65 urte, lan egonkorra | 1.645,8 | 1.775,0 | 1.800,0 | 188,1 | 130,1 | 96,4 |

*Iturria*: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila. Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta.

## POBREZIA ETA GIZARTE-BAZTERKETA 2.3

Pobreziaren feminizazioa hazten ari den fenomenoa da Euskadin. Hala jartzen dute agerian Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailaren Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestak eta aurreko atalean aztertutako errenta-aldeek. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planak aintzat hartzen du fenomeno hori, eta emakumeen ahalduntzeari eta balio-aldaketari dagokion ardatzaren barnean, programa hau biltzen du: ekonomia- eta gizarte-baliabideen eskuragarritasuna eta kontrola; horren helburua da arrisku- edo pobrezia-egoeran dauden emakumeen egoera, edota gizarte-bazterketa bizi dutenena, hobetzea.

Hain zuzen, 2008an egin eta 2009. urtearen erdialdera argitaratu zen Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestan, agerian jartzen da pobreziak eragin handiagoa duela emakumeengan gizonengan baino. Hala, pobrezia-arriskuan dauden, eta, beraz, bakarrik bizitzeko behar adina diru-sarrerarik ez duten pertsona guztien % 82,9 emakumezkoa da. Txosten horretan jaso denez, pobrezia-arriskuan dauden emakumeen ehunekoa egoera horretan dauden gizonena baino 4 aldiz handiagoa da.

**2.61. TAULA.** Pobretasun-arriskuaren tasa eta banaketa, sexuaren eta norberaren diru-sarreren arabera (ehunekoak)

| | POBREZIA-ARRISKUA | |
|---|---|---|
| | BANAKETA | TASA |
| Emakumeak | 82,9 | 47,1 |
| Gizonak | 17,1 | 10,7 |

*Iturria*: Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta. 2008.

Etxe bakoitzeko egoera aintzat hartuta ere agerian jartzen da gertaera hori. Emakumezko bat soilik buru duten etxeetan, pobrezia-arriskua oso handia da, eta, beraz, etxe horietan ez daukate nahikoa baliabide ekonomiko oinarrizko beharrak asetzeko. Egoera horretan dago emakumezkoak buru dituzten etxeen % 8,2 eta gizonezkoak buru dituzten etxeen % 3,3. Pobreziaren beste adierazle bat ongizate-gabezia da. Halako egoeretan, etxeek ez dute nahikoa diru-sarrerarik, ez oinarrizko beharrak asetzeko, gutxieneko ongizate-mailari eusteko beharrezko gastuei aurre egiteko baizik. Emakumezko bat buru duten etxeen % 28,1 dago egoera horretan, eta gizonezko bat buru duten etxeen % 12 soilik.

Etxe gehienetan, gizonak dira buru. Horregatik, etxe guztiak aintzat hartuta pobrezia-arriskuak eta ongizate-gabeziak zenbaterainoko eragina duten aztertuta, emakumeak buru dituzten etxeen % 32an soilik eragiten dutela ikus daiteke. Nolanahi ere, gizarte-ongizatezko egoeran dauden etxeetako egoerak alderatuz gero, agerian jartzen da aurreko paragrafoan aipatutako eragin handi hori. Hain zuzen, ongizate-egoeran bizi diren etxeen % 13,5ean soilik dira emakumeak buru.

**2.62. TAULA.** Pobrezia-arriskua eta ongizate-gabezia dakarten egoeren intzidentzia, etxeko pertsona nagusiaren sexuaren arabera. Familia-etxebizitzetako biztanleria (ehunekoak)

| | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|
| | % H | % B | % H | % B |
| Pobrezia | 32,0 | 8,2 | 68,0 | 3,3 |
| Ongizate-gabezia | 31,0 | 28,1 | 69,0 | 12,0 |
| Ongizate-egoera | 13,5 | 71,9 | 86,5 | 88,0 |

*Iturria*: Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta. 2008.

Emakumezko bat bakarrik bizi den etxeen ia % 50 pobrezia-arriskuan (% 8,2) edo ongizate-gabezian (% 41,3) dago. Aldiz, gizonezko bat bakarrik bizi den etxeen kasuan, ehunekoa erdia baino txikiagoa da: % 19,7. Aita edo ama soilik seme-alabekin bizi den familietan, aldeak ez dira hain handiak. Izan ere, aita soilik seme-alabekin bizi den familietan, pobrezia-arriskuaren eragina handiagoa da ama soilik seme-alabekin bizi denetan baino; nolanahi ere, azken horien artean, gehiago dira oinarrizko beharrak asetzeko adina diru-sarrera dutenak baina gutxieneko ongizate-mailari eusteko beharrezko gastuetarako ez dutenak.

**2.63. TAULA.** Pobrezia-arriskua eta ongizate-gabezia dakarten egoeren intzidentzia, familia-taldearen motaren arabera. Familia-etxebizitzetako biztanleria (ehunekoak). 2008

| FAMILIA-TALDEAREN MOTA | POBREZIA | ONGIZATE-GABEZIA | ONGIZATE-EGOERA |
|---|---|---|---|
| Bakarrik bizi diren pertsonak | 7,9 | 34,0 | 66,0 |
| Gizona bakarrik | 7,3 | 19,7 | 80,3 |
| Emakumea bakarrik | 8,2 | 41,3 | 58,7 |
| Bikotea seme-alabarik gabe | 3,3 | 12,9 | 87,1 |
| Bikotea seme-alabekin | 2,8 | 11,0 | 89,0 |
| Guraso bakarreko familiak | 11,9 | 24,9 | 75,1 |
| Aita seme-alabekin | 16,5 | 21,1 | 78,9 |
| Ama seme-alabekin | 10,8 | 25,7 | 74,3 |
| Familia-talde hedatuak | 4,4 | 11,3 | 88,7 |
| GUZTIRA | 4,1 | 14,6 | 85,4 |

*Iturria*: Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta. 2008.

Bestalde, pobreziaren edo ongizate-gabeziaren eragina banaka-banaka aztertuta, generoen arteko aldea txikiagoa da, etxeko pertsona nagusiaren sexua aintzat hartuta baino. Hala aztertuta, bai batak bai besteak emakumeengan duten eragina handiagoa da gizonengan dutena baino; edonola ere, pobreziaren adierazlean, txikia da generoen arteko aldea; ongizate-gabeziaren adierazlean, berriz, 4 puntuko aldea dago gizon eta emakumeen artean.

**2.64. TAULA.** Pobrezia-arriskua eta ongizate-gabezia dakarten egoeren intzidentzia, sexuaren arabera. Familia-etxebizitzetako biztanleria (ehunekoak)

| | POBREZIA | ONGIZATE-GABEZIA | ONGIZATE-EGOERA |
|---|---|---|---|
| Emakumeak | 4,3 | 16,3 | 83,7 |
| Gizonak | 4,0 | 12,8 | 87,2 |
| **GUZTIRA** | **4,1** | **14,6** | **85,4** |

*Iturria*: Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta. 2008.

Ongizate-gabezia neurtzeko beste adierazle bat metatze-pobrezia da. Metatze-pobreziak epe luzean gutxieneko bizi-maila egokiari eusteko beharrezkoak diren kontsumo-ondasun iraunkorrak lortzeko ezgaitasuna adierazten du; beraz, metatze-pobreziak berekin dakar desberdintasunezko eskasia-egoera, ondasun-mota horien eskuragarritasunari dagokionez. Hortaz, metatze-pobrezian egoteak pobreziaren eta gizarte-bazterketaren bizipena are latzagoa izatea dakar. Emakumezkoak buru dituzten etxeetan, metatze-pobreziaren intzidentzia handiagoa da, gizonak buru dituztenetan baino: hurrenez hurren, 1,4 eta 0,5. Hala ere, aintzat hartuta metatze-pobrezia pairatzen duten etxe guztiak, gehienetan gizonak dira buru: % 66,7an.

**2.65. TAULA.** Metatze-pobreziaren intzidentzia eta banaketa, etxeko pertsona nagusiaren sexuaren arabera. Familia-etxebizitzetako biztanleria (ehunekoak). 2008

| | EMAKUMEAK | GIZONAK |
|---|---|---|
| Banaketa | 33,3 | 66,7 |
| Intzidentzia | 1,4 | 0,5 |

*Iturria*: Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta. 2008.

Metatze-pobrezia pairatzen duten familia gehienak bikoteaz eta seme-alabez osatuta daude; hain zuzen, % 51. Horien hurrengoak ama buru duten familiak dira: % 33; azken familia-taldearen mota hori ez dago, oro har, oso hedatuta. Metatze-pobreziak amaz eta seme-alabez osatutako familia-motetan eragiten du gehien: etxe guztien % 3,2an, hain zuzen; horien hurrengoak bakarrik bizi diren gizonak dira.

**2.66. TAULA.** Metatze-pobreziaren intzidentzia eta banaketa, familia-taldearen motaren arabera. Familia-etxebizitzetako biztanleria (ehunekoak). 2008

| | BANAKETA | INTZIDENTZIA |
|---|---|---|
| Bakarrik bizi diren pertsonak | 8,3 | 0,6 |
| Gizona bakarrik | 8,1 | 1,8 |
| Emakumea bakarrik | 0,2 | 0,0 |
| Bikotea seme-alabarik gabe | 7,1 | 0,3 |
| Bikotea seme-alabekin | 51,6 | 0,5 |
| Aita seme-alabekin | 0,0 | 0,6 |
| Ama seme-alabekin | 33,0 | 3,2 |
| Familia-talde hedatuak | 0,0 | 0,0 |
| GUZTIRA | 100,0 | 0,7 |

*Iturria*: Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta. 2008.

2004tik 2008ra, metatze-pobreziak emakumeak buru dituzten etxeetan duen intzidentzia dezente murriztu da: % 7,5etik % 1,4ra, hain zuzen; eta horrek eragina izan du banaketari buruzko datu orokorretan. Izan ere, 2004. urtean, metatze-pobrezian zeuden etxeen %48an emakumeak ziren buru; gaur egun, aldiz, % 33,3an; edonola ere, orain lehen baino etxe gutxiagotan da emakumea pertsona nagusia.

**2.67. TAULA.** Metatze-pobrezia: 2004tik 2008ra arteko bilakaera, etxeko pertsona nagusiaren sexuaren arabera. Familia-etxebizitzetako biztanleria (ehunekoak)

| | TASAK | | BANAKETA | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | 2004 | 2008 | 2004 | 2008 | BILAKAERA |
| Emakumeak | 7,5 | 1,4 | 48,4 | 33,3 | -78,6 |
| Gizonak | 1,3 | 0,5 | 51,6 | 66,7 | -59,7 |
| GUZTIRA | 2,2 | 0,7 | 100,0 | 100,0 | -68,8 |

*Iturria*: Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta. 2008.

Baliabideak ez izateagatik epe laburrean independizatuko ez diren gizonen ehunekoa emakumeena baino txikiagoa da; baina epe ertainean, intzidentzia handiagoa da: independizatu nahiko luketen pertsonen ia % 60k ez du horretarako aukerarik.

**2.68. TAULA.** Norberaren etxea izan nahiko lukeen eta baliabide ekonomikorik ez izateagatik independizatu gabe dagoen biztanleriaren banaketa, aintzat hartuta epe laburrean edo ertainean independizatu nahi duen, sexuaren arabera (ehunekoak)

| | EPE ERTAINEAN: > 1 URTE | ZALANTZAN | EPE LABURREAN: < 1 URTE | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|
| Emakumeak | 40,6 | 44,4 | 58,6 | 47,3 |
| Gizonak | 59,4 | 55,6 | 41,4 | 52,7 |

*Iturria*: Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta. 2008.

Intzidentziari buruzko datuek emaitza berak erakusten dituzte: hau da, epe laburrean independizatu nahiko luketen gizonen % 6,8k soilik ez du egingo baliabiderik ez izateagatik; ehuneko hori 4 puntu handiagoa da emakumezkoen kasuan. Aitzitik, independizatu nahiko luketen emakumezkoen % 9k ez du epe ertainean egingo, baliabiderik ez izateagatik; gizonezkoen artean, berriz, % 10,5ek.

**2.69. TAULA.** Norberaren etxea izan nahiko lukeen eta baliabide ekonomikorik ez izateagatik independizatu gabe dagoen biztanleriaren intzidentzia, aintzat hartuta epe laburrean edo ertainean independizatu nahi duen, sexuaren arabera (ehunekoak)

| | EPE ERTAINEAN: > 1 URTE | ZALANTZAN | EPE LABURREAN: < 1 URTE | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|
| Emakumeak | 9,0 | 11,8 | 10,9 | 31,7 |
| Gizonak | 10,5 | 12,0 | 6,8 | 29,3 |

*Iturria*: Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta. 2008.

Prospekzio Soziologikoen Kabineteak ere biltzen ditu, norberaren ikuspegia aintzat hartuta, pertsonen egoera sozioekonomikoari buruzko datuak: Ikuskerak. Hilabete-amaierara heltzeko arazoak dituzten emakumeen kopurua gizonezkoena baino handiagoa da, langabeen artean izan ezik. Aldea handiagoa da autonomoen eta enpresaburuen artean, gainerako lanegoeretan baino.

**2.70. TAULA.** "Arazoak dituzu hilabete-amaierara iristeko?" adierazlea, aintzat hartuta lan-egoera (ehunekoak). 2009

| | EMAKUMEAK | GIZONAK | G-E |
|---|---|---|---|
| **Autonomoa, enpresaburua** | | | |
| Bai | 39 | 30 | -9 |
| Ez | 59 | 68 | 9 |
| ED-EDE | 2 | 2 | 0 |
| **Soldatakoa, finkoa** | | **0** | |
| Bai | 26 | 21 | -5 |
| Ez | 73 | 77 | 4 |
| ED-EDE | 1 | 2 | 1 |
| **Soldatakoa, aldi baterakoa** | | **0** | |
| Bai | 37 | 34 | -3 |
| Ez | 60 | 66 | 6 |
| ED-EDE | 3 | 0 | -3 |
| **Langabea** | | | **0** |
| Bai | 58 | 61 | 3 |
| Ez | 41 | 35 | -6 |
| ED-EDE | 2 | 4 | 2 |
| **Ikaslea** | | | **0** |
| Bai | 24 | 21 | -3 |
| Ez | 71 | 75 | 4 |
| ED-EDE | 5 | 4 | -1 |
| **Pentsioduna, erretiratua** | | | |
| Bai | 30 | 22 | -8 |
| Ez | 68 | 77 | 9 |
| ED-EDE | 2 | 1 | -1 |

*Iturria*: Ikuskerak-3. EAEko emakumeen eta gizonen iritzien arteko aldeak.

Hilabete-amaierara iristeko zailtasunak adin-taldeka aztertuta ere, zenbait desberdintasun ikus daitezke. Adin-talde guztietan, arazoak dituztela adierazi duten emakumeen ehunekoa ezetz esan dutenena baino handiagoa da. Gizonekiko alderik handiena 65 urtetik gorakoen taldean dago. Izan ere, adin-talde horretan, emakumeen % 28k adierazi du arazoak dituela, baina gizonen % 20k soilik.

**2.71. TAULA.** "Arazoak dituzu hilabete-amaierara iristeko?" adierazlea, adinaren arabera (ehunekoak). 2009

| | EMAKUMEAK | GIZONAK | G-E |
|---|---|---|---|
| **18-29** | | | |
| Bai | 38 | 33 | -5 |
| Ez | 61 | 65 | 4 |
| ED-EDE | 1 | 2 | 1 |
| **30-45** | | | |
| Bai | 40 | 33 | -7 |
| Ez | 58 | 65 | 7 |
| ED-EDE | 2 | 2 | 0 |
| **46-64** | | | |
| Bai | 31 | 27 | -4 |
| Ez | 68 | 71 | 3 |
| ED-EDE | 1 | 2 | 1 |
| **65 urte edo gehiago** | | | |
| Bai | 28 | 20 | -8 |
| Ez | 69 | 78 | 9 |
| ED-EDE | 2 | 2 | 0 |

*Iturria*: Ikuskerak-3. EAEko emakumeen eta gizonen iritzien arteko aldeak.

# 3

# EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ETA BALIO-ALDAKETA GIZARTE-BALIABIDEEN ESKURAGARRITASUNA ETA KONTROLA

## HEZKUNTZA

# 3.1

Hezkuntza, hein handi batean, pertsonen gizarte-estatusa baldintzatzen duen baliabidea da; izan ere, eragina du lanbidean, eta, beraz, baita diru-sarreretan eta denboraren banaketan ere. Hezkuntzak barnean hartzen ditu prestakuntza-prozesuaren zenbait etapa: derrigorrezko hezkuntza, Haur Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara bitartean; aukeraren arabera, Lanbide Heziketaren, Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programaren (HLPP) edo Batxilergoaren etapa, zenbait adar dituena; unibertsitateko etapa; eta helduentzako prestakuntzaren etapa.

Lehen etapan, derrigorrezko hezkuntzan, ikasgeletan mutilek eta neskek duten banaketa ez dago generoen araberako rolek baldintzatuta. Hori dela eta, nesken eta mutilen ehunekoak parekotasunezkoak dira. 2008/2009 ikasturtean, 91.206 ikasle matrikulatu ziren Lehen Hezkuntzan, eta haietako % 51,6 gizonezkoa zen. Haur Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan ere, ehunekoa antzekoa da: bietan, % 51,7. Hautaketaren bigarren etapan, ordea, mutilen eta nesken arteko banaketa-prozesua hasten da; prozesu hori areagotu egiten da bai Batxilergoan bai Lanbide Heziketan espezialitateak aukeratzean. 2008/2009 ikasturtean, 28.832 ikasle matrikulatu ziren Batxilergoan, eta haietako % 47,2 gizonezkoa zen. Lanbide Heziketako maila ertaineko zikloetan, emakumezkoen ehunekoa ez da % 40ra iristen, eta goi-mailako zikloetan % 43,3 da. HLPPetan, berriz, emakumeak are gutxiago dira: ikasle guztien %30. Aitzitik, Helduentzako Hezkuntzan, ikasleen % 61 da emakumezkoa.

### 3.1. TAULA. EAEko ikasleak, heziketa-mailaren eta sexuaren arabera. 2008/09

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| GUZTIRA | 444.981 | 226.292 | 50,9 | 218.689 | 49,1 |
| Haur Hezkuntza | 91.206 | 44.106 | 48,4 | 47.100 | 51,6 |
| Haur Hezkuntza Berezia | 59 | 19 | 32,2 | 40 | 67,8 |
| Lehen Hezkuntza | 110.095 | 53.224 | 48,3 | 56.871 | 51,7 |
| Lehen Hezkuntza Berezia | 364 | 131 | 36,0 | 233 | 64,0 |
| Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza | 69.046 | 33.346 | 48,3 | 35.700 | 51,7 |
| Bigarren Hezkuntza Berezia | 195 | 74 | 37,9 | 121 | 62,1 |
| Batxilergoa | 28.832 | 15.221 | 52,8 | 13.611 | 47,2 |
| LH, maila ertaina | 10.232 | 3.997 | 39,1 | 6.235 | 60,9 |
| LH, goi-maila | 15.098 | 6.544 | 43,3 | 8.554 | 56,7 |
| Zereginen Ikaskuntza | 415 | 159 | 38,3 | 256 | 61,7 |
| HLPP | 2.641 | 718 | 27,2 | 1.923 | 72,8 |
| Helduen Hezkuntza | 29.196 | 17.688 | 60,6 | 11.508 | 39,4 |

*Iturria*: Eustat. Ikasleak, irakasleak eta ikastetxeak.

Ikastetxearen titulartasuna aintzat hartuta ere, datu orokorrak antzekoak dira, ez dago sexuen araberako alde handirik. Edonola ere, badira desberdintasun batzuk: Haur Hezkuntza Berezian, nesken eta mutilen presentzia parekotasunezkoa da ikastetxe publikoetan; pribatuetan, aldiz, ikasle guztien % 30 soilik da emakumezkoa.

**3.2. TAULA.** EAEko ikasleak, ikastetxearen titulartasunaren, heziketa-mailaren eta sexuaren arabera. 2008/09

| | IKASTETXE PUBLIKOAK | | | IKASTETXE PRIBATUAK | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | EMAKUMEEN % | GIZONEN % | GUZTIRA | EMAKUMEEN % | GIZONEN % |
| | 263.590 | 52,3 | 47,7 | 181.391 | 48,8 | 51,2 |
| Haur Hezkuntza | 46.717 | 48,3 | 51,7 | 44.489 | 48,4 | 51,6 |
| Haur Hezkuntza Berezia | 12 | 50,0 | 50,0 | 47 | 27,7 | 72,3 |
| Lehen Hezkuntza | 54.542 | 47,8 | 52,2 | 55.553 | 48,9 | 51,1 |
| Lehen Hezkuntza Berezia | 101 | 36,6 | 63,4 | 263 | 35,7 | 64,3 |
| Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza | 30.797 | 48,2 | 51,8 | 38.249 | 48,4 | 51,6 |
| Bigarren Hezkuntza Berezia | 116 | 35,3 | 64,7 | 79 | 41,8 | 58,2 |
| Batxilergoa | 14.982 | 54,7 | 45,3 | 13.850 | 50,7 | 49,3 |
| LH, maila ertaina | 5.898 | 34,2 | 65,8 | 4.334 | 45,7 | 54,3 |
| LH, goi-maila | 7.617 | 42,3 | 57,7 | 7.481 | 44,4 | 55,6 |
| Zereginen Ikaskuntza | 261 | 41,8 | 58,2 | 154 | 32,5 | 67,5 |
| HLPP | 1.464 | 23,6 | 76,4 | 1.177 | 31,7 | 68,3 |
| Helduen Hezkuntza | 28.702 | 60,6 | 39,4 | 494 | 59,3 | 40,7 |

*Iturria*: Eustat. Ikasleak, irakasleak eta ikastetxeak.

Eskolatze-tasa gordinak erlazio hau adierazten du: heziketa-maila bakoitzean dagoen ikasle-kopuruaren eta adin-taldearen arabera teorikoki maila horretan aritu beharko lukeen biztanle-kopuruaren artekoa. Eskolatze-tasa gordinari erreparatuz gero, ikus daiteke generoen arteko aldea oso txikia dela Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan; Batxilergoan, ordea, emakumeak gehiago dira (gizonak baino % 14,1 gehiago), eta Lanbide Heziketan, gizonak (emakumeak baino % 12 gehiago).

**3.3. TAULA.** Eskolatze-tasa gordinak EAEko Lehen Hezkuntzan, Bigarren Hezkuntzan, Lanbide Heziketan eta Batxilergoan, sexuaren arabera. 2008/09

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | GIZONAK | ALDEA (G-E) |
|---|---|---|---|---|
| Haur Hezkuntza | 74,1 | 73,4 | 74,8 | 1,4 |
| Lehen Hezkuntza | 103,1 | 102,0 | 104,1 | 2,1 |
| DBH | 106,7 | 105,7 | 107,7 | 2,0 |
| Batxilergoa | 84,4 | 91,7 | 77,6 | -14,1 |
| Lanbide Heziketa | 31,2 | 25,0 | 37,0 | 12,0 |

*Iturria*: Eustat. Irakaskuntza.

Eskolatze-tasa garbiak erlazio hau adierazten du: heziketa-maila eta adin-talde bakoitzeko ikasle-kopuruaren eta adin-talde horretako biztanle-kopuruaren artekoa. 2008/2009 ikasturtean, 16-17 urtekoen adin-taldeko eskolatze-tasa garbia 72,9 izan zen emakumeen taldean, eta 59,9 soilik gizonezkoen taldean. Alabaina, Lanbide Heziketan, adin-talde horretan, gizonezkoen eskolatze-tasa garbia emakumezkoen tasaren ia bikoitza da.

## 3.4. TAULA. Eskolatze-tasa garbia Lanbide Heziketan eta Batxilergoan, adinaren eta sexuaren arabera. 2008/09

| | BATXILERGOA | | | LH | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | GIZONAK | GUZTIRA | EMAKUMEAK | GIZONAK |
| 12-15 urte | 0,1 | 0,2 | 0,1 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| 16-17 urte | 66,2 | 72,9 | 59,9 | 4,6 | 3,0 | 6,1 |
| 18-21 urte | 7,1 | 7,3 | 6,9 | 8,7 | 6,3 | 11,0 |
| 22-25 urte | 0,5 | 0,5 | 0,6 | 1,2 | 1,2 | 1,2 |
| 26-29 urte | 0,1 | 0,1 | 0,1 | 0,4 | 0,5 | 0,4 |

*Iturria*: Eustat. Irakaskuntza.

Egokitasun-tasak, berriz, erlazio hau adierazten du: teorikoki adin jakin baterako egokia den mailan matrikulatutako ikasle-kopuruaren eta adin horretako biztanle-kopuruaren artekoa. Tasa hori emakumezkoen kasuan handiagoa da gizonezkoen kasuan baino, adin-talde guztietan, eta 13 urtetik aurrera aldea 4 puntukoa baino gehiagokoa da. Adinean aurrera egin ahala, gainera, generoen arteko aldea gero eta handiagoa da: 17 urtekoen taldean, % 13,4 puntukoa da.

## 3.5. TAULA. Ikasleen egokitasun-tasa, adinaren eta sexuaren arabera. 2008/09

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | GIZONAK | E-G |
|---|---|---|---|---|
| 7 urte | 98,9 | 99,0 | 98,8 | 0,2 |
| 9 urte | 93,5 | 93,6 | 93,5 | 0,1 |
| 11 urte | 94,5 | 95,2 | 93,8 | 1,4 |
| 12 urte | 92,9 | 93,4 | 92,4 | 1,0 |
| 13 urte | 82,9 | 85,3 | 80,7 | 4,6 |
| 14 urte | 78,2 | 82,5 | 74,0 | 8,5 |
| 15 urte | 71,3 | 75,9 | 67,0 | 8,9 |
| 16 urte | 64,6 | 70,1 | 59,5 | 10,6 |
| 17 urte | 59,0 | 65,9 | 52,5 | 13,4 |

*Iturria*: Eustat. Irakaskuntza.

Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan, ez dago alde handirik gizonezko eta emakumezko ikasleen kopuruetan, baina bai batzuen eta besteen eskola-errendimenduan. Aintzat hartuta Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan maila errepikatzen duten ikasleen ehunekoak, ondoriozta daiteke emakumezkoen eskola-errendimendua hobea dela. 2008/2009 ikasturteko ikasle errepikatzaileei buruzko datuak aztertuta, ikus daiteke gizonezkoen ehunekoa emakumezkoena baino handiagoa izan zela; batez ere, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen mailan: izan ere, maila horretan, gizonezko errepikatzaileen ehunekoa emakumezkoen ehunekoaren ia bikoitza da.

**3.6. TAULA.** Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasle errepikatzaileen ehunekoak, sexuaren arabera. 2008/09

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | GIZONAK | ALDEA (G-E) |
|---|---|---|---|---|
| Lehen Hezkuntza, 6. maila | 3,8 | 3,1 | 4,5 | 1,4 |
| DBH | 7,0 | 5,6 | 8,4 | 2,8 |
| DBH, 1. maila | 7,3 | 5,1 | 9,4 | 4,3 |
| DBH, 2. maila | 7,7 | 6,1 | 9,2 | 3,1 |
| DBH, 3. maila | 7,3 | 6,2 | 8,3 | 2,1 |
| DBH, 4. maila | 5,7 | 5,1 | 6,3 | 1,2 |

*Iturria*: Eustat. Irakaskuntza.

Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako eskola-errendimendua neurtzen duen beste adierazle bat etapa horretako egokitzapen-maila da. 2008/2009 ikasturteko datuen arabera, emakumeen egokitzapen-maila gizonena baino hobea da; izan ere, emakumeen artean, egokitu gabeko ikasleen ehunekoa txikiagoa da, etapa guztietan. Heziketa-mailan gora egin ahala ez-egokitzapena areagotuz doan arren, bilakaera ez da berdina emakumezkoen eta gizonezkoen artean. Hain zuzen ere, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen mailatik bigarrenera, ez-egokitzapenaren maila 6,4 puntu gehiagokoa da gizonen artean, emakumeen artean baino; hortik aurrera, hazkunde hori mugatua da, eta puntu bat baino gutxiago igotzen da mailako. Aitzitik, emakumeen kasuan, ez-egokitzapenaren mailaren bilakaera jarraituagoa da; edonola ere, DBHko lehen etapatik bigarrenera bitartean dago ehunekorik handiena.

**3.7. TAULA.** Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako egokitu gabeko ikasleen ehunekoak, sexuaren arabera. 2008/09

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | GIZONAK | G-E |
|---|---|---|---|---|
| Lehen hezkuntza, 6. maila | 11,2 | 9,6 | 12,6 | 3,0 |
| DBH | 7,9 | 7,2 | 8,7 | 1,5 |
| DBH, 1. maila | 19,1 | 16,0 | 21,9 | 5,9 |
| DBH, 2. maila | 24,3 | 19,8 | 28,3 | 8,5 |
| DBH, 3. maila | 25,2 | 21,8 | 28,4 | 6,6 |
| DBH, 4. maila | 26,6 | 23,4 | 29,7 | 6,3 |

*Iturria*: Eustat. Irakaskuntza.

Eskola-errendimendua neurtzeko beste adierazle bat mailaz igo direnen ehunekoa da; hots, maila gainditu dutenen -guztia gaindituta dutenak zein ikasgairen bat gainditu gabe dutenak- eta maila horretan matrikulatutakoen arteko erlazioa. Beste adierazleekin gertatzen den bezala, mailaz igo diren emakumeen ehunekoa gizonen ehunekoa baino handiagoa da, maila guztietan. Generoen arteko aldea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan da handiena: ia % 5.

**3.8. TAULA.** Mailaz igotakoen ehunekoak, aldiaren, mailaren eta sexuaren arabera. 2008/09

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | GIZONAK | E-G |
|---|---|---|---|---|
| Lehen Hezkuntza, 1. zikloa | 96,1 | 96,7 | 95,5 | 1,2 |
| Lehen Hezkuntza, 2. zikloa | 96,5 | 97,0 | 96,0 | 1,0 |
| Lehen Hezkuntza, 3. zikloa | 96,3 | 97,1 | 95,7 | 1,4 |
| DBH | 89,5 | 91,9 | 87,3 | 4,6 |
| DBH, 1. maila | 91,1 | 93,5 | 89,1 | 4,4 |
| DBH, 2. maila | 89,0 | 92,1 | 86,2 | 5,9 |
| DBH, 3. maila | 88,3 | 90,6 | 86,1 | 4,5 |
| DBH, 4. maila | 89,6 | 91,3 | 87,9 | 3,4 |

*Iturria*: Eustat. Irakaskuntza.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan mailaz igotakoen ehunekoetan generoen artean ia 5 puntuko aldea dagoen arren, alde hori izan da txikiena 1997/1998 ikasturteaz geroztik; maila horretan, eskola-errendimenduan dagoen desberdintasuna modu jarraituan murriztu da. Hala ere, ez da hori gertatzen gainerako ikasketa-mailetan. Hortaz, gaur egun mailaz igotako pertsonen ehunekoetan dagoen generoen arteko aldea 1997/1998 ikasturtean baino txikiagoa bada ere, bilakaera ez da jarraitua izan, grafikoan ikus daitekeenez.

**3.1. GRAFIKOA.** Mailaz igotakoen ehunekoetan generoen artean izandako aldearen bilakaera, mailaren eta ikasturtearen arabera. 1996/97-2008/09




*Iturria*: Eustat. Irakaskuntza.

Nolanahi ere, emakumezko eta gizonezko ikasleen kopuruetan dauden aldeak askoz handiagoak dira derrigorrezko hezkuntzaren etapa amaitu ostean, lanbide-espezializazioa hautatutakoan. Unibertsitatez kanpoko heziketa arautuari buruzko datuen arabera, Lanbide

Heziketan emakumeen eta gizonen ehunekoak ez dira parekotasunezkoak; izan ere, maila ertaineko Lanbide Heziketan %40 baino gutxiago da emakumezkoa, eta goi-mailakoan, % 43. Adarrak aintzat hartuta, aldeak nabarmenagoak dira. Izan ere, generoen araberako rolen eragina oso handia da.

2008/2009 ikasturtean, maila ertaineko Lanbide Heziketako 20 adarretatik 2tan soilik betetzen zen parekotasun-printzipioa ikasgelen osaeran: Komunikazioa, Irudia eta Soinua adarrean, eta Arte Grafikoak adarrean. Adar horretan dago matrikulatuta maila ertaineko Lanbide Heziketako ikasleen % 2,4. Adar jakin batzuetan, gehiegizko feminizazioa dago; hau da, ikasleen % 20 baino gutxiago da gizonezkoa. Hauek dira adar horiek: Irudi Pertsonala, Osasuna, Gizarte eta Kultura Zerbitzuak, eta Administrazioa. Adar horietan dago matrikulatuta maila ertaineko Lanbide Heziketako ikasleen % 33. Beste adar batzuk, berriz, gehiegi maskulinizatuta daude: Informatika, Zurgintza eta Altzarigintza, Fabrikazio Mekanikoa, Eraikuntza eta Obra Zibilak, Elektrizitatea eta Elektronika, Itsas eta Arrantza Jarduerak, Ibilgailu Autopropultsatuen Mantentzea, eta Produkzioko Mantentze eta Zerbitzu Lanak. Adar horietan, ikasleen % 53 dago matrikulatuta. Beraz, maila ertaineko Lanbide Heziketako ikasleen % 86 gehiegi feminizatutako edo maskulinizatutako adarretan dago matrikulatuta; adar horietan, 10 ikasletik 2 baino gutxiago dira emakumeak, edo gizonak.

### 3.9. TAULA. LHko maila ertaineko heziketa-zikloetan matrikulatutako ikasleak, adarraren eta sexuaren arabera. 2008/09

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| GUZTIRA | 10.232 | 3.997 | 39,1 | 6.235 | 60,9 |
| Irudi Pertsonala | 772 | 758 | 98,2 | 14 | 1,8 |
| Osasuna | 1.371 | 1.254 | 91,5 | 117 | 8,5 |
| Gizarte, Kultura eta Komunitateko zerbitzuak | 263 | 233 | 88,6 | 30 | 11,4 |
| Administrazioa | 963 | 777 | 80,7 | 186 | 19,3 |
| Merkataritza eta Marketina | 298 | 218 | 73,2 | 80 | 26,8 |
| Kimika | 56 | 33 | 58,9 | 23 | 41,1 |
| Komunikazioa, Irudia eta Soinua | 64 | 31 | 48,4 | 33 | 51,6 |
| Arte Grafikoak | 184 | 89 | 48,4 | 95 | 51,6 |
| Ostalaritza eta Turismo Ikasketak | 559 | 213 | 38,1 | 346 | 61,9 |
| Elikaduraren Industriak | 9 | 3 | 33,3 | 6 | 66,7 |
| Nekazaritza Jarduerak | 152 | 44 | 28,9 | 108 | 71,1 |
| Jarduera Fisikoak eta Kirol Jarduerak | 120 | 26 | 21,7 | 94 | 78,3 |
| Informatika | 499 | 89 | 17,8 | 410 | 82,2 |
| Zurgintza eta Altzarigintza | 240 | 22 | 9,2 | 218 | 90,8 |
| Fabrikazio Mekanikoa | 1.716 | 114 | 6,6 | 1.602 | 93,4 |
| Eraikuntza eta Obra Zibilak | 76 | 4 | 5,3 | 72 | 94,7 |
| Elektrizitatea eta Elektronika | 1.204 | 44 | 3,7 | 1.160 | 96,3 |
| Itsas eta Arrantza Jarduerak | 58 | 2 | 3,4 | 56 | 96,6 |
| Ibilgailu Autopropultsatuen Mantentzea | 871 | 25 | 2,9 | 846 | 97,1 |
| Produkzioko Mantentze eta Zerbitzu Lanak | 757 | 18 | 2,4 | 739 | 97,6 |

*Iturria*: Eustat. Ikasleak, irakasleak eta ikastetxeak.

Lanbide Heziketako goi-mailako heziketa-zikloetan, ikasleen banaketari buruzko datuak nahiko antzekoak dira. Izan ere, 21 adarretatik 3tan soilik betetzen da parekotasun-printzipioa ikasgelen osaeran: Ostalaritza eta Turismo Ikasketak, Arte Grafikoak, eta Merkataritza eta Marketina adarretan. Adar hauetan dago gehiegizko feminizazioa: Irudi Pertsonala,

Osasuna, Gizarte eta Kultura Zerbitzuak, eta Ehungintza, Jantzigintza eta Larrugintza; eta gehiegizko maskulinizazioa, beste hauetan: Zurgintza eta Altzarigintza, Fabrikazio Mekanikoa, Elektrizitatea eta Elektronika, Itsas eta Arrantza Jarduerak, Ibilgailu Autopropultsatuen Mantentzea, eta Produkzioko Mantentze eta Zerbitzu Lanak. Beraz, goi-mailako Lanbide Heziketako ikasleen % 54,6 gehiegi feminizatutako edo maskulinizatutako adarretan dago matrikulatuta; adar horietan, 10 ikasletik 2 baino gutxiago dira emakumeak, edo gizonak.

**3.10. TAULA.** LHko goi-mailako heziketa-zikloetan matrikulatutako ikasleak, adarraren eta sexuaren arabera. 2008/09

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| GUZTIRA | 15.098 | 6.544 | 43,3 | 8.554 | 56,7 |
| Irudi Pertsonala | 209 | 208 | 99,5 | 1 | 0,5 |
| Gizarte, Kultura eta Komunitateko zerbitzuak | 1.650 | 1.473 | 89,3 | 177 | 10,7 |
| Ehungintza, Jantzigintza eta Larrugintza | 75 | 65 | 86,7 | 10 | 13,3 |
| Osasuna | 1.092 | 881 | 80,7 | 211 | 19,3 |
| Administrazioa | 1.930 | 1.474 | 76,4 | 456 | 23,6 |
| Elikaduraren Industriak | 15 | 10 | 66,7 | 5 | 33,3 |
| Kimika | 435 | 270 | 62,1 | 165 | 37,9 |
| Ostalaritza eta Turismo Ikasketak | 585 | 339 | 57,9 | 246 | 42,1 |
| Arte Grafikoak | 273 | 158 | 57,9 | 115 | 42,1 |
| Merkataritza eta Marketina | 790 | 397 | 50,3 | 393 | 49,7 |
| Komunikazioa, Irudia eta Soinua | 349 | 140 | 40,1 | 209 | 59,9 |
| Eraikuntza eta Obra Zibilak | 706 | 229 | 32,4 | 477 | 67,6 |
| Nekazaritza Jarduerak | 145 | 38 | 26,2 | 107 | 73,8 |
| Jarduera Fisikoak eta Kirol Jarduerak | 474 | 109 | 23,0 | 365 | 77,0 |
| Informatika | 1.151 | 254 | 22,1 | 897 | 77,9 |
| Zurgintza eta Altzarigintza | 45 | 7 | 15,6 | 38 | 84,4 |
| Fabrikazio Mekanikoa | 1.733 | 248 | 14,3 | 1.485 | 85,7 |
| Produkzioko Mantentze eta Zerbitzu Lanak | 1.008 | 87 | 8,6 | 921 | 91,4 |
| Elektrizitatea eta Elektronika | 1.852 | 138 | 7,5 | 1.714 | 92,5 |
| Ibilgailu Autopropultsatuen Mantentzea | 443 | 15 | 3,4 | 428 | 96,6 |
| Itsas eta Arrantza Jarduerak | 138 | 4 | 2,9 | 134 | 97,1 |

*Iturria*: Eustat. Ikasleak, irakasleak eta ikastetxeak.

Unibertsitate aurreko zein unibertsitateko ikasketetan agerian jartzen da ikasleen generoaren araberako espezializazioa. Hasiera batean, Batxilergoko hautuak baldintzatzen du unibertsitate-ikasketetakoa: Arteak, Osasun Zientziak, Gizarte Zientziak, Zientzia-teknika eta Giza Zientziak. Unibertsitaterako sarbide-proban matrikulatzen diren ikasleen artean oraindik parekotasun-printzipioari eusten bazaio ere, gizonezkoen ehunekoa nahiko baxua da (% 43,9), egia esan. Ikasketa-arloaren hautaketa genero-ikuspuntuaren mende dago oraindik eta, horren ondorioz, ez dago nahi den parekotasun-printzipioa (40/60) betetzen duen diziplina bat ere. Arteetan, Osasun Zientzietan, Gizarte Zientzietan eta Giza Zientzietan matrikulatzen diren gizonezkoak % 30 inguru dira, eta Zientzia-teknika adarrean matrikulatutako emakumezkoak, berriz, ez dira % 32ra heltzen.

Hezkuntzan egiazta dezakegun beste fenomeno bat emakumezkoen eskola-errendimendu hobea da, oraingo honetan, unibertsitatera sartzeko probari erreparatuta: proba gainditzen dutenen ehunekoa oro har altua bada ere, emakumeen artean are altuagoa da: Giza

Zientzien adarrean, aldea ia 5 puntukoa da, eta Arteetan, bai eta Zientzia-teknika adarrean ere, 3 puntukoa.

**3.11. TAULA.** Unibertsitateko sarbide-probako matrikulazioa eta emaitza EAEn, jatorrizko aukeraren eta sexuaren arabera. 2009

| | MATRIKULATUTAKOAK | | | GAINDITU DUTENAK | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | % E | % G | GUZTIRA | % E | % G |
| GUZTIRA | 9.551 | 56,1 | 43,9 | 8.998 | 95,1 | 93,1 |
| Arteak | 178 | 72,5 | 27,5 | 171 | 96,9 | 93,9 |
| Osasun Zientziak | 2.584 | 70,0 | 30,0 | 2.450 | 95,5 | 93,3 |
| Gizarte Zientziak | 2.905 | 66,0 | 34,0 | 2.723 | 94,1 | 93,1 |
| Zientzia-teknika | 3.166 | 31,4 | 68,6 | 2.984 | 96,6 | 93,2 |
| Giza Zientziak | 691 | 71,2 | 28,8 | 643 | 94,3 | 89,9 |
| Aukerak konbinatuta | 27 | 48,1 | 51,9 | 27 | 100,0 | 100,0 |

*Iturria*: Eustat. Irakaskuntza.

Azken 5 urteetan, selektibitateko probarako matrikulatutako emakumeen ehunekoak ia 2 puntu egin du behera.  Adarrak aintzat hartuta ere, beherakada antzekoa da, 3 puntu ingurukoa, konbinatuetan izan ezik. Horrek esan nahi du bereziki emakumeek egiten dituzten hautuetan, hala nola Arteetan, Osasun Zientzietan, Gizarte Zientzietan eta Giza Zientzietan, generoen arteko aldea murriztu egin dela. Aitzitik, bereziki gizonek egiten dituzten hautuetan, hala nola Zientzia-teknika adarrean, generoen arteko aldea areagotu egin da: izan ere, 2004an matrikulatutakoen % 34,5 emakumezkoa zen, eta 2009an, berriz, % 31,4ra murriztu da.

**3.12. TAULA. Selektibitatean matrikulatutako emakumeen ehunekoa, adarraren eta urtearen arabera. 2004-2009.**

| | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 | 2009-2004 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| GUZTIRA | 57,8 | 57,9 | 58,9 | 58,4 | 57,6 | 56,1 | -1,8 |
| Arteak | 76,4 | 77,6 | 79,0 | 70,8 | 76,9 | 72,5 | -3,9 |
| Osasun Zientziak | 73,7 | 72,4 | 73,2 | 72,1 | 72,7 | 70,0 | -3,7 |
| Gizarte Zientziak | 69,7 | 68,7 | 69,5 | 67,0 | 66,8 | 66,0 | -3,7 |
| Zientzia-teknika | 34,5 | 33,5 | 35,3 | 35,4 | 32,7 | 31,4 | -3,1 |
| Giza Zientziak | 79,3 | 79,7 | 76,8 | 78,5 | 73,0 | 71,2 | -8,1 |
| Aukerak konbinatuta | 72,2 | 70,0 | 50,0 | 63,9 | 54,2 | 48,1 | -24,1 |

*Iturria*: Eustat: Irakaskuntza

2009an selektibitatea egin zuten emakumezkoen batez besteko nota 7,2 izan zen, eta gizonezkoena, aldiz, 6,9. Azpimarratzekoa da batez besteko notari dagokion genero-alderik handiena Zientzia-teknika adarrean ageri dela, nesken batez bestekoa 7,5 baita, eta mutilena, berriz, 7.

## 3.13. TAULA. Selektibitate-proba: matrikulatutako ikasleak, gainditutakoen ehunekoa eta batez besteko nota, aukeren eta sexuaren arabera. 2009

| | EMAKUMEAK | | GIZONAK | | NOTAREN ALDEA |
|---|---|---|---|---|---|
| | MATRIKULATUAK | BATEZ BESTEKO NOTA | MATRIKULATUAK | BATEZ BESTEKO NOTA | (E-G) |
| GUZTIRA | 5.355 | 7,2 | 4.196 | 6,9 | 0,3 |
| Arteak | 129 | 6,5 | 49 | 6,3 | 0,2 |
| Osasun Zientziak | 1.809 | 7,4 | 775 | 7,1 | 0,3 |
| Gizarte Zientziak | 1.918 | 6,9 | 987 | 6,5 | 0,4 |
| Zientzia-teknika | 994 | 7,5 | 2.172 | 7,0 | 0,5 |
| Giza Zientziak | 492 | 6,8 | 199 | 6,6 | 0,2 |
| Aukerak konbinatuta | 13 | 8,1 | 14 | 8,2 | -0,1 |

*Iturria*: Eustat. Irakaskuntza

Selektibitatean 2002tik 2009ra bitartean lortutako batez besteko notan izandako generoen arteko aldearen bilakaera, aukeren arabera, desberdina izan da. Lehenik eta behin, batez besteko notan izandako aldeak oso handiak ez direla egiaztatu da. Bigarrenik, baiezta daiteke emakumeek batez besteko nota hobea lortu dutela maila eta adar guztietan, lau kasutan izan ezik: 2004ko eta 2009ko konbinatuen adarrean, eta 2005eko eta 2006ko Arteak adarrean. Azkenik, Zientzia-teknika adarreko batez besteko notaren aldea puntu erdikoa izan zen 2008an.

## 3.2. GRAFIKOA. Selektibitatean lortutako batez besteko notan generoen artean izandako aldearen bilakaera. 2002-2004




*Iturria*: Eustat. Irakaskuntza. *Oharra*: Honela kalkulatu da generoen arteko aldea: gainditu duten nesken batez besteko nota ken gainditu duten mutilen batez besteko nota.

**3.14. TAULA.** Selektibitatean lortutako batez besteko notan generoen artean izandako aldearen bilakaera. 2002-2004

| | ARTEAK | OSASUN ZIENTZIAK | GIZARTE ZIENTZIAK | ZIENTZIA-TEKNIKA | GIZA ZIENTZIAK | AUKERAK KONBINATUTA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 2002 | 0,1 | 0,2 | 0,3 | 0,3 | 0,0 | 0,5 |
| 2003 | 0,1 | 0,3 | 0,2 | 0,4 | 0,1 | 0,7 |
| 2004 | 0,0 | 0,3 | 0,3 | 0,3 | 0,0 | -0,5 |
| 2005 | -0,2 | 0,3 | 0,2 | 0,3 | 0,1 | 0,0 |
| 2006 | -0,2 | 0,3 | 0,1 | 0,4 | 0,2 | 0,1 |
| 2007 | 0,1 | 0,4 | 0,2 | 0,4 | 0,2 | 0,0 |
| 2008 | 0,2 | 0,3 | 0,2 | 0,5 | 0,2 | 0,3 |
| 2009 | 0,1 | 0,1 | 0,3 | 0,4 | 0,2 | 0,0 |

*Iturria*: Eustat. Irakaskuntza. *Oharra*: Honela kalkulatu da generoen arteko aldea: gainditu duten nesken batez besteko nota ken gainditu duten mutilen batez besteko nota.

Ikasketa-espezializazioa areagotu egiten da, adarrak unibertsitatean ikasketa motetan banatzen direnean. 2009an, emakumeek eta gizonek gehien hautatutako unibertsitate-titulazioak ez dira berak izan, bat-etortzeak badiren arren. Oro har ikasleek gehien hautatzen dituzten bost titulazioen artean, hiru bat-etortze daude: Irakasle-ikasketak (emakumeen lehen aukera eta gizonen bigarrena), Administrazioa eta Enpresa Zuzendaritza (hirugarren aukera emakume zein gizonentzat) eta Enpresa Zientzia diploma (bosgarrena batzuentzat zein besteentzat). Hala ere, emakumeek gehien hautatzen dituzten titulazioak Osasun Zientzien adarrekoak dira, Erizaintza eta Medikuntza, esate baterako; gizonezkoen lehentasunak, berriz, Zientzia- teknika adarrekoak dira, hala nola Industria Ingeniaritza Teknikoa eta Industria Ingeniaritza.

**3.15. TAULA.** EAEn gehien aukeratzen diren unibertsitateko 10 titulazioak, sexuaren arabera. 2009

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | % |
|---|---|---|---|
| Irakasle-ikasketak | 1.378 | 985 | 71,5 |
| Erizaintza | 559 | 458 | 81,9 |
| Administrazioa eta Enpresa Zuzendaritza | 767 | 436 | 56,8 |
| Medikuntza | 577 | 404 | 70,0 |
| Enpresa Zientzia diploma | 438 | 228 | 52,1 |
| Zuzenbidea | 353 | 227 | 64,3 |
| Psikologia | 261 | 206 | 78,9 |
| Arkitektura | 265 | 148 | 55,8 |
| Gizarte Hezkuntza diploma | 155 | 131 | 84,5 |
| Publizitatea eta Jendaurreko Harremanak | 178 | 124 | 69,7 |
| | **GUZTIRA** | **GIZONAK** | **%** |
| Industria Ingeniaritza Teknikoa | 688 | 585 | 85,0 |
| Irakasle-ikasketak | 1.378 | 393 | 28,5 |
| Administrazioa eta Enpresa Zuzendaritza | 767 | 331 | 43,2 |
| Industria Ingeniaritza | 451 | 329 | 72,9 |
| Enpresa Zientzia diploma | 438 | 210 | 47,9 |
| Medikuntza | 577 | 173 | 30,0 |
| Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziak | 200 | 153 | 76,5 |
| Zuzenbidea | 353 | 126 | 35,7 |
| Herri-lanetako Ingeniaritza Teknikoa | 178 | 119 | 66,9 |
| Arkitektura | 265 | 117 | 44,2 |

*Iturria*: Eustat. Ikasleak, irakasleak eta ikastetxeak.

Unibertsitateko ikasketetan, sexuaren araberako banaketa nabarmenagoa da. 2008/2009 ikasturtean, 59.499 ikasle matrikulatu ziren unibertsitatean; haietako % 54,7, emakumeak. Unibertsitatean eskainitako ikasketen artean, lizentzietan 26.410 ikasle zeuden matrikulatuta; haietako % 63,2, emakumeak; beraz, ikasketa mota horietan oraindik ere gehiago dira emakumeak, gizonak baino. Hala, lehen zein bigarren zikloko 30 titulazioetan, emakumeen eta gizonen ehunekoak 9tan soilik ziren parekotasunezkoak (Zuzenbidea, Matematika, Soziologia, Administrazioa eta Enpresa Zuzendaritza, Geologia, Ekonomia, Filosofia, Historia, eta Politika Zientziak eta Soziologia). Horrela, bi zikloko 9 lizentziatan soilik dago gizon gehiago, emakume baino (Ekonomia, Filosofia, Historia, Politika Zientziak eta Soziologia, Fisika, Politika eta Administrazio Zientziak, Geografia, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziak, eta Eliza Ikasketak).

## 3.16. TAULA. Unibertsitateko lizentziatan matrikulatutako ikasleak, karreraren eta sexuaren arabera. 2008/2009 ikasturtea

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| GUZTIRA | 59.499 | 32.559 | 54,7 | 26.940 | 45,3 |
| Lizentziak | 26.410 | 16.689 | 63,2 | 9.721 | 36,8 |
| **1. eta 2. zikloa** | **24.870** | **15.507** | **62,4** | **9.363** | **37,6** |
| Pedagogia | 403 | 347 | 86,1 | 56 | 13,9 |
| Itzulpengintza eta Interpretazioa | 301 | 257 | 85,4 | 44 | 14,6 |
| Artearen Historia | 222 | 179 | 80,6 | 43 | 19,4 |
| Farmazia | 776 | 611 | 78,7 | 165 | 21,3 |
| Psikologia | 2.640 | 2.058 | 78,0 | 582 | 22,0 |
| Medikuntza | 1.412 | 1.082 | 76,6 | 330 | 23,4 |
| Odontologia | 284 | 214 | 75,4 | 70 | 24,6 |
| Publizitatea eta Jendaurreko Harremanak | 571 | 425 | 74,4 | 146 | 25,6 |
| Filologia | 1.146 | 808 | 70,5 | 338 | 29,5 |
| Arte Ederrak | 1.345 | 924 | 68,7 | 421 | 31,3 |
| Biologia | 701 | 469 | 66,9 | 232 | 33,1 |
| Giza Zientziak | 352 | 231 | 65,6 | 121 | 34,4 |
| Kimika | 668 | 415 | 62,1 | 253 | 37,9 |
| Ingurumen Zientziak | 488 | 297 | 60,9 | 191 | 39,1 |
| Kazetaritza | 1.093 | 660 | 60,4 | 433 | 39,6 |
| Ikus-entzunezko Komunikazioa | 482 | 289 | 60,0 | 193 | 40,0 |
| Zuzenbidea | 2.657 | 1.575 | 59,3 | 1.082 | 40,7 |
| Matematika | 236 | 138 | 58,5 | 98 | 41,5 |
| Soziologia | 247 | 143 | 57,9 | 104 | 42,1 |
| Administrazioa eta Enpresa Zuzendaritza | 5.167 | 2.915 | 56,4 | 2.252 | 43,6 |
| Geologia | 190 | 96 | 50,5 | 94 | 49,5 |
| Ekonomia | 799 | 374 | 46,8 | 425 | 53,2 |
| Filosofia | 322 | 134 | 41,6 | 188 | 58,4 |
| Historia | 935 | 386 | 41,3 | 549 | 58,7 |
| Politika Zientziak eta Soziologia | 222 | 90 | 40,5 | 132 | 59,5 |
| Fisika | 297 | 114 | 38,4 | 183 | 61,6 |
| Politika eta Administrazio Zientziak | 234 | 89 | 38,0 | 145 | 62,0 |
| Geografia | 96 | 32 | 33,3 | 64 | 66,7 |
| Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziak | 541 | 145 | 26,8 | 396 | 73,2 |
| Eliza Ikasketak | 43 | 10 | 23,3 | 33 | 76,7 |

## 3.16. TAULA. Unibertsitateko lizentziatan matrikulatutako ikasleak, karreraren eta sexuaren arabera. 2008/2009 ikasturtea (jarraipena)

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| **2. zikloa** | **1.540** | **1.182** | **76,8** | **358** | **23,2** |
| Elikagaien Zientzia eta Teknologia | 104 | 90 | 86,5 | 14 | 13,5 |
| Psikopedagogia | 704 | 598 | 84,9 | 106 | 15,1 |
| Biokimika | 80 | 61 | 76,3 | 19 | 23,8 |
| Gizarte eta Kultura Antropologia | 449 | 327 | 72,8 | 122 | 27,2 |
| Aktuariotza eta Finantza Zientziak | 71 | 41 | 57,7 | 30 | 42,3 |
| Merkatuko Ikerketa eta Teknikak | 105 | 59 | 56,2 | 46 | 43,8 |
| Teologia | 27 | 6 | 22,2 | 21 | 77,8 |

*Iturria*: Eustat. Ikasleak, irakasleak eta ikastetxeak.

Lizentziatan ez bezala, Arkitekturan eta Ingeniaritzetan emakumezko ikasleen ehunekoa ez da % 35era iristen, eta haien ehunekoa gizonena baino txikiagoa da titulazio guztietan, Kimika Ingeniaritzan eta Arkitekturan izan ezik.

## 3.17. TAULA. Unibertsitatean Arkitekturan eta Ingeniaritzetan matrikulatutako ikasleak, karreraren eta sexuaren arabera. 2008/2009 ikasturtea

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| GUZTIRA | 59.499 | 32.559 | 54,7 | 26.940 | 45,3 |
| Arkitektura eta Ingeniaritzak | 8.058 | 2.751 | 34,1 | 5.307 | 65,9 |
| **1. eta 2. zikloa** | **6.505** | **2.302** | **35,4** | **4.203** | **64,6** |
| Kimika Ingeniaritza | 488 | 287 | 58,8 | 201 | 41,2 |
| Arkitektura | 1.397 | 785 | 56,2 | 612 | 43,8 |
| Telekomunikazio Ingeniaritza | 728 | 258 | 35,4 | 470 | 64,6 |
| Industria Ingeniaritza | 2.882 | 734 | 25,5 | 2.148 | 74,5 |
| Informatikako Ingeniaritza | 1.006 | 238 | 23,7 | 768 | 76,3 |
| Itsasketa Zibila | 4 | - | 0,0 | 4 | 100,0 |
| **2. zikloa** | **1.553** | **449** | **28,9** | **1.104** | **71,1** |
| Materialen Ingeniaritza | 47 | 18 | 38,3 | 29 | 61,7 |
| Industria-antolakuntzako Ingeniaritza | 1.030 | 343 | 33,3 | 687 | 66,7 |
| Elektronika Ingeniaritza | 62 | 14 | 22,6 | 48 | 77,4 |
| Automatikako eta Industria Elektronikako Ingeniaritza | 316 | 61 | 19,3 | 255 | 80,7 |
| Nautika eta Itsas Garraioa | 49 | 9 | 18,4 | 40 | 81,6 |
| Itsasontzietako Makinak | 49 | 4 | 8,2 | 45 | 91,8 |

*Iturria*: Eustat. Ikasleak, irakasleak eta ikastetxeak.

Unibertsitateko ikasketen artean, diplomak dira bereziki emakumeek gehien hautatzen dituztenak. 2008/09 ikasturtean, emakumeen % 71,3k ikasi zuen diploma bat. Diploma bakar batean dago gizon gehiago, emakume baino: Erlijio Zientzietan. Eta beste bi diplomatan, parekotasun-printzipioa betetzen da: Lan Harremanak eta Enpresa Zientzia.

**3.18. TAULA.** Unibertsitatean diplomatan matrikulatutako ikasleak, karreraren eta sexuaren arabera. 2008/2009 ikasturtea

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| GUZTIRA | 59.499 | 32.559 | 54,7 | 26.940 | 45,3 |
| **Diplomak** | **14.588** | **10.400** | **71,3** | **4.188** | **28,7** |
| Erizaintza | 1.206 | 1.064 | 88,2 | 142 | 11,8 |
| Giza Elikadura eta Dietetika | 278 | 243 | 87,4 | 35 | 12,6 |
| Gizarte Lana | 933 | 773 | 82,9 | 160 | 17,1 |
| Gizarte Hezkuntza | 1.532 | 1.238 | 80,8 | 294 | 19,2 |
| Turismo-ikasketak | 694 | 534 | 76,9 | 160 | 23,1 |
| Irakasle-ikasketak | 5.777 | 4.279 | 74,1 | 1.498 | 25,9 |
| Lan Harremanak | 428 | 255 | 59,6 | 173 | 40,4 |
| Enpresa Zientzia diploma | 3.685 | 1.987 | 53,9 | 1.698 | 46,1 |
| Erlijio Zientziak | 55 | 27 | 49,1 | 28 | 50,9 |

*Iturria*: Eustat. Ikasleak, irakasleak eta ikastetxeak.

Ingeniaritza Teknikoa da bereziki gizonek gehien hautatzen duten unibertsitateko ikasketa-mota, eta bertan da handiena generoen arteko aldea. 2008/09 ikasturtean, matrikulatutako ikasleen % 74,3 gizonak ziren, eta ikasketa-mota bakarrean zegoen emakume gehiago, gizon baino: Industria Diseinuko Ingeniaritza Teknikoan; azken horretan, 191 ikasle soilik matrikulatu ziren. Horrez gain, matrikulazioko parekotasun-printzipioa Arkitektura Teknikoko ikasketetan soilik betetzen da.

**3.19. TAULA.** Unibertsitatean Arkitekturan eta Ingeniaritza Teknikoan matrikulatutako ikasleak, karreraren eta sexuaren arabera. 2008/2009 ikasturtea

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| GUZTIRA | 59.499 | 32.559 | 54,7 | 26.940 | 45,3 |
| **Arkitektura eta Ingeniaritza Teknikoak** | **10.062** | **2.587** | **25,7** | **7.475** | **74,3** |
| Industria Diseinuko Ingeniaritza Teknikoa | 191 | 114 | 59,7 | 77 | 40,3 |
| Arkitektura Teknikoa | 345 | 162 | 47,0 | 183 | 53,0 |
| Herri-lanetako Ingeniaritza Teknikoa | 621 | 245 | 39,5 | 376 | 60,5 |
| Topografiako Ingeniaritza Teknikoa | 302 | 115 | 38,1 | 187 | 61,9 |
| Meatzetako Ingeniaritza Teknikoa | 439 | 130 | 29,6 | 309 | 70,4 |
| Gestioaren Informatikan Ingeniaritza Teknikoa | 1.144 | 313 | 27,4 | 831 | 72,6 |
| Telekomunikazioko Ingeniaritza Teknikoa | 511 | 135 | 26,4 | 376 | 73,6 |
| Industria Ingeniaritza Teknikoa | 5.629 | 1.219 | 21,7 | 4.410 | 78,3 |
| Itsasketa Zibila | 261 | 51 | 19,5 | 210 | 80,5 |
| Sistemen Informatikako Ingeniaritza Teknikoa | 619 | 103 | 16,6 | 516 | 83,4 |

*Iturria*: Eustat. Ikasleak, irakasleak eta ikastetxeak

Unibertsitateko ikasketetan, Lanbide Heziketan bezala, generoaren araberako rolak dira nagusi, oraindik ere. 2008/09 ikasturtean, emakumeen ehunekoa % 75 baino handiagoa zen 15 karreratan; hau da, 4 ikasletik 3 emakumeak ziren. Ezaugarri hori betetzen duten

ikasketen artean, hauek dira matrikulatutako ikasle gehien dutenak: Psikologia (2.640 ikasle, eta % 78, emakumeak), Gizarte Hezkuntza (1.532 ikasle, eta % 80,8, emakumeak), Medikuntza (1.412 ikasle, eta % 76,6, emakumeak) eta Erizaintza (1.206 ikasle, eta % 88,2, emakumeak). Halaber, gizonezkoen ehunekoa % 75 baino handiagoa da 11 karreratan; Ingeniaritzarekin eta Eliza Ikasketekin lotutako ikasketak dira. Karrera horien artean, aintzat hartuta zenbat ikasle matrikulatu diren, Industria Ingeniaritza Teknikoa nabarmentzen da: 2008/09 ikasturtean, 5.629 ikasle matrikulatu ziren, eta haietako 1.219 soilik ziren emakumeak. Informatikako Ingeniaritzan ere antzekoa gertatzen da: matrikulatutako 1.006 ikasletik, 238 soilik ziren emakumeak.

### 3.20.A. TAULA. % 75 baino gehiago emakumezko ikasleak dituzten karrerak EAEn. 2008/2009 ikasturtea

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| Erizaintza | 1.206 | 1.064 | 88,2 | 142 | 11,8 |
| Giza Elikadura eta Dietetika | 278 | 243 | 87,4 | 35 | 12,6 |
| Elikagaien Zientzia eta Teknologia | 104 | 90 | 86,5 | 14 | 13,5 |
| Pedagogia | 403 | 347 | 86,1 | 56 | 13,9 |
| Itzulpengintza eta Interpretazioa | 301 | 257 | 85,4 | 44 | 14,6 |
| Psikopedagogia | 704 | 598 | 84,9 | 106 | 15,1 |
| Gizarte Lana | 933 | 773 | 82,9 | 160 | 17,1 |
| Gizarte Hezkuntza | 1.532 | 1.238 | 80,8 | 294 | 19,2 |
| Artearen Historia | 222 | 179 | 80,6 | 43 | 19,4 |
| Farmazia | 776 | 611 | 78,7 | 165 | 21,3 |
| Psikologia | 2.640 | 2.058 | 78,0 | 582 | 22,0 |
| Turismo-ikasketak | 694 | 534 | 76,9 | 160 | 23,1 |
| Medikuntza | 1.412 | 1.082 | 76,6 | 330 | 23,4 |
| Biokimika | 80 | 61 | 76,3 | 19 | 23,8 |
| Odontologia | 284 | 214 | 75,4 | 70 | 24,6 |

### 3.20.B. TAULA. % 75 baino gehiago gizonezko ikasleak dituzten karrerak EAEn. 2008/2009 ikasturtea

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| Itsasketa Zibila | 4 | - | - | 4 | 100,0 |
| Itsasontzietako Makinak | 49 | 4 | 8,2 | 45 | 91,8 |
| Sistemen Informatikako Ingeniaritza Teknikoa | 619 | 103 | 16,6 | 516 | 83,4 |
| Nautika eta Itsas Garraioa | 49 | 9 | 18,4 | 40 | 81,6 |
| Automatikako eta Industria Elektronikako Ingeniaritza | 316 | 61 | 19,3 | 255 | 80,7 |
| Itsasketa Zibila | 261 | 51 | 19,5 | 210 | 80,5 |
| Industria Ingeniaritza Teknikoa | 5.629 | 1.219 | 21,7 | 4.410 | 78,3 |
| Teologia | 27 | 6 | 22,2 | 21 | 77,8 |
| Elektronika Ingeniaritza | 62 | 14 | 22,6 | 48 | 77,4 |
| Eliza Ikasketak | 43 | 10 | 23,3 | 33 | 76,7 |
| Informatikako Ingeniaritza | 1.006 | 238 | 23,7 | 768 | 76,3 |

*Iturria*: Eustat. Ikasleak, irakasleak eta ikastetxeak.

Azken 10 urteetan, sexuaren araberako osaera egonkorra izan da karrera gehienetan. Karrera hauetan soilik aldatu dira ehunekoak 10 puntu baino gehiago: Mineralurgia eta Metalurgia Ingeniaritza, Industria Automatismoa eta Elektronika, eta Materialen Ingeniaritza; guztietan, emakumeen ehunekoak gora egin du. Beste batzuetan, berriz, emakumeen ehunekoak behera egin du: Politika Zientziak eta Soziologia lizentzian, Politika eta Administrazio Zientzietan, Filologia Klasikoan eta Ingeniaritza Elektronikoan. Karrera horietan, generoen arteko aldea murriztu egin da bilakaera horretan zehar, bitan izan ezik: Ingeniaritza Elektronikoan, 2000/01 ikasturtean ikasleen % 39,2 zen emakumezkoa, eta 2008/09 ikasturtean, berriz, % 22,6; Politika Zientzia eta Soziologia lizentzian, % 54,7 zen emakumezkoa lehen ikasturte horretan, eta % 40,5, bigarrenean.

Bilakaera hori ez da bat etorri berdintasun-printzipioarekin, lizentzia guztietako ikasgeletan emakume eta gizon kopurua orekatua izateari dagokionez. 3.21 taulan itzal argiz nabarmendutako lizentziatan, ikasgeletako feminizazioa areagotu da, eta itzal ilunez nabarmendutakoetan, berriz, maskulinizazioa. Aztertutako 75 karreretatik, 41ek soilik izan dute parekotasun handiago bateranzko bilakaera; gainerakoetan, aldiz, emakumeen nagusitasuna batzuetan eta gizonena beste batzuetan sendotu dira.

## 3.21. TAULA. Emakumeen ehunekoa ikasgeletan, karreren arabera. 1998/99tik 2008/09ra arteko ikasturteak

| | 98/99 | 00/01 | 02/03 | 04/05 | 06/07 | 08/09 | 08/09-98/99 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Mineralurgia eta Metalurgia Ing. Tek. | 14,3 | 11,9 | 16,7 | 20,2 | 28,6 | 30,8 | 16,5 |
| Industria Autom. eta Elek. Ing. | 5,3 | 17,1 | 17,9 | 19,7 | 17,1 | 19,3 | 14,0 |
| Materialen Ing. | 26,7 | 31,3 | 27,4 | 31,5 | 34,9 | 38,3 | 11,6 |
| Biokimika liz. | 66,4 | 63,9 | 61,2 | 61,3 | 66,7 | 76,3 | 9,8 |
| Elikagaien Zient. eta Tek. liz. | 76,9 | 79,7 | 77,0 | 80,9 | 82,6 | 86,5 | 9,6 |
| Meatzeen Ustiapeneko Ing. Tek. | 23,4 | 24,5 | 18,9 | 22,1 | 29,8 | 31,2 | 7,8 |
| Lehen Hezkuntzako Irakasle-ikasketak | 67,2 | 80,9 | 72,2 | 72,7 | 74,3 | 74,6 | 7,5 |
| Giza Zientzietako liz. | 59,0 | 62,8 | 67,0 | 64,3 | 62,6 | 65,6 | 6,6 |
| Atzerriko Hizkuntzako Irakasle-ikasketak | 69,5 | 83,2 | 77,3 | 77,5 | 79,0 | 76,1 | 6,6 |
| Industriako Kimika Ing. Tek. | 54,9 | 57,5 | 59,4 | 59,5 | 62,7 | 61,3 | 6,5 |
| Energia Bal., Erreg. eta Leherg. Ing. Tek. | 22,1 | 28,6 | 27,2 | 29,6 | 29,6 | 28,5 | 6,3 |
| Geografia liz. | 27,4 | 47,7 | 31,4 | 29,8 | 28,3 | 33,3 | 6,0 |
| Gizarte eta Kultura Antropologia liz. | 67,2 | 69,4 | 67,1 | 75,8 | 67,7 | 72,8 | 5,6 |
| Psikopedagogia liz. | 79,9 | 83,3 | 84,6 | 81,8 | 83,1 | 84,9 | 5,0 |
| Industria Antolakuntzako Ing. | 28,4 | 24,3 | 25,3 | 30,5 | 32,1 | 33,3 | 4,9 |
| Elektrizitate Ing. Tek. | 8,6 | 10,5 | 12,8 | 13,9 | 15,0 | 13,3 | 4,7 |
| Arkitektura | 51,5 | 51,8 | 53,5 | 53,8 | 53,9 | 56,2 | 4,7 |
| Haur Hezkuntzako Irakasle-ikasketak | 86,2 | 77,1 | 89,3 | 91,4 | 90,1 | 89,6 | 3,4 |
| Alemaniar Filolog. liz. | | 71,9 | 75,2 | 74,5 | 75,6 | 75,0 | 3,1 |
| Industria Ing. | 22,7 | 23,6 | 25,5 | 26,3 | 25,4 | 25,5 | 2,8 |
| Mekanikako Ing. Tek. | 14,9 | 15,5 | 16,9 | 17,4 | 18,2 | 17,6 | 2,7 |
| Medikuntza liz. | 74,0 | 77,1 | 78,6 | 77,6 | 77,5 | 76,6 | 2,6 |
| Fisika liz. | 35,8 | 46,8 | 31,9 | 37,9 | 39,4 | 38,4 | 2,5 |
| Artearen Historia liz. | 78,2 | 77,4 | 74,8 | 75,5 | 80,3 | 80,6 | 2,4 |
| Sistemen Informatikako Ing. Tek. | 14,3 | 15,6 | 18,0 | 19,2 | 17,0 | 16,6 | 2,3 |
| Euskal Filologia liz. | 64,6 | 67,3 | 63,9 | 65,1 | 64,9 | 66,9 | 2,3 |
| Filosofia liz. | 39,3 | 38,0 | 47,2 | 46,3 | 40,5 | 41,6 | 2,3 |
| Topografiako Ing. Tek. | 36,1 | 38,3 | 39,3 | 39,2 | 38,1 | 38,1 | 2,0 |
| Giza Elikadura eta Dietetika diplo. | 85,4 | 89,6 | 91,0 | 89,2 | 87,1 | 87,4 | 2,0 |
| Pedagogia liz. | 84,2 | 85,3 | 83,2 | 85,7 | 83,9 | 86,1 | 1,9 |
| Hezkuntza Bereziko Irakasle-ikasketak | 89,4 | 82,3 | 90,2 | 90,0 | 89,3 | 90,5 | 1,1 |
| Telekomunikazioko Ing. | 34,4 | 33,7 | 36,3 | 34,2 | 34,0 | 35,4 | 1,1 |
| Zuzenbidea liz. | 58,4 | 59,0 | 59,5 | 58,8 | 58,3 | 59,3 | 0,9 |
| **GUZTIRA** | **54,1** | **54,7** | **54,8** | **54,5** | **54,4** | **54,9** | **0,7** |

**3.21. TAULA.** Emakumeen ehunekoa ikasgeletan, karreren arabera. 1998/99tik 2008/09ra arteko ikasturteak (jarraipena)

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Publizitatea eta Jendaurreko harremanak liz. | 73,8 | 77,3 | 79,1 | 77,8 | 75,1 | 74,4 | 0,6 |
| Kimika liz. | 61,5 | 63,5 | 66,1 | 66,8 | 65,6 | 62,1 | 0,6 |
| Kazetaritza liz. | 59,8 | 63,2 | 65,5 | 65,7 | 63,8 | 60,4 | 0,6 |
| Odontologia liz. | 74,8 | 80,1 | 79,2 | 80,2 | 80,3 | 75,4 | 0,5 |
| Enpresa Admin. eta Zuz. liz. | 56,5 | 57,8 | 58,9 | 58,7 | 57,3 | 56,4 | -0,1 |
| Eritzaintza diplo. | 88,4 | 87,6 | 88,5 | 87,3 | 87,5 | 88,2 | -0,1 |
| Arte Ederrak liz. | 68,9 | 70,1 | 69,8 | 71,0 | 69,5 | 68,7 | -0,2 |
| Psikologia liz. | 78,5 | 79,6 | 79,3 | 79,5 | 79,1 | 78,0 | -0,6 |
| Aktuariotza eta Finantza Zient. liz. | 58,3 | 48,8 | 58,3 | 58,5 | 60,0 | 57,7 | -0,6 |
| Biologia liz. | 67,5 | 67,3 | 68,8 | 69,1 | 70,7 | 66,9 | -0,6 |
| Geologia liz. | 51,3 | 55,2 | 58,3 | 54,5 | 52,8 | 50,5 | -0,8 |
| Enpresa Zient. diplo. | 54,9 | 53,8 | 54,1 | 53,1 | 53,6 | 53,9 | -0,9 |
| Farmazia liz. | 79,7 | 82,1 | 84,0 | 82,7 | 81,5 | 78,7 | -1,0 |
| Frantses Filolog. liz. | 82,5 | 79,8 | 80,5 | 71,1 | 79,2 | 81,0 | -1,5 |
| Arkitektura Teknikoa | | | 48,7 | 45,5 | 46,4 | 47,0 | -1,7 |
| Ekonomia liz. | 48,7 | 48,5 | 48,2 | 47,1 | 46,8 | 46,8 | -1,9 |
| Matematika liz. | 60,5 | 46,7 | 62,5 | 56,3 | 56,7 | 58,5 | -2,0 |
| IKus-entzunezko Komunikazioa liz. | 62,3 | 69,8 | 69,2 | 71,6 | 68,2 | 60,0 | -2,3 |
| Industria Ing. Tek. Elektro. | 19,4 | 20,6 | 20,7 | 19,3 | 17,7 | 16,9 | -2,5 |
| Ingeles Filolog. liz. | 76,7 | 78,7 | 79,6 | 78,5 | 77,7 | 74,2 | -2,5 |
| Erlijio Zient. diplo. | 51,6 | 56,7 | 60,3 | 53,2 | 65,9 | 49,1 | -2,5 |
| Kudeaketa Informatikako Ing. Tek. | 29,9 | 28,3 | 32,0 | 33,6 | 28,8 | 27,4 | -2,5 |
| Itsasketa Zibila liz. | 15,9 | 22,3 | 26,5 | 28,4 | 12,7 | 12,7 | -3,2 |
| Gizarte Hezkuntza diplo. | 84,1 | 82,8 | 84,4 | 82,3 | 82,5 | 80,8 | -3,3 |
| Soziologia liz. | 62,2 | 60,0 | 58,2 | 58,9 | 59,6 | 57,9 | -4,3 |
| Eliza Ikasketak | 27,7 | 32,3 | 35,5 | 29,1 | 24,3 | 23,3 | -4,5 |
| Historia liz. | 46,3 | 47,5 | 47,3 | 47,1 | 45,1 | 41,3 | -5,0 |
| Hispaniar Filolog. liz. | 69,2 | 67,4 | 68,1 | 69,2 | 65,8 | 63,8 | -5,4 |
| Informatika Ing. | 29,6 | 26,9 | 25,4 | 24,5 | 26,1 | 23,7 | -5,9 |
| Turismo diplo. | 83,1 | 81,5 | 82,0 | 79,0 | 77,2 | 76,9 | -6,2 |
| Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zient. liz. | 33,1 | 34,0 | 33,9 | 31,2 | 27,3 | 26,8 | -6,3 |
| Itsasketa Zibila diplo. | 26,1 | 26,9 | 19,4 | 14,4 | 14,7 | 19,5 | -6,5 |
| Industria Ing. Tek. | 20,5 | 22,0 | | | | 13,7 | -6,7 |
| Gizarte Lana diplo. | 89,6 | 88,7 | 88,7 | 83,1 | 83,5 | 82,9 | -6,8 |
| Lan Harremanak diplo. | 66,6 | 64,6 | 63,4 | 62,3 | 59,8 | 59,6 | -7,0 |
| Gorputz Hezkuntzako Irakasle-ikasketak | 35,4 | 53,0 | 33,2 | 35,4 | 33,6 | 28,0 | -7,4 |
| Musika Hezkuntzako Irakasle-ikasketak | 76,5 | 75,9 | 73,0 | 74,4 | 71,7 | 68,0 | -8,6 |
| Politika Zient. eta Soziologia liz. | 54,7 | 44,7 | 46,6 | 45,4 | 46,2 | 40,5 | -14,1 |
| Filolog. Klasikoa liz. | 75,5 | 71,7 | 71,7 | 64,9 | 64,5 | 59,3 | -16,3 |
| Elektronika Ing. | | 39,2 | 32,6 | 22,1 | 22,5 | 22,6 | -16,6 |
| Politika eta Adminstrazio Zient. liz. | 59,4 | 54,5 | 52,4 | 47,3 | 41,5 | 38,0 | -21,4 |

*Iturria*: Eustat. Irakaskuntza.

Unibertsitatetik kanpo, ikasle kopurua gehien areagotu duen arloetako bat Helduen Hezkuntza da (EPA). 1998/1999 ikasturtean, 10.854 pertsona matrikulatu ziren, eta haietako % 68,3 emakumeak ziren. Gaur egun, matrikula kopurua bikoitza baino gehiago da: 29.196; eta gehienak oraindik ere emakumeak badira ere, haien ehunekoa ia 8 puntu murriztu da, eta, beraz, aldea txikiagoa da.

**3.22. TAULA.** Helduen Hezkuntzan (EPA) matrikulatutako ikasleak, urtearen eta sexuaren arabera. 1998/99-2008/09

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| 1998/1999 | 10.854 | 7.416 | 68,3 | 3.438 | 31,7 |
| 1999/2000 | 11.322 | 3.890 | 34,4 | 7.432 | 65,6 |
| 2000/2001 | 13.508 | 8.483 | 62,8 | 5.025 | 37,2 |
| 2001/2002 | 16.543 | 10.287 | 62,2 | 6.256 | 37,8 |
| 2002/2003 | 18.372 | 11.529 | 62,8 | 6.843 | 37,2 |
| 2003/2004 | 21.833 | 13.159 | 60,3 | 8.674 | 39,7 |
| 2004/2005 | 24.239 | 14.402 | 59,4 | 9.837 | 40,6 |
| 2005/2006 | 25.737 | 15.401 | 59,8 | 10.336 | 40,2 |
| 2006/2007 | 26.862 | 16.298 | 60,7 | 10.564 | 39,3 |
| 2007/2008 | 28.684 | 17.009 | 59,3 | 11.675 | 40,7 |
| 2008/2009 | 29.196 | 17.688 | 60,6 | 11.508 | 39,4 |

*Iturria*: Eustat. Irakaskuntza.

Lurralde historikoen arabera, datu horiek ez dira asko aldatzen. Lurraldeetako biztanle kopurua lotuta dago EPAko ikasle kopuruarekin. Gipuzkoan, emakumeen eta gizonen ehunekoak parekatuagoak dira gainerako lurraldeetan baino; edonola ere, ez dago alde handirik.

**3.23. TAULA.** Helduen Hezkuntzako ikasleak, sexuaren eta lurralde historikoaren arabera. 2008/09

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| EAE | 29.196 | 17.688 | 60,6 | 11.508 | 39,4 |
| Araba | 4.888 | 2.741 | 56,1 | 2.147 | 43,9 |
| Gipuzkoa | 8.300 | 4.967 | 59,8 | 3.333 | 40,2 |
| Bizkaia | 16.008 | 9.980 | 62,3 | 6.028 | 37,7 |

*Iturria*: Eustat. Irakaskuntza.

Prestakuntzan nabarmentzen den beste arlo bat Araubide Bereziko Irakaskuntza da. 2008/09 ikasturtean, 24.265 pertsona matrikulatu ziren, eta haietako % 67,2 emakumea zen. Irakaskuntza-mota horretan, sei modalitate daude: Arte Plastikoak eta Diseinua, Hizkuntzak, Musika, Dantza, Kirolak eta Diseinuko Goi Mailako Ikasketak. Aukera horietan guztietan, kiroletan izan ezik, emakumezkoen presentzia gizonezkoena baino dezente handiagoa da; bereziki, Dantzan: izan ere, modalitate horretan 10 ikasletik 9 emakumeak dira. Ehuneko hori bera osatzen dute gizonek Kiroletan. Datuak ez dira asko aldatzen ikastetxeen titulartasuna aintzat hartuz gero, baina egia da ikastetxe pribatuetan, guztira, gizonezkoen kopurua % 45,8ra heltzen dela Araubide Bereziko Irakaskuntzan; gehienak Kiroletan (oso maskulinizatuta dago) eta Musikan aritzen dira (azken horretan pixka bat gutxiago).

**3.24. TAULA.** Araubide Bereziko Irakaskuntzan matrikulatutako ikasleak, modalitateen eta titulartasunaren arabera. 2008/09

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| **Araubide Bereziko Irakaskuntza** | **24.265** | **16.307** | **67,2** | **7.958** | **32,8** |
| Arte Plastikoak eta Diseinua | 537 | 394 | 73,4 | 143 | 26,6 |
| Hizkuntzak | 20.242 | 13.946 | 68,9 | 6.296 | 31,1 |
| Musika | 2.977 | 1.766 | 59,3 | 1.211 | 40,7 |
| Dantza | 83 | 75 | 90,4 | 8 | 9,6 |
| Kirolak | 274 | 6 | 2,2 | 268 | 97,8 |
| Diseinuko Goi Mailako Ikasketak | 152 | 120 | 78,9 | 32 | 21,1 |
| **Publikoa** | **45.086** | **30.746** | **68,2** | **14.340** | **31,8** |
| Araubide Bereziko Irakaskuntza | 22.543 | 15.373 | 68,2 | 7.170 | 31,8 |
| Arte Plastikoak eta Diseinua | 224 | 150 | 67,0 | 74 | 33,0 |
| Hizkuntzak | 20.242 | 13.946 | 68,9 | 6.296 | 31,1 |
| Musika | 1.781 | 1.080 | 60,6 | 701 | 39,4 |
| Dantza | 81 | 73 | 90,1 | 8 | 9,9 |
| Kirolak | 63 | 4 | 6,3 | 59 | 93,7 |
| Diseinuko Goi Mailako Ikasketak | 152 | 120 | 78,9 | 32 | 21,1 |
| **Pribatua** | **3.444** | **1868** | **54,2** | **1576** | **45,8** |
| Araubide Bereziko Irakaskuntza | 1.722 | 934 | 54,2 | 788 | 45,8 |
| Arte Plastikoak eta Diseinua | 313 | 244 | 78,0 | 69 | 22,0 |
| Hizkuntzak | 0 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 |
| Musika | 1.196 | 686 | 57,4 | 510 | 42,6 |
| Dantza | 2 | 2 | 100,0 | 0 | 0,0 |
| Kirolak | 211 | 2 | 0,9 | 209 | 99,1 |
| Diseinuko Goi Mailako Ikasketak | 0 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 |

*Iturria*: Eustat. Ikasleak, irakasleak eta ikastetxeak.

## OSASUNA 3.2

Osasuna alderdi garrantzitsua da pertsonen bizitzan, eta askotan, agerian jartzen dira emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak arlo horretan. Berdintasunerako V. Planean jasota dagoenez, *"emakumeek eta gizonek arrisku-faktore bereizgarriak dituzte, bai sexu-arrazoiengatik -biologikoak-, bai generoaren egitura sozialarengatik (…). Hori dela eta, emakumeak eta gizonak ez dira prozesu berberez gaixotzen, ezta maiztasun berarekin ere, ez dute sintomatologia bera adierazten eta tratamenduei ez diete berdin erantzuten"*.

Osasun-arloan genero-desberdintasunei buruzko azterketak egin dira, eta agerian utzi dute osasun-adierazleetan alde nabarmenak daudela gizonezkoen eta emakumezkoen artean, gaixotze-tasetan, heriotza-tasetan, osasun-zerbitzuen erabileran eta osasun-ohituretan. Ikerketa batzuek kritikatu egin dute, halaber, pertsonen osasunarekin lotutako adierazleak osatzean eta diseinatzean, kasu gehienetan, ez dela aintzat hartu genero-ikuspegia. Izan ere, gai horri buruz egin diren inkestetan, osasunarekin lotutako arazoen zati txiki bat bakarrik jartzen dela agerian ikusi da, eta, sarritan, ez direla behar bezala ageri emakumeei berariaz eragiten dieten osasun-arazoak. Inkestetan erantzun-aukera osatugabeak, sailkapen okerrak eta/edo galdera neutral eta zalantzazkoak daudela salatu dute.

Horrekin lotuta, Eusko Jaurlaritzak 2009. urtearen hasieran onartutako *Osasuna eta Emakumea Programak* ere antzeko ondorioak atera ditu. Horretarako, *"emakumeen osasun-baldintzei eta gaixotasunei eta gizonekin alderatuta dituzten desberdintasunei"* buruzko hainbat ikerketatan oinarritu dira, bai eta *"alde horiek berdintasun-eza eta desabantaila nola eragiten duten"* aztertzen duten ikerketatan ere. Gainera, programa horrek aitortzen du osasunaren arloan berdintasuna eta zuzentasuna lortzeko genero-ikuspegia hartzea sustatu behar dela, eta hori lehentasunezko helburua dela Euskal Herri-Administrazioarentzat.

Berdintasunerako V. Planean, osasunaren garrantzia azpimarratzen da, emakumeen ahalduntzerako. Izan ere, alderdi hori zuzenean lotzen da emakumeek duten norberaren autonomiarako beharrarekin eta balio-aldaketaren beharrarekin, eta aldi berean, emakumeek beren burua zaintzea eta ohitura osasungarriak izatea edo hartzea sustatzen da.

Atal honetan osasuna aztertzean, alderdi hauei buruzko estatistikak hartu dira oinarri: norberaren osasunaren gaineko pertzepzioa, osasun-baliabideen erabilera, ospitalizazio-adierazleak eta arrisku-portaera ohikoenak. Horiez gainera, haurdunaldiaren borondatezko etendurari eta bereziki emakumezkoei eragiten dieten gaixotasunen prebentzioari buruzko adierazleak erantsi dira.

Osasunarekin lotutako estatistikak ez dira urtero eguneratzen, eta, horrenbestez, jasotako adierazleak berriki argitaratutako hainbat inkesta eta ikerketatatik bildu dira. Hauek dira atala osatzeko datuak lortzeko erabili diren iturriak: 2006ko *Osasun Inkesta Nazionala*, 2007an egindako baina berriki argitaratutako Eusko Jaurlaritzaren *EAEko Osasun Inkesta*, eta maizago eguneratzen diren beste iturri batzuk; esate baterako, Osakidetzaren memoriak eta Haurdunaldiaren Borondatezko Etenduraren Erregistroa.

## 3.2.1 OSASUN-EGOERA: NORBERARI BURUZKO PERTZEPZIOA

Nork bere osasuna nola ikusten duen oinarrizko galderetako bat izaten da osasunari buruzko inkestetan. Hala, horri buruzko eguneratutako daturik ez badago ere, garrantzitsua da txosten honetan EAEri buruz egin diren estatistikak biltzea.

Eusko Jaurlaritzaren *EAEko Osasun Inkestak* emandako datuen arabera, EAEn bizi diren pertsonek, oro har, beren osasunari buruzko pertzepzio positiboa dute. Ez dago sexuen arteko alde handirik alderdi horretan, baina gizonezkoek kopuru handixeagoak dauzkate erantzunik positiboenetan. Nolanahi ere, azken urteotako joera orokorra pertzepzio hori gero eta positiboagoa izatea da, emakumezkoen zein gizonezkoen artean. Izan ere, 2007an, EAEko biztanleen erdiek baino gehiagok uste zuten beren osasuna ona edo oso ona zela. Hala ere, pertzepzio horrek okerrera egiten zuen, bi sexuetan, adinean aurrera egin ahala.

45 urtetik aurrera, hala-holako osasuna dutela adierazten duten pertsonen ehunekoa nabarmen igotzen da, gizonezkoen zein emakumezkoen artean. Urteen joanarekin, osasunaren gaineko pertzepzio negatibo hori areagotu egiten da bi sexuetan, baina 65 urtetik gorako emakumeek adin bereko gizonek baino pertzepzio pixka bat negatiboagoa dute beren osasunaz.

**3.25. TAULA.** Norberaren osasunari buruzko pertzepzioa EAEn, adinaren eta sexuaren arabera. 2002-2007

| | 2002 | | | 2007 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | GIZONAK | GUZTIRA | EMAKUMEAK | GIZONAK |
| **Ezin hobea:** | | | | | | |
| GUZTIRA | 6,8 | 6,3 | 7,4 | 6,7 | 5,5 | 8,0 |
| 16-24 | 13,7 | 12,2 | 15,1 | 17,6 | 11,6 | 23,3 |
| 25-44 | 8,3 | 8,0 | 8,6 | 8,7 | 7,8 | 9,6 |
| 45-64 | 3,5 | 3,3 | 3,7 | 3,5 | 3,4 | 3,7 |
| 65 eta gehiago | 4,0 | 4,0 | 3,9 | 2,2 | 2,3 | 2,1 |
| **Oso ona:** | | | | | | |
| GUZTIRA | 23,6 | 22,4 | 24,9 | 22,8 | 21,6 | 24,1 |
| 16-24 | 38,9 | 35,5 | 42,1 | 39,1 | 39,3 | 39,0 |
| 25-44 | 30,4 | 29,8 | 31,1 | 31,9 | 30,9 | 32,9 |
| 45-64 | 15,7 | 16,1 | 15,3 | 15,2 | 15,1 | 15,4 |
| 65 eta gehiago | 10,8 | 10,5 | 11,3 | 8,7 | 7,9 | 9,8 |
| **Ona:** | | | | | | |
| GUZTIRA | 51,9 | 51,8 | 52,1 | 50,4 | 50,3 | 50,6 |
| 16-24 | 42,4 | 46,5 | 38,4 | 39,1 | 44,4 | 34,0 |
| 25-44 | 53,0 | 53,3 | 52,8 | 50,7 | 51,9 | 49,6 |
| 45-64 | 58,3 | 57,2 | 59,3 | 57,7 | 55,0 | 60,5 |
| 65 eta gehiago | 47,5 | 45,5 | 50,3 | 45,0 | 44,2 | 46,0 |
| **Erdipurdikoa:** | | | | | | |
| GUZTIRA | 15,0 | 16,5 | 13,4 | 17,0 | 18,9 | 15,0 |
| 16-24 | 4,6 | 5,7 | 3,6 | 3,7 | 4,7 | 2,7 |
| 25-44 | 7,6 | 8,2 | 7,0 | 7,8 | 8,4 | 7,2 |
| 45-64 | 19,9 | 21,1 | 18,6 | 20,6 | 23,4 | 17,7 |
| 65 eta gehiago | 29,8 | 30,8 | 28,4 | 35,8 | 35,7 | 35,9 |
| **Txarra:** | | | | | | |
| GUZTIra | 2,6 | 3,0 | 2,2 | 3,0 | 3,7 | 2,3 |
| 16-24 | 0,5 | 0,1 | 0,8 | 0,5 | 0,0 | 1,0 |
| 25-44 | 0,6 | 0,8 | 0,5 | 0,8 | 1,1 | 0,6 |
| 45-64 | 2,6 | 2,2 | 3,1 | 3,0 | 3,2 | 2,8 |
| 65 eta gehiago | 7,9 | 9,2 | 6,0 | 8,4 | 9,9 | 6,2 |

*Iturria*: Eustat. Osasun-egoera

## OSASUN-BALIABIDEEN ERABILERA

## 3.2.2

Emakumeek gehiago erabili ohi dituzte osasun-zerbitzuak gizonek baino. Emakumeek kontsulta gehiago egiten dituzte osasun-zentroan edo anbulatorioan, baina ospitaleetako erabilerari eta egonaldiei dagokienez, gizonen ehunekoak handiagoak dira. Atal hau osasun-baliabideen erabilerari buruzkoa da, hain zuzen ere, eta hori neurtzeko, kontuan hartu dugu jendea sendagilearenera zenbateko maiztasunarekin eta zergatik joaten den.

Oro har, berretsi egin da emakumezkoak gehiagotan joaten direla sendagilearenera urtearen joanean. Osasunari buruzko Inkestan bildutako datuen arabera, gizonek batez bestekoa baino adierazle altuagoak dituzte "kontsultarik ez" kategorian; batez ere, 25 urtetik 64 urte-

ra arteko adin-tarteetan. Aldeak gutxituz doaz adinak aurrera egin ahala, eta bereziki 65 urtetik aurrera, gizonen eta emakumeen maiztasun-adierazleak berdintsuak dira.

**3.26. TAULA.** Biztanleriaren banaketa osasun-kontsulten kopurua aintzat hartuta, sexuaren eta adinaren arabera

| | EMAKUMEAK | GIZONAK |
|---|---|---|
| **0-14 urte** | | |
| Bat ere ez | 11,5 | 10,5 |
| 1 edo 2 | 42,9 | 41,2 |
| 3tik 9ra | 36,0 | 38,9 |
| 10 baino gehiago | 9,6 | 9,4 |
| GUZTIRA | 133.673 | 140.567 |
| **15-24 urte** | | |
| Bat ere ez | 26,7 | 28,0 |
| 1 edo 2 | 45,0 | 51,5 |
| 3tik 9ra | 25,3 | 17,2 |
| 10 baino gehiago | 3,0 | 3,3 |
| GUZTIRA | 106.027 | 110.818 |
| **25-44 urte** | | |
| Bat ere ez | 15,1 | 24,4 |
| 1 edo 2 | 43,8 | 49,5 |
| 3tik 9ra | 32,3 | 20,4 |
| 10 baino gehiago | 8,9 | 5,7 |
| GUZTIRA | 341.019 | 354.459 |
| **45-64 urte** | | |
| Bat ere ez | 9 | 14,2 |
| 1 edo 2 | 37,5 | 44,3 |
| 3tik 9ra | 40,3 | 31,3 |
| 10 baino gehiago | 13,2 | 10,2 |
| GUZTIRA | 285.993 | 276.724 |
| **≥ 65** | | |
| Bat ere ez | 4,9 | 6,1 |
| 1 edo 2 | 24,9 | 24,2 |
| 3tik 9ra | 50,8 | 49,0 |
| 10 baino gehiago | 19,3 | 20,7 |
| GUZTIRA | 222.389 | 156.504 |

*Iturria*: Osasun eta Kontsumo Saila. 2007ko Osasun Inkesta.

Joera horren adierazle da, halaber, Ikerketa Soziologikoen Zentroak (CIS) egindako osasun-barometroak berretsi duena: azken urtean familia-medikuarengana joan ez diren gizonezkoen ehunekoa egoera berean dauden emakumeen ehunekoaren ia bikoitza da. Eta aurkako egoeran daudenak -hau da, familia-medikuarengana joan direnak- emakumezkoen % 81,9 dira, eta gizonezkoen % 67,6.

**3.27. TAULA.** EAEko biztanleriaren banaketa, azken 12 hilabeteetan familia-medikuarengana joan diren aintzat hartuta, sexuaren arabera. 2008

| | GUZTIRA | | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % |
| Bai | 1.779 | 74,9 | 997 | 81,9 | 781 | 67,6 |
| Ez | 587 | 24,7 | 217 | 17,8 | 369 | 32,0 |
| Ez du gogoratzen | 5 | 0,2 | 3 | 0,3 | 2 | 0,2 |
| Ez du erantzun | 2 | 0,1 | . | . | 2 | 0,2 |
| GUZTIRA | 2.375 | 100,0 | 1.218 | 100,0 | 1.156 | 100,0 |

*Iturria*: CIS. 2008ko Osasun-barometroa.

Joera hori bera jartzen da agerian espezialisten kontsultetara eta larrialdi-zerbitzuetara joateari dagokionez; nolanahi ere, alderdi horretan emakumeen eta gizonen arteko aldeak ez dira hain agerikoak.

**3.28. TAULA.** EAEko biztanleriaren banaketa, azken 12 hilabeteetan espezialisten kontsultetara joan diren aintzat hartuta, sexuaren arabera. 2008

| | GUZTIRA | | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % |
| Bai | 1.117 | 47,0 | 646 | 53,1 | 470 | 40,7 |
| Ez | 1.257 | 52,9 | 570 | 46,9 | 686 | 59,3 |
| Ez du erantzun | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 |
| GUZTIRA | 2.375 | 100,0 | 1.218 | 100,0 | 1.156 | 100,0 |

*Iturria*: CIS. 2008ko Osasun-barometroa.

**3.29. TAULA.** EAEko biztanleriaren banaketa, azken 12 hilabeteetan larrialdi-zerbitzuetara joan diren aintzat hartuta, sexuaren arabera. 2008

| | GUZTIRA | | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % |
| Bai | 729 | 30,7 | 409 | 33,6 | 320 | 27,7 |
| Ez | 836 | 69,2 | 807 | 66,3 | 836 | 72,3 |
| Ez du erantzun | 1 | 0,1 | 1 | 0,1 | 0 | 0 |
| GUZTIRA | 2.375 | 100,0 | 1.218 | 100,0 | 1.156 | 100,0 |

*Iturria*: CIS. 2008ko Osasun-barometroa.

Azkenik, osasun-barometroak beste adierazle batzuk ere bildu ditu, osasun-sistemak biztanleria zenbateraino gogobetetzen duen aztertzeko. Erantzun gehienetan gogobetetze-maila ertaina dela adierazi den arren, emakumeen ehunekoak gizonenak baino altuxeagoak dira bi muturretan; hau da, gogobetetze-maila baxuenari eta altuenari dagozkionetan.

### 3.30. TAULA. Osasun-sistemarekiko gogobetetze-maila

| | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|
| | ABS. | % | ABS. | % |
| Pozik ez (1-2) | 54 | 4,5 | 38 | 3,3 |
| (3-4) | 136 | 11,2 | 111 | 9,6 |
| (5-6) | 451 | 37,1 | 405 | 35,0 |
| (7-8) | 421 | 34,6 | 485 | 42,0 |
| Pozik (9-10) | 141 | 11,6 | 103 | 9,0 |
| Ez daki | 9 | 0,8 | 12 | 1,1 |
| Ez du erantzun | 2 | 0,2 | . | . |
| **GUZTIRA** | **1.218** | **100,0** | **1.156** | **100,0** |

*Iturria*: CIS. 2008ko Osasun-barometroa.

## OSPITALIZAZIOARI BURUZKO ADIERAZLEAK

## 3.2.3

Ospitaleetako estatistikek diagnostiko ohikoenei eta ospitalizazioen iraupenari buruzko informazio interesgarria biltzen dute urtero. Bildutako datuek emakumeen eta gizonen artean alderdi horretan joera desberdinak daudela berretsi dute.

2008. urtean diagnostikoa zela-eta alta hartu zuten pertsonei buruzko azken adierazleak aztertuta, sexuen arteko desberdintasun batzuk nabarmen daitezke. Emakumezkoen kasuan, aurreko urteetan bezala, ospitaleratzea eragin duten diagnostikorik ohikoenak haurdunaldia eta erditzea izan dira; EAEko emakumezkoen ospitaleratze guztien % 23,9 arrazoi horiengatik izan dira. Emakumeek beste diagnostiko batzuei ere aurre egin behar diete, noski, baina neurri txikiagoan eta gizonezkoen antzeko tasetan. Izan ere, emakumeak beste gaixotasun batzuengatik ere ospitaleratu eta diagnostikatzen dituzte; esate baterako, zirkulazio-aparatuarekin, nerbio-sistemarekin, zentzumenekin eta digestio-aparatuarekin lotutako gaixotasunengatik, eta neurri txikiagoan, gaixotasun osteomuskularrengatik eta lokomozio-aparatukoengatik, tumoreengatik, eta arnas aparatuko gaixotasunengatik. Gizonezkoen artean, berriz, diagnostikorik ohikoenak zirkulazio-aparatuko eta digestio-aparatuko gaixotasunak dira, kasuen % 20,6 eta % 19,7, hurrenez hurren. Gaixotasun horien hurrengoak, gizonezkoen diagnostiko ohikoenekin jarraituz, beste hauek dira: arnas aparatuko gaixotasunak, nerbio-sistemakoak, gaixotasun osteomuskularrak eta lokomozio-aparatukoak, tumoreak, lesioak eta pozoitzeak.

**3.31. TAULA.** Alta hartutako gaixoak eta 1.000 biztanleko tasa, behin betiko diagnostikoaren eta sexuaren arabera. 2008

| | GUZTIRA | | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | ALTAK | ALTAK /1.000 BIZTANLEKO | ALTAK | ALTAK /1.000 BIZTANLEKO | ALTAK | ALTAK /1.000 BIZTANLEKO |
| GUZTIRA | 316.857 | 146,7 | 163.758 | 148,2 | 153.099 | 145,2 |
| **Infekzio-gaixotasunak** | **3.252** | **1,5** | **1.335** | **1,2** | **1.917** | **1,8** |
| Biriketako tuberkulosia | 164 | 0,1 | 53 | 0,0 | 111 | 0,1 |
| Hiesa | 365 | 0,2 | 94 | 0,1 | 271 | 0,3 |
| Hepatitis birikoa | 117 | 0,1 | 50 | 0,0 | 67 | 0,1 |
| **Tumoreak** | **27.611** | **12,8** | **13.082** | **11,8** | **14.529** | **13,8** |
| Koloneko neoplasia gaiztoa | 1.807 | 0,8 | 657 | 0,6 | 1.150 | 1,1 |
| Trakea, bronkio eta biriketako neoplasia gaiztoa | 1.343 | 0,6 | 271 | 0,2 | 1.072 | 1,0 |
| Emakumeen bularreko neoplasia gaiztoa | 1.745 | 1,6 | 1.745 | 1,6 | - | - |
| Prostatako neoplasia gaiztoa | 1.306 | 1,2 | - | - | 1.306 | 1,2 |
| **Gaixotasun endokrinoak eta metabolikoak** | **4.516** | **2,1** | **2.570** | **2,3** | **1.946** | **1,8** |
| Diabetes mellitusa | 1.679 | 0,8 | 774 | 0,7 | 905 | 0,9 |
| **Odol-gaixotasunak** | **3.540** | **1,6** | **1.879** | **1,7** | **1.661** | **1,6** |
| **Buru-gaixotasunak** | **5.264** | **2,4** | **2.441** | **2,2** | **2.823** | **2,7** |
| **Nerbio-sistemako eta zentzumen-organoetako gaixotasunak** | **35.968** | **16,7** | **20.940** | **19,0** | **15.028** | **14,2** |
| Begi eta ondokoetako arazoak | 26.452 | 12,3 | 15.388 | 13,9 | 11.064 | 10,5 |
| Begi-lausoak | 20.925 | 9,7 | 12.427 | 11,3 | 8.498 | 8,1 |
| Otitisa | 978 | 0,5 | 439 | 0,4 | 539 | 0,5 |
| **Zirkulazio-aparatuko gaixotasunak** | **37.819** | **17,5** | **16.138** | **14,6** | **21.681** | **20,6** |
| Hipertentsioa | 1.560 | 0,7 | 799 | 0,7 | 761 | 0,7 |
| Miokardioko infartu akutua | 2.501 | 1,2 | 689 | 0,6 | 1.812 | 1,7 |
| **Arnas aparatuko gaixotasunak** | **28.625** | **13,3** | **11.698** | **10,6** | **16.927** | **16,1** |
| Pneumonia | 5.497 | 2,5 | 2.178 | 2,0 | 3.319 | 3,1 |
| Bronkitisa | 3.601 | 1,7 | 731 | 0,7 | 2.870 | 2,7 |
| Asma | 1.715 | 0,8 | 1.103 | 1,0 | 612 | 0,6 |
| Pneumokoniosia eta bestelakoak | 8.558 | 4,0 | 3.734 | 3,4 | 4.824 | 4,6 |
| **Digestio-aparatuko gaixotasunak** | **35.325** | **16,4** | **14.594** | **13,2** | **20.731** | **19,7** |
| Urdaileko ultzerak | 689 | 0,3 | 198 | 0,2 | 491 | 0,5 |
| Apendizitisa | 2.504 | 1,2 | 1.084 | 1,0 | 1.420 | 1,3 |
| Sabelaldeko barrunbeko etena | 8.650 | 4,0 | 2.117 | 1,9 | 6.533 | 6,2 |
| Kolelitiasia | 5.067 | 2,3 | 2.923 | 2,6 | 2.144 | 2,0 |
| **Apar. genitourinarioko gaixotasunak** | **18.893** | **8,7** | **10.659** | **9,6** | **8.234** | **7,8** |
| Nefritisa | 797 | 0,4 | 309 | 0,3 | 488 | 0,5 |
| Giltzurrun eta ureterreko kalkuluak | 1.251 | 0,6 | 502 | 0,5 | 749 | 0,7 |
| **Haurdunaldia eta erditzea** | **26.436** | **23,9** | **26.436** | **23,9** | - | - |
| Erditze arrunta | 3.570 | 3,2 | 3.570 | 3,2 | - | - |
| Infekzio puerperal larria | 12 | 0,0 | 12 | 0,0 | - | - |
| **Azaleko eta larruazalpeko ehuneko gaixotasunak** | **5.792** | **2,7** | **2.535** | **2,3** | **3.257** | **3,1** |
| Azaleko eta larruazalpeko ehuneko infekzioak | 2.272 | 1,1 | 782 | 0,7 | 1.490 | 1,4 |
| Azaleko eta larruazalpeko ehuneko beste hantura batzuk | 234 | 0,1 | 111 | 0,1 | 123 | 0,1 |
| **Gaixotasun osteomuskularrak eta lokomozio-aparatukoak** | **29.031** | **13,4** | **14.768** | **13,4** | **14.263** | **13,5** |
| Osteoartrosia | 5.670 | 2,6 | 3.379 | 3,1 | 2.291 | 2,2 |
| Ornoarteko diskoko arazoak | 1.808 | 0,8 | 795 | 0,7 | 1.013 | 1,0 |
| **Sortzetiko anomaliak** | **2.596** | **1,2** | **1.221** | **1,1** | **1.375** | **1,3** |
| **Jaiotza-inguruko anomaliak** | **2.106** | **1,0** | **932** | **0,8** | **1.174** | **1,1** |
| Fetuaren gaixotasun hemolitikoa / Jaiotza-inguruko bestelako min horiak | 501 | 0,2 | 227 | 0,2 | 274 | 0,3 |
| **Gaizki definitutako gaixotze-egoerak** | **14.847** | **6,9** | **6.623** | **6,0** | **8.224** | **7,8** |
| **Lesioak eta pozoitzeak** | **22.235** | **10,3** | **9.370** | **8,5** | **12.865** | **12,2** |
| Femur-lepoaren haustura | 2.340 | 1,1 | 1.721 | 1,6 | 619 | 0,6 |
| **V kodeak** | **13.001** | **6,0** | **6.537** | **5,9** | **6.464** | **6,1** |

*Iturria*: Eustat. Osasun Saila. Ospitaleetako gaixotze-tasen estatistika.

Estatistiketan bildutako datuen arabera, prozedura kirurgiko gehienetan emakumezkoen eta gizonezkoen kopuruak berdintsuak dira. Horrela, bada, erditzearekin lotutako ebakuntzak aintzat hartu gabe, bi sexuetan kristalinoaren gaineko ebakuntzak dira ohikoenak; emakumezkoen eta gizonezkoen % 13-14 inguruari egin dizkiote halakoak EAEn. Edonola ere, aurreko urteetan bezala, ebakuntza mota jakin batzuk ohikoagoak dira bi sexuetako batean. Prostatarekin zerikusia duten ebakuntzak, jakina, gizonezkoei egiten zaizkie, baina eten edo herniarekin eta gernu-maskuriarekin zerikusia dutenak ere gizonezkoei egiten zaizkie gehien. Aldiz, bularrekin zerikusia duten prozedura kirurgikoak emakumezkoei egiten zaizkie, baina baita garezurreko nerbioekin eta hezurren ebaki, eszisio eta banaketarekin zerikusia dutenak ere; eta, noski, umetokiko eta obulutegietako arazoekin eta erditzearekin lotutakoak.

## 3.32. TAULA. Ebakuntza ohikoenen altak, sexuaren arabera. Ehuneko bertikalak eta horizontalak. 2008

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | | GIZONAK | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % H | % B | ABS. | % H | % B |
| Kristalinoaren gaineko ebakuntzak | 21.065 | 12.499 | 59,3 | 14,0 | 8.566 | 40,7 | 13,6 |
| Erditzea eragin edo laguntzeko bestelako prozedurak | 14.845 | 14.845 | 100,0 | 16,6 | | | 0,0 |
| Artikulazioko egituren gaineko konponketa-ebakuntzak eta plastikoak | 9.704 | 5.340 | 55,0 | 6,0 | 4.364 | 45,0 | 6,9 |
| Artikulazioko egituren ebakia eta eszisioa | 9.389 | 3.532 | 37,6 | 4,0 | 5.857 | 62,4 | 9,3 |
| Azalaren eta larruazalpeko ehunaren gaineko ebakuntzak | 9.239 | 4.221 | 45,7 | 4,7 | 5.018 | 54,3 | 8,0 |
| Etenaren konponketa | 8.014 | 1.813 | 22,6 | 2,0 | 6.201 | 77,4 | 9,8 |
| Haustura eta luxazioa txikitzea | 6.022 | 3.015 | 50,1 | 3,4 | 3.007 | 49,9 | 4,8 |
| Hodietako ebakia, eszisioa eta buxadura | 5.747 | 3.261 | 56,7 | 3,7 | 2.486 | 43,3 | 3,9 |
| Hestearen ebakia, erauzketa eta anastomosia | 4.284 | 1.838 | 42,9 | 2,1 | 2.446 | 57,1 | 3,9 |
| Behazunaren eta behazun-traktuaren gaineko ebakuntzak | 3.998 | 2.314 | 57,9 | 2,6 | 1.684 | 42,1 | 2,7 |
| Garezurreko nerbioen eta ingurukoen gaineko ebakuntzak | 3.941 | 2.815 | 71,4 | 3,2 | 1.126 | 28,6 | 1,8 |
| Umetokiaren bestelako ebakia eta eszisioa | 3.915 | 3.914 | 100,0 | 4,4 | 1 | 0,0 | 0,0 |
| Bularraren gaineko ebakuntzak | 3.913 | 3.769 | 96,3 | 4,2 | 144 | 3,7 | 0,2 |
| Beste hezur batzuen ebakia, eszisioa eta banaketa | 3.739 | 2.778 | 74,3 | 3,1 | 961 | 25,7 | 1,5 |
| Umetokiaren eta euskarri-egituren gaineko bestelako ebakuntzak | 3.482 | 3.482 | 100,0 | 3,9 | | | |
| Bihotzaren eta perikardioaren gaineko bestelako ebakuntzak | 3.481 | 1.222 | 35,1 | 1,4 | 2.259 | 64,9 | 3,6 |
| Forzepsa, bentosa eta atzekoz aurrera erditzea | 3.212 | 3.212 | 100,0 | 3,6 | | | |
| Zesarea eta fetua ateratzea | 3.098 | 3.098 | 100,0 | 3,5 | | | |
| Gernu-maskuriaren gaineko ebakuntzak | 3.050 | 726 | 23,8 | 0,8 | 2.324 | 76,2 | 3,7 |
| Uzkiaren gaineko ebakuntzak | 2.909 | 1.084 | 37,3 | 1,2 | 1.825 | 62,7 | 2,9 |
| Prostataren eta semen-besikulen gaineko ebakuntzak | 2.827 | - | | | 2.827 | 100,0 | 4,5 |
| Eskuko gihar, tendoi eta fasziaren gaineko ebakuntzak | 2.762 | 1.226 | 44,4 | 1,4 | 1.536 | 55,6 | 2,4 |
| Apendizearen gaineko ebakuntzak | 2.466 | 1.077 | 43,7 | 1,2 | 1.389 | 56,3 | 2,2 |
| Erretinaren, koroidearen, gorputz beirakararen eta atzealdeko ganberaren gaineko ebakuntzak | 2.371 | 1.235 | 52,1 | 1,4 | 1.136 | 47,9 | 1,8 |
| Beste kontzeptu batzuetan sailkatu gabeko prozedurak eta ebakuntzak | 2.285 | 566 | 24,8 | 0,6 | 1.719 | 75,2 | 2,7 |
| Amigdalen eta adenoideen gaineko ebakuntzak | 2.248 | 1.027 | 45,7 | 1,2 | 1.221 | 54,3 | 1,9 |
| Sudurraren gaineko ebakuntzak | 2.207 | 754 | 34,2 | 0,8 | 1.453 | 65,8 | 2,3 |
| Hezurren gaineko beste ebakuntza batzuk, aurpegiko hezurren gainekoak izan ezik | 2.051 | 868 | 42,3 | 1,0 | 1.183 | 57,7 | 1,9 |
| Eskuko gihar, tendoi eta fasziaren gaineko ebakuntzak | 2.011 | 702 | 34,9 | 0,8 | 1.309 | 65,1 | 2,1 |
| Bizkarrezur-muinaren eta bizkarrezur-hodiko egituren gaineko ebakuntzak | 1.944 | 1.007 | 51,8 | 1,1 | 937 | 48,2 | 1,5 |
| Obulutegiaren gaineko ebakuntzak | 1.939 | 1.939 | 100,0 | 2,2 | - | | |
| **GUZTIRA** | **152.158** | **89.179** | **58,6** | **100,0** | **62.979** | **41,4** | **100,0** |

*Iturria*: Eustat. Ospitaleetako Gaixotze-tasen Estatistika.

*Oharra*: Datuak EAEko gaixo akutuen ospitaleei (publikoak zein pribatuak) dagozkie.

Ospitalizazioaren iraupena oso alderdi garrantzitsua da azterketarako. Estatistikek berretsi dute ospitalizazio-egunak oro har murriztu egin direla eta gaixoak erabat osatzeko ospitalez kanpoko gune hurbilenetan artatzen dituztela. Horrek, azken urteotan ikusi denez, eragin garrantzitsuak ditu gaixoaren hurbileko ingurunean, eta emakumeei eragiten die gehienbat, haiek baitira zainketa-lanak beren gain hartu ohi dituztenak.

EAEko ospitalizazioen iraupenari buruzko estatistikek ondorio interesgarri batzuk azaldu dituzte, aurreko urteetako joerak jarraitzen duela adierazten dutenak. Aurreko urteetan bezala, gizonentzat zein emakumeentzat ospitalizazio luzeena dakarten gaixotasunak zirkulazio-aparatuko gaixotasunak, tumoreak eta digestio-aparatuko gaixotasunak dira. Kasu horietan guztietan, gizonen zein emakumeen ospitalizazio-tasa 85 egunetik gorakoa da mila biztanleko, baina emakumeen adierazleak gizonezkoenak baino baxuagoak dira beti.

Aztertutako ia kasu guztietan, gizonek emakumeek baino denbora gehiago eman dute ospitaleetan, diagnostiko bera izanda. Emakumeen ospitalizazio-tasa gizonena baino altuagoa da soilik gaixotasun osteomuskularren eta lokomozio-aparatuko gaixotasunen kasuan, bai eta erditzearekin lotutako kasuetan ere, noski.

## 3.33. TAULA. Egonaldi-egunak eta 1.000 biztanleko tasa, behin betiko diagnostikoaren eta sexuaren arabera. 2008

| | GUZTIRA | | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | EGONALDIAK | TASA | EGONALDIAK | TASA | EGONALDIAK | TASA |
| GUZTIRA | 1.506.601 | 697,7 | 719.193 | 651,1 | 787.408 | 746,6 |
| **Infekzio-gaixotasunak** | **29.170** | **13,5** | **11.560** | **10,5** | **17.610** | **16,7** |
| Biriketako tuberkulosia | 1.843 | 0,9 | 469 | 0,4 | 1.374 | 1,3 |
| Hiesa | 3.877 | 1,8 | 1.136 | 1,0 | 2.741 | 2,6 |
| Hepatitisa | 718 | 0,3 | 307 | 0,3 | 411 | 0,4 |
| **Tumoreak** | **204.452** | **94,7** | **85.398** | **77,3** | **119.054** | **112,9** |
| Koloneko neoplasia gaiztoa | 22.189 | 10,3 | 8.125 | 7,4 | 14.064 | 13,3 |
| Trakea, bronkio eta biriketako neoplasia gaiztoa | 13.454 | 6,2 | 2.645 | 2,4 | 10.809 | 10,2 |
| Emakumeen bularreko neoplasia gaiztoa | 7.581 | 6,9 | 7.581 | 6,9 | - | - |
| Prostatako neoplasia gaiztoa | 7.066 | 6,7 | - | - | 7.066 | 6,7 |
| **Gaixotasun endokrinoak eta metabolikoak** | **25.920** | **12,0** | **13.376** | **12,1** | **12.544** | **11,9** |
| Diabetes mellitusa | 13.253 | 6,1 | 5.450 | 4,9 | 7.803 | 7,4 |
| **Odol-gaixotasunak** | **19.538** | **9,0** | **9.874** | **8,9** | **9.664** | **9,2** |
| **Buru-gaixotasunak** | **67.906** | **31,4** | **33.481** | **30,3** | **34.425** | **32,6** |
| **Nerbio-sistemako eta zentzumen-organoetako gaixotasunak** | **33.334** | **15,4** | **15.848** | **14,3** | **17.486** | **16,6** |
| Begi eta ondokoetako arazoak | 4.158 | 1,9 | 2.180 | 2,0 | 1.978 | 1,9 |
| Begi-lausoak | 266 | 0,1 | 157 | 0,1 | 109 | 0,1 |
| Otitisa | 921 | 0,4 | 416 | 0,4 | 505 | 0,5 |
| **Zirkulazio-aparatuko gaixotasunak** | **223.259** | **103,4** | **90.959** | **82,3** | **132.300** | **125,4** |
| Hipertentsioa | 9.648 | 4,5 | 4.699 | 4,3 | 4.949 | 4,7 |
| Miokardioko infartu akutua | 17.642 | 8,2 | 5.216 | 4,7 | 12.426 | 11,8 |
| **Arnas aparatuko gaixotasunak** | **159.969** | **74,1** | **65.333** | **59,1** | **94.636** | **89,7** |
| Pneumonia | 40.329 | 18,7 | 16.024 | 14,5 | 24.305 | 23,0 |
| Bronkitisa | 26.611 | 12,3 | 5.745 | 5,2 | 20.866 | 19,8 |
| Asma | 8.712 | 4,0 | 6.209 | 5,6 | 2.503 | 2,4 |
| **Pneumokoniosia eta bestelakoak** | **62.393** | **28,9** | **27.383** | **24,8** | **35.010** | **33,2** |
| **Digestio-aparatuko gaixotasunak** | **190.346** | **88,2** | **83.701** | **75,8** | **106.645** | **101,1** |
| Urdaileko ultzerak | 5.487 | 2,5 | 1.664 | 1,5 | 3.823 | 3,6 |
| Apendizitisa | 11.559 | 5,4 | 4.980 | 4,5 | 6.579 | 6,2 |
| Sabelaldeko barrunbeko etena | 18.559 | 8,6 | 7.013 | 6,3 | 11.546 | 10,9 |
| Kolelitiasia | 28.814 | 13,3 | 15.443 | 14,0 | 13.371 | 12,7 |
| **Apar. genitourinarioko gaixotasunak** | **68.013** | **31,5** | **33.108** | **30,0** | **34.905** | **33,1** |
| Nefritisa | 7.069 | 3,3 | 2.754 | 2,5 | 4.315 | 4,1 |
| Giltzurrun eta ureterreko kalkuluak | 5.038 | 2,3 | 2.107 | 1,9 | 2.931 | 2,8 |
| **Haurdunaldia eta erditzea** | **75.067** | **68,0** | **75.067** | **68,0** | - | - |
| Erditze arrunta | 9.383 | 8,5 | 9.383 | 8,5 | - | - |
| Infekzio puerperal larria | 73 | 0,1 | 73 | 0,1 | - | - |
| **Azaleko eta larruazalpeko ehuneko gaixotasunak** | **15.939** | **7,4** | **7.247** | **6,6** | **8.692** | **8,2** |
| Azaleko eta larruazalpeko ehuneko infekzioak | 8.462 | 3,9 | 3.646 | 3,3 | 4.816 | 4,6 |
| Azaleko eta larruazalpeko ehuneko beste hantura batzuk | 1.307 | 0,6 | 583 | 0,5 | 724 | 0,7 |
| **Gaixotasun osteomuskularrak eta lokomozio-aparatukoak** | **103.673** | **48,0** | **57.105** | **51,7** | **46.568** | **44,2** |
| Osteoartrosia | 45.676 | 21,2 | 27.572 | 25,0 | 18.104 | 17,2 |
| Ornoarteko diskoko arazoak | 10.958 | 5,1 | 5.155 | 4,7 | 5.803 | 5,5 |
| **Sortzetiko anomaliak** | **9.323** | **4,3** | **4.166** | **3,8** | **5.157** | **4,9** |
| **Jaiotza-inguruko anomaliak** | **24.892** | **11,5** | **11.189** | **10,1** | **13.703** | **13,0** |
| Fetuaren gaixotasun hemolitikoa / Jaiotza-inguruko bestelako min horiak | 1.440 | 0,7 | 701 | 0,6 | 739 | 0,7 |
| **Gaizki definitutako gaixotze-egoerak** | **68.613** | **31,8** | **31.882** | **28,9** | **36.731** | **34,8** |
| **Lesioak eta pozoitzeak** | **159.756** | **74,0** | **76.413** | **69,2** | **83.343** | **79,0** |
| Femur-lepoaren haustura | 31.502 | 14,6 | 23.038 | 20,9 | 8.464 | 8,0 |
| **V kodeak** | **27.431** | **12,7** | **13.486** | **12,2** | **13.945** | **13,2** |

*Iturria*: Eustat eta Osasun Saila. Ospitaleetako gaixotze-tasen estatistika.

*Oharra*: Datuak EAEko gaixo akutuen ospitaleei (publikoak zein pribatuak) dagozkie.

# 3.2.4

Tabakoaren eta alkoholaren kontsumoa oso hedatuta dago herritarren artean oro har, baina arrisku-portaera horiek joera desberdinak dituzte emakumeen eta gizonen artean. Horri buruzko datuak azken urtean eguneratu ez badira ere, komeni da adierazle bereizgarrienetako batzuk behintzat biltzea.

Tabakoaren kontsumoari buruzko estatistikek adierazten dute bi sexuen artean desberdintasun handiak daudela. Estatua osorik hartuta, egunero erretzen dutenen artean gizonezkoak dira gehienak, eta inoiz erre ez duten pertsonen artean, berriz, emakumezkoak askoz gehiago dira. Osasun Inkesta Nazionalaren arabera, Estatuaren barruan Euskadik du, hain zuzen, egunero erretzen duten pertsonen kopururik txikiena, gizonezkoak (% 26,69) zein emakumezkoak (% 16,65) kontuan hartuta.

**3.34. TAULA.** Tabakoaren kontsumoa EAEn eta Estatuan, sexuaren arabera (Pertsonak milakoetan eta ehunekoak). 2006

| | | ERRETZAILEA | | NOIZEAN BEHINGO ERRETZAILEA | | ERRETZAILE OHIA | | EZ-ERRETZAILEA | | GUZTIRA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | E | G | E | G | E | G | E | G | G | E |
| EAE | Abs | 156,50 | 237,10 | 16,80 | 33,10 | 152,50 | 266,20 | 614,00 | 352,00 | 939,7 | 888,5 |
| | % | 16,65 | 26,69 | 1,79 | 3,73 | 16,22 | 29,97 | 65,34 | 39,62 | 100,0 | 100,0 |
| Estatua | Abs | 4.101,70 | 5.794,60 | 452,30 | 692,20 | 2.517,50 | 5.166,70 | 11.998,30 | 6.705,50 | 19.069,8 | 18.359,0 |
| | % | 21,51 | 31,56 | 2,37 | 3,77 | 13,20 | 28,14 | 62,92 | 36,52 | 100,0 | 100,0 |

*Iturria*: EIN. Osasun Inkesta, 2006.

*Oharra*: Emakumeak (E), Gizonak (G).

Azterlan ugariren bidez egiaztatu da adin-tarte gazteetan gizon eta emakumeen ehunekoak parekatu eta, zenbaitetan, irauli ere egiten direla. Osasun Inkestak EAEn bildutako datuen arabera, sexuen arteko aldea handitu egiten da adin-tarte helduenetan, baina ehunekoak parekatu egiten dira gazteenen artean; are gehiago, zenbaitetan, emakumezkoen ehunekoak gizonezkoenak baino altuagoak dira.

**3.35. TAULA.** Tabakoaren kontsumoa (%), kontsumo-mailaren, adinaren eta sexuaren arabera. 2007

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | GIZONAK |
|---|---|---|---|
| **Ez-erretzailea:** | | | |
| GUZTIRA | 54,6 | 63,2 | 45,4 |
| 16-24 | 68,3 | 67,6 | 68,9 |
| 25-44 | 47,6 | 46,7 | 48,4 |
| 45-64 | 47,2 | 59,0 | 35,0 |
| 65 eta gehiago | 71,2 | 91,7 | 42,2 |
| **Erretzaile ohia:** | | | |
| GUZTIRA | 17,4 | 13,2 | 21,8 |
| 16-24 | 3,4 | 3,5 | 3,4 |
| 25-44 | 14,5 | 17,2 | 11,8 |
| 45-64 | 24,9 | 18,1 | 31,9 |
| 65 eta gehiago | 18,8 | 4,8 | 38,6 |
| **Noizean behingo erretzailea:** | | | |
| GUZTIRA | 3,1 | 2,6 | 3,7 |
| 16-24 | 4,1 | 3,4 | 4,8 |
| 25-44 | 4,2 | 4,3 | 4,2 |
| 45-64 | 2,5 | 2,1 | 3,0 |
| 65 eta gehiago | 1,3 | 0,2 | 2,9 |
| **Erretzailea:** | | | |
| GUZTIRA | 25,0 | 21,1 | 29,1 |
| 16-24 | 24,2 | 25,5 | 22,9 |
| 25-44 | 33,7 | 31,8 | 35,6 |
| 45-64 | 25,4 | 20,8 | 30,2 |
| 65 eta gehiago | 8,7 | 3,3 | 16,3 |

*Iturria*: Eustat. Osasun-egoera.

Alkohola edateari dagokionez, joerak antzekoak dira. Oro har, gizonezkoek emakumezkoek baino gehiago eta maizago edaten dute autonomia-erkidego guztietan. Osasun Inkesta Nazionalak, alkoholaren ohiko kontsumoa zenbatekoa den neurtzeko, azken bi asteetan alkoholdun edaririk edan duten hartzen du adierazletzat. Hala, azken hamabost egunetan alkohola edan duten gizonezkoen ehunekoa oso antzekoa da ia autonomia-erkidego guztietan: % 70 ingurukoa; Estatuko batez bestekoa % 70,23koa da; EAEkoa, berriz, % 72,71koa. Emakumezkoen ehunekoa, aldiz, % 40 ingurukoa da: Estatuan, % 41,78, eta EAEn, % 48,01. Hortaz, EAEko kontsumoari buruzko adierazleak, emakumezkoena zein gizonezkoena, Estatuko batez bestekoa baino altuagoak dira.

**3.36. TAULA.** Alkoholdun edarien kontsumoa azken bi asteetan EAEn eta Estatuan, sexuaren arabera. 16 urteko eta gehiagoko biztanleak

| | | KONTSUMITU DU | | | EZ DU KONTSUMITU | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | GUZTIRA | E | G | GUZTIRA | E | G |
| Estatua | Abs | 20.860,00 | 12.893,10 | 7.966,90 | 16.568,80 | 5.465,90 | 11.102,90 |
| | % | 55,73 | 41,78 | 70,23 | 44,27 | 58,22 | 29,77 |
| EAE | Abs | 1.097,20 | 646,00 | 451,10 | 731,00 | 242,40 | 488,60 |
| | % | 60,01 | 48,01 | 72,710 | 39,99 | 51,99 | 27,29 |

*Iturria*: EIN. Osasun Inkesta Nazionala. 2006. *Oharra*: Emakumeak (E), Gizonak (G).

Aurreko txostenetan azpimarratu izan dugun bezala, aldeak, oro har, murriztu egiten dira EAEn adinaren arabera; hala, emakume eta gizon gazteen ohiko kontsumoa antzekoa da, eta helduen artean, berriz, sexuen arteko aldea handiagoa da, baina ez tabakoaren kontsumoan bezain nabarmen.

**3.37. TAULA.** Alkoholaren kontsumoa (%), kontsumo-mailaren, adinaren eta sexuaren arabera. 2007

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | GIZONAK |
|---|---|---|---|
| **Ez-edalea:** | | | |
| GUZTIRA | 14,2 | 22,3 | 5,7 |
| 16-24 | 14,4 | 16,9 | 12,0 |
| 25-44 | 9,2 | 12,4 | 6,1 |
| 45-64 | 12,4 | 21,4 | 3,1 |
| 65 eta gehiago | 26,0 | 40,7 | 5,0 |
| **Edale ohia:** | | | |
| GUZTIRA | 2,9 | 2,4 | 3,5 |
| 16-24 | 1,6 | 2,2 | 1,1 |
| 25-44 | 4,0 | 3,9 | 4,1 |
| 45-64 | 2,3 | 1,6 | 2,9 |
| 65 eta gehiago | 2,7 | 1,1 | 4,9 |
| **Noizbehinkako edalea:** | | | |
| GUZTIRA | 39,2 | 45,8 | 32,1 |
| 16-24 | 39,2 | 44,0 | 34,7 |
| 25-44 | 45,2 | 52,7 | 37,9 |
| 45-64 | 33,2 | 43,0 | 23,1 |
| 65 eta gehiago | 37,0 | 39,8 | 33,0 |
| **Edale neurritsua:** | | | |
| GUZTIRA | 35,5 | 24,7 | 47,0 |
| 16-24 | 40,3 | 33,1 | 47,1 |
| 25-44 | 37,2 | 26,5 | 47,5 |
| 45-64 | 37,9 | 27,2 | 48,9 |
| 65 eta gehiago | 26,4 | 15,1 | 42,5 |
| **Edale handia:** | | | |
| GUZTIRA | 6,2 | 3,9 | 8,6 |
| 16-24 | 3,7 | 3,1 | 4,2 |
| 25-44 | 3,3 | 3,4 | 3,2 |
| 45-64 | 10,8 | 5,9 | 15,9 |
| 65 eta gehiago | 6,0 | 2,5 | 10,8 |
| **Gehiegizko edalea:** | | | |
| GUZTIRA | 2,0 | 0,9 | 3,1 |
| 16-24 | 0,8 | 0,8 | 0,8 |
| 25-44 | 1,1 | 1,1 | 1,1 |
| 45-64 | 3,4 | 0,9 | 6,0 |
| 65 eta gehiago | 2,0 | 0,7 | 3,7 |

*Iturria*: Eustat. Osasun-egoera.

## BEREZIKI EMAKUMEZKOEI ERAGITEN DIETEN GAIXOTASUNEN PREBENTZIOA 3.2.5

Asko dira emakumezkoei bakarrik eragiten dieten edota haiengan eragin berezia duten osasun-arazoak. Berdintasunerako Legeak ere hori bera jasotzen du, artikuluetako batean honela baitio: *"Emakumezkoen osasuna hobetzen lagundu behar dugu, beren bizi-ziklo osoan, eta, horretarako, bereziki kontuan hartu behar ditugu emakumezkoei gehien eragiten dieten osasun-arazoak"*.

Atal honetan erabili ditugun adierazleak, batez ere, emakumeen osasun ginekologikoarekin lotuta daude, eta horrekin zerikusia duten gaixotasunak prebenitzeko praktikekin, bereziki. Datu horietako gehienak ez dira urtero eguneratzen; hori dela eta, atal honetan bildutako estatistikak 2006ko Osasun Inkesta Nazionalekoak dira; zehazki, osasun-azterketa ginekologikoei, baginako zitologiei eta mamografiei buruzko adierazleak. Azken horri dagokionez, Eusko Jaurlaritzak sustatutako Bularreko Minbizia Garaiz Detektatzeko Programari buruzko informazioa ere jaso du atal honek.

Osasun-azterketa ginekologikoei dagokienez, 2006ko Osasun Inkesta Nazionaleko datuen arabera EAEko emakumeen % 85,15 noizbait izan da espezialista horren kontsultan. Adierazle hori Estatukoa baino (% 82,37) pixka bat altuagoa da.

**3.38. TAULA.** Ginekologia-kontsultan izan diren 16 urteko eta gehiagoko emakumeak, EAEn eta Estatuan. 2006. (ehuneko bertikalak)

| | EMAKUMEAK (%) |
|---|---|
| EAE | 85,15 |
| Estatua | 82,37 |

*Iturria*: Geuk moldatua, EINen datuetan oinarrituta. Osasun Inkesta Nazionala. 2006.

Bada garrantzi handia duen beste alderdi bat ere: umetoki-lepoko minbizia garaiz diagnostikatzeko probak, baginako zitologiak eginda. EAEko emakumeen %75,3k egin du noizbait zitologia bat; ehuneko hori Estatuko batez bestekoa baino (%69) handiagoa da.

**3.39. TAULA.** Noizbait baginako zitologia egin duten EAEko eta Estatuko 20 urteko eta gehiagoko emakumeak. 2006

| | EAE | | ESTATUA |
|---|---|---|---|
| | EMAKUMEAK (MILAKA) | % | % |
| Bai | 675,2 | 75,3 | 69 |
| Ez | 215,7 | 24,1 | 31 |
| Ez da ageri | 5,3 | 0,6 | - |
| **GUZTIRA** | **896,2** | **100,0** | **100** |

*Iturria*: EIN. Osasun Inkesta Nazionala. 2006.

Horrekin lotutako beste alderdi bat mamografiak egitea da; adierazleen arabera, adin ertaineko emakumeek egiten dituzte batez ere. Eusko Jaurlaritzaren Osasun Inkestak emandako datuen arabera, mamografiak egitea lotuta dago adinarekin, EAEn dagoen detektatzeko programa dela eta. Hala, 50 urtetik 64ra bitarteko emakumeen % 91k mamografia bat egin du gutxienez, ikerketaren aurretiko hiru urteetan.

**3.40. TAULA.** Emakumeen ehunekoak, mamografiaren aldizkakotasunaren, adintaldeen eta lurralde historikoen arabera. 2007

| | INOIZ EZ | 3 URTE BAINO GUTXIAGO | 3 URTE EDO GEHIAGO | AINTZAT HARTUTAKO BIZTANLERIA |
|---|---|---|---|---|
| **GUZTIRA** | | | | |
| EAE | 46,3 | 41,5 | 12,2 | 944.679 |
| Araba | 48,3 | 39,6 | 12,1 | 132.519 |
| Bizkaia | 46,5 | 42,2 | 11,3 | 510.174 |
| Gipuzkoa | 44,9 | 41,2 | 13,8 | 301.986 |
| **< 50** | | | | |
| EAE | 70,7 | 25,0 | 4,4 | 506.315 |
| Araba | 70,9 | 23,3 | 5,8 | 76.120 |
| Bizkaia | 71,3 | 25,5 | 3,2 | 268.459 |
| Gipuzkoa | 69,5 | 24,8 | 5,7 | 161.736 |
| **50-64** | | | | |
| EAE | 5,8 | 91,1 | 3,1 | 215.805 |
| Araba | 5,6 | 86,7 | 7,7 | 29.082 |
| Bizkaia | 7,0 | 90,8 | 2,3 | 118.395 |
| Gipuzkoa | 3,8 | 93,6 | 2,7 | 68.328 |
| **65-74** | | | | |
| EAE | 7,7 | 53,1 | 39,2 | 109.259 |
| Araba | 4,8 | 59,9 | 35,4 | 13.340 |
| Bizkaia | 8,5 | 56,2 | 35,3 | 61.108 |
| Gipuzkoa | 7,4 | 45,2 | 47,3 | 34.811 |
| **≥ 75** | | | | |
| EAE | 51,5 | 9,7 | 38,8 | 113.300 |
| Araba | 55,4 | 11,5 | 33,1 | 13.977 |
| Bizkaia | 52,1 | 7,6 | 40,2 | 62.212 |
| Gipuzkoa | 49,0 | 12,5 | 38,5 | 37.111 |

*Iturria*: Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza. Osasun Inkesta, 2007.

EAEn, 1997. urteaz geroztik, Bularreko Minbizia Garaiz Detektatzeko Programa eskaintzen die Osakidetzak 50 urtetik 64ra bitarteko emakumezkoei, eta bi urtean behin mamografia bat egitera bultzatzen ditu. 2006. urtean, bestalde, 69 urtera bitartean aldizkakotasuna pixkana areagotzea onartu zen.

Mamografiak egiteak berebiziko garrantzia du prebentzio-medikuntzan; izan ere, bularreko minbiziak emakume askoren heriotza eragiten du EAEn. Bularreko Minbizia Garaiz Detektatzeko Programak, batez beste, % 75eko parte-hartzea izan du azken urteotan; azken urtean, berriz, % 76,5era iritsi da.

**3.3. GRAFIKOA.** Bularreko Minbizia Garaiz Detektatzeko Programako parte-hartzearen tasaren bilakaera. 2000-2009




*Iturria*: Osakidetzaren 2009ko memoria.

*Oharra*: Parte-hartzearen tasa: gonbita jaso zuten emakumeen artean, parte hartu zutenen ehunekoa.

Detektatutako minbizi kopurua pixka bat murriztu egin da azken urtean; hala ere, detekzio-tasak nahiko egonkorra izaten jarraitzen du: 2009. urtean, parte hartu zuten mila emakumetik 3,8.

**3.4. GRAFIKOA.** Bularreko Minbizia Garaiz Detektatzeko Programako detekzio-tasaren bilakaera. 2000-2009




*Iturria*: Osakidetzaren 2009ko memoria.

## UGALKORTASUN-OSASUNA ETA ERABAKIAK HARTZEA 3.2.6

Berdintasunerako V. Planean, berariaz azpimarratzen da beharrezkoa dela sexu- eta ugalkortasun-osasunaren esparruan lan egiten jarraitzea, emakumeek ahalduntzea eta autonomia lortzea errazteko. Alderdi horietako batzuk aurreko atalean landu dira; beste batzuei buruz, ordea, ez dugu duela gutxiko edo eguneratutako daturik; esaterako, antisorgailuen erabilerari buruzkorik. Hori dela eta, azpiatal honetan haurdunaldiaren borondatezko etendurei buruzko estatistikak soilik jaso dira.

Estatuko zein Euskal Autonomia Erkidegoko estatistikek agerian jarri dute borondatez etendako haurdunaldiek gora egin dutela pixkana, 1995. urtetik. EAEn, zehazki, HBE tasa bikoiztu baino gehiago egin da azken urteetan: 1995ean 2,6koa zen, eta 2008an, 6,9koa. Estatuan nabarmenago egin du gora: 1995eko tasa, 15 urtetik 44ra bitarteko mila emakumeko, 5,2koa zen, eta 2008an, berriz, 11,8koa.

**3.5. GRAFIKOA.** Haurdunaldiaren borondatezko etenduren tasen bilakaera EAEn eta Estatuan. 1995-2008




*Iturria*: EAEko Haurdunaldiaren Borondatezko Etenduren Erregistroko txostena, 2008.
*Oharra*: 15 urtetik 44ra bitarteko 1.000 emakumeko tasak.

EAEn bizi diren 15 urtetik 44ra bitarteko emakumezkoei egindako HBEen tasen bilakaerak, kopuru absolututan zein ehunekotan, agerian utzi du azterketako azken urtean (2008) izan zirela azken hamabost urteotako kopururik eta tasarik handienak; nolanahi ere, zifrak egonkortzen ari direla dirudi.

**3.41. TAULA.** HBE kopuruaren eta tasaren bilakaera EAEn. 1993-2008

| | HBE KOPURUA | TASA |
|---|---|---|
| 1993 | 1.283 | 2,6 |
| 1994 | 1.174 | 2,4 |
| 1995 | 1.256 | 2,6 |
| 1996 | 1.278 | 2,6 |
| 1997 | 1.301 | 2,6 |
| 1998 | 1.305 | 2,6 |
| 1999 | 1.435 | 2,9 |
| 2000 | 1.653 | 3,3 |
| 2001 | 1.646 | 3,3 |
| 2002 | 1.804 | 3,9 |
| 2003 | 1.798 | 3,9 |
| 2004 | 1.997 | 4,4 |
| 2005 | 2.383 | 5,3 |
| 2006 | 2.586 | 5,9 |
| 2007 | 2.955 | 6,9 |
| 2008 | 2.966 | 6,9 |

*Iturria*: EAEko HBEen Erregistroko txostena.

Dena dela, autonomia-erkidegoen artean, haurdunaldiaren borondatezko etenduren tasa txikienak dituzten erkidegoetako bat da EAE. Nafarroa, Galizia, Extremadura, Kantabria,

Ceuta eta Melilla, Gaztela eta Leon, eta EAE erkidegoek bakarrik dute 8 baino gutxiagoko tasa, aurreko urteetako joerari jarraituz. Beste muturrean daude Estatuko batez bestekoa (11,8) baino tasa altuagoa duten autonomia-erkidego hauek: Murtzia, Madril, Katalunia, Balearrak eta Aragoi.

## 3.6. GRAFIKOA. 15 urtetik 44ra bitarteko 1.000 emakumeko HBE tasak, autonomia-erkidegoen arabera. 2008




*Iturria*: Osasun eta Kontsumo Ministerioa. EIN. 2008.

## 3.42. TAULA. 15 urtetik 44ra bitarteko 1.000 emakumeko HBE tasaren bilakaera, autonomia-erkidegoen arabera. 1993-2008

| | 1993 | 1995 | 1997 | 1999 | 2001 | 2003 | 2005 | 2007 | 2008 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| GUZTIRA | 5,2 | 5,5 | 5,5 | 6,5 | 7,7 | 8,8 | 9,6 | 11,5 | 11,8 |
| Katalunia | 7,0 | 7,6 | 7,3 | 8,6 | 10,2 | 11,4 | 11,5 | 14,3 | 16,5 |
| Murtzia | 4,2 | 4,0 | 4,6 | 5,6 | 9,7 | 11,7 | 11,7 | 14,8 | 16,5 |
| Madril | 5,9 | 6,8 | 7,2 | 8,7 | 10,5 | 12,8 | 12,8 | 16,0 | 15,8 |
| Balearrak | 5,6 | 5,5 | 8,1 | 11,8 | 13,2 | 13,7 | 12,6 | 14,9 | 14,1 |
| Aragoi | 3,6 | 6,0 | 6,6 | 7,3 | 8,9 | 10,7 | 10,9 | 11,9 | 12,6 |
| Andaluzia | 3,9 | 4,6 | 4,7 | 5,5 | 6,8 | 8,3 | 10,0 | 11,2 | 11,3 |
| Valentziako Erk. | 6,3 | 5,5 | 4,8 | 6,0 | 7,5 | 8,3 | 9,1 | 10,5 | 10,7 |
| Kanariak | 6,2 | 6,6 | 5,9 | 7,2 | 7,3 | 6,3 | 7,2 | 10,7 | 10,0 |
| Errioxa | 2,6 | 3,4 | 4,6 | 6,3 | 6,4 | 8,0 | 8,2 | 8,6 | 9,2 |
| Gaztela-Mantxa | 3,1 | 3,3 | 3,7 | 4,7 | 4,5 | 5,8 | 6,7 | 8,2 | 8,5 |
| Asturias | 11,0 | 9,9 | 7,1 | 7,0 | 7,2 | 7,8 | 8,3 | 7,7 | 8,1 |
| **Euskadi** | **2,6** | **2,6** | **2,7** | **3,0** | **3,6** | **4,0** | **5,4** | **6,8** | **7,0** |
| Gaztela eta Leon | 5,7 | 5,4 | 5,3 | 5,9 | 5,5 | 5,8 | 5,9 | 6,4 | 6,8 |
| Kantabria | 5,0 | 4,2 | 3,6 | 4,0 | 4,1 | 4,3 | 4,4 | 4,6 | 6,1 |
| Extremadura | 3,5 | 3,4 | 3,3 | 3,7 | 3,6 | 3,8 | 5,3 | 5,5 | 6,1 |
| Nafarroa | 1,0 | 1,6 | 2,4 | 3,0 | 4,0 | 4,8 | 5,2 | 5,7 | 6,1 |
| Galizia | 3,5 | 4,1 | 4,2 | 3,8 | 4,2 | 4,2 | 4,4 | 4,5 | 3,5 |
| Ceuta eta Melilla | 1,6 | 1,8 | 2,6 | 3,0 | 3,2 | 3,1 | 3,3 | 3,7 | 3,2 |

*Iturria*: Osasun eta Gizarte Politikako Ministerioa. Haurdunaldiaren borondatezko etendura.

EAEn, 3.524 HBE zenbatu zituen Haurdunaldiaren Borondatezko Etenduren Erregistroak 2008an; kopuru hori aurreko urtekoaren antzekoa da. Haietatik % 18,7 beste autonomia-erkidego batzuetan bizi diren emakumeei egin zitzaizkien; gehienak erkidego mugakideetakoak ziren. EAEko 2.966 emakumek eten zuten borondatez haurdunaldia; gehienek (% 96,6), EAEko zentroetan.

### 3.43. TAULA. EAEko Erregistroan jasotako HBE kopurua eta EAEn bizi diren emakumeei egindakoak. 2008

| | KOP. | % |
|---|---|---|
| **EAEn egindako HBE kopurua** | **3.524** | **100,0** |
| EAEn bizi diren emakumeei | 2.866 | 81,3 |
| Beste autonomia-erkidego batzuetan bizi diren emakumeei | 658 | 18,7 |
| **EAEn bizi direnei egindako HBE kopurua** | **2.966** | **100,0** |
| EAEko zentroetan | 2.866 | 96,6 |
| Beste autonomia-erkidego batzuetako zentroetan | 100 | 3,4 |

*Iturria*: EAEko HBEen Erregistroko txostena. 2008

Osasun eta Kontsumo Ministerioak egindako estatistikek 2008. urtean haurdunaldia borondatez eten zuten emakumeen profilei buruzko zenbait ezaugarri biltzen dituzte. Estatuko eta autonomia-erkidegoetako datuetan, haurdunaldia borondatez eten duten emakumeek zenbat seme-alaba dituzten jaso da. Erdiek baino gehiagok bazituzten seme-alabak HBE ebakuntza egin aurretik; normalean, bat edo bi. Joera horiek antzekoak dira ia autonomia-erkidego guztietan.

### 3.44. TAULA. Borondatezko abortuak, autonomia-erkidegoaren eta egun bizirik duen seme-alaba kopuruaren arabera. 2008

| | GUZTIRA | SEME-ALABARIK EZ | BAT | BI | HIRU | LAU | BOST EDO GEHIAGO | EZ DA AGERI |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Andaluzia | 20.574 | 44,1 | 25,7 | 19,5 | 7,2 | 2,3 | 1,1 | 0,1 |
| Aragoi | 3.280 | 47,9 | 27,7 | 17,6 | 5,1 | 1,1 | 0,5 | 0,2 |
| Asturias | 1.679 | 56,1 | 24,8 | 13,8 | 3,9 | 1,0 | 0,4 | 0,0 |
| Balear Uharteak | 3.387 | 46,5 | 26,5 | 19,0 | 5,3 | 1,7 | 0,8 | 0,0 |
| Kanariak | 4.882 | 45,9 | 28,4 | 18,8 | 4,7 | 1,6 | 0,6 | 0,0 |
| Kantabria | 728 | 56,6 | 24,6 | 14,6 | 3,7 | 0,3 | 0,3 | 0,0 |
| Gaztela-Mantxa | 3.655 | 47,5 | 25,1 | 19,2 | 5,8 | 1,7 | 0,7 | 0,0 |
| Gaztela eta Leon | 3.336 | 64,4 | 19,4 | 12,1 | 3,1 | 0,7 | 0,3 | 0,0 |
| Katalunia | 25.379 | 47,2 | 26,0 | 18,6 | 5,6 | 1,7 | 0,9 | 0,0 |
| Valentziako Erk. | 11.580 | 47,1 | 26,9 | 17,6 | 5,7 | 1,9 | 0,7 | 0,1 |
| Extremadura | 1.383 | 55,3 | 20,9 | 17,1 | 4,8 | 1,5 | 0,4 | 0,0 |
| Galizia | 1.981 | 54,6 | 24,3 | 15,4 | 4,0 | 1,3 | 0,4 | 0,0 |
| Madril | 22.126 | 46,7 | 27,1 | 17,8 | 5,8 | 1,8 | 0,8 | 0,0 |
| Murtzia | 5.350 | 38,7 | 25,8 | 20,9 | 9,4 | 3,3 | 1,9 | 0,0 |
| Nafarroa | 765 | 50,7 | 25,2 | 17,1 | 4,6 | 1,8 | 0,4 | 0,1 |
| **Euskadi** | **2.996** | **51,1** | **23,8** | **17,1** | **5,3** | **1,9** | **0,7** | **0,0** |
| Errioxa | 597 | 48,9 | 27,0 | 16,8 | 5,0 | 1,2 | 1,0 | 0,2 |
| Ceuta | 15 | 46,7 | 6,7 | 33,3 | 6,7 | 6,7 | 0,0 | 0,0 |
| Melilla | 87 | 62,1 | 14,9 | 13,8 | 5,7 | 3,4 | 0,0 | 0,0 |

*Iturria*: Osasun eta Gizarte Politikako Ministerioa. Haurdunaldiaren borondatezko etendura.

EAEko Haurdunaldiaren Borondatezko Etenduren Erregistroak egindako estatistikak ere biltzen ditu seme-alaba kopuruari buruzko datuak, bai eta, horiez gainera, HBE ebakuntza egin duten EAEko emakumeen lan-egoerari eta heziketa-mailari buruzko datuak ere. Emakume horien erdiak baino gehiago besteren konturako langileak ziren, eta ia heren batek ez zuen diru-sarrera egonkor edo propiorik. Hala, % 11,1 ikasleak ziren, % 12,4 langabeak, eta % 7,1, etxekoandreak; ehuneko horiek aurreko urteetakoen antzekoak dira. Heziketa-mailari dagokionez, gehienak bigarren graduko ikasketak egiten ari ziren edo amaituta zituzten, eta bosten batek unibertsitate-mailako ikasketak zituen.

## 3.45. TAULA. Haurdunaldia borondatez eten duten EAEko emakumeen ezaugarriak, adin-taldeka. 2008

| | GUZTIRA | % | <15 | 15-19 | 20-24 | 25-29 | 30-34 | 35-39 | 40-44 | >44 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| GUZTIRA | 2.996 | | 7 | 313 | 670 | 751 | 632 | 439 | 171 | 13 |
| % | | | 0,2 | 10,5 | 22,4 | 25,1 | 21,1 | 14,7 | 5,7 | 0,4 |
| LAN-EGOERA: | | | | | | | | | | |
| Enpresaburua | 59 | 2,0 | 0 | 0 | 5 | 10 | 20 | 15 | 9 | 0 |
| Soldatako langilea | 1.940 | 64,8 | 1 | 73 | 398 | 540 | 470 | 328 | 123 | 7 |
| Pentsioduna | 5 | 0,2 | 0 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 0 | 0 |
| Ikaslea | 332 | 11,1 | 4 | 185 | 107 | 27 | 5 | 4 | 0 | 0 |
| Langabea | 373 | 12,4 | 2 | 41 | 119 | 104 | 62 | 29 | 15 | 1 |
| Etxekoandrea | 213 | 7,1 | 0 | 9 | 35 | 39 | 52 | 37 | 17 | 4 |
| Beste batzuk | 7 | 0,2 | 0 | 1 | 0 | 3 | 0 | 2 | 1 | 0 |
| Ez da ageri | 67 | 2,2 | 0 | 3 | 5 | 7 | 22 | 23 | 6 | 1 |
| HEZIKETA-MAILA: | | | | | | | | | | |
| Analfabetoa edo ikasketarik gabea | 37 | 1,2 | 0 | 5 | 8 | 14 | 2 | 6 | 2 | 0 |
| 1. gradua | 185 | 6,2 | 1 | 15 | 36 | 49 | 42 | 27 | 14 | 1 |
| 2. gradua, 1. zikloa | 830 | 27,7 | 5 | 90 | 190 | 233 | 164 | 108 | 38 | 2 |
| 2. gradua, 2. zikloa | 1.280 | 42,7 | 1 | 172 | 298 | 312 | 254 | 165 | 71 | 7 |
| Unibertsitateko diploma | 352 | 11,7 | 0 | 27 | 88 | 79 | 76 | 63 | 19 | 0 |
| Unibertsitateko lizentzia | 254 | 8,5 | 0 | 3 | 40 | 57 | 79 | 48 | 24 | 3 |
| Sailkatu gabeak | 2 | 0,1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 2 | 0 |
| Ez da ageri | 56 | 1,9 | 0 | 1 | 10 | 7 | 15 | 22 | 1 | 0 |

*Iturria*: Osasun eta Gizarte Politikako Ministerioa. Haurdunaldiaren borondatezko etendura.

HBE ebakuntza egin duten emakumeen adina faktore garrantzitsua da, emakumeen adinaren arabera tasak asko aldatzen baitira. Estatuari dagokionez, borondatezko abortuen ia erdiak 20 urtetik 29ra bitarteko emakumeei dagozkie. Adin horretatik aurrera, tasak behera egiten du, eta 44 urtetik aurrera, 1 baino txikiagoa da.

**3.46. TAULA.** Borondatezko abortuak, autonomia-erkidegoen eta adin-taldeen arabera. 2008

| | GUZTIRA | <15 | 15-19 | 20-24 | 25-29 | 30-34 | 35-39 | 40-44 | >44 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Andaluzia | 20.574 | 0,5 | 15,0 | 26,7 | 24,0 | 17,5 | 11,7 | 4,3 | 0,3 |
| Aragoi | 3.280 | 0,2 | 10,9 | 24,8 | 25,0 | 20,8 | 13,4 | 4,5 | 0,4 |
| Asturias | 1.679 | 0,2 | 10,5 | 24,6 | 25,8 | 20,3 | 12,3 | 5,9 | 0,4 |
| Balearrak | 3.387 | 0,4 | 10,8 | 22,6 | 26,3 | 21,3 | 13,5 | 4,6 | 0,6 |
| Kanariak | 4.882 | 0,7 | 13,0 | 22,2 | 23,8 | 19,2 | 14,7 | 5,7 | 0,5 |
| Kantabria | 728 | 0,1 | 11,4 | 20,6 | 25,4 | 19,9 | 15,5 | 6,7 | 0,3 |
| Gaztela eta Leon | 3.655 | 0,5 | 14,6 | 25,4 | 22,9 | 18,5 | 13,4 | 4,1 | 0,5 |
| Gaztela-Mantxa | 3.336 | 0,7 | 15,4 | 26,7 | 22,9 | 17,4 | 11,6 | 5,1 | 0,2 |
| Katalunia | 25.379 | 0,3 | 10,5 | 24,0 | 25,9 | 21,0 | 13,3 | 4,8 | 0,3 |
| Valentziako Erk. | 11.580 | 0,5 | 13,6 | 23,6 | 24,9 | 20,1 | 12,3 | 4,6 | 0,5 |
| Extremadura | 1.383 | 0,4 | 18,7 | 28,0 | 20,4 | 15,3 | 11,2 | 5,7 | 0,2 |
| Galizia | 1.981 | 0,5 | 14,5 | 24,5 | 22,3 | 18,5 | 13,8 | 5,3 | 0,7 |
| Madril | 22.126 | 0,3 | 11,0 | 24,2 | 25,7 | 20,2 | 8,9 | 4,9 | 0,3 |
| Murtzia | 5.350 | 0,6 | 11,9 | 24,4 | 27,3 | 20,4 | 11,2 | 4,0 | 0,2 |
| Nafarroa | 765 | 0,5 | 14,0 | 20,4 | 23,9 | 19,3 | 16,6 | 4,8 | 0,4 |
| **Euskadi** | **2.996** | **0,2** | **10,4** | **22,4** | **25,1** | **21,1** | **14,7** | **5,7** | **0,4** |
| Errioxa | 597 | 0,2 | 11,7 | 22,3 | 24,8 | 20,8 | 14,2 | 5,7 | 0,3 |
| Ceuta | 15 | 0,0 | 13,3 | 26,7 | 0,0 | 33,3 | 6,7 | 20,0 | 0,0 |
| Melilla | 87 | 1,1 | 18,4 | 33,3 | 25,3 | 9,2 | 4,6 | 8,0 | 0,0 |
| Atzerria | 20.574 | 0,5 | 15,0 | 26,7 | 24,0 | 17,5 | 11,7 | 4,3 | 0,3 |
| Ez da ageri | 3.280 | 0,2 | 10,9 | 24,8 | 25,0 | 20,8 | 13,4 | 4,5 | 0,4 |

*Iturria*: Osasun eta Gizarte Politikako Ministerioa. Haurdunaldiaren borondatezko etendura.

Estatuko joerarekin bat, EAEn jasotako adierazlerik altuena (12,7) 20 urtetik 24ra bitarteko emakumeei dagokie; tasa hori aurreko urtekoa baino pixka bat baxuagoa da. Adin horretatik aurrera, tasa murriztuz doa, eta 40 urte baino gehiagoko emakumeen taldean, 1,96koa da.

**3.7. GRAFIKOA.** EAEn bizi diren emakumeen HBE tasa, adin-taldeen arabera. 2008




*Iturria*: EAEko Haurdunaldiaren Borondatezko Etenduren Erregistroko txostena. 2008.

Azken urteetako joerarekin jarraituz, 2008. urtean Estatuan haurdunaldia borondatez eten zuten emakume gehienentzat (% 66,2) eta EAEn eten zuten gehienentzat (% 74,1) lehendabiziko aldia izan zen. Haurdunaldia borondatez eteteko arrazoiak ere berberak dira autonomia-erkidego guztietan, azken urteotako Estatuko joerek adierazten dutenez. Hala, 2008. urtean, EAEko kasuen % 93,8 haurdun zegoenaren osasun fisikoa edo psikikoa arriskuan zegoelako izan ziren; arrazoi berberagatik Estatuan egindakoen batez bestekoa % 97 da.

Estatuan, ebakuntza gehienak (% 62,9) haurdunaldiaren lehen zortzi asteetan egin ziren. EAEko ehunekoa ere antzekoa da: % 66,4. EAEko Haurdunaldiaren Borondatezko Etenduren Erregistroak ebakuntzan erabilitako metodoari buruzko informazioa ere ematen du. Ia kasuen erdiak (% 47,5) aspirazioaren bidez egin ziren, eta etenduren herena egiteko RU-486 metodoa erabili zen.

**3.47. TAULA.** Egindako HBE kopurua, autonomia-erkidegoaren eta aurretik borondatez egindako abortu-kopuruaren arabera. 2008

| | GUZTIRA | BAT ERE EZ | BAT | BI | HIRU | LAU | BOST EDO GEHIAGO | EZ DA AGERI |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| GUZTIRA | 115.812 | 66,2 | 23,5 | 6,7 | 2,1 | 0,7 | 0,7 | 0,1 |
| Andaluzia | 20.574 | 65,8 | 23,1 | 6,7 | 2,2 | 0,9 | 1,0 | 0,3 |
| Aragoi | 3.280 | 68,8 | 19,4 | 6,4 | 2,9 | 1,2 | 1,0 | 0,2 |
| Asturias | 1.679 | 76,1 | 18,6 | 3,9 | 0,8 | 0,5 | 0,0 | 0,0 |
| Balearrak | 3.387 | 75,6 | 17,8 | 4,3 | 1,4 | 0,5 | 0,4 | 0,0 |
| Kanariak | 4.882 | 61,5 | 26,4 | 8,7 | 2,0 | 0,8 | 0,6 | 0,0 |
| Kantabria | 728 | 76,2 | 17,6 | 4,9 | 0,7 | 0,4 | 0,1 | 0,0 |
| Gaztela eta Leon | 3.655 | 65,2 | 22,1 | 7,4 | 2,9 | 1,1 | 1,2 | 0,0 |
| Gaztela-Mantxa | 3.336 | 78,6 | 16,7 | 3,3 | 0,9 | 0,2 | 0,2 | 0,0 |
| Katalunia | 25.379 | 64,6 | 26,1 | 6,3 | 1,8 | 0,6 | 0,6 | 0,0 |
| Valentziako Erk. | 11.580 | 70,5 | 21,1 | 5,6 | 1,5 | 0,6 | 0,5 | 0,2 |
| Extremadura | 1.383 | 74,3 | 19,7 | 3,7 | 1,0 | 0,9 | 0,5 | 0,0 |
| Galizia | 1.981 | 74,6 | 19,8 | 4,0 | 1,0 | 0,4 | 0,2 | 0,0 |
| Madril | 22.126 | 60,1 | 26,1 | 8,9 | 3,0 | 1,0 | 0,9 | 0,0 |
| Murtzia | 5.350 | 62,6 | 24,6 | 8,7 | 2,7 | 0,7 | 0,8 | 0,0 |
| Nafarroa | 765 | 74,5 | 18,6 | 5,1 | 0,9 | 0,8 | 0,1 | 0,0 |
| **Euskadi** | **2.996** | **74,1** | **18,9** | **5,0** | **1,4** | **0,2** | **0,3** | **0,1** |
| Errioxa | 597 | 73,5 | 16,9 | 7,0 | 1,5 | 0,8 | 0,2 | 0,0 |
| Ceuta | 15 | 73,3 | 26,7 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| Melilla | 87 | 75,9 | 23,0 | 1,1 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |

*Iturria*: Osasun eta Gizarte Politikako Ministerioa. Haurdunaldiaren borondatezko etendura.

## 3.48. TAULA. Borondatezko abortuak, autonomia-erkidegoaren eta etenduraren zergatiaren arabera. 2008

| | GUZTIRA | AMAREN OSASUNA ARRISKUAN | FETUAREN OSASUNA ARRISKUAN | BORTXAKETA | ASKOTARIKO ARRAZOIAK |
|---|---|---|---|---|---|
| GUZTIRA | 115.812 | 97,0 | 2,9 | 0,0 | 0,2 |
| Andaluzia | 20.574 | 96,9 | 3,1 | 0,1 | 0,0 |
| Aragoi | 3.280 | 96,7 | 3,1 | 0,0 | 0,2 |
| Asturias | 1.679 | 96,1 | 3,8 | 0,1 | 0,0 |
| Balear Uharteak | 3.387 | 96,9 | 3,0 | 0,1 | 0,0 |
| Kanariak | 4.882 | 96,0 | 3,9 | 0,1 | 0,0 |
| Kantabria | 728 | 91,9 | 8,0 | 0,1 | 0,0 |
| Gaztela-Mantxa | 3.655 | 68,5 | 3,8 | 0,0 | 0,3 |
| Gaztela eta Leon | 3.336 | 95,4 | 2,3 | 0,0 | 2,3 |
| Katalunia | 25.379 | 97,5 | 2,5 | 0,0 | 0,1 |
| Valentziako Erk. | 11.580 | 96,6 | 3,4 | 0,1 | 0,0 |
| Extremadura | 1.383 | 93,9 | 5,6 | 0,0 | 0,5 |
| Galizia | 1.981 | 96,5 | 3,4 | 0,1 | 0,0 |
| Madril | 22.126 | 98,0 | 1,8 | 0,0 | 0,2 |
| Murtzia | 5.350 | 97,6 | 2,4 | 0,0 | 0,0 |
| Nafarroa | 765 | 94,4 | 5,4 | 0,0 | 0,3 |
| **Euskadi** | **2.996** | **93,8** | **6,2** | **0,0** | **0,1** |
| Errioxa | 597 | 96,1 | 3,9 | 0,0 | 0,0 |
| Ceuta | 15 | 86,7 | 13,3 | 0,0 | 0,0 |
| Melilla | 87 | 96,6 | 3,4 | 0,0 | 0,0 |

*Iturria*: Osasun eta Gizarte Politikako Ministerioa. Haurdunaldiaren borondatezko etendura.

## 3.49. TAULA. Borondatezko abortuak, autonomia-erkidegoaren eta haurdunaldiaren aste-kopuruaren arabera. 2008

| | GUZTIRA | <= 8 | 9-12 ASTE | 13-16 ASTE | 17-20 ASTE | >=21 | EZ DA AGERI |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| GUZTIRA | 115.812 | 62,9 | 25,8 | 6,1 | 3,5 | 1,7 | 0,0 |
| Andaluzia | 20.574 | 67,9 | 22,2 | 5,4 | 2,8 | 1,6 | 0,0 |
| Aragoi | 3.280 | 53,5 | 33,2 | 7,8 | 3,8 | 1,6 | 0,0 |
| Asturias | 1.679 | 65,3 | 23,1 | 7,4 | 2,8 | 1,3 | 0,0 |
| Balear Uharteak | 3.387 | 64,4 | 27,3 | 4,1 | 2,9 | 1,3 | 0,0 |
| Kanariak | 4.882 | 66,7 | 25,2 | 4,3 | 2,6 | 1,2 | 0,1 |
| Kantabria | 728 | 61,3 | 26,6 | 5,4 | 5,1 | 1,6 | 0,0 |
| Gaztela-Mantxa | 3.655 | 63,0 | 24,2 | 7,3 | 3,3 | 2,3 | 0,0 |
| Gaztela eta Leon | 3.336 | 64,8 | 22,6 | 5,7 | 4,4 | 2,6 | 0,0 |
| Katalunia | 25.379 | 64,1 | 27,2 | 4,8 | 2,6 | 1,2 | 0,0 |
| Valentziako Erk. | 11.580 | 68,4 | 22,8 | 4,8 | 2,6 | 1,4 | 0,1 |
| Extremadura | 1.383 | 63,3 | 22,7 | 7,5 | 3,9 | 2,6 | 0,0 |
| Galizia | 1.981 | 57,8 | 27,8 | 7,8 | 4,4 | 2,2 | 0,1 |
| Madril | 22.126 | 58,5 | 28,2 | 8,1 | 3,7 | 1,4 | 0,1 |
| Murtzia | 5.350 | 63,0 | 31,1 | 3,0 | 1,8 | 1,1 | 0,0 |
| Nafarroa | 765 | 58,6 | 26,4 | 6,9 | 5,5 | 2,6 | 0,0 |
| **Euskadi** | **2.996** | **66,4** | **25,3** | **2,3** | **3,7** | **2,3** | **0,0** |
| Errioxa | 597 | 55,4 | 32,5 | 7,2 | 3,7 | 1,2 | 0,0 |
| Ceuta | 15 | 60,0 | 20,0 | 13,3 | 6,7 | 0,0 | 0,0 |
| Melilla | 87 | 67,8 | 21,8 | 4,6 | 3,4 | 2,3 | 0,0 |

*Iturria*: Osasun eta Gizarte Politikako Ministerioa. Haurdunaldiaren borondatezko etendura.

## 3.50. TAULA. HBE ebakuntza egin duten EAEko emakumeei buruzko datuak. 2008

| | EMAKUMEAK | % B |
|---|---|---|
| **Aurretik egindako HBE kopurua:** | | |
| Bat ere ez | 2.220 | 74,1 |
| Bat | 565 | 18,9 |
| Bi | 149 | 5,0 |
| Hiru edo gehiago | 62 | 1,9 |
| **Haurdunaldi-asteak:** | | |
| <=8 | 1.988 | 66,4 |
| 9-12 | 759 | 25,3 |
| 13-16 | 69 | 2,3 |
| 17-20 | 112 | 3,7 |
| >=21 | 68 | 2,3 |
| **Etetearen zergatia:** | | |
| Amaren osasuna arriskuan | 2.807 | 93,7 |
| Fetuaren osasuna arriskuan | 187 | 6,2 |
| Amaren osasuna eta fetuaren osasuna arriskuan | 2 | 0,1 |
| **Ebakuntza-teknika:** | | |
| Aspirazioa | 1.424 | 47,5 |
| Dilatazioa | 84 | 2,8 |
| Legradoa | 412 | 13,8 |
| Ru-486 | 1.009 | 33,7 |
| Zain barneko injekzioa | 11 | 0,4 |
| Umetoki barneko injekzioa | 56 | 1,8 |
| Beste batzuk | 2.220 | 74,1 |

*Iturria*: EAEko HBEen Erregistroko txostena. 2008.

Aipatzekoa da, gainera, HBE ebakuntza egina duten emakumeen erdiek baino gehiagok ez zutela aldez aurretik osasun-zentro edo –zerbitzuren batera jo, metodo antikontzeptiboak erabiltzeko edo kontrolatzeko: nerabeen kasuan, % 86 izan ziren; ehuneko hori aurreko urteetan izandakoaren antzekoa da; ehuneko txikiena, berriz, 40 urtetik 44ra bitarteko emakumeen taldekoa da (% 56,7).

## 3.8. GRAFIKOA. HBE ebakuntza egina duten eta metodo antikontzeptiboak era biltzeko aurretik osasun-zentroren batean izan gabeko emakumeen ehunekoak, adin-taldeen arabera. EAE, 2008




*Iturria*: EAEko Haurdunaldiaren Borondatezko Etenduren Erregistroko txostena. 2008.

Haurdunaldia borondatez eten duten umeei eta nerabeei buruzko datuak ere biltzen dira estatistiketan. Estatuan zein EAEn, 19 urtetik beherako emakumeei egindako HBEek gora egin dute azken urteetan. Datuak bildu ziren azken urtean, 2007an, 15 urte baino gutxiago zituzten 475 gazteri egin zitzaien HBE ebakuntza Estatuan; haietatik 7ri, EAEn. Haurdunaldia eteteko ebakuntza egin zaien 15 urtetik 19ra bitarteko gazteen kopurua, ordea, askoz ere handiagoa da: 14.940 Estatuan eta 320 EAEn; zifra horiek 2002 urtekoak baino altuagoak dira.

**3.51. TAULA.** HBEen bilakaera, nerabeetan (15-19 urte) eta 15 urte baino gutxiagoko nesketan, EAEn eta Estatuan. 1997-2007

| | 1997 | 2002 | 2007 |
|---|---|---|---|
| **15 urte baino gutxiagokoei egindako HBE kopurua** | | | |
| Estatua | 115 | 274 | 475 |
| EAE | 1 | 1 | 7 |
| **Nerabeei (15-19 urte) egindako HBE kopurua** | | | |
| Estatua | 7.074 | 10.385 | 14.940 |
| EAE | 169 | 167 | 320 |

*Iturria*: Geuk moldatua, Emakumearen Erakundeak emandako datuetan oinarrituta.

**3.9. GRAFIKOA.** 19 urte baino gutxiagoko emakumeei egindako HBEen bilakaera EAEn. 1997-2008




*Iturria*: Geuk moldatua, Emakumearen Erakundeak emandako datuetan oinarrituta.

EAEko HBEei buruzko datuak gainerako autonomia-erkidegoetako datu absolutuekin aldera daitezke. Konparaketa zuhurtzia osoz egin behar da, ordea, emaitzetan ez baita kontuan hartzen autonomia-erkidego bakoitzeko biztanle-kopurua, ez eta biztanleria bakoitzean dagoen nerabeen ehunekoa ere. 2008an, Andaluzian egin ziren HBE gehien 15 urte baino gutxiagoko adingabeen taldean, Estatu osoan egindako guztien bosten bat baino pixka bat gehiago. 15 urtetik 19ra bitarteko gazteei egindako HBE ebakuntzei dagokienez, erdiak baino gehiago Andaluzian, Katalunian eta Madrilen egin ziren, eta gutxixeago, Valentziako Erkidegoan.

**3.52. TAULA.** Nerabeei (15-19 urte) eta 15 urte baino gutxiagokoei egindako HBEak, autonomia-erkidegoka. 2007

| | HBEak 15 URTE BAINO GUTXIAGO | HBEaK NERABEAK |
|---|---|---|
| GUZTIRA | 475 | 14.940 |
| Andaluzia | 104 | 3.198 |
| Aragoi | 7 | 364 |
| Asturias | 4 | 181 |
| Balearrak | 12 | 377 |
| Kanariak | 35 | 672 |
| Kantabria | 1 | 84 |
| Gaztela-Mantxa | 19 | 551 |
| Gaztela eta Leon | 22 | 537 |
| Katalunia | 67 | 2.730 |
| Valentziako Erk. | 53 | 1.625 |
| Extremadura | 6 | 265 |
| Galizia | 9 | 296 |
| Madril | 67 | 2.497 |
| Murtzia | 30 | 669 |
| Nafarroa | 4 | 111 |
| **EAE** | **7** | **320** |
| Errioxa | 1 | 71 |
| Ceuta | 0 | 2 |
| Melilla | 1 | 17 |
| Atzerria | 25 | 371 |
| Ez da ageri | 1 | 2 |

*Iturria*: Emakumearen Erakundea

## GIZARTE-ZERBITZUAK 3.3

Gizarte-zerbitzuak funtsezkoak izan dira berdintasunaren aldeko borrokan, hasierako politiketan; hain zuzen, indarkeriaren mehatxupean dauden emakumeei zein genero-indarkeria jasan dutenei babesa emateko. Gaur egun ere, gizarte-zerbitzuak funtsezko elementuak dira pobreziaren feminizazioari aurre egiteko; batetik, mendetasun-egoeran dauden pertsonen zaintzan laguntzeko, gehienbat emakumeek hartzen baitute beren gain zeregin hori; eta bestetik, indarkeriaren biktimak artatzeko.

Pobreziari eta gizarte-desberdintasunei buruzko Eusko Jaurlaritzaren 2008ko Inkestaren txostenean, pobrezia prebenitzeko eta pobrezia-arriskuak amaiarazteko gizarte-transferentziek zenbaterainoko eragina duten jaso da. Taulan, pobreziaren eragina adierazi da, aintzat hartuta zer-nolako diru-sarrera motak dituzten. Hala, kontuan hartuta hasierako errenta -hau da, norberaren sarrerak soilik-, pobrezia-egoeraren eragina oso handia da: emakumeak buru dituzten etxeen % 45,9 pobrezia-egoeran egongo litzateke, eta % 55,5ek ongizate-gabeziaren arriskua izango luke, bestelako sarrerarik jaso ezean. Pobrezia-arriskuak behera egiten du, ordea, norberaren diru-sarrerez gain prestazio hauek ere aintzat hartzen direnean: erretiro-pentsioa, alargun-pentsioa, umezurtz-pentsioa, familiartekoen aldeko pentsioa, eta, 65 urtetik gorako pertsonen kasuan, baliaezintasun-pentsioa. Horri esker, emakumeak buru dituzten etxeetako pobrezia-arriskua % 16ra murrizten da, eta gizonak buru dituzten etxeetakoa, % 7ra. Azkenik, transferentzien eragina osoki aztertzen da, ez

baitira aintzat hartzen tarteko errentaren sarrerak soilik; aitzitik, kontuan hartzen dira, halaber, beste transferentzia pribatu edo publiko batzuk; esaterako, oinarrizko errenta eta gizarte-larrialdietarako laguntzak. Horrela, emakumeak buru dituzten etxeetako pobrezia-arriskua % 8ra murrizten da.

Emakumeak buru dituzten etxeetan, pobrezia-arriskua edo ongizate-gabeziaren arriskua gainditzeko, transferentziekiko mendekotasuna handiagoa da gizonak buru dituztenetan baino. Hala ere, gizonen kasuan, erretiroagatiko eta bizi-iraupenerako transferentzien eragina handiagoa da. Horrela, bada, gizonak buru dituzten etxeetako pobrezia-arriskuaren ehunekoak puntu bat gehiago egiten du behera, emakumeak buru dituzten etxeetakoak baino, eta ongizate-gabeziaren arriskua % 6,3 murrizten da. Hori bera gertatzen da beste transferentzia batzuekin. Hortaz, prestazioen sistema publikoa ez da egokia emakumeek lan-munduan duten egoerak sortutako desorekak arintzeko.

### 3.53. TAULA. Pobrezia-arriskua edo ongizate-gabeziaren arriskua duten etxeen ehunekoa, etxeko buruaren errentaren eta sexuaren arabera. 2008

| | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|
| | POBREZIA | ONGIZATE-GABEZIA | POBREZIA | ONGIZATE-GABEZIA |
| Hasierako errenta | 45,9 | 55,5 | 20,7 | 33,4 |
| Tarteko errenta | 16,1 | 33,1 | 7,0 | 17,8 |
| Azken errenta | 8,2 | 28,1 | 3,3 | 12,0 |
| **Arrisku-tasaren beherakada** | | | | |
| Erretiroa eta bizi-iraupena | 65,0 | 40,3 | 66,0 | 46,6 |
| Beste transferentzia batzuk | 17,1 | 9,1 | 17,9 | 17,5 |
| GUZTIRA | 88,9 | 49,1 | 83,9 | 64,1 |

*Iturria*: Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila: Pobreziari eta gizarte-desberdintasunei buruzko inkesta.

2007an, gizarte-zerbitzuetarako 2.783 zentro zeuden Euskal Autonomia Erkidegoan, eta haietako % 61 pribatua zen. Pribatizazio-maila handiena enplegu-zentro berezietan (% 88) eta egoitzetan (% 63,9) dago.

### 3.54. TAULA. Zentroak zentro-motaren eta titulartasunaren arabera. 2007

| | GUZTIRA | PUBLIKOA | | PRIBATUA | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| GUZTIRA | 2.783 | 1.084 | 39,0 | 1.699 | 61,0 |
| Elkarteak | 429 | 0 | 0,0 | 429 | 100,0 |
| Zerbitzu tekniko orokorrak | 396 | 370 | 93,4 | 26 | 6,6 |
| Orientazio-zentroak | 3 | 3 | 100,0 | 0 | 0,0 |
| Eguneko zentroak | 655 | 348 | 53,1 | 307 | 46,9 |
| Egoitzak | 897 | 324 | 36,1 | 573 | 63,9 |
| Zentro okupazionalak – Enplegu-zentro bereziak | 183 | 22 | 12,0 | 161 | 88,0 |
| Beste batzuk | 220 | 17 | 7,7 | 203 | 92,3 |

*Iturria*: Eustat. Gizarte-zerbitzuak.

Egoitzek gizarte-zerbitzuen arloko hainbat beharrizan konpontzeko xedea dute. Herri-administrazioek bost taldetan banatzen dituzte zerbitzu horien erabiltzaileak: haur eta gazteak, indarkeriaren biktima diren emakumeak, adineko pertsonak, ezintasunak dituzten pertsonak eta gizarte-bazterketa bizi duten pertsonak. Zenbatutako 897 zentroetatik 55 erabiltzen dira genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen arretarako, baina zerbitzu-zentro gehienak adineko pertsonentzat dira eta, ondoren, gizarte-bazterketa bizi duten pertsonentzat.

Emakumeentzako zentroek 157 erabiltzaile izan zituzten 2007an, eta 3.041.000 euroko finantziazioa jaso zuten; ia dena, erakunde publikoetatik. Zetro-mota horiek dira, hain zuzen, baliabide publiko gutxien jasotzen dutenak.

### 3.55. TAULA. Egoitzak: zentroak, tokiak, erabiltzaileak, langileak eta gastua, biztanleria-motaren arabera. 2007

| | GUZTIRA | HAUR ETA GAZTEAK | EMAKUMEAK | ADINEKO PERTSONAK | EZINTASUNAK DITUZTEN PERTSONAK | GIZARTE-BAZTERKETA BIZI DUTENAK |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Zentroak | 897 | 98 | 55 | 406 | 138 | 200 |
| Tokiak | 23.563 | 1.153 | 323 | 18.051 | 2.055 | 1.981 |
| Erabiltzaileak | 20.588 | 1.003 | 157 | 15.889 | 1.897 | 1.642 |
| Langileak guztira | 10.396 | 557 | 58 | 7.860 | 1.437 | 484 |
| Gastuak guztira (milaka eurotan) | 559.264 | 46.093 | 3041 | 424.471 | 66.896 | 18.762 |
| Gastu arruntak | 525.530 | 45.487 | 2886 | 393.712 | 65.189 | 18.256 |
| Kapital-gastuak | 33.734 | 607 | 155 | 30.759 | 1.707 | 506 |
| Finantziazioa guztira | 559.264 | 46.093 | 3041 | 424.471 | 66.896 | 18.762 |
| Finantziazio publikoa | 345.023 | 45.604 | 2784 | 219.058 | 60.311 | 17.266 |
| Finantziazio pribatua | 214.241 | 490 | 257 | 205.413 | 6.586 | 1.496 |

*Iturria*: Eustat. Gizarte-zerbitzuak.

Zerbitzu horren erabiltzailea/gastua ratioa kontuan hartuz gero, hori baino ratio baxuagoa duen zerbitzu bakarra gizarte-bazterketarakoa da: zehazki, 10.575 euro pertsonako. Arriskuan dauden emakumeetako bakoitzari bideratzen zaion gastua 17.751 eurokoa da, beste hauei bideratzen zaiena baino gutxiago: adineko pertsonei (ia 25.000 euro pertsonako), ezintasunak dituzten pertsonei (34.660 euro pertsonako), eta haur eta gazteei (46.832 euro pertsonako). Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen arretarako zerbitzuan lan egiten duten pertsonen batez besteko ordainsaria beste zerbitzuetako langileena baino txikiagoa da.

### 3.56. TAULA. Egoitzak: biztanleria-motaren araberako adierazleak, eurotan. 2007

| | GUZTIRA | HAUR ETA GAZTEAK | EMAKUMEAK | ADINEKO PERTSONAK | EZINTASUNAK DITUZTEN PERTSONAK | GIZARTE-BAZTERKETA BIZI DUTENAK |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Gastu arrunta erabiltzaileko | 25.818 | 46.832 | 17.751 | 24.929 | 34.660 | 11.868 |
| Gastu arrunta tokiko | 23.216 | 41.011 | 10.650 | 22.549 | 32.871 | 10.086 |
| Batez besteko ordainsaria langileko (lanaldi osoaren baliokidea) | 30.624 | 43.672 | 22.924 | 28.595 | 40.002 | 26.797 |
| Batez besteko kuota erabiltzaileko | 10.313 | 904 | 4.449 | 11.336 | 4.402 | 1.755 |
| Batez besteko kuota tokiko | 9.343 | 904 | 2.966 | 10.252 | 4.190 | 1.449 |

*Iturria*: Eustat. Gizarte-zerbitzuak.

# 4

# EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ETA BALIO-ALDAKETA: PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA ETA ERAGINA

2008an, Euskal Herriko Unibertsitateko Genero Azterlanen Taldeak egindako txostena argitaratu zuen Emakundek: *Emakumeen eta gizonen presentzia Euskadiko erabaki-guneetan*. Txosten horretan, emakumeen eta gizonen presentzia zenbatekoa den adierazten da, bai botere betearazlean, legegilean eta judizialean, bai beste esparru batzuetan: alderdi politikoetan, enpresetan, lan-munduan eta sindikatuetan. Datu horiek agerian jartzen dute esparru batzuetan emakumeek gizonek baino presentzia gutxiago dutela, eta beste batzuetan haien hutsunea oso nabarmena dela, hurrengo atalean ikus daitekeenez.

## PARTE-HARTZEA ERAKUNDEETAN 4.1

Emakumeen presentzia Eusko Legebiltzarrean etengabe haziz joan zen 2009ra arte, eta urte horretan murriztu egin zen. Alde horretatik, 2005. urtea oso garrantzitsua izan zen: izan ere, lehenengoz, emakumezko gehiagok jaso zuen legebiltzarkide-akta gizonezkok baino. Gorakada hori lotuta dago, zalantzarik gabe, 2005eko martxoan lege hau onartu izanarekin: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Otsailaren 18ko 4/2005 Legea.

**4.1. TAULA.** Emakumeen eta gizonen presentziaren bilakaera Eusko Legebiltzarrean, legealdien arabera (1980-2008)

| LEGEALDIA | I | II | III | IV | V | VI | VII | VIII | IX |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1980 | 1984 | 1986 | 1990 | 1994 | 1998 | 2001 | 2005 | 2009 |
| Emakumeak (%) | 6,7 | 10,7 | 13,3 | 20,0 | 24,0 | 29,3 | 37,3 | 53,3 | 45,3 |
| Gizonak (%) | 93,3 | 89,3 | 86,7 | 80,0 | 76,0 | 70,7 | 62,7 | 46,7 | 54,7 |

*Iturria*: Guk egina, lan hauek oinarri hartuta: Elizondo, Arantxa (1999): *La presencia de las mujeres en los partidos políticos de la Comunidad Autónoma de Euskadi*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, eta Martínez Hdez, Eva eta Elizondo Lopetegi, Arantxa (2005): "Luces y sombras del papel político de las mujeres en la Comunidad Autónoma del País Vasco", in *VII Congreso Español de Ciencia Política y de la Administración*: Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saila. Hauteskunde eta Dokumentazio Zuzendaritza.

Legebiltzar-talde guztien artean, gizon baino emakume gehiago duen bakarra Euzko Alderdi Jeltzalea da: % 53 dira emakumeak; izan ere, dagozkion 30 aulkietatik 16 emakumeek dituzte. Sozialisten taldean, % 48 dira emakumezko legebiltzarkideak. Talde mistoa osatzen duten alderdi politikoek ordezkari bakarra dute, eta gizonezkoa da. Bestalde, ez PPk ez Aralarrek ez dute parekotasun-printzipioa betetzen beren taldeen osaeran.

## 4.2. TAULA. Legebiltzarkideak, alderdi politikoaren eta sexuaren arabera

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| GUZTIRA | 75 | 34 | 45,3 | 41 | 54,7 |
| EAJ/PNV | 30 | 16 | 53,3 | 14 | 46,7 |
| PSE-EE/PSOE | 25 | 12 | 48,0 | 13 | 52,0 |
| PP | 13 | 5 | 38,5 | 8 | 61,5 |
| Aralar | 4 | 1 | 25,0 | 3 | 75,0 |
| EA | 1 | 0 | 0,0 | 1 | 100,0 |
| EB-B | 1 | 0 | 0,0 | 1 | 100,0 |
| UPD | 1 | 0 | 0,0 | 1 | 100,0 |

*Iturria*: Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saila. Hauteskunde eta Dokumentazio Zuzendaritza.

Batzar Nagusietan ere, emakumeen presentzia handituz joan da etengabe, Bizkaian izan ezik; azken horretan, emakumeen presentziak behera egin du azken hauteskundeetan. Gainerakoetan, nabarmena izan da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Otsailaren 18ko 4/2005 Legearen eragina; hain zuzen, hiru lurralde historikoetan, emakumeen presentzia % 40 inguruan egonkortu da.

## 4.3. TAULA. Emakumeen presentziaren bilakaera, hiru lurralde historikoetako Batzar Nagusietan (ehunekoak). 1979-2007

| | 1979 | 1983 | 1987 | 1991 | 1995 | 1999 | 2003 | 2007 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | % | % | % | % | % | % | % | % |
| Araba | 10,5 | 1,9 | 13,7 | 15,7 | 13,7 | 15,1 | 25,5 | 45,1 |
| Bizkaia | 4,4 | 7,8 | 7,8 | 13,7 | 21,6 | 33,3 | 41,2 | 37,1 |
| Gipuzkoa | 4,9 | 3,9 | 3,9 | 9,8 | 15,7 | 29,4 | 25,5 | 41,2 |
| **GUZTIRA** | **6,1** | **4,6** | **4,6** | **13,1** | **17,0** | **26,5** | **30,1** | **41,2** |

*Iturria*: Emakunde. *Emakume eta gizonen presentzia erabaki-guneetan*. 2008.

Era berean, emakumeek 1979an baino presentzia handiagoa dute gaur egun euskal udaletan. Hain zuzen ere, 1979an emakumezko zinegotziak 170 ziren, eta 2007ko hauteskundeen ostean, 906; hau da, zinegotzi guztien % 35.

## 4.4. TAULA. EAEko udaletako emakumezko zinegotzi-kopuruaren bilakaera. Kopuru absolutuak eta ehunekoak. 1979-2007

| | 1979 | 1983 | 1987 | 1991 | 1995 | 1999 | 2003 | 2007 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| GUZTIRA | 2.428 | 2.452 | 2.505 | 2.539 | 2.262 | 2.540 | 2.511 | 2587 |
| Emakume kop. | 170 | 201 | 295 | 407 | 512 | 690 | 713 | 906 |
| Emakumeen % | 7,0 | 8,2 | 11,8 | 16,0 | 22,6 | 27,2 | 28,4 | 35,0 |

*Iturria*: Emakunde. *Emakume eta gizonen presentzia erabaki-guneetan*. 2008.

Gaur egun, Eusko Jaurlaritzak 10 sail ditu, eta haietako 5etan, emakumeak dira buru. Lehendakaritza Sailean, lehendakaria da buru. Web-orrietan argitaratutako organigramako datuen arabera, Eusko Jaurlaritzak 35 sailburuordetza eta idazkaritza nagusi ditu, eta haietako % 34,3an soilik dira emakumeak buru.

### 4.5. TAULA. Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunak, sexuaren arabera

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| Sailak | 10 | 5 | 50,0 | 5 | 50,0 |
| Sailburuordetzak/Idazkaritza Nagusiak | 35 | 12 | 34,3 | 23 | 6,7 |

*Iturria*: Guk egina, www.euskadi.net oinarri hartuta (kontsulta: 2010eko iraila).

Eusko Jaurlaritzaren sail gehienetan parekotasun-printzipioa betetzen da emakumeen eta gizonen presentziari dagokionez, bai sailburuordetzatan bai idazkaritza nagusietan. Edonola ere, bi sailetan gizonezkoen presentzia emakumezkoena baino askoz handiagoa da halako karguetan: Lehendakaritza Sailean 5etik 4 gizonezkoak dira, eta Herrizaingo Sailean ez dago emakumezko sailburuorderik. Ezein sailetan ez da handiagoa emakumezko sailburuordeen kopurua gizonezkoena baino.

### 4.6. TAULA. Eusko Jaurlaritzako sailburuordetza eta idazkaritza nagusien osaera, sexuaren arabera. 2010

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| Lehendakaritza | 5 | 1 | 20,0 | 4 | 80,0 |
| Herrizaingo Saila | 3 | 0 | 0,0 | 3 | 100,0 |
| Hezkuntza | 4 | 2 | 50,0 | 2 | 50,0 |
| Ekonomia eta Ogasuna | 2 | 1 | 50,0 | 1 | 50,0 |
| Justizia eta Herri-administrazioa | 4 | 2 | 50,0 | 2 | 50,0 |
| Etxebizitza, Herri-lanak eta Garraioa | 2 | 1 | 50,0 | 1 | 50,0 |
| Industria, Merkataritza eta Turismoa | 4 | 1 | 25,0 | 3 | 75,0 |
| Enplegua eta Gizarte Gaiak | 3 | 1 | 33,3 | 2 | 66,7 |
| Osasuna eta Kontsumoa | 2 | 1 | 50,0 | 1 | 50,0 |
| Ingurumena, Lurralde-antolamendua, Nekazaritza eta Arrantza | 4 | 1 | 25,0 | 3 | 75,0 |
| Kultura | 2 | 1 | 50,0 | 1 | 50,0 |
| **GUZTIRA** | **35** | **12** | **34,3** | **23** | **65,7** |

*Iturria*: Guk egina, www.euskadi.net oinarri hartuta (kontsulta: 2010eko iraila)

Foru aldundien osaera parekotasunezkoa da lurralde historiko guztietan, gobernuko kideen artean Ahaldun Nagusia aintzat hartu gabe. Hala, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundietan, gobernuko 10 sailetatik 4tan emakumeak dira buru. Arabako Foru Aldundian

ere hori bera gertatzen zen 2010era arte; urte horretan, sailak birmoldatu dira, eta horren ondoren, 9 sailetatik 5etan gizonezkoak dira buru.

### 4.7. TAULA. Foru aldundien osaera, sexuaren arabera. 2010

| | AHALDUN NAGUSIA | | FORU-DIPUTATUAK | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | E | G | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
| | ABS. | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| Araba | 0 | 1 | 4 | 44,4 | 5 | 55,6 |
| Bizkaia | 0 | 1 | 4 | 40,0 | 6 | 60,0 |
| Gipuzkoa | 0 | 1 | 4 | 40,0 | 6 | 60,0 |

*Iturria*: Foru Aldundien web-orriak eta Bizkaiko Aldizkari Ofiziala. (Kontsultaren data: 2010eko iraila)

Gobernu-mailan behera egin ahala, emakumezko ordezkarien kopurua murriztu egiten da. Eudelek argitaratutako 2007ko hauteskundeen osteko datuen arabera, udalen ia % 20 emakumeek gobernatzen dute. Hiru lurralde historikoetako ezein hiriburuk ez du emakumezko alkaterik; hori dela eta, emakumezko alkateek gobernatutako biztanleriaren ehunekoa 11,5 soilik da.

### 4.8. TAULA. Emakumezko alkateak dituzten udalak eta biztanleak. 2007

| | UDALAK | | BIZTANLEAK | |
|---|---|---|---|---|
| | ABS. | % | ABS. | % |
| EAE | 50 | 19,9 | 244.593 | 11,5 |
| Araba | 10 | 19,6 | 9.659 | 19,6 |
| Bizkaia | 18 | 20,0 | 88.590 | 7,8 |
| Gipuzkoa | 22 | 21,3 | 146.344 | 21,3 |

*Iturria*: Geuk moldatua, EUDELen datuetan oinarrituta.

## PARTE-HARTZEA BESTE ERABAKI-ORGANO BATZUETAN

# 4.2

Parte-hartzeko modu bakarra ez da alderdi politikoen bidez erakundeetan aritzea; aitzitik, badira parte-hartzeko beste bide batzuk, bai politikaren arloko erabaki-organoetan, bai ekonomiaren arlokoetan. Alde horretatik, bereziki garrantzitsuak dira sindikatuak, finantza-erakundeak eta enpresak. Gaur egun, sindikatu-hauteskundeetan ordezkaritza duen euskal sindikatu bakarrak du emakumezko bat Idazkaritza Nagusian: LABek. Batzorde eragileen edo lantaldeen gainerako osaeran ere ez da parekotasun-printzipioa betetzen. Kontuan izan behar da idazkari nagusia ez dela batzorde eragileetako kidetzat zenbatzen eta horrek eragina duela emakumeen presentzia eskasagoan. Nolanahi ere, sindikatu guztien artean, LABek soilik du gizon baino emakume gehiago batzorde eragilean.

**4.9. TAULA.** Sindikatu nagusien idazkaritza nagusi eta batzorde eragileen osaera, sexuaren arabera. 2010

| | IDAZKARI NAGUSIA | | BATZORDE ERAGILEA | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | EMAKUMEAK | GIZONAK | EMAKUMEAK | | GIZONAK | | GUZTIRA |
| | ABS. | ABS. | ABS. | % | ABS. | % | ABS. |
| ELA | 0 | 1 | 4 | 36,4 | 7 | 63,6 | 11 |
| LAB | 1 | 0 | 6 | 60,0 | 5 | 50,0 | 10 |
| UGT | 0 | 1 | 3 | 37,5 | 5 | 62,5 | 8 |
| CCOO | 0 | 1 | 7 | 30,4 | 16 | 69,6 | 23 |

*Iturria*: Mezu eta telefono bidezko harremanak eta sindikatuen web-orriak
<http://www.ccoo-euskadi.net/; http://www.ela-sindikatua.org/;
http://www.ugt.es/ejecutivas/uniones/ceeuskadi.htm; http://www.labsindikatua.org/>
(Kontsultaren data: 2010eko iraila)

*Oharra*: Hautatutako sindikatuak sindikatu-hauteskundeetan ordezkari gehien lortu dutenak dira, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak jasotako eta Eustatek argitaratutako emaitzen arabera.

Finantza-erakundeetan, erabaki-guneak ia erabat daude gizonezkoen esku. Hala, Euskadiko finantza-erakunde nagusiek gizonezko presidenteak dituzte. Era berean, zuzendaritza-batzordeetan ere oso emakume gutxi dago. BBK erakundeak du emakume gehien zuzendaritzan, baina hala ere ez du parekotasun-printzipioa betetzen. Beste muturrean daude BBVA, Ipar Kutxa eta Banco Guipuzcoano: erakunde horietan, ez dago emakumerik zuzendaritza-organoetan, edo bakarra dago.

## 4.10. TAULA. EAEn egoitza duten finantza-erakundeen presidenteak eta zuzendaritza-batzordeak. 2010

| | PRESIDENTEA | | ADMINISTRAZIO KONTSEILUA/ ZUZENDARITZA NAGUSIA | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | GIZONAK | EMAKUMEAK | EMAKUMEAK | | GIZONAK | | GUZTIRA |
| | ABS. | ABS. | ABS. | % | ABS. | % | ABS. |
| KUTXA | 1 | 0 | 3 | 21,4 | 11 | 78,6 | 14 |
| BBK | 1 | 0 | 6 | 37,5 | 10 | 62,5 | 16 |
| Vital Kutxa | 1 | 0 | 3 | 18,8 | 13 | 81,3 | 16 |
| Euskadiko Kutxa | 1 | 0 | 3 | 25,0 | 9 | 75,0 | 12 |
| Ipar Kutxa | 1 | 0 | 1 | 8,3 | 11 | 91,7 | 12 |
| BBVA | 1 | 0 | 0 | 0,0 | 15 | 100,0 | 15 |
| Banco Guipuzcoano | 1 | 0 | 1 | 11,1 | 8 | 88,9 | 9 |

*Iturria*: Erakundeei eskatutako informazioa eta haien web-orriak <http://www.kutxa.net;

http://www.bbk.es; http://www.cajavital.es; http://www.cajalaboral.es; http://www.bancogui.es>
(Kontsultaren data: 2010eko iraila)

Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten eta Ibex 35ean kotizatzen duten enpresa nagusiak gizonezkoek zuzentzen dituzte. Horrez gain, enpresa horien administrazio-kontseiluetan emakumeen parte-hartzea ez da % 15era iristen.

## 4.11. TAULA. Ibex 35eko euskal enpresen presidenteak eta administrazio-kontseiluak. 2010

| | PRESIDENTEA | | ADMINISTRAZIO KONTSEILUA | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | EMAKUMEAK | GIZONAK | EMAKUMEAK | | GIZONAK | | GUZTIRA |
| | ABS. | ABS. | ABS. | % | ABS. | % | ABS. |
| BBVA | 0 | 1 | 0 | 0,0 | 15 | 100,0 | 15 |
| GAMESA | 0 | 1 | 1 | 11,1 | 8 | 88,9 | 9 |
| IBERDROLA | 0 | 1 | 2 | 12,5 | 12 | 85,7 | 14 |
| **GUZTIRA** | **0** | **3** | **3** | **7,9** | **35** | **92,1** | **38** |

*Iturria*: Geuk moldatua, web-orrietako informazioa oinarri hartuta.

(Kontsultaren data: 2010eko iraila)

# 5

# GUZTION ERANTZUKIZUNEAN OINARRITUTAKO GIZARTE-ANTOLAMENDUA

# GUZTION ERANTZUKIZUNA ETA DENBORAREN ERABILERA ALDATZEA

# 5.1

Euskadiko Berdintasunerako V. Planaren helburuetako bat emakumeek zein gizonek bai ekoizpen-lanetan bai ugalketarekin lotutakoetan modu orekatuan parte hartzea da, horrela denboraren erabilera gizon eta emakumeen artean beste modu batean banatzeko. Horretarako, bi ildo proposatzen dira. Lehen ildoa da amatasun- eta aitatasun-baimenak parekatzea, iraupen bera izan dezaten eta bata bestearen ordez hartzeko aukerarik izan ez dadin. Horretarako, emakumeen eta gizonen erantzukizuna sustatu behar da, bai eta zaintza-lanaren etika ere; gizonek oraingoa baino ahalegin handiagoa egin behar dute lana eta familia bateragarri egiteko, emakumeek baino denbora gutxiago ematen baitute gizonek etxeko lanak egiten eta haurrak zaintzen. Eta ez da ahaztu behar familia eta lana bateragarri egiteko neurriez baliatzea dela egoera hori zuzentzeko bideetako bat. Beste bide bat da, aurrekoaren osagarri, gizonek orain baino denbora gehiago ematea etxeko lanak egiten eta seme-alabak zaintzen, eta modu berezian zaintzea mutikoei ematen dieten heziketa. Eta bigarren ildoa da emakumeei aukera ematea aisialdirako denbora gehiago izateko, bai eta autonomia/independentzia ekonomikoa lortzeko ere.

Orain arteko egoera ikusirik, bide luzea dago oraindik egiteko. Izan ere, jarduera-tasaren arabera, oraindik ere generoen arteko aldeak daude, emakumeen jarduera- eta okupaziotasek hobera egin duten arren. Horrez gainera, lanaldi laburretan batez ere emakumeak aritzen dira, eta hori ere oztopo da pertsona guztiek autonomia ekonomikoa lotzeko, bai emakumeek, bai gizonek. Halaber, ugalketarekin lotutako lanak ere emakumeek egiten dituzte batez ere. Hori jartzen dute agerian hurrengo atalean aipatuko den etxeko ekoizpenaren kontu sateliteak eta Denboraren Erabilera Sozialari buruzko Inkestak. Aipatutako helburu horiek lortze aldera, hemen azaltzen diren datuak ez dira oso pozgarriak, alderdi hauei dagokienez: aitatasun- eta amatasun-baimenen banaketa, etxeko lanetan eta pertsonak zaintzen gizonek eta emakumeek ematen duten denboraren banaketa, eta aisialdirako denboraren banaketa.

Lana eta familia bateragarri egiteko neurriak batik bat emakumeek baliatu dituzte; hala ondoriozta daiteke gizonek eta emakumeek familia zaintzeko hartutako baimenak eta amatasun- eta aitatasun-prestazioak alderatuz gero, gizonezkoei prestazio horiek abantaila gehiago ematen badizkiete ere. 2008. urtean, 2.554 baimen eman ziren Euskadin semealabak zaintzeko, eta haietako % 95 emakumeek hartu zituzten. 2005etik aurrera, semealabak zaintzeko baimena eskatu duten gizonen ehunekoa puntu bakar bat hazi da, baina edonola ere, 2006. urtetik aurrera generoen arteko aldea murrizteko joera nabaritu da. Ahaideak zaintzeko baimena eskatu duten gizonen ehunekoa handiagoa da. 2008. urtean, ahaideren bat zaintzeko eskatutako baimenen % 15 gizonezkoek eskatu zuten. 2005. urtetik aurrera izandako bilakaera, ordea, ez da oso pozgarria; izan ere, azken urtean atzera egin da berdintasunerako bidean.

## 5.1. TAULA. Familia zaintzeko hartutako baimenak, baimena jaso duen pertsonaren sexuaren eta zaintza-motaren arabera. 2005-2008

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| Seme-alaben zaintza | | | | | |
| 2005 | 1.807 | 1.737 | 96,1 | 70 | 3,9 |
| 2006 | 1.840 | 1.728 | 93,9 | 112 | 6,1 |
| 2007 | 2.229 | 2.113 | 94,8 | 116 | 5,2 |
| 2008 | 2.554 | 2.426 | 95,0 | 128 | 5,0 |
| Ahaideen zaintza | | | | | |
| 2005 | 100 | 84 | 84,0 | 16 | 16,0 |
| 2006 | 110 | 89 | 80,9 | 21 | 19,1 |
| 2007 | 169 | 135 | 79,9 | 34 | 20,1 |
| 2008 | 167 | 142 | 85,0 | 25 | 15,0 |

*Iturria*: EIN. Protección a las familias y conciliación laboral (Familien babesa eta lan-bateragarritasuna).

Euskadiko egoera gainerako autonomia-erkidegoetako egoeraren antzekoa da. 2008. urtean Estatuan eskatutako seme-alabak zaintzeko baimenen %96 emakumeek eskatu zuten. Ehuneko hori baino txikiagoa dute Errioxak, Galiziak, Balear Uharteek, Asturiasek, Kanariek eta Kantabriak; nolanahi ere, aldeak ez dira oso handiak. Euskadin bezala, ahaideak zaintzeko eskatutako baimenetan, gizonezkoen ehunekoa handiagoa da seme-alabak zaintzeko eskatutakoetan baino. Ehuneko handienak Kanarietan, Galizian eta Andaluzian izan dira.

## 5.2. TAULA. Familia zaintzeko baimenak, jasotzailearen sexuaren, autonomia-erkidegoen eta zaintza-motaren arabera. 2008

| | SEME-ALABEN ZAINTZA | | | | | AHAIDEEN ZAINTZA | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| GUZTIRA | 37.771 | 36.300 | 96,1 | 1.471 | 3,9 | 5.664 | 4.784 | 84,5 | 880 | 15,5 |
| Andaluzia | 4.258 | 4.095 | 96,2 | 163 | 3,8 | 581 | 459 | 79,0 | 122 | 21,0 |
| Aragoi | 1.454 | 1.406 | 96,7 | 48 | 3,3 | 203 | 171 | 84,2 | 32 | 15,8 |
| Asturiasko Printzerria | 339 | 321 | 94,7 | 18 | 5,3 | 53 | 45 | 84,9 | 8 | 15,1 |
| Balear Uharteak | 1.008 | 948 | 94,0 | 60 | 6,0 | 121 | 93 | 76,9 | 28 | 23,1 |
| Kanariak | 583 | 544 | 93,3 | 39 | 6,7 | 93 | 65 | 69,9 | 28 | 30,1 |
| Kantabria | 274 | 258 | 94,2 | 16 | 5,8 | 58 | 49 | 84,5 | 9 | 15,5 |
| Gaztela eta Leon | 3.396 | 3.323 | 97,9 | 73 | 2,1 | 277 | 230 | 83,0 | 47 | 17,0 |
| Gaztela-Mantxa | 1.747 | 1.676 | 95,9 | 71 | 4,1 | 254 | 211 | 83,1 | 43 | 16,9 |
| Katalunia | 5.193 | 5.019 | 96,6 | 174 | 3,4 | 769 | 650 | 84,5 | 119 | 15,5 |
| Valentziako Erkidegoa | 4.667 | 4.547 | 97,4 | 120 | 2,6 | 609 | 519 | 85,2 | 90 | 14,8 |
| Extremadura | 387 | 368 | 95,1 | 19 | 4,9 | 46 | 36 | 78,3 | 10 | 21,7 |
| Galizia | 477 | 447 | 93,7 | 30 | 6,3 | 137 | 106 | 77,4 | 31 | 22,6 |
| Madril | 7.664 | 7.299 | 95,2 | 365 | 4,8 | 1701 | 1.485 | 87,3 | 216 | 12,7 |
| Murtzia | 1.810 | 1.752 | 96,8 | 58 | 3,2 | 353 | 321 | 90,9 | 32 | 9,1 |
| Nafarroa | 1.555 | 1.490 | 95,8 | 65 | 4,2 | 176 | 142 | 80,7 | 34 | 19,3 |
| **Euskadi** | **2.554** | **2.426** | **95,0** | **128** | **5,0** | **167** | **142** | **85,0** | **25** | **15,0** |
| Errioxa | 377 | 355 | 94,2 | 22 | 5,8 | 64 | 58 | 90,6 | 6 | 9,4 |
| Ceuta | 17 | 17 | 100,0 | | | 1 | 1 | 100,0 | .. | |
| Melilla | 11 | 9 | 81,8 | 2 | 18,2 | 1 | 1 | 100,0 | .. | |

*Iturria*: EIN. Protección a las familias y conciliación laboral (Familien babesa eta lan-bateragarritasuna).

Amatasun- edo aitatasun-baimena hartzeko aukera gehienetan emakumeek baliatzen dute, amarentzako derrigorrezko atsedena 6 astean ezarrita dagoen arren. Edonola ere, autonomia-erkidego guztien artean, Euskadi da baimena eskatzen duten aita gehien dutenetako bat, Nafarroaren ondoren; eta hurrengoak Kantabria eta Errioxa dira.

## 5.3. TAULA. Amatasun-baimenak, autonomia-erkidegoaren, baimena jaso duen pertsonaren sexuaren eta zenbatekoaren arabera. 2008

| | AMAK | AITAK | AITA JASOTZAILEAK (%) | JASOTAKO ZENBATEKOA |
|---|---|---|---|---|
| GUZTIRA | 353.585 | 5.575 | 1,6 | 1.802.689 |
| Andaluzia | 64.496 | 709 | 1,1 | 280.259 |
| Aragoi | 10.401 | 194 | 1,9 | 51.360 |
| Asturias | 5.676 | 92 | 1,6 | 28.232 |
| Balear Uharteak | 8.731 | 168 | 1,9 | 44.807 |
| Kanariak | 13.253 | 167 | 1,3 | 64.783 |
| Kantabria | 4.108 | 96 | 2,3 | 20.142 |
| Gaztela eta Leon | 14.209 | 271 | 1,9 | 70.665 |
| Gaztela-Mantxa | 12.997 | 171 | 1,3 | 62.405 |
| Katalunia | 63.378 | 996 | 1,6 | 357.819 |
| Valentziako Erkidegoa | 36.986 | 419 | 1,1 | 178.144 |
| Extremadura | 6.807 | 67 | 1,0 | 28.685 |
| Galizia | 16.841 | 272 | 1,6 | 78.471 |
| Madril | 58.115 | 907 | 1,6 | 338.256 |
| Murtzia | 11.659 | 66 | 0,6 | 52.009 |
| Nafarroa | 5.530 | 240 | 4,3 | 31.502 |
| **Euskadi** | **17.382** | **676** | **3,9** | **99.895** |
| Errioxa | 2.281 | 55 | 2,4 | 11.517 |
| Ceuta | 348 | 6 | 1,7 | 1.961 |
| Melilla | 387 | 3 | 0,8 | 1.777 |

*Iturria*: EIN. Protección a las familias y conciliación laboral (Familien babesa eta lan-bateragarritasuna)

Aitatasun-baimena 15 egunekoa da seme edo alaba baten jaiotzagatik. 2008. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoan 21.310 jaiotza izan ziren, eta 15.549 aitatasun-baimen. Beraz, jaiotzen % 73an hartu zuten aitatasun-baimena; ehuneko hori gainerako autonomia-erkidegoetakoa baino handiagoa da. Nafarroan, Aragoin eta Errioxan, 10 jaiotzatik 6tan baino gehiagotan hartu zuten aitatasun-baimena.

**5.4. TAULA.** Aitatasun-baimenak, autonomia-erkidegoaren eta jaiotza- kopuruaren arabera. 2008

| | BAIMENAK | JAIOTZAK | % |
|---|---|---|---|
| GUZTIRA | 279.756 | 519.779 | 53,8 |
| Andaluzia | 45.290 | 100.293 | 45,2 |
| Aragoi | 9.191 | 13.675 | 67,2 |
| Asturiasko Printzerria | 4.566 | 8.221 | 55,5 |
| Balear Uharteak | 6.411 | 12.713 | 50,4 |
| Kanariak | 10.261 | 20.672 | 49,6 |
| Kantabria | 3.552 | 5.886 | 60,3 |
| Gaztela eta Leon | 12.522 | 21.311 | 58,8 |
| Gaztela-Mantxa | 11.944 | 23.038 | 51,8 |
| Katalunia | 52.778 | 89.249 | 59,1 |
| Valentziako Erkidegoa | 29.478 | 57.083 | 51,6 |
| Extremadura | 5.136 | 10.735 | 47,8 |
| Galizia | 12.099 | 23.175 | 52,2 |
| Madrilgo Erkidegoa | 44.553 | 78.792 | 56,5 |
| Murtziako Eskualdea | 8.809 | 19.386 | 45,4 |
| Nafarroako Foru Erkidegoa | 4.912 | 7.029 | 69,9 |
| **Euskadi** | **15.549** | **21.310** | **73,0** |
| Errioxa | 2.157 | 3.518 | 61,3 |
| Ceuta | 290 | 1.165 | 24,9 |
| Melilla | 258 | 1.252 | 20,6 |

*Iturria*: EIN. Protección a las familias y conciliación laboral (Familien babesa eta lan-bateragarritasuna).

Kontuan hartuta pertsonek zenbat denbora ematen duten batez beste jarduerak egiten, emakumeak gizonak baino ia ordubete gehiago aritzen dira etxeko lanetan egunean: emakumeak, 6 ordu eta 56 minutuz batez beste, eta gizonak, 6 orduz; zereginaren arabera, batzuetan aldeak handiagoak dira. Denboraren Erabilera Sozialari buruzko Inkestaren arabera, janaria prestatzen gizonezkoek ematen duten denbora baino bi heren gehiago ematen dute emakumeek; garbiketan, bikoitza baino gehiago; eta arropak prestatzen, ia bikoitza. Jarduera jakin batzuetan, ordea, gizonek denbora gehiago ematen dute egunean emakumeek baino: konponketetan, gizonek 25 minutu eta emakumeek 16; erdi-aisiako jardueretan (denbora-pasa moduan egiten diren lanak), aldea handiagoa da: 2 ordu gizonek, eta ordu eta erdi emakumeek; eta kudeaketetan, are handiagoa: ordubete gizonek eta 37 minutu emakumeek. Gizonak etxeko jarduera hauetan aritzen dira denbora gehien batez beste: erdi-aisiako jardueretan, eta horren ondoren, kudeaketetan eta garbiketan. Emakumeak, berriz, etxeko jarduera hauetan aritzen dira denbora gehien batez beste: erdi-aisiako jardueretan, janaria prestatzen eta garbiketan.

Igandeetan, oro har denbora gehiago ematen dute janaria prestatzen eta konponketetan. Emakumeek 5 minutu gehiago ematen dute janaria prestatzen, eta 3 minutu gehiago konponketetan; eta gizonek, 6 minutu gehiago janaria prestatzen eta 11 minutu gehiago konponketetan. Bestalde, emakumeek eta gizonek astean zehar erdi-aisiako jardueretan emandako denboraren banaketa ere desberdina da. Gizonek 2 ordu ematen dituzte lanegunetan, eta 20 minutu gutxiago igandeetan; emakumeek, aldiz, 1 ordu eta 37 minutu lanegunetan, eta 14 minutu gehiago igandeetan.

**5.5. TAULA.** Batez besteko denbora partaide bakoitzeko, jarduera-motaren, asteko egunaren eta sexuaren arabera. 2008

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | GIZONAK | E-G |
|---|---|---|---|---|
| | O:M | O:M | O:M | O:M |
| **Janaria prestatzea** | **1:07** | **1:31** | **0:38** | **0:53** |
| Lanegunak | 1:07 | 1:30 | 0:36 | 0:54 |
| Ostiralak | 1:03 | 1:28 | 0:33 | 0:55 |
| Larunbatak | 1:09 | 1:29 | 0:42 | 0:47 |
| Igandeak | 1:13 | 1:36 | 0:44 | 0:52 |
| **Garbiketa** | **1:05** | **1:10** | **0:49** | **0:21** |
| Lanegunak | 1:06 | 1:11 | 0:49 | 0:22 |
| Ostiralak | 1:03 | 1:10 | 0:43 | 0:27 |
| Larunbatak | 1:04 | 1:09 | 0:52 | 0:17 |
| Igandeak | 1:03 | 1:09 | 0:49 | 0:20 |
| **Arropak** | **0:48** | **0:53** | **0:27** | **0:26** |
| Lanegunak | 0:49 | 0:54 | 0:28 | 0:26 |
| Ostiralak | 0:46 | 0:52 | 0:19 | 0:33 |
| Larunbatak | 0:43 | 0:47 | 0:26 | 0:21 |
| Igandeak | 0:49 | 0:55 | 0:31 | 0:24 |
| **Beste konponketa batzuk** | **0:18** | **0:16** | **0:25** | **-0:09** |
| Lanegunak | 0:18 | 0:16 | 0:23 | -0:07 |
| Ostiralak | 0:18 | 0:16 | 0:23 | -0:07 |
| Larunbatak | 0:19 | 0:16 | 0:26 | -0:10 |
| Igandeak | 0:24 | 0:19 | 0:36 | -0:17 |
| **Erosketak** | **0:49** | **0:52** | **0:44** | **0:08** |
| Lanegunak | 0:48 | 0:48 | 0:46 | 0:02 |
| Ostiralak | 0:53 | 0:56 | 0:48 | 0:08 |
| Larunbatak | 1:03 | 1:11 | 0:53 | 0:18 |
| Igandeak | 0:17 | 0:22 | 0:14 | 0:08 |
| **Kudeaketak** | **0:05** | **0:37** | **1:03** | **-0:26** |
| Lanegunak | 0:49 | 0:35 | 1:04 | -0:29 |
| Ostiralak | 0:58 | 0:43 | 1:16 | -0:33 |
| Larunbatak | 0:46 | 1:03 | 0:35 | -0:28 |
| Igandeak | 0:03 | 0:12 | 0:40 | -0:28 |
| **Erdi-aisiakoak** | **1:48** | **1:37** | **2:02** | **-0:25** |
| Lanegunak | 1:46 | 1:36 | 2:00 | -0:24 |
| Ostiralak | 2:00 | 1:42 | 2:26 | -0:44 |
| Larunbatak | 1:48 | 1:25 | 2:13 | -0:48 |
| Igandeak | 1:45 | 1:51 | 1:40 | 0:11 |

*Iturria*: Eustat. Denboraren Erabilera Sozialari buruzko Inkesta.

*Oharra*: O:M (orduak:minutuak)

1993an Denboraren Erabilera Sozialari buruzko Lehen Inkesta egin zenetik, etxeko lanetan emandako denboran murriztu egin da generoen arteko aldea. 1993an, janaria prestatzen emandako denboran ordubeteko aldea zegoen gizon eta emakumeen artean; hamar urte geroago, alde hori 10 minutu murriztu zen; edonola ere, azken inkestaren arabera 3 minutu areagotu da berriro alde hori. Aldearen murrizketa hori lan guztietan gertatu da, kudeaketan izan ezik; zeregin horretan, aldea 3 minutukoa zen 1993an, eta 2008an, berriz, 34 minutukoa, gizonek zeregin hori beren gain hartu baitzuten.

**5.6. TAULA.** Etxeko lanetan emandako batez besteko denbora partaide bakoitzeko, jarduera-motaren, urtearen eta sexuaren arabera. 1993-2008

| | 1993 | | | 1998 | | | 2003 | | | 2008 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | E | G | E-G | E | G | E-G | E | G | E-G | E | G | E-G |
| | O:M | O:M | O:M | O:M | O:M | O:M | O:M | O:M | O:M | O:M | O:M | O:M |
| Janaria prestatzea | 1:58 | 0:54 | 1:02 | 1:43 | 0:48 | 0:55 | 1:51 | 0:50 | 1:01 | 1:31 | 0:38 | 0:53 |
| Garbiketa | 1:22 | 0:48 | 0:34 | 1:11 | 0:41 | 0:30 | 1:11 | 0:44 | 0:27 | 1:10 | 0:49 | 0:21 |
| Arropak | 1:03 | 0:28 | 0:35 | 1:00 | 0:29 | 0:31 | 1:01 | 0:28 | 0:33 | 0:53 | 0:27 | 0:26 |
| Beste konponketa batzuk | 0:25 | 0:40 | -0:15 | 0:24 | 0:32 | -0:08 | 0:24 | 0:29 | -0:05 | 0:16 | 0:25 | -0:09 |
| Erosketak | 1:06 | 0:49 | 0:17 | 0:56 | 0:42 | 0:14 | 1:00 | 0:51 | 0:09 | 0:52 | 0:44 | -0:08 |
| Kudeaketak | 1:10 | 1:07 | 0:03 | 0:29 | 0:49 | -0:20 | 0:48 | 0:49 | -0:01 | 0:37 | 1:03 | -0:34 |
| Erdi-aisiakoak | 1:39 | 1:42 | -0:03 | 1:31 | 1:46 | -0:15 | 1:30 | 2:04 | -0:34 | 1:37 | 2:02 | -0:25 |

*Iturria*: Eustat. Denboraren Erabilera Sozialari buruzko Inkesta.

*Oharra*: Emakumeak (E), gizonak (G); O:M (orduak:minutuak)

Hurrengo taulan ere, alderdi horretan zer-nolako aldeak dauden adierazi da, minututan. Etxeko lanak egiteko denboran emakumeen eta gizonen artean dauden alde guztiak batuz gero, hau ondoriozta daiteke: 1993an, emakumeek gizonek baino 133 minutu gehiago ematen zuten egunean; gaur egun, berriz, 24 minutu gehiago soilik. Hala ere, esan daiteke badela sexuaren araberako espezializazioa; izan ere, ohiko etxeko lanetako batzuk, hala nola janaria prestatzea, garbiketa egitea eta arropak prestatzea, oraindik ere emakumeek hartzen dituzte beren gain; zeregin horietan emakumeek egunean emandako denbora 10 minutu murriztu da 15 urtean. Aldiz, kudeaketak eta erdi-aisiako jarduerak batez ere gizonezkoek egiten dituzte; zeregin horietan emandako denboran, 30 minutuko aldea dago gaur egun gizon eta emakumeen artean.

**5.7. TAULA.** Emakumeek eta gizonek etxeko lanetan emandako batez besteko partaide bakoitzeko denboraren aldea minututan, jarduera-motaren eta urtearen arabera. 1993-2008

| | 1993 | 1998 | 2003 | 2008 |
|---|---|---|---|---|
| Janaria prestatzea | 62 | 55 | 61 | 53 |
| Garbiketa | 34 | 30 | 27 | 21 |
| Arropak | 35 | 31 | 33 | 26 |
| Beste konponketa batzuk | -15 | -8 | -5 | -9 |
| Erosketak | 17 | 14 | 9 | -8 |
| Kudeaketak | 3 | -20 | -1 | -34 |
| Erdi-aisiakoak | -3 | -15 | -34 | -25 |
| **GUZTIRA** | **133** | **87** | **90** | **24** |

*Iturria*: Eustat. Denboraren Erabilera Sozialari buruzko Inkesta.

Etxeko lanetan emandako denboran generoen arteko aldea murriztu izana ez da gertatu batik bat gizonak zeregin horietan parte hartzen hasi direlako. Izan ere, gaur egun oro har

denbora gutxiago ematen da etxeko jarduerak egiten: janaria prestatzen, emakumeek duela 15 urte baino 27 minutu gutxiago ematen dute; garbiketan, 12 minutu gutxiago; arropak prestatzen, 10 minutu gutxiago; konponketetan, 9 minutu gutxiago; erosketetan, 14 minutu gutxiago; eta kudeaketetan, 33 minutu gutxiago. Hortaz, etxeko lanetan emandako denbora murriztu izana ez zaio zor soil-soilik gizonezkoak ugalketarekin lotutako lanetan parte hartzen hasi izanari; aitzitik, ohitura- eta teknologia-aldaketak direla-eta murriztu da batez ere halako jarduerei eskainitako denbora. Hain zuzen, gizonek ez dute asko areagotu etxeko lanetan ematen duten denbora: garbiketan, lehen baino 1 minutu gehiago ematen dute; erosketetan, 3 minutu gehiago; eta erdi-aisiako jardueretan, 20 minutu gehiago.

**5.8. TAULA.** 2003tik 2008ra bitartean partaideek etxeko lanetan emandako batez besteko denboraren arteko aldea, jarduera-motaren eta sexuaren arabera

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | GIZONAK |
|---|---|---|---|
| | O:M | O:M | O:M |
| Janaria prestatzea | 0:35 | 0:27 | 0:08 |
| Garbiketa | 0:11 | 0:12 | -0:01 |
| Arropak | 0:10 | 0:10 | 0:00 |
| Beste konponketa batzuk | 0:13 | 0:09 | 0:04 |
| Erosketak | 0:11 | 0:14 | -0:03 |
| Kudeaketak | 0:19 | 0:33 | 0:04 |
| Erdi-aisiakoak | -0:08 | 0:02 | -0:20 |

*Iturria*: Eustat. Denboraren Erabilera Sozialari buruzko Inkesta. Oharra: O:M (orduak:minutuak)

Etxeko lanetan batez beste emandako denbora sozialaren datuen arabera, ordea, are alde handiagoak daude emakumezko eta gizonezkoen artean; izan ere, halako lanak egiten ez dituzten gizonen kopurua emakumeena baino handiagoa da. Emakumeek etxeko lanetan batez beste ematen duten denbora soziala gizonena baino bi ordu baino gehiagokoa da egunean. Lanegunetan, aldea handiagoa da: 2 ordu eta 13 minutu gehiago; eta asteburuetan, txikiagoa: 1 ordu eta 49 minutu gehiago. Biztanleria landunaren artean, aldeak txikiagoak dira langabeen eta erretiratuen artean baino. Erretiratuen artean, aldea 2 ordu eta 16 minutukoa da. Edonola ere, hori ez dago denboraren joanean gertatzen diren belaunaldi-aldaketekin lotuta soilik. Hain zuzen ere, ikasleek sexuaren arabera etxeko lanetan zenbat denbora ematen duten aztertuta, aldeak nabarmenak direla ikus daiteke: emakumezkoek egunean 51 minutu ematen dute batez beste halako lanetan, eta gizonezkoek, berriz, ia erdia: 26 minutu.

Bestalde, etxeko lanetan denbora gehien ematen duten gizonak langabeak eta erretiratuak dira. Nolanahi ere, gizonezko langabeek emakume landunek baino 40 minutu gutxiago ematen dute egunean etxeko lanak egiten. Era berean, emakume landunek, lanegunetan, gizon landunek baino 1 ordu eta 39 minutu baino gehiago ematen dute etxeko lanetan.

**5.9. TAULA.** Batez besteko denbora soziala, asteko egunaren eta sexuaren arabera, aintzat hartuta lan-egoera (2008)

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | | EMAKUMEAK-GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | O:M | O:M | MIN | O:M | MIN | MIN | O:M |
| **GUZTIRA** | **2:24** | **3:25** | **205** | **1:19** | **79** | **126** | **2:06** |
| Lanegunak | 2:25 | 3:29 | 209 | 1:16 | 76 | 133 | 2:13 |
| Ostiralak | 2:24 | 3:27 | 207 | 1:18 | 78 | 129 | 2:09 |
| Larunbatak | 2:32 | 3:25 | 205 | 1:36 | 96 | 109 | 1:49 |
| Igandeak | 2:13 | 3:06 | 186 | 1:17 | 77 | 109 | 1:49 |
| **Landunak** | **1:49** | **2:40** | **160** | **1:07** | **67** | **93** | **1:33** |
| Lanegunak | 1:41 | 2:35 | 155 | 0:56 | 56 | 99 | 1:39 |
| Ostiralak | 1:41 | 2:31 | 151 | 1:03 | 63 | 88 | 1:28 |
| Larunbatak | 2:14 | 2:55 | 175 | 1:41 | 101 | 74 | 1:14 |
| Igandeak | 2:01 | 2:52 | 172 | 1:22 | 82 | 90 | 1:30 |
| **Langabeak** | **2:59** | **4:11** | **251** | **2:00** | **120** | **131** | **2:11** |
| Lanegunak | 3:11 | 4:46 | 286 | 2:04 | 124 | 162 | 2:42 |
| Ostiralak | 3:20 | 4:00 | 240 | 2:30 | 150 | 90 | 1:30 |
| Larunbatak | 2:26 | 3:09 | 189 | 1:48 | 108 | 81 | 1:21 |
| Igandeak | 2:19 | 3:08 | 188 | 1:35 | 85 | 103 | 1:43 |
| **Erretiratuak** | **2:29** | **4:08** | **248** | **1:52** | **112** | **136** | **2:16** |
| Lanegunak | 2:40 | 4:23 | 263 | 2:05 | 125 | 138 | 2:18 |
| Ostiralak | 2:38 | 4:17 | 257 | 1:56 | 116 | 141 | 2:21 |
| Larunbatak | 2:10 | 3:57 | 237 | 1:32 | 92 | 145 | 2:25 |
| Igandeak | 1:49 | 3:15 | 195 | 1:14 | 74 | 121 | 2:01 |
| **Ikasleak** | **0:39** | **0:51** | **51** | **0:26** | **26** | **25** | **0:25** |
| Lanegunak | 0:31 | 0:41 | 41 | 0:19 | 19 | 22 | 0:22 |
| Ostiralak | 0:40 | 0:46 | 46 | 0:35 | 35 | 11 | 0:11 |
| Larunbatak | 0:57 | 1:08 | 68 | 0:44 | 44 | 24 | 0:24 |
| Igandeak | 0:53 | 1:23 | 83 | 0:28 | 28 | 55 | 0:55 |

*Iturria*: Eustat. Denboraren Erabilera Sozialari buruzko Inkesta.

*Oharra*: Emakumeak (E), Gizonak (G); O:M (orduak:minutuak); MIN. (minutuak)

Partaide bakoitzaren datuetatik ondorioztatzen den denbora-murrizketaz gain, etxeko lanetan emandako denboran dagoen generoen arteko aldea ere murriztu egin da oro har.

## 5.10. TAULA. Etxeko lanetan emandako batez besteko denbora soziala, jarduera-motaren, urtearen eta sexuaren arabera. 1993-2008

| | 1993 | | | 1998 | | | 2003 | | | 2008 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | E | G | E-G | E | G | E-G | E | G | E-G | E | G | E-G |
| | O:M | O:M | O:M | O:M | O:M | O:M | O:M | O:M | O:M | O:M | O:M | O:M |
| Janaria prestatzea | 1:43 | 0:18 | 1:25 | 1:28 | 0:22 | 1:06 | 1:30 | 0:20 | 1:10 | 1:25 | 0:29 | 0:56 |
| Garbiketa | 1:04 | 0:07 | 0:57 | 0:51 | 0:09 | 0:42 | 0:46 | 0:08 | 0:38 | 0:51 | 0:12 | 0:39 |
| Arropak | 0:28 | 0:01 | 0:27 | 0:26 | 0:02 | 0:24 | 0:22 | 0:02 | 0:20 | 0:23 | 0:03 | 0:20 |
| Beste konponketa batzuk | 0:04 | 0:04 | 0:00 | 0:05 | 0:04 | 0:01 | 0:04 | 0:03 | 0:01 | 0:06 | 0:04 | 0:02 |
| Erosketak | 0:37 | 0:13 | 0:24 | 0:30 | 0:13 | 0:17 | 0:30 | 0:14 | 0:16 | 0:24 | 0:13 | 0:11 |
| Kudeaketak | 0:03 | 0:03 | 0:00 | 0:01 | 0:02 | 0:01 | 0:01 | 0:02 | -0:01 | 0:01 | 0:02 | -0:01 |
| Erdi-aisiakoak | 0:16 | 0:13 | 0:03 | 0:16 | 0:16 | 0:00 | 0:18 | 0:20 | -0:02 | 0:16 | 0:15 | 0:01 |

*Iturria*: Eustat. Denboraren Erabilera Sozialari buruzko Inkesta.

*Oharra*: Emakumeak (E), Gizonak (G).; O:M (orduak:minutuak)

Bilakaera, minututan kalkulatuta, hau izan da: 1993an, egunean 196 minutu, eta 2008an, 128 minutu. Azken bost urteetan, denbora sozialaren aldea eguneko 14 minutu murriztu da. Beherakadarik handiena janariak prestatzen emandako denboran izan da; garbiketan eta arropak prestatzen emandako denbora gutxiago murriztu da: azken hamarkadan, hurrenez hurren, 3 minutu eta 4 minutu.

## 5.11. TAULA. Emakumeek eta gizonek etxeko lanetan emandako batez besteko denbora sozialaren aldea minututan, jarduera-motaren eta urtearen arabera. 1993-2008

| | 1993 | 1998 | 2003 | 2008 |
|---|---|---|---|---|
| Janaria prestatzea | 85 | 66 | 70 | 56 |
| Garbiketa | 57 | 42 | 38 | 39 |
| Arropak | 27 | 24 | 20 | 20 |
| Erosketak | 24 | 17 | 16 | 11 |
| Kudeaketak | 0 | 1 | -1 | -1 |
| Erdi-aisiakoak | 3 | 0 | -2 | 1 |
| Beste konponketa batzuk | 0 | 1 | 1 | 2 |
| **GUZTIRA** | **196** | **151** | **142** | **128** |

*Iturria*: Eustat. Denboraren Erabilera Sozialari buruzko Inkesta.

*Oharra*: Honela kalkulatu da aldea: emakumeek emandako batez besteko denbora soziala ken gizonek emandakoa.

**5.1. GRAFIKOA.** Etxeko lanetan emandako batez besteko denboraren aldea minututan, jarduera-motaren eta urtearen arabera. 1993-2008




*Iturria*: Eustat. Denboraren Erabilera Sozialari buruzko Inkesta.

Ugalketarekin lotutako beste lan bat etxean pertsonak zaintzea da. 2008. urtean, funtzio horiek bete zituzten pertsonek 1 ordu eta 43 minutu eman zituzten batez beste haurrak zaintzen, eta 2 ordu eta ia 10 minutu, helduak zaintzen. Ugalketarekin lotutako beste lan batzuekin gertatzen den bezala, emakumeek gizonek baino denbora gehiago eman dute batez beste egunean pertsonak zaintzen: 41 minutu gehiago haurrak zaintzen, eta 17 minutu gehiago, helduak zaintzen. Zaintzarekin lotutako zeregin hauetan soilik ematen dute gizonek batez beste emakumeek baino denbora gehiago: jolasetan eta heziketan. Asteburuetan, oro har, denbora gehiago ematen da zaintza-lanetan, bai larunbatetan, bai igandetan. Larunbatetan, emakumeek 2 ordu eta erdi ematen dute batez beste haurrak zaintzen; gizonek, berriz, 1 ordu eta 45 minutu. Partaide bakoitzak asteburuan haurrak zaintzen batez beste zenbat denbora ematen duen aintzat hartuta, esan daiteke generoen arteko aldea ez dela murrizten lanegunetako denborarekin alderatuta; aitzitik, larunbatetan, aldea handiagoa da.

Helduen zaintzan batez beste emandako denboran ere aldeak daude emakume eta gizonen artean. Emakumeek gizonek baino denbora gehiago ematen dute pertsona helduak zaintzen larunbat eta igandeetan; emakumeek ematen duten denbora, batez beste, gizonek ematen dutena baino ordu eta erdi gehiago da. Lanegunetan, aldiz, gizonek emakumeek baino 23 minutu gehiago ematen dute batez beste pertsona helduak zaintzen.

**5.12. TAULA.** Partaide bakoitzak batez beste pertsonak zaintzen emandako denbora, asteko egunaren, zereginaren eta sexuaren arabera. 2008

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | | EMAKUMEAK-GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | O:M | O:M | MIN. | O:M | MIN. | MIN. | O:M |
| **Haurren zaintza** | **1:43** | **2:00** | **120** | **1:19** | **79** | **41** | **0:41** |
| Lanegunak | 1:37 | 1:54 | 114 | 1:13 | 73 | 41 | 0:41 |
| Ostiralak | 1:39 | 1:52 | 112 | 1:10 | 70 | 42 | 0:42 |
| Larunbatak | 2:10 | 2:30 | 150 | 1:45 | 105 | 45 | 0:45 |
| Igandeak | 1:56 | 2:11 | 133 | 1:33 | 93 | 40 | 0:38 |
| **Jolasak eta heziketa** | **1:06** | **1:04** | **64** | **1:09** | **69** | **-5** | **-0:05** |
| Lanegunak | 1:03 | 1:00 | 60 | 1:07 | 67 | -7 | -0:07 |
| Ostiralak | 1:07 | 1:06 | 66 | 1:08 | 68 | -2 | -0:02 |
| Larunbatak | 1:12 | 1:09 | 69 | 1:15 | 75 | -6 | -0:06 |
| Igandeak | 1:20 | 1:24 | 84 | 1:16 | 76 | 8 | 0:08 |
| **Helduen zaintza** | **2:09** | **2:15** | **135** | **1:58** | **118** | **17** | **0:17** |
| Lanegunak | 2:10 | 2:02 | 122 | 2:25 | 145 | -23 | -0:23 |
| Ostiralak | 2:12 | 2:22 | 142 | 1:50 | 110 | 32 | 0:32 |
| Larunbatak | 2:23 | 2:44 | 164 | 1:16 | 76 | 88 | 1:28 |
| Igandeak | 1:52 | 2:27 | 147 | 0:47 | 47 | 100 | 1:40 |

*Iturria*: Eustat. Denboraren Erabilera Sozialari buruzko Inkesta.

*Oharra*: O:M (orduak:minutuak); MIN. (minutuak)

Emakumeek gizonek baino denbora gehiago ematen dute etxean pertsonak zaintzen, jolas- eta heziketa-jarduerak barne, lan-egoera zeinahi izanik ere; hau da, landunak, langabeak zein erretiratuak izan. Partaide bakoitzak emandako denboran, ordea, badira salbuespen batzuk: langabeen artean, gizonek emakumeek baino denbora gehiago ematen dute lanegunetan, bai eta ikasleen artean ere, ostiral eta larunbatetan. Soldatako langileen edo landunen artean, zaintza-jardueretan pertsonek ematen duten denboraren arteko aldea, sexuaren arabera, 40 minutukoa da egunean; larunbatetan, ia ordubetekoa; eta igandeetan, hiru ordu laurdenekoa.

**5.13. TAULA.** Batez besteko denbora partaide bakoitzeko, asteko egunaren eta sexuaren arabera, aintzat hartuta lan-egoera. 2008

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | GIZONAK | E-G |
|---|---|---|---|---|
| | O:M | O:M | O:M | O:M |
| **Etxeko pertsonen zaintza** | **2:03** | **2:18** | **1:41** | **0:37** |
| Lanegunak | 1:57 | 2:12 | 1:38 | 0:34 |
| Ostiralak | 2:00 | 2:13 | 1:36 | 0:37 |
| Larunbatak | 2:27 | 2:46 | 2:01 | 0:45 |
| Igandeak | 2:11 | 2:30 | 1:44 | 0:46 |
| **Landunak** | **1:58** | **2:17** | **1:37** | **0:40** |
| Lanegunak | 1:51 | 2:08 | 1:31 | 0:37 |
| Ostiralak | 1:48 | 2:01 | 1:31 | 0:30 |
| Larunbatak | 2:32 | 3:04 | 2:01 | 1:03 |
| Igandeak | 2:13 | 2:35 | 1:50 | 0:45 |
| **Langabeak** | **2:46** | **2:52** | **2:35** | **0:17** |
| Lanegunak | 2:54 | 2:51 | 3:00 | -0:09 |
| Ostiralak | 2:39 | 2:50 | 2:07 | 0:43 |
| Larunbatak | 2:34 | 3:04 | 1:40 | 1:24 |
| Igandeak | 2:26 | 2:53 | 1:15 | 1:38 |
| **Erretiratuak** | **1:43** | **2:01** | **1:36** | **0:25** |
| Lanegunak | 1:41 | 2:00 | 1:36 | 0:24 |
| Ostiralak | 1:45 | 1:53 | 1:38 | 0:15 |
| Larunbatak | 2:17 | 2:29 | 2:06 | 0:23 |
| Igandeak | 1:05 | 1:20 | 1:00 | 0:20 |
| **Ikasleak** | **1:19** | **1:19** | **1:19** | **0:00** |
| Lanegunak | 1:13 | 1:21 | 1:00 | 0:21 |
| Ostiralak | 1:16 | 1:10 | 1:30 | -0:20 |
| Larunbatak | 2:10 | 1:01 | 3:30 | -2:29 |
| Igandeak | 1:40 | 1:40 | 0:00 | 1:40 |

*Iturria*: Eustat. Denboraren Erabilera Sozialari buruzko Inkesta.

*Oharra*: O:M (orduak:minutuak).

1993tik 2008ra bitartean, etxeko lanetan emandako denbora ez bezala, haurrak zein pertsona helduak zaintzen emandako denbora areagotu egin da. Emakumeek 1993an baino ia 40 minutu gehiago eman zituzten egunean 2008an, eta gizonek, 25 minutu gehiago. Bilakaera horretan izandako aldea dela eta, haurrak zaintzen emandako denboran areagotu egin da generoen arteko aldea, ia 14 minutu. Azken 15 urteetan, pertsona helduak zaintzen emandako denbora areagotu egin da: emakumeek lehen baino ordubete gehiago ematen dute, eta gizonek, 30 minutu inguru gehiago; hortaz, pertsona helduen zaintzan emandako denboran dagoen generoen arteko aldea 5 minutu gehiago da orain.

## 5.14. TAULA. Partaide bakoitzak batez beste etxean pertsonak zaintzen emandako denbora, sexuaren arabera. 1993-2008

| | SEME-ALABEN ZAINTZA | | | HELDUEN ZAINTZA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | EMAKUMEAK | GIZONAK | E-G | EMAKUMEAK | GIZONAK | E-G |
| | O:M | O:M | O:M | O:M | O:M | O:M |
| 1993 | 1:22 | 0:55 | 0:27 | 1:13 | 1:25 | 0:12 |
| 1998 | 1:23 | 1:06 | 0:17 | 2:00 | 1:42 | 0:18 |
| 2003 | 1:33 | 1:01 | 0:32 | 1:48 | 1:21 | 0:27 |
| 2008 | 2:00 | 1:19 | 0:41 | 2:15 | 1:58 | 0:17 |
| 2008-1993 | 0:38 | 0:24 | 0:14 | 1:02 | 0:33 | 0:05 |

*Iturria*: Eustat. Denboraren Erabilera Sozialari buruzko Inkesta.

*Oharra*: O:M (orduak:minutuak).

Denbora baliabide urria dugu, eta haren erabilera generoaren araberakoa da. Denboraren erabilera sozialari dagozkion batez besteko datuen arabera, gizonek denbora gehiago ematen dute aisialdiko jardueretan emakumeek baino: egunean ordubete gehiago batez beste. Emakumeek, ostera, bi ordu eta erdi gehiago ematen dute batez beste ugalketarekin lotutako jardueretan; eta aldiz, ekoizpen- eta prestakuntza-jardueretan, 17 minutu gutxiago batez beste.

## 5.15. TAULA. Erabilitako denbora soziala batez beste, funtzioen eta sexuaren arabera. 2008

| | EMAKUMEAK | GIZONAK | E-G |
|---|---|---|---|
| **Behar fisiologikoak** | **11:38** | **11:43** | **-0:05** |
| **Lana eta prestakuntza** | **2:49** | **3:06** | **-0:17** |
| Etxeko lanak | 3:25 | 1:19 | 2:06 |
| Etxeko pertsonen zaintza | 0:36 | 0:19 | 0:17 |
| **Ugalketarekin lotutako lanak** | **4:01** | **1:38** | **2:23** |
| Gizarte-bizitza | 0:36 | 0:41 | -0:05 |
| Aisialdi aktiboa eta kirolak | 1:05 | 1:38 | -0:33 |
| Aisialdi pasiboa | 2:48 | 3:01 | -0:13 |
| **Aisialdia guztira** | **4:29** | **5:20** | **-0:51** |
| **Ibilbideak** | **1:03** | **1:09** | **-0:06** |

*Iturria*: Eustat. Denboraren Erabilera Sozialari buruzko Inkesta.

## 5.2. GRAFIKOA. Erabilitako denbora soziala batez beste, funtzioen eta sexuaren arabera. 2008




Azken 15 urteetan, emakumeen bizimodua aldatu egin da, eta horrekin batera, baita hainbat zereginetan ematen duten batez besteko denboraren banaketa ere. Batez besteko denbora soziala aintzat hartuta -hau da, kontuan hartzen dituena jarduera egiten dutenak zein egiten ez dutenak-, emakumeek lehen baino denbora gutxiago ematen dute ugalketarekin lotutako jardueretan eta aisialdiko jardueretan: hurrenez hurren, 42 minutu eta 22 minutu gutxiago. Aldiz, lan- eta prestakuntza-jardueretan, 45 minutu gehiago ematen dute.

## 5.16. TAULA. Emakumeek hainbat zereginetan ematen duten batez besteko denbora soziala. 1993-2008

| | 1993 | 1998 | 2003 | 2008 | 2008-1993 |
|---|---|---|---|---|---|
| Behar fisiologikoak | 11:27 | 11:37 | 11:48 | 11:38 | 0:11 |
| Lana eta prestakuntza | 2:04 | 2:26 | 2:35 | 2:49 | 0:45 |
| Etxeko lanak | 4:16 | 3:37 | 3:31 | 3:25 | -0:51 |
| Etxeko pertsonen zaintza | 0:27 | 0:26 | 0:29 | 0:36 | 0:09 |
| **Ugalketarekin lotutako lana guztira** | **4:43** | **4:03** | **4:00** | **4:01** | **-0:42** |
| Gizarte-bizitza | 1:04 | 0:58 | 0:52 | 0:36 | -0:28 |
| Aisialdi aktiboa eta kirolak | 0:58 | 1:02 | 1:08 | 1:05 | 0:07 |
| Aisialdi pasiboa | 2:49 | 2:45 | 2:33 | 2:48 | -0:01 |
| **Aisialdia guztira** | **4:51** | **4:45** | **4:33** | **4:29** | **-0:22** |
| Ibilbideak | 0:52 | 1:05 | 1:03 | 1:03 | 0:11 |

*Iturria*: Eustat. Denboraren Erabilera Sozialari buruzko Inkesta.

Denboraren erabileran izandako aldaketek gizonengan ere izan dute eragina. Gaur egun, gizonek duela 15 urte baino 23 minutu gehiago ematen dute egunean ugalketarekin lotutako lanetan, 40 minutu gutxiago aisialdiko jardueretan, eta ordubetetik gora gutxiago lan- eta prestakuntza-jardueretan.

## 5.17. TAULA. Gizonek hainbat zereginetan ematen duten batez besteko denbora soziala. 1993-2008

| | 1993 | 1998 | 2003 | 2008 | 2008-1993 |
|---|---|---|---|---|---|
| Behar fisiologikoak | 11:24 | 11:03 | 11:51 | 11:43 | 0:19 |
| Lana eta prestakuntza | 4:15 | 4:16 | 4:14 | 3:06 | -1:09 |
| Etxeko lanak | 1:03 | 1:01 | 1:01 | 1:19 | 0:16 |
| Etxeko pertsonen zaintza | 0:12 | 0:14 | 0:12 | 0:19 | 0:07 |
| **Ugalketarekin lotutako lana guztira** | **1:15** | **1:15** | **1:13** | **1:38** | **0:23** |
| Gizarte-bizitza | 1:16 | 1:08 | 1:04 | 0:41 | -0:35 |
| Aisialdi aktiboa eta kirolak | 1:22 | 1:23 | 1:27 | 1:38 | 0:16 |
| Aisialdi pasiboa | 3:22 | 3:03 | 2:46 | 3:01 | -0:21 |
| **Aisialdia guztira** | **6:00** | **5:34** | **5:17** | **5:20** | **-0:40** |
| Ibilbideak | 1:03 | 1:15 | 1:14 | 1:09 | 0:06 |

*Iturria*: Eustat. Denboraren Erabilera Sozialari buruzko Inkesta.

Jarduera gehienetan emandako denboran, generoen arteko aldea murriztu egin da, eta, beraz, emakumeek eta gizonek egiten duten denboraren erabilera orekatu egin da; nolanahi ere, bilakaera horrek ez du erritmo bera izan zeregin guztietan. Lan- eta prestakuntza-jardueretan, generoen arteko aldea egunean bi ordu eta 11 minutu izatetik 17 minutu izatera igaro da; ugalketa-lanekin lotutako jardueretan, aldea ez da hainbeste murriztu: lehen 3 ordu eta erdi ingurukoa zen, eta orain, bi ordu eta erdikoa; hain zuzen ere, zeregin horretan dago gaur egun generoen arteko alderik handiena.

## 5.18. TAULA. Generoen arteko aldea batez besteko denbora sozialean, jarduera-multzoaren arabera. 1993-2008

| | 1993 | 1998 | 2003 | 2008 |
|---|---|---|---|---|
| Behar fisiologikoak | 0:03 | 0:34 | -0:03 | -0:05 |
| Lana eta prestakuntza | -2:11 | -1:50 | -1:39 | -0:17 |
| Ugalketarekin lotutako lana guztira | 3:28 | 2:48 | 2:47 | 2:23 |
| Aisialdia guztira | -1:09 | -0:49 | -0:44 | -0:51 |
| Ibilbideak | -0:11 | -0:10 | -0:11 | -0:06 |

*Iturria*: Eustat. Denboraren Erabilera Sozialari buruzko Inkesta.

Partaide bakoitzaren batez besteko denbora aintzat hartuta -hau da, kontuan hartzen dituena jarduera horiek egiten dituzten pertsonak soilik-, are argiagoa da aldeen bilakaera desberdina. Denbora sozialaren erabileran bezala, 1993tik murriztu egin dira aldeak jarduera gehienetan: ekoizpen-lanetan eta prestakuntzan, aldea ordu eta erditik ordubetera murriztu da, gutxi gorabehera; ugalketarekin lotutako lanetan, 3 ordu eta 17 minututik 2 ordu eta 41 minutura; beraz, aldea oraindik ere egunean bi ordu eta erdi baino gehiagokoa da.

**5.19. TAULA.** Partaide bakoitzaren batez besteko denboran dagoen generoen arteko aldearen bilakaera. 1993-2008

| | 1993 | 1998 | 2003 | 2008 |
|---|---|---|---|---|
| Behar fisiologikoak | 0:03 | 0:34 | -0:03 | -0:05 |
| Lana eta prestakuntza | -1:39 | -1:26 | -0:57 | -1:04 |
| Ugalketarekin lotutako lana guztira | 3:17 | 2:36 | 2:43 | 2:41 |
| Aisialdia guztira | -1:32 | -1:41 | -0:56 | -0:34 |
| Ibilbideak | -0:00 | -0:05 | -0:03 | -0:13 |

*Iturria*: Eustat. Denboraren Erabilera Sozialari buruzko Inkesta.

## GUZTION ERANTZUKIZUNA OINARRI HARTUTA BATERATZEA 5.2

Berdintasunerako V. Planean jasota dago beharrezkoa dela Estatuak eta merkatuak erantzukizuna hartzea, eremu pribatuan guztiek beren erantzukizunak beren gain hartzea sustatzeko, bai emakumeek bai gizonek aukera izan dezaten berdintasun-egoeran ekoizpen-lana zein ugalketarekin lotutako lana egiteko. Hain zuzen, ugalketarekin lotutako lanaren oinarrizko ezaugarri bat merkatutik kanpo egotea da. Ezaugarri hori dela eta, lan mota hori ikusezin bihurtu da, eta, beraz, ez da balioesten.

Eustatek 1993. urtetik ditu Etxeko Ekoizpenaren Kontu Sateliteak. Kontu horien helburua etxeetan egindako ekoizpen-jardueren ikuspegi orokorra ematea da. Hala, merkatu-balio bat ematen zaie halako jarduerei, kontuan hartuta soldatako langile batek egin ditzakeen jarduerak direla, baina etxeetan egiten direla, inolako ordainsaririk jaso gabe. Hurrengo taulan azaltzen denez, etxeko ekoizpen gehiena Kontuen Europar Sistematik (KES) kanpo geratzen da, eta, beraz, ez da zenbatzen herrialde jakin bateko ekonomiaren ekoizpena baloratzean. Oro har, Kontuen Europar Sisteman zenbatzen ez den ekoizpen-lana, etxeko lanei dagokienez, murriztuz joan da, merkatuaren zati batek zeregin horiek bere gain hartzearekin batera.

**5.20. TAULA.** KESen aintzat hartzen ez den ekoizpenaren balorazioa. EAE. 1993-2008

| | 1993 | 1998 | 2003 | 2008 |
|---|---|---|---|---|
| Etxeko ekoizpena guztira | 13.429.045 | 15.893.777 | 18.469.876 | 24.974.759 |
| KES | 1.687.908 | 2.501.622 | 2.832.093 | 5.332.528 |
| % | 12,6 | 15,7 | 15,3 | 21,4 |
| Ez KES (guztira) | 11.741.137 | 13.392.155 | 15.637.783 | 19.642.231 |
| % | 87,4 | 84,3 | 84,7 | 78,6 |

*Iturria*: Eustat. Etxeko Ekoizpenaren Kontu Sateliteak.

Zeregin horiek ez dira merkatuan sartzen, baina haiek egin ezean ezinezkoa izango litzateke gizarteari eustea; zeregin horien ia % 72 emakumeek egiten dute, gizonek baino askoz gehiago, beraz. Etxeko ekoizpen-jarduerak honela sailka daitezke: ostatu ematea, zaintza eta heziketa, janaria eta arropa. Gizonen ekoizpena emakumeena baino handiagoa da soilik jarduera hauetan: ostatu emateko kudeaketak eta mantentze-lanak. Zeregin gehienetan, emakumeak aritzen dira batez ere (% 60tik gora): garbiketan, ondasun iraunkorrak erosten, konponketetan, zaintza eta heziketan, janaria prestatzen, eguneroko erosketetan, erosketak egiteko ibilbideetan, arropa erosten, askotariko erosketak egiten, arropa lortzeko ibilbideetan. Generoen arteko alderik handiena arroparen kudeaketan dago; izan ere, gizonezkoen parte-hartzea oso txikia da: % 12 soilik.

### 5.21. TAULA. KESen aintzat hartzen ez den etxeko ekoizpenaren balorazioa, funtzioen arabera. 2008

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % H | ABS. | % H |
| **Ostatu ematea** | **5.904.367** | **4.068.750** | **68,9** | **1.835.617** | **31,1** |
| Kudeaketak | 161.779 | 59.599 | 36,8 | 102.180 | 63,2 |
| Erdi-aisiakoak | 1.744.915 | 904.775 | 51,9 | 840.140 | 48,1 |
| Ibilbideak | 96.956 | 48.119 | 49,6 | 48.837 | 50,4 |
| Garbiketa | 3.223.512 | 2.640.055 | 81,9 | 583.457 | 18,1 |
| Mantentze-zerbitzuak | 29.556 | 0 | 0,0 | 29.556 | 100,0 |
| Beste konponketa batzuk | 553.816 | 348.944 | 63,0 | 204.872 | 37,0 |
| Ondasun iraunkorrak erostea | 93.833 | 67.258 | 71,7 | 26.575 | 28,3 |
| **Zaintzea eta heziketa ematea** | **3.033.404** | **2.076.797** | **68,5** | **956.607** | **31,5** |
| Zainketak eta heziketa | 2.461.221 | 1.738.689 | 70,6 | 722.532 | 29,4 |
| Ibilbideak | 572.183 | 338.108 | 59,1 | 234.075 | 40,9 |
| **Janaria ematea** | **8.602.259** | **6.202.620** | **72,1** | **2.399.639** | **27,9** |
| Janaria prestatzea | 6.361.255 | 4.754.086 | 74,7 | 1.607.169 | 25,3 |
| Eguneroko erosketak | 1.624.736 | 1.050.192 | 64,6 | 574.544 | 35,4 |
| Ibilbideak | 616.268 | 398.342 | 64,6 | 217.926 | 35,4 |
| **Arropa ematea** | **1.733.618** | **1.524.774** | **88,0** | **208.844** | **12,0** |
| Arropak | 1.430.567 | 1.281.587 | 89,6 | 148.980 | 10,4 |
| Askotariko erosketak | 219.712 | 176.311 | 80,2 | 43.401 | 19,8 |
| Ibilbideak | 83.339 | 66.876 | 80,2 | 16.463 | 19,8 |
| Norberaren azken erabilerarako ekoizpena GUZTIRA | 19.273.648 | 13.872.941 | 72,0 | 5.400.707 | 28,0 |
| Auzo-laguntza | 39.782 | 6.417 | 16,1 | 16.130 | 40,5 |
| ETXEKO EKOIZPENA GUZTIRA | **19.313.430** | **13.879.358** | **71,9** | **5.416.837** | **28,0** |

*Iturria*: Eustat. Etxeko Ekoizpenaren Kontu Sateliteak.

Etxeko ekoizpenaren barneko zereginen artean, janaria prestatzea da nagusia: ekoizpenaren % 4 4 horri dagokio, bai emakumeen bai gizonen kasuan; horren hurrengoa ostatu ematea da. Ostatu emateko zeregin horrekin lotuta, emakumeen kasuan etxearen garbiketa da ekoizpen nagusietako bat: ekoizpenaren % 64,9, hain zuzen; gizonen kasuan, erdiaisiako jarduerak dira nagusi kategoria horretan.

## 5.22. TAULA. KESen aintzat hartzen ez den ekoizpenaren balorazioa. EAE. 2008

| | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|
| | ABS. | % B | ABS. | % B |
| **Ostatu ematea** | **4.068.750** | **29,3** | **1.835.617** | **33,9** |
| Kudeaketak | 59.599 | 1,5 | 102.180 | 5,6 |
| Erdi-aisiakoak | 904.775 | 22,2 | 840.140 | 45,8 |
| Ibilbideak | 48.119 | 1,2 | 48.837 | 2,7 |
| Garbiketa | 2.640.055 | 64,9 | 583.457 | 31,8 |
| Mantentze-zerbitzuak | 0 | 0,0 | 29.556 | 1,6 |
| Beste konponketa batzuk | 348.944 | 8,6 | 204.872 | 11,2 |
| Ondasun iraunkorrak erostea | 67.258 | 1,7 | 26.575 | 1,4 |
| **Zaintzea eta heziketa ematea** | **2.076.797** | **15,0** | **956.607** | **17,7** |
| Zainketak eta heziketa | 1.738.689 | 83,7 | 722.532 | 75,5 |
| Ibilbideak | 338.108 | 16,3 | 234.075 | 24,5 |
| **Janaria ematea** | **6.202.620** | **44,7** | **2.399.639** | **44,3** |
| Janaria prestatzea | 4.754.086 | 76,6 | 1.607.169 | 67,0 |
| Eguneroko erosketak | 1.050.192 | 16,9 | 574.544 | 23,9 |
| Ibilbideak | 398.342 | 6,4 | 217.926 | 9,1 |
| **Arropa ematea** | **1.524.774** | **11,0** | **208.844** | **3,9** |
| Arropak | 1.281.587 | 84,1 | 148.980 | 71,3 |
| Askotariko erosketak | 176.311 | 11,6 | 43.401 | 20,8 |
| Ibilbideak | 66.876 | 4,4 | 16.463 | 7,9 |
| **Auzo-laguntza** | **6.417** | **0,0** | **16.130** | **0,0** |
| ETXEKO EKOIZPENA GUZTIRA | 13.879.358 | 100,0 | 5.416.837 | 100,0 |

*Iturria*: Eustat. Etxeko Ekoizpenaren Kontu Sateliteak.

Lurralde historikoen arabera, datu horiek antzekoak dira. Batik bat emakumeek hartzen dute beren gain etxeko ekoizpenaren ardura, ehunekoek adierazten dutenez: % 70,8 Bizkaian, % 72,3 Araban, eta % 73,6 Gipuzkoan. Ostatu ematea da jarduera nagusia etxeko ekoizpenaren barnean, baina badira aldeak lurralde historikoen arabera: Araban, emakumeek % 73,5 ekoizten dute, eta Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, gutxiago: % 68. Ostatu ematearen kategoriaren barneko zereginen artean, garbiketan argi eta garbi da handiagoa emakumeen jarduna: % 85,8 Araban, eta % 81 Bizkaian eta Gipuzkoan.

## 5.23 TAULA. KESen aintzat hartzen ez den ekoizpenaren balorazioa, funtzioen eta lurralde historikoen arabera. 2008

| | ARABA | | BIZKAIA | | GIPUZKOA | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | % E | GUZTIRA | % E | GUZTIRA | % E |
| **Ostatu ematea** | **710.775** | **73,5** | **3.267.936** | **68,0** | **1.925.656** | **68,8** |
| Kudeaketak | 21.873 | 30,5 | 96.507 | 39,1 | 43.399 | 35,0 |
| Erdi-aisiakoak | 186.718 | 54,7 | 1.067.434 | 52,2 | 490.763 | 50,0 |
| Ibilbideak | 17.022 | 51,4 | 54.095 | 53,2 | 25.839 | 40,9 |
| Garbiketa | 421.439 | 85,8 | 1.647.866 | 81,1 | 1.154.207 | 81,6 |
| Mantentze-zerbitzuak | | | 19.898 | | 9.658 | |
| Beste konponketa batzuk | 40.718 | 65,1 | 336.028 | 66,4 | 177.070 | 56,0 |
| Ondasun iraunkorrak erostea | 23.005 | 71,4 | 46.108 | 82,8 | 24.720 | 51,2 |
| **Zaintzea eta heziketa ematea** | **395.487** | **71,5** | **1.697.309** | **64,6** | **940.608** | **74,1** |
| Zainketak eta heziketa | 322.369 | 75,1 | 1.456.248 | 65,5 | 682.604 | 79,6 |
| Ibilbideak | 73.118 | 55,6 | 241.061 | 59,4 | 258.004 | 59,8 |
| **Janaria ematea** | **1.124.136** | **69,5** | **4.983.176** | **71,4** | **2.494.947** | **74,6** |
| Janaria prestatzea | 852.169 | 70,7 | 3.667.562 | 74,4 | 1.841.524 | 77,3 |
| Eguneroko erosketak | 197.177 | 65,9 | 953.825 | 63,2 | 473.734 | 67,0 |
| Ibilbideak | 74.790 | 65,9 | 361.789 | 63,2 | 179.689 | 67,0 |
| **Arropa ematea** | **160.110** | **89,1** | **988.456** | **89,3** | **585.052** | **85,3** |
| Arropak | 129.813 | 92,4 | 844.324 | 89,4 | 456.430 | 89,1 |
| Askotariko erosketak | 21.965 | 74,8 | 104.496 | 88,8 | 93.251 | 71,9 |
| Ibilbideak | 8.332 | 74,7 | 39.636 | 88,8 | 35.371 | 71,9 |
| Norberaren azken erabilerarako ekoizpena guztira | 2.390.508 | 72,3 | 10.936.877 | 71,0 | 5.946.263 | 73,7 |
| **Auzo-laguntza** | - | | **26.102** | | **13.680** | |
| ETXEKO EKOIZPENA GUZTIRA | 2.390.508 | 72,3 | 10.962.979 | 70,8 | 5.959.943 | 73,6 |

*Iturria*: Eustat. Etxeko Ekoizpenaren Kontu Sateliteak.

Emakumeek etxeko ekoizpenean beren gain hartutako karga murriztuz joan da azken 15 urteetan: lehen ia % 80 zen, eta gaur egun ia % 72. Emakumeen kargaren murrizketa nabarmenagoa izan da jarduera jakin batzuetan: hain zuzen, ostatua eta janaria ematekoetan, emakumeen parte-hartzea 10 puntu murriztu baita. Aldiz, arroparekin lotutako kargak ia erabat daude emakumeen gain: 2008an, esparru horretako ekoizpenaren % 88 emakumeei zegokien.

## 5.24 TAULA. Emakumeen etxeko ekoizpenaren ehunekoaren bilakaera. 1993-2008

| | 1993 | 1998 | 2003 | 2008 |
|---|---|---|---|---|
| **Ostatu ematea** | **75,3** | **70,0** | **68,7** | **68,9** |
| Kudeaketak | 47,9 | 26,1 | 41,8 | 36,8 |
| Erdi-aisiakoak | 58,4 | 51,7 | 49,3 | 51,9 |
| Ibilbideak | 51,6 | 46,2 | 54,1 | 49,6 |
| Garbiketa | 90,1 | 85,9 | 85,5 | 81,9 |
| Mantentze-zerbitzuak | | 18,6 | 14,0 | |
| Beste konponketa batzuk | 46,8 | 56,2 | 57,7 | 63,0 |
| Ondasun iraunkorrak erostea | 59,6 | 65,5 | 69,4 | 71,7 |
| **Zaintzea eta heziketa ematea** | **70,1** | **64,0** | **71,0** | **68,5** |
| Zainketak eta heziketa | 71,6 | 66,1 | 71,9 | 70,6 |
| Ibilbideak (zainketak eta heziketa) | 65,2 | 55,4 | 67,6 | 59,1 |
| **Janaria ematea** | **82,9** | **77,9** | **78,8** | **72,1** |
| Janaria prestatzea | 86,1 | 80,7 | 82,4 | 74,7 |
| Eguneroko erosketak (janaria) | 76,0 | 71,4 | 71,0 | 64,6 |
| Ibilbideak (janaria) | 76,0 | 71,4 | 71,0 | 64,6 |
| **Arropa ematea** | **89,9** | **89,7** | **86,5** | **88,0** |
| Arropak | 94,2 | 92,3 | 90,5 | 89,6 |
| Askotariko erosketak (arropa) | 62,8 | 72,1 | 67,1 | 80,2 |
| Ibilbideak (arropa) | 62,8 | 72,1 | 67,1 | 80,2 |
| **Auzo-laguntza** | **67,5** | **57,7** | **65,8** | **16,1** |
| ETXEKO EKOIZPENA GUZTIRA | 79,3 | 74,4 | 75,2 | 71,9 |

*Iturria*: Eustat. Etxeko Ekoizpenaren Kontu Sateliteak.

# 6

# EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planak gogorarazten duenez, *"emakumeen aurkako indarkeria gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunaren adierazlerik larrienetako bat da"*. Hain zuzen ere, plan horrek esku hartzeko hiru ardatz nagusi ditu, eta haietako bat emakumeen aurkako indarkeria da; beste biak, emakumeen ahalduntzea eta guztion erantzukizunean oinarritutako gizarte-antolamendua. Plan horrek bi programa ditu emakumeen aurkako indarkeriaren arazoan esku hartzeko, alderdi hauek oinarri dituztenak: batetik, sentsibilizazioa areagotzea eta prebentzioa hobetzea, eta bestetik, emakumeei arreta eta babesa bermatzea.

Emakumeen aurkako indarkeria zehatz definitu da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean, 50. artikuluan: *"sexu-arrazoiengatiko edozein ekintza bortitz joko da emakumeen aurkako indarkeriatzat, ekintza horrek emakumeari kalte fisiko, sexual zein psikologikoa edo sufrimendua ekartzen dionean edo ekar diezaiokeenean, barnean hartuta emakumea ekintza horiek egitearekin mehatxatzea, hertsatzea nahiz askatasuna arbitrarioki kentzea, bizitza publikoan edo pribatuan".*

Atal honetan bildutako emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datuak Emakunderen *Emakumeen aurkako indarkeria* txostenetik hartu ditugu, eta Estatuko Emakumearen Erakundeak egindako estatistikekin osatu. Nolanahi ere, gogoratu beharra dago, berriro ere, adierazle kuantitatiboen bidez gai horretara hurbiltzeak, ezinbestekoa izan arren, ez duela gaiaren benetako eraginaren zati txiki bat besterik azaltzen. Hala, datu horiek ezagutaraztea oso garrantzitsua bada ere, azpimarratu behar dugu indarkeria-egoerak salatzen dituzten emakumeak gero eta gehiago badira ere, kasurik gehienak oraindik ere eremu pribatuan geratzen direla. Hortaz, zuhurtziaz interpretatu behar dira jarraian emango ditugun datuak.

## TRATU TXARREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEAK 6.1

Indarkeria-mota hori jasaten duten emakumeei buruzko estatistiken iturri nagusia egindako salaketak dira. Gai horri buruz Estatuko Emakumearen Erakundeak jasotako azken datuak 2007koak dira; horregatik, ez dira txosten honetan jaso. Laburbilduz, esan daiteke data horretara bitartean jasotako estatistikek egiaztatzen dutela bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako tratu txarren salaketak areagotu egin direla Estatuan.

EAEri dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak emakumeen aurkako indarkeriari buruz egindako estatistikak biktimizazio kontzeptua erabiltzen du. Biktimizazioak indarkeriazko gertaerak izan diren aldi eta kasu guztiak dira, batzuetan indarkeria pairatu duen biktima pertsona bera izan daitekeela alde batera utzita. Bereizketa horren bidez agerian jarri nahi da egoera jakin batzuetan pertsona berak hainbat indarkeria-egoera pairatzen dituela.

2009. urtean, 4.859 delitu- eta hutsegite-salaketa jarri ziren EAEn, emakumeen aurkako indarkeria-gertaerengatik eta tratu txarrengatik. Zenbateko horrek agerian uzten du adierazle horrek gora egin duela azken urteotan.

**6.1. GRAFIKOA.** Emakumeen aurkako indarkeriagatiko biktimizazioen bilakaera EAEn. 2002-2009




*Iturria*: *Emakumeen aurkako indarkeria* txostena, 2009ko martxoa, Emakunde.

**6.1. TAULA.** Emakumeen aurkako indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioen bilakaera, lurralde historikoen arabera. 2002-2009

| | 2002 | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| GUZTIRA | 2.477 | 2.896 | 3.242 | 3.814 | 3.957 | 4.477 | 4.717 | 4.859 |
| Araba | 386 | 458 | 518 | 632 | 583 | 711 | 685 | 691 |
| Bizkaia | 1.476 | 1.670 | 1.880 | 2.209 | 2.368 | 2.567 | 2.723 | 2.776 |
| Gipuzkoa | 615 | 768 | 844 | 973 | 1.006 | 1.199 | 1.309 | 1.392 |

*Iturria*: *Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak EAEn* txostena. 2009.

EAEn, gertaera horiek salatzen dituzten emakumeek jasandako indarkeriazko egoerak eta tratu txarren gertaerak familia-eremuan edo biktimaren hurbileko ingurunean gertatzen dira gehien. Are gehiago, kasu gehienetan, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragiten ditu halako gertaerak eta egoerak.

**6.2. TAULA.** Emakumeen aurkako indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioak EAEn, gertaera-moten eta lurralde historikoen arabera. 2009. Ehuneko bertikalak

| | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | GUZTIRA | % |
|---|---|---|---|---|---|
| Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria | 516 | 1.967 | 1.007 | 3.490 | 71,8 |
| Familia barneko indarkeria | 139 | 665 | 295 | 1.099 | 22,6 |
| Sexu-askatasunaren aurkako erasoak | 36 | 144 | 90 | 270 | 5,6 |
| GUZTIRA | 691 | 2.776 | 1.392 | 4.859 | 100,0 |

*Iturria*: *Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak EAEn* txostena, 2009

## 6.3. TAULA. Emakumeen aurkako indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioak EAEn, lurralde historikoen eta eragilearekiko harremanaren arabera. 2009

| BIKTIMAK ERAGILEAREKIN DUEN HARREMANA | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|
| Ezkontidea | 123 | 472 | 255 | 850 |
| Ezkontide ohia | 77 | 357 | 176 | 610 |
| Bikotekidea | 142 | 508 | 249 | 899 |
| Bikotekide ohia | 157 | 562 | 285 | 1.004 |
| Neskalaguna | 8 | 32 | 21 | 61 |
| Neskalagun ohia | 9 | 36 | 21 | 66 |
| Bikotekideak/bikotekide ohiak eragindako indarkeria GUZTIRA | 516 | 1.967 | 1.007 | 3.490 |

*Iturria*: *Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak EAEn* txostena, 2009.

Gertaera-motei dagokienez, berriz, aurreko urteetako joerei eusten zaie: 2009an erregistratutako biktimizazio gehienak delitu gisa tipifikatu ziren: hain zuzen, 3.209; eta 281 soilik izan ziren hutsegiteak. Delituen artean, kasuen erdiak baino gehiago torturatzat edo osotasun fisikoaren aurkako delitutzat jo ziren; zehazki, familia-eremuan eragindako ohiko tratu txartzat.

## 6.4. TAULA. Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako emakumeen aurkako indarkeriagatiko biktimizazioak EAEn, gertaera-motaren eta gertatutako lurralde historikoaren arabera. 2009

| ARAU-HAUSTEEN MOTAK | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | GUZTIRA | % |
|---|---|---|---|---|---|
| **Gizahilketa eta haren motak:** | **0** | **1** | **2** | **3** | **0,1** |
| Gizahilketa-/erailketa-saiakuntza | 0 | 0 | 1 | 1 | |
| Gizahilketa/erailketa burutua | 0 | 1 | 1 | 2 | |
| **Lesioak:** | **100** | **180** | **66** | **346** | **9,9** |
| Zuhurtziagabekeriagatik eragindako lesioak | 1 | 0 | 0 | 1 | |
| Tratu txarrak familia-eremuan | 92 | 161 | 57 | 310 | |
| Lesioak | 7 | 19 | 9 | 35 | |
| **Askatasunaren aurkakoak:** | **21** | **59** | **20** | **100** | **2,9** |
| Mehatxuak | 17 | 45 | 16 | 78 | |
| Hertsapenak | 4 | 14 | 4 | 22 | |
| **Tortura eta osotasun fisikoaren aurkakoak** | **286** | **1.227** | **633** | **2.146** | **61,5** |
| **Intimitatearen eta nork bere irudia izateko eskubidearen aurkakoak eta abar** | **0** | **2** | **0** | **2** | **0,1** |
| **Sexu-askatasunaren aurkakoak:** | **2** | **7** | **5** | **14** | **0,4** |
| Sexu-erasoa | 2 | 6 | 4 | 12 | |
| Sexu-gehiegikeria | 0 | 1 | 1 | 2 | |
| Ohorearen aurkakoak: | 1 | 3 | 0 | 4 | 0,1 |
| Kalumniak | 0 | 2 | 0 | 2 | |
| Irainak | 1 | 1 | 0 | 2 | |
| **Familia-harremanen aurkakoak:** | **6** | **37** | **22** | **65** | **1,9** |
| Zaindu beharra ez betetzea | 0 | 11 | 6 | 17 | |
| Adingabea etxea uztera bultzatzea | 1 | 1 | 0 | 2 | |
| Adingabea zainketa-araubidea haustera bultzatzea | 0 | 0 | 1 | 1 | |
| Adingabea bahitzea | 0 | 1 | 0 | 1 | |
| Familia uztea | 2 | 6 | 3 | 11 | |
| Prestazio ekonomikoak ez ordaintzea | 3 | 18 | 12 | 33 | |
| **Justizia Administrazioaren aurkakoak** | **72** | **277** | **180** | **529** | **15,2** |
| DELITUAK GUZTIRA | 488 | 1.793 | 928 | 3.209 | 91,9 |

**6.4. TAULA.** Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako emakumeen aurkako indarkeriagatiko biktimizazioak EAEn, gertaera-motaren eta gertatutako lurralde historikoaren arabera. 2009. (jarraipena)

| ARAU-HAUSTEEN MOTAK. | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | GUZTIRA | % |
|---|---|---|---|---|---|
| **Pertsonen aurkako hutsegiteak:** | 28 | 173 | 79 | 280 | 8,0 |
| Iseka-hutsegitea | 2 | 3 | 3 | 8 | |
| Mehatxu-hutsegitea | 2 | 13 | 5 | 20 | |
| Hertsapen-hutsegitea | 3 | 9 | 5 | 17 | |
| Irain-hutsegitea | 1 | 6 | 2 | 9 | |
| Sorospen-eginbeharra ez betetzeagatiko hutsegitea | 0 | 1 | 0 | 1 | |
| Gurasoek adingabearen zainketa ez betetzeagatiko hutsegitea | 10 | 44 | 15 | 69 | |
| Dibortzioan hitzarmen/ebazpen judiziala ez betetzeagatiko hutsegitea | 10 | 97 | 49 | 156 | |
| **Ordena publikoaren aurkako hutsegiteak** | 0 | 1 | 0 | 1 | 0,0 |
| HUTSEGITEAK GUZTIRA | 28 | 174 | 79 | 281 | 8,1 |
| GUZTIRA | 516 | 1.967 | 1.007 | 3.490 | 100,0 |

*Iturria*: *Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak EAEn* txostena, 2009.

## EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ONDORIOAK

# 6.2

Emakumeen aurkako indarkeriak oso ondorio larriak ditu emakumeen osasunean eta bizitzan, eta ondorio horiek nekez neur daitezke adierazle kuantitatiboen bidez soilik. Estatistikek gertaera-motei buruzko informazioa eta osasunean duten eraginari buruzkoa jasotzen dute (batik bat, alderdi fisikoan), bai eta heriotza eragiten duten indarkeriazko muturreko kasuei buruzkoa ere.

Datuak dituzten herrialde gehienetan, indarkeria sexistak emakumeen heriotza eragiten du. Estatuan, azken urteotan, berrogeita hamar emakume baino gehiago hil dira urtero, beren bikotekideak edo bikotekide ohiak eraginda. Milioi emakumeko tasa nahiko egonkorra izan da Estatuan azken urteetan: 2000. urtean, 3,05ekoa zen, eta 2008an, 3,22koa; azken urtean, apur bat murriztu da: 2,36. EAEn, ia aldi guztietan, intzidentzia-tasa Estatuko gainerako erkidegoetakoa baino txikiagoa izan da; nolanahi ere, bilakaera askoz aldakorragoa izan da. Hain zuzen, 2009ko tasa (1,80) aurreko urtekoa baino (2,72) askoz baxuagoa da; baina unerik gorena 2004an izan zen: urte horretan, 3,71ko tasa izan zen, Estatuko batez bestekoa baino altuagoa.

**6.2. GRAFIKOA.** Bikotekideak edo bikotekide ohiak hildako emakume-kopuruaren bilakaera, Estatuan eta EAEn. Milioi emakumeko tasa. 2000-2009




*Iturria*: Geuk moldatua, Emakumearen Erakundeak emandako datuetan oinarrituta.

Gobernuz Kanpoko Erakundeek askotan jarri izan dituzte zalantzan bikotekideek edo bikotekide ohiek eraildako emakumeei buruzko datu ofizialak. Erakunde horiek, askotan, beren estatistikak egiten dituzte, komunikabideetako albisteetan oinarrituta edo haiek egiaztatuta, batik bat. Hauek dira, besteak beste, datuak bat ez etortzearen arrazoiak: batetik, polizia autonomikoa duten erkidegoetan bi kontabilitate izaten direla, eta, bestetik, estatistika batzuek ez dutela kontuan hartzen delitua gertatu eta egun batzuetara hiltzen diren emakumeen kopurua. Halakoak gertatzen direla ohartuta, Emakumearen Erakundeak ere zenbaketa egiten du; kopuru horiek bat etortzen ez direnez Barne Ministerioak ematen dituenekin, bere estatistika egin izan du 2000. urteaz geroztik.

Erakunde horren datuen arabera, 2009an 55 emakume hil ziren Estatu osoan beren bikotekideak edo bikotekide ohiak eraginda; hau da, aurreko urtean baino hogeita bat emakume gutxiago. 2009. urtean, autonomia-erkidego hauetan hil zen emakume gehien arrazoi horrek eraginda (aurreko urteetako joerarekin bat): Andaluzian (14 emakume), Madrilen (11 emakume), Katalunian (10 emakume) eta Valentziako Erkidegoan (9 emakume). Euskal Autonomia Erkidegoan, iturri beraren arabera, bi emakume hil ziren arrazoi horrengatik; horrenbestez, erdibidean dago eraildako emakume-kopuruaren araberako autonomia-erkidegoen zerrendan.

**6.5. TAULA.** Bikotekideak edo bikotekide ohiak erraildako emakume-kopurua, autonomia-erkidegoen arabera. 1999-2009

| | 1999 | 2000 | 2001 | 2002 | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Andaluzia | 13 | 10 | 12 | 10 | 13 | 19 | 9 | 20 | 8 | 9 | 14 |
| Aragoi | 0 | 0 | 1 | 3 | 2 | 2 | 4 | 1 | 2 | 1 | 0 |
| Asturias | 1 | 0 | 2 | 0 | 2 | 0 | 1 | 3 | 2 | 1 | 0 |
| Balearrak | 3 | 1 | 2 | 4 | 4 | 2 | 4 | 3 | 1 | 1 | 1 |
| Kanariak | 2 | 5 | 5 | 7 | 6 | 2 | 6 | 4 | 6 | 5 | 5 |
| Kantabria | 1 | 0 | 0 | 0 | 1 | 2 | 0 | 0 | 2 | 0 | 0 |
| Gaztela-Mantxa | 5 | 3 | 2 | 0 | 2 | 4 | 2 | 4 | 5 | 3 | 1 |
| Gaztela eta Leon | 3 | 3 | 1 | 4 | 4 | 2 | 4 | 3 | 3 | 6 | 1 |
| Katalunia | 9 | 8 | 7 | 7 | 12 | 11 | 8 | 10 | 11 | 10 | 10 |
| Valentziako Erk. | 6 | 7 | 9 | 9 | 7 | 9 | 6 | 8 | 10 | 10 | 9 |
| Extremadura | 1 | 1 | 0 | 1 | 1 | 2 | 0 | 1 | 0 | 0 | 1 |
| Galizia | 2 | 4 | 0 | 3 | 5 | 2 | 1 | 0 | 6 | 7 | 3 |
| Madril | 4 | 17 | 6 | 4 | 5 | 5 | 4 | 5 | 9 | 11 | 5 |
| Murtzia | 1 | 1 | 2 | 0 | 3 | 4 | 2 | 3 | 2 | 4 | 2 |
| Nafarroa | 1 | 1 | 0 | 1 | 1 | 1 | 2 | 0 | 1 | 3 | 0 |
| **Euskadi** | **1** | **2** | **1** | **1** | **0** | **4** | **3** | **3** | **2** | **3** | **2** |
| Errioxa | 1 | 0 | 0 | 0 | 2 | 1 | 0 | 0 | 0 | 2 | 0 |
| Ceuta | 0 | 0 | 0 | 0 | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 1 |
| Melilla | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 1 | 0 | 1 | 0 | 0 |
| GUZTIRA | 54 | 63 | 50 | 54 | 71 | 72 | 57 | 68 | 71 | 76 | 55 |

*Iturria*: Emakumearen Erakundea.

Datu absolutuak direnez, ez dute modu fidagarrian biltzen fenomeno horrek autonomia-erkidegoetan duen eragina, ez baitira haietako biztanleria-desberdintasunak kontuan hartu. Milioi emakumeko hildako emakumeen tasa aztertuta, ordea, autonomia-erkidegoen arteko alderaketaren bidez lotutako ikuspegia ez bezalako bat jartzen da agerian. 2009an, autonomia-erkidego hauek izan zituzten tasarik altuenak: Ceuta (25,94), Kanariak (4,76), Valentziako Erkidegoa (3,52) eta Andaluzia (3,34). EAE, tasa horri dagokionez, erdibidean dago autonomia-erkidegoen artean: 1,8ko tasa du.

**6.6. TAULA.** Bikotekideak edo bikotekide ohiak erraildako emakume-kopurua, autonomia-erkidegoen arabera. Milioi emakumeko tasa. 1999-2009

| | 1999 | 2000 | 2001 | 2002 | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Andaluzia | 3,50 | 2,68 | 3,19 | 2,64 | 3,38 | 4,89 | 2,27 | 4,98 | 1,97 | 2,18 | 3,34 |
| Aragoi | 0,00 | 0,00 | 1,65 | 4,88 | 3,23 | 3,18 | 6,28 | 1,56 | 3,08 | 1,51 | 0,00 |
| Asturias | 1,77 | 0,00 | 3,58 | 0,00 | 3,58 | 0,00 | 1,78 | 5,35 | 3,57 | 1,78 | 0,00 |
| Balearrak | 7,22 | 2,34 | 4,53 | 8,72 | 8,45 | 4,19 | 8,16 | 6,01 | 1,95 | 1,88 | 1,84 |
| Kanariak | 2,38 | 5,80 | 5,61 | 7,61 | 6,35 | 2,09 | 6,07 | 4,02 | 5,94 | 4,83 | 4,76 |
| Kantabria | 3,69 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 3,55 | 7,05 | 0,00 | 0,00 | 6,84 | 0,00 | 0,00 |
| Gaztela-Mantxa | 5,75 | 3,43 | 2,27 | 0,00 | 2,20 | 4,33 | 1,57 | 4,16 | 3,91 | 2,97 | 0,97 |
| Gaztela eta Leon | 2,38 | 2,39 | 0,80 | 3,18 | 3,18 | 1,58 | 4,24 | 2,35 | 3,06 | 4,66 | 0,77 |
| Katalunia | 2,83 | 2,50 | 2,16 | 2,12 | 3,54 | 3,19 | 2,27 | 2,78 | 3,03 | 2,70 | 2,66 |
| Valentziako Erk. | 2,89 | 3,33 | 4,21 | 4,11 | 3,10 | 3,93 | 2,97 | 3,32 | 4,08 | 3,97 | 3,52 |
| Extremadura | 1,85 | 1,86 | 0,00 | 1,85 | 1,85 | 3,70 | 0,00 | 1,83 | 0,00 | 0,00 | 1,80 |
| Galizia | 1,41 | 2,82 | 0,00 | 2,11 | 3,50 | 1,40 | 0,70 | 0,00 | 4,18 | 4,86 | 2,07 |
| Madril | 1,50 | 6,29 | 2,15 | 1,40 | 1,69 | 1,67 | 1,30 | 1,61 | 2,87 | 3,40 | 1,52 |
| Murtzia | 1,75 | 1,73 | 3,36 | 0,00 | 4,77 | 6,22 | 3,04 | 4,46 | 2,92 | 5,69 | 2,80 |
| Nafarroa | 3,69 | 3,65 | 0,00 | 3,51 | 3,46 | 3,42 | 6,74 | 0,00 | 3,29 | 9,67 | 0,00 |
| **Euskadi** | **0,93** | **1,87** | **0,93** | **0,93** | **0,00** | **3,71** | **2,77** | **2,75** | **1,83** | **2,72** | **1,80** |
| Errioxa | 7,48 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 13,95 | 6,83 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 12,73 | 0,00 |
| Ceuta | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 27,37 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 25,94 |
| Melilla | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 31,09 | 0,00 | 29,21 | 0,00 | 0,00 |
| GUZTIRA | 2,63 | 3,05 | 2,39 | 2,54 | 3,27 | 3,29 | 2,60 | 3,01 | 3,11 | 3,26 | 2,36 |

*Iturria*: Emakumearen Erakundea.

Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak egindako estatistikek ere datu horiek berresten dituzte: 2009an EAEn indarkeriaren edo tratu txarren ondorioz bi emakume hil zirela jasotzen dute.

**6.7. TAULA.** Genero-indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioak EAEn, kaltegarritasun-mailaren eta lurralde historikoen arabera. 2009

| KALTEGARRITASUN-MAILA | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|
| Hila | 0 | 1 | 1 | 2 |
| Larri zauritua | 5 | 16 | 5 | 26 |
| Arin zauritua | 190 | 797 | 416 | 1.403 |
| Kalterik gabea | 438 | 1.734 | 889 | 3.061 |
| Ez dakigu | 58 | 228 | 81 | 367 |
| GUZTIRA | 691 | 2.776 | 1.392 | 4.859 |

*Iturria*: *Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak EAEn* txostena, 2009.

## SEXU-ASKATASUNAREN AURKAKO DELITUAK

# 6.3

Sexu-askatasunaren aurkako delituak dira emakumeen aurkako beste indarkeria-mota bat. Sexu-delitutzat hartzen diren jokabideen artean, bereizketa hau egiten da: batetik, sexu-erasoak (beste pertsona baten sexu-askatasunaren aurka indarkeriaz edo larderiaz egindako erasoak), eta bestetik, sexu-gehiegikeriak (sexu-askatasunaren aurkako ekintzak, indarkeriarik edo larderiarik gabe eta baimenik gabe egindakoak). Bi horiez gainera, delitu-mota horien artean beste jokabide batzuk ere sartzen dira; esaterako: sexu-jazarpena, exhibizionismoa eta sexu-probokazioa, bai eta prostituzioarekin, adingabeen pornografiarekin eta ustelkeriarekin zerikusia duten delituak ere.

Sexu-askatasunaren aurkako delituei buruzko estatistikak zuhurtziaz interpretatu behar dira. Izan ere, kontuan izan behar da delituzko jokabide eta ekintza horiek ez direla beti salatzen, biktima diren pertsonen alderdi pertsonalei eta barne-barnekoei eragiten dietelako. Gai horri buruz Emakumearen Erakundeak jasotako azken datuak 2007koak dira; horregatik, ez dira txosten honetan jaso. Nolanahi ere, azken urteetako joerari erreparatuz, esan daiteke sexu-askatasunaren aurkako delituen erdiak baino gehiago sexu-erasoak izan direla, eta gutxiago, sexu-gehiegikeriak.

Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailaren datuen arabera, sexu-askatasunaren aurkako delituek antzeko joera izan dute azken urteetan EAEn; edonola ere, 2009an apur bat murriztu ziren, eta horrekin lotutako 270 salaketa jarri ziren.

**6.3. GRAFIKOA.** Sexu-askatasunaren aurkako delituengatiko emakumeen biktimizazioen bilakaera. 2002-2009




*Iturria*: Guk moldatua, txosten hauek oinarri hartuta: *Emakumeen aurkako indarkeria*, 2009ko martxoa, Emakunde; eta *Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak EAEn*, 2009.

Salaketa horiek lurraldez lurralde aztertuta, aurreko urteetako joerak jarraitzen du, eta salaketen erdiak baino gehiago Bizkaian izandako gertaerei buruzkoak dira. Delitu-motari dagokionez, gehienak sexu-erasoengatiko salaketak izan ziren: 125 salaketa; sexu-gehiegikeriengatik 88 salaketa jarri ziren, eta exhibizionismoagatik, 45 salaketa.

**6.8. TAULA.** Sexu-askatasunaren aurkako delituengatiko emakumeen biktimizazioen bilakaera, gertatutako lurraldearen arabera. 2002-2008

| | 2002 | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| GUZTIRA | 232 | 274 | 298 | 317 | 256 | 274 | 342 | 270 |
| Araba | 41 | 50 | 65 | 70 | 35 | 52 | 70 | 36 |
| Bizkaia | 119 | 136 | 152 | 181 | 152 | 138 | 175 | 144 |
| Gipuzkoa | 72 | 88 | 81 | 66 | 69 | 84 | 97 | 90 |

*Iturria*: *Emakumeen aurkako indarkeria* txostena, 2009ko martxoa, Emakunde.

**6.9. TAULA.** Sexu-askatasunaren aurkako delituengatiko emakumeen biktimizazioak EAEn, arau-hausteen moten eta lurralde historikoen arabera. 2009

| ARAU-HAUSTEEN MOTAK | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|
| Sexu-erasoa | 23 | 70 | 32 | 125 |
| Sexu-gehiegikeria | 8 | 53 | 27 | 88 |
| Sexu-jazarpena | 0 | 3 | 1 | 4 |
| Exhibizionismoa | 5 | 14 | 26 | 45 |
| Sexu-probokazioa | 0 | 1 | 0 | 1 |
| Adingabeen galaraztea | 0 | 2 | 2 | 4 |
| Prostituzioa | 0 | 0 | 2 | 2 |
| Adingabeen pornografia | 0 | 1 | 0 | 1 |
| GUZTIRA | 36 | 144 | 90 | 270 |

*Iturria*: *Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak EAEn* txostena, 2009.